


Euskaltzainak Bilduma

Argitaratuak:

1. *Gratien Adema*. Zaldubi Saindu batzuen biziaz. 2007
2. *Pierre Charriton*. Pierre Broussain. 2007
3. *Pierre Lhande*. Yolanda eta beste euskarazko idazlanak. 2007
4. *Gratien Adema*. Zaldubi Artzain beltzaren neurtitzak. 2008
5. *Antonio Arrue*. Idaztiak & Hitzaldiak. 2008
6. *Domingo Agirre*. Gutun bilduma. 2008
7. *Txomin Peillen Karrikaburu*. Biziazen hiztegiak. 2009
8. *Gorka Aulestia*. Estigmatizados por la guerra. 2009
9. *Jean-Louis Davant*. Zuberoako literaturaz. 2009
10. *Gratien Adema*. Zaldubi Kantikak. 2009
11. *Santiago Ezkerra Beltza*. Lizarrusti Bizitza eta lanak. 2009
12. *Gratien Adema*. Zaldubi Prediku Zenbait. 2009
13. *Martin Maister*. Jesü Kristen imitazioea. 2010
14. *Gorka Aulestia*. Escritores euskéricos contemporáneos. 2011
15. *Gratien Adema*. Zaldubi Alegiak eta bertze neurtitzak. 2011
16. *Gratien Adema*. Zaldubi Bertze prediku batzuk. 2011
17. *Junes Casenave-Harigile*. Xiberoko antzertia edo pastoral. 2011
18. *Txomin Peillen Karrikaburu*. Jon Mirande, olerkaria. 2012
19. *Jean-Louis Davant*. Antoine D'Abbadie, Abbadiaz. 2012
20. *Gratien Adema*. Zaldubi Gaineratekoen bilduma. 2012
21. *Ernest Daudet*. Amodioaren Martirra. 2013
22. *Jean-Baptiste Coyos*. Zubererazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri. 2013
23. *Pierre Charriton*. Le fondement moral des droits culturels de l'homme. (Kultura eskubideen oinarri etikoak) 2013
24. *P. Dourisboure*. Bahnar deitu Salbaiak. 2014
25. *Mongongo Dassanza*. Albaitaritzako idazlanak (1692-1892). 2014



Euskaltzainak izeneko bilduma berrian euskaltzain izan diren eta direnen obrak eta eurei buruzko azterketak argitaratuko dira, Akademiaren historiarako esanguratsu gertatu diren hainbat egileren lanak ere alboratu gabe.

Euskaltzaindia
Real Academia de la Lengua Vasca
Académie de la Langue Basque

Laguntzaileak:

MONGONGO
DASSANZA

ALBAITARITZAKO IDAZLANAK (1692-1892)


25

MONGONGO DASSANZA

ALBAITARITZAKO IDAZLANAK (1692-1892)

Argitalpenaren paratzailea:
Txomin Peillen Karrikaburu

EUSKALTZAINAK BILDUMA
EUSKALTZAINDIA



TXOMIN PEILLEN KARRIKABURU

Parisen sortu zen, 1932an. Gurasoak zuberotarrak zituen. Biologian lizentziatua. Letra eta Euskal Ikasketen doktorea. Paue eta Aturri Herrialdeetako Unibertsitatean irakasle izana, gaur egun irakasle katedradun emeritua da. Idazlea. Euskaltzain oso izendatua 1988ko apirilaren 29an eta euskaltzain emeritua 2007ko azaroaren 30etik. Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa batzordeko kidea da. Gaztetan Andima Ibinagabeitia eta Jon Mirande ezagutu zituen. Andimak euskal literaturan murgiltzeko bultzatu zuen eta Mirandekin batera, 1962an, *Igela* aldizkaria sortu zuen. 1962an argitaratu zituen lehenbiziko ipuinak: *Azken inkesta*, *Tximinuaren segretua*, *Tristan ta Isolh*. Genero literario ugari landu ditu Peillenek, hala nola nobela, poesia, haurrentzako ipuinak, poliziakoak, itzulpenak. Ikerketa etnografikoa ere jorratu du –*Animismoa Zuberoan* eta *Allande Elixagari Ligiarraren* lanak, besteak beste– eta *Paristar euskaldun bat (ni... neu)* deituriko biografia idatzi du. *Ale gorriak*, *Ale berdeak*, *Jende ederrak*, *Biziaren hiztegiak* edo *Jon Mirande, olerkaria* dira bere lan aipagarri batzuk. Sari asko jaso ditu, besteak beste Txomin Agirre saria, hiru aldiz (*Gauaz ibiltzen dena*, *Itzal gorria* eta *Kristina Bolsward* lanengatik). 2009an Euskal PEN Idazluma saria eta Manuel Lekuona Saria jaso zituen..

MONGONGO DASSANZA

ALBAITARITZAKO IDAZLANAK (1692-1892)

Argitalpenaren paratzailea: Txomin Peillen Karrikaburu

Argitalpen honen fitxa katalogifikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:

www.euskaltzaindia.net/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:

www.euskaltzaindia.net/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:

www.euskaltzaindia.net/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

www.euskaltzaindia.net/azkue

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

© Txomin Peillen Karrikaburu

Testuen hizkuntza-orraketa:

Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiazea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Diseinua: Ikeder, S.L.

Maketatzea: Zirrimarra Estudio Grafikoa

Inprimatzea: Leitzaran Grafikak

ISBN: 978-84-943211-2-2

Lege-gordailua: BI-342-2015

MONGONGO DASSANZA
ALBAITARITZAKO IDAZLANAK (1692-1892)

Argitalpenaren paratzailea: Txomin Peillen Karrikaburu

EUSKALTZAINAK BILDUMA
EUSKALTZAINDIA

BILBO
2014

AURKIBIDEA

I. AURKEZPENAK	9
I.1. Kondaira apur bat	9
a. Egilea: Mongongo Dassanza (?-1711)	9
b. Liburuaren iturriak eta bilakaera	11
c. Non zer argitaratu zen	15
I.2. Irakurleari abisua	17
I.3. Ekaiak, xedeak eta azterbideak	18
I.4. Baigorriko idazlana	19
I.5. Zuberoako idazlana	36
I.6. Garaziko idazlana	45
I.7. Amikuzeko idazlana	67
2. ALBAITARITZA ETA HIZKUNTZA AZTERKETAK	81
2.1. Hitzak, ekaiak eta ekintzak	81
2.2. Idazlanak	83
2.2.1. Onespena eta eskaintza	83
2.2.2. Hitzaurreak	84
3. MONGONGO DASSANZAREN ERREZETAK	89
3.1. <i>Sukarra</i>	89
3.2. <i>Lankarra</i>	91
3.3. <i>Bibotzerrea</i>	93
3.4. <i>Kolikoa</i>	95
3.5. <i>Sabeleko mina</i>	98
3.6. <i>Xarmadura</i>	100
3.7. <i>Sabeltasuna</i>	105
3.8. <i>Erortzeko mina</i>	107
3.9. <i>Gatarra</i>	111
3.10. <i>Pixa odolatan egitea</i>	113

3.11. <i>Ezin pixarik egin</i>	I16
3.12. <i>Haria</i>	I17
3.13. <i>Natura hantua</i>	I20
3.14. <i>Mingain azpia hantua</i>	I21
3.15. <i>Giltzurruneko mina</i>	I24
3.16. <i>Gerruntzeko mina</i>	I28
3.17. <i>Oinazea</i>	I30
3.18. <i>Biriketako arrangurak</i>	I32
3.19. <i>Hertzeak galtzen hasiak</i>	I34
3.20. <i>Eztula</i>	I36
3.21. <i>Arnasa labur</i>	I38
3.22. <i>Alboko mina</i>	I39
3.23. <i>Lupua</i>	I41
3.24. <i>Goloa</i>	I43
3.25. <i>Hanpatzea</i>	I46
3.26. <i>Idiak animaliatxoak irentsi dituenean</i>	I48
3.27. <i>Handitsuak eta hanturak</i>	I49
3.28. <i>Zangoak hantuek</i>	I51
3.29. <i>Atzaparretako mina</i>	I53
3.30. <i>Atzapar kolpatua</i>	I55
3.31. <i>Barrabil hantuek</i>	I57
3.32. <i>Adar arraildua</i>	I58
3.33. <i>Begi bandituak</i>	I59
3.34. <i>Zuria begian</i>	I61
3.35. <i>Begi negartia</i>	I62
3.36. <i>Zaragarra</i>	I64
3.37. <i>Ultzera</i>	I66
3.38. <i>Sugearen eta zakurraren ausikiak</i>	I67
3.39. <i>Azazkala erortzen</i>	I70
3.40. <i>Liztor eta mandeulien ausikiak</i>	I71
3.41. <i>Liztor, mandeuli eta eulitxoen urruntzeko erremedioa</i>	I72
3.42. <i>Heietarik liztorrak urruntzeko erremedioa</i>	I73
3.43. <i>Ardien zaragarra</i>	I75
4. BESTEEN ERREZETAK	I77
4.1. <i>Zamarra</i>	I77
4.2. <i>Jendearendako purga</i>	I78
4.3. <i>Ardien lupu beltza</i>	I79

5. ERREZETEN ONDOKOAK	181
5.1. Baigorrikoa	181
5.2. Barkoxekoa	182
5.3. Garazikoa	183
5.4. Amikuzekoa	184
6. DROGA ETA BELARREN AZALPENA	187
6.1. Baigorrikoa	187
6.2. Garazikoa	189
6.3. Amikuzekoa	190
7. IDAZLANEN AURKIBIDEA	191
7.1. Baigorrikoa	191
7.2. Garazikoa	192
8. ONDORIOAK	195
BIBLIOGRAFIA LABURRA	209

I.

AURKEZPENAK

I.I. Kondaira apur bat

a. Egilea: Mongongo Dassanza (?- 1711†)

Hamazazpigarren mende azkenean, nolabait 1690 inguruan nekazariendako abere sendakuntzako liburua idatzi zen, lapurteraz. Idazlea Donibane Lohizuneko kimikari bat zela zioten antzinako ikerlariak. Aurkitu ditudan bi idazkitan, droga eta sendabelar saltzailea, barberu nagusi edo “maître-chirurgien” gisan ageri da. Gisa askotara idatzia dago gure donibandarraren deitura: *D’Assanso, D’Assance, Dassance*. Izena ere berdin: *Mongongo, Monjongo, Moniongo, Muniongo, Dominique*. Mongongo Dassanza grafiaz finkatu dugu.

Hamazazpigarren mendean, bere herrian, lehenbiziko parrokia liburuak 1639. urtekoak dira eta Dassanza lehenago jaio zen, ezen 1645ean haur baten ugazaita (ponteko) bezala agertzen den “parrain de l’enfant Uhart le 18 mai 1645”. Gero berak alaba ukaiten ote du 1647an bataiatzen dena Donibane Lohizunen?

“Fille de Dominique d’Assanso et de Marie de Lalanne, parrin (sic) Joachim de Bushaber et marrine (sic)
Maria de Hirigoity, le 14 juin 1647”.

Marie de Lalanne zukeen andrea; agian bere arreba zen Maria d’Assanso zeinen haurra 1642ko apirilaren 22an bataiatu zen. Bere iloba ere Jeanne d’Assance, Petri d’Assanceren alaba, 1697ko urriaren 12an sortua?

Anaiak ere zituzkeen Joanis eta Petri ezen XVII. mende azkeneko eta XVIII. mendeko lehen urteetan maiz iloben ezkontzetan lekuko eta izenpetzaile ager-

tzen zaigulako Moniongo. Margarita d'Assance bere ilobaren ehorzketa edo sepultura agirian irakurtzen da bere ofizioaren aipamena "barberu maisu eta apotekari" eta non bizi den ere "Donibane Lohizuneko Puillotenean".

"Le dix-septième jour du mois de septembre mil sept cents a esté enterré à cinq heures de relevée dans le sépulture de famille Marguerite d'Assance dame jeune de Joan Barberenea décédée la nuit passée ayant reçu l'absolution et l'extreme onction et ont assisté au convoy Martin Dassance son frère et *Moniongo d'Assance M.re Chirurgien et apothicaire de Pouillotenea son oncle paternel*". Martin Dassance (izenpetua). Pouillot vicaire (izenpetua)

Margarita D'Assanceren ehorzketan agertu den bezala, 1701eko urriaren 30ean, Haurra-Maria Dassance delako ilobaren hiletetan lekuko da osaba. Iloba horren hiletetan honela aipatzen da "*Muniongo Dassance Mre Apothicaire son oncle paternel*". Baita Maria Galanta D'Assance ilobaren ehorzketan lekuko da "*Moniongo D'Assance Me apothicaire son oncle paternel*". 1706ko urriaren 30ean Martin iloba Donibane Lohizunen hiltzen zaio.

Badirudi, azkenean, atzeman dudala Mongongo Dassanzaren hil-agiria edo sepultura, 1711. urteko parrokia liburuko 32. zenbakian eta hirugarren orrialdean, nahiz "sieur jeune" esaldia bitxi izan (ikus II. orrialdean hil-agiriaren fotokopia). Bospasei urte falta direlarik eta dauden liburuak erdi suntsituak, ez dut gehiagorik bildu Donibane Lohizuneko liburutegitik.

"Le deuxième jour du mois de février mil sept cens onze a été enterré dans la sepulture de Pouillotenea *Dominique d'Assance* sieur jeune de ladite maison, maitre chirurgien décédé la veille après avoir reçu les sacremens de la confession, viatique, extreme onction. M.Chourio, curé".

Beraz, Donibane Lohizunen "1711ko otsailaren 2an eta Puilloteneko sepulturaren ehortzia izan zen Mongongo Dassanza, etxe hartako etxeko jauna, barberu nagusia, bezperan hil zena, olio, biatiko eta kofesaldiak edukirik".

Mongongo Dassanza hiltzen delarik bazukeen hogeita bat urte bere liburu idatzi zuela. Argitaratu ote? Botikari, barberu izaki ez da harrizkeoa alde batetik maiz lekuko gertatzea, eta sendakuntzan jakituria zerbait izatea. Familian ere XVII. mende azkenean hasita denek erraz sinatzen zuten. Ilobek ere, dirudienez, frantsesa ere zekitelako kanpotarrekin ezkontzen dira, bata Bereau batekin, eta bestea, Billot batekin.

Donibane Lohizuneko burgesia txikikoak ziren, nekazari bat agertzen bada ere, familian “marinier” edo itsas gizonik ez baitakusagu izen horretakoetan.

Mongongo Dassanzaren hil-agiria

*L'édiction, jourd'hui de fons de l'année mil sept cent six a été
 été dans la faculté de médecine de l'université de France, par le
 célèbre maître chirurgien de la ville après avoir reçu
 le serment de la confession, l'écriture et l'acte de son.
 M. Louis etc.*

b. Liburuaren iturriak eta bilakaera

Bere liburuaren ontzeko Mongongo Dassanza jaun horrek Parisen 1583an argitaratu zen frantsesezko *L'Agriculture et La Maison Rustique* liburu ospetsua erabili duela dio¹ baita beste autoreak ere erabili dituela aitortzen du Dassanzak. Gaitzen azalpena, ordea, esaldiz euskaldunago izaki, sarritan liburu egilearena litzateke, adibide batez erakutsiko dugunez.

*La Maison Rustique*ko zerrenda ikusita, lehen begi ukalditik dakusagu (ikus 12. eta 13. orrialdeetako taulak), Dassanzak gaitzak, eritasunak aipatzen dituela, ez hainbeste istripuak, hala nola beso eta zango hautsiak. Batzuetan errezetak frantses ereduaren lerrokadan daude, eta testua ere haiengandik aski hurbil errezeten azalpenean behintzat. Dassanzak anatomia sailkapenak hobeki jarraitzen ditu.

¹ Charles Estienne-k Erregeren inprimatzaile eta sendakuntzan doktoreak 1560an *Praedium rusticum* liburua argitaratu zuen eta Liébaultek frantsesez eman *La Maison Rustique* izenarekin, 1572an.

Maison Rustiquetik hartuak (25 errezeta)

Estienne et Liébault	Dassanza
1....Corne cassée	32. Adar arraildua
9....Douleur de ventre	45. Sabeleko mina
10. Col enflé	24. Golardoa, lepo hantua
11. Fluxde ventre	7....Sabeltasuna
15. Pied enflé	28. Zango hantua
19. Ongle cassée (sic)	29. Azazkal kolpatua
20. Ongle fendue (sic)	30. Azazkal mina
21. Ongle chéante	36. Azazkala erortzen
22. Pisser seng (sic)	10. Odolez pixa (errain min)
24. Fourreau enflé	31. Barrabilak hantuak
25. Ne pouvoir pisser	11. Ezin pixa egin
26. Pierre en la verge	12. Idiaren harria
27. Pierre en la vessie.	12. Idiaren harria
28. Verge enflée	13. Pitxoa hantua
30. Sangsue avalée	26. Animale xume iretsia
32-35. Bouche enflée	14. Mihi hantua
38. Oeil enflé	30. Begi hantua
39. Blanc sur oeil	31. Begiko xuria
41. Oeil plerant	32. Begi nigartua

La maison Rustiquetik hartu ez dituenak (20 errezeta)

chesnon féfé (bizkar arraildua)
chesnon enflé (bizkar hantua)
peau attachée à la côte (larrua saihets hezurretan lotua)
ventre constippé (sabel gogorra)
cuisse dénoué (izter anburatua)
jambe rompue (zango hautsia)
pied endurci (oin, behatz gogortua)
pied de marche (oin ibiliegia)
pied foulé (oin anburatua)
pisser boue (lohi pixa egina?)
épaule dénouée (sorbalda anburatua)
esquinancie (ezkinantzak)

estranguillon (?)
 palais enflé (ahosabai hantua)
 nuée en l'oeil (begi lausoa)
 poreau sur l'oeil (begigainean porrua?)

Beste nonbaitetik hartuak. (16 errezeta)

3. Idiaren bihoztarre. 6. Idiaren xarmadura. 16. Bizkarreko kolpea. 17. Oinazez eta nekadurez. 18. Idien birika arrengurak. 21. Hatsa labor. 22. Idiak almaketan min. 23. Lipua. 25. Idia hantua. 27. Idiaren handitsuak. 36-37. Idiaren ultzerak. 38. Sugearen ausigia. 40.41. Liztor eta euliez. 43. Azkena: Urrindatzeak.

Hona Dassanzaren lana ikusteko erakusgai bat *Idien sukarrak*:

Estienne Liébault	Dassanza
A la fièvre qui lui vient.....avec	Idiac sukharra duenian
<i>pesanteur de tête, enfleure d'yeux</i>	<i>burua ere hainitz</i>
et chaleur extraordinaire.....	<i>pisua daduca eta begiak</i>
.....	<i>nigarretan tuela eta finean</i>
.....	<i>muthurra linburiz garnitua.</i>
car le saigné de la veine du <i>front</i>	Atheraco dioque odol gutibat
et de celle de <i>l'oreille</i> .	<i>bustanaren azpitic.</i>

Errezeta honetan odola ez da kentzen leku berdinetik: Dassanzak gaineratzen du odol guti *buztan azpitik* atera behar dela, frantses “ereduak” *bekoki* eta *belarritatik*. *Begia negartua* da Dassanzaren testuan eta *hantua* Estienne eta Liébaultenean.

Bestalde, geroago ikusiko dugu Dassanzaren lanean sukarra, beroa eta izerdia eta beste gaineratzen azalduak dituela. Argi dago kasu honetan eta bestetan liburu hau ez dela iturri berdinetik hartua, baina La *Maison Rustique* frantses liburua eskema eta bilbe gisa erabilia izan dela, nahiz Dassanzak bere egitasmo berezia jarraitzen duen.

Ez dakigu euskal liburua inprimatua izan zen, argitalpenik ez baita aurkitu. Eskuizkribu aldakien bidez baizik ez dugu ezagutzen. Idazki horien artean,

denek errezeta bat edo beste, hitzaurrea edo hiztegia eskas daukate. Gainera, egileak idien eta ardien gaitzak aipatuko dituela hitz eman arren, Baigorriko idazlanean bakarrik agertzen da ardien errezeta bat lapurteraz, Barkoxekoan beste bat baldin bada zubererazko idazlanean ehun bat urte beranduago idatzia dirudi. Beraz, liburuaren bigarren zatia, agindu ardiene, gehiena osoki galdu zen edota ez zen idatzia izan.

L'AGRICULTURE ET
MAISON RVSTI-
QUE DE M. CHARLES
 ESTIENNE DOCTEUR EN ME-
 decine. Paracheuee premierement, puis
 augmentee par M. Jean Liebault
 Docteur en Medecine.

*En laquelle est contenu tout ce que peut estre requis pour bastir maison cham-
 pestre, prevoir les changements & diversitez des temps, medeciner les la-
 boureurs malades, nourrir & medeciner bestail, & volaille de toutes sor-
 tes: dresser jardin tant potager, medicinal, que parterre: gouverner les
 mousses à miel, faire Conserues, confire les fruicts, fleurs, racines & escor-
 ces, preparer le miel, & la cire: planter, enter & medeciner toutes sortes d'ar-
 bres, fruictiers: faire les huiles, distiller les eaux, avec plusieurs pourtraicts
 d'alambics pour la distillation d'icelles: entretenir les prés, vigniers &
 estangs: labourer les terres à grains, saçonner les vignes, planter boys de
 hauste fustaye & taillis: bastir la Garenne, la Haillonniere, & le parc
 pour les bestes sauvages.*

Plus vn bres recueil des chasses du Cerf, du Sanglier, du Lièvre,
 du Regnatd, du Blercau, du Connin, & du
 Loup: Et de la Fauconnerie.

*A tres-hault & tres-puissant Seigneur, Messire
 Anshoine de Crussol, Duc d'Uzes.*

A PARIS,

Chez Jacques Du puy, Libraire juré, demourant en la rue
 saint Jean de Latran, à l'enseigne de la Samaritaine.

1 5 7 2.

AVEC PRIVILEGE DV ROY.

1572

c. Non zer argitaratu zen

Testu guziak etnotestu eta euskalki lekuko gisa jakingarriak dira ezen lauratarik bat, Garazikoa, ia lapurteraz dago, hots, Dassanzaren mintzairan, beste batek Baigorriko behe nafarreraren kutsua du, eta azken biak amikuzeraz eta zubereraz direlako.

Aurkitu ditudan hiru zatiak, hauexek: Barkoxekoa, Amikuzekoa eta Garazikoa. Liburu osoa, izan bada, ez dut ediren.

c.1. Baigorrikoa. (XVII. mendekoa?) Dassanceren eta Daranaten eskuizkribua.

Pierre Nérée Dassance abade eta Larresoroko irakasleak 1905ean *argitara* eman omen zuen Baionako Lasserrenean 30 aleetan eman ere. 1927an eskuizkribu bat Daranatz kalonjeak *RIEVEN* aurkezpen bitxi batekin *berrargitaratu zuen*. Daranaten arabera, XVII. mendeko testu batetik aldatua omen liteke. Ez dugu jatorrizko idazkirik ikusi eta non dagoen ez du inork esan. Daranaten hirugarren eskukoa erabili dugu.

Hizkuntzaren aldetik Daranatzek idatzi arren, ez da inolaz ere lapurteraz, behe nafarrera kutsua aurkitu diogu: beraz, ez dakigu benetan zaharrena denetz. Neuk hizkuntzaren aldetik aldatua dela diot eta ez lapurterazko testu baten kopia hutsa. Daranaten lan horrek jatorrizko liburuxka dela kausa, agian, inprimategiko huts asko ditu kalonjeak ikusi ez dituenak edota oharririk gabe eman dituenak.

Bakarrik *Dedikazionea* eta *Aprobazionea*, geroago ikusiko dugun bezala lapurteraz dira, behe nafarrerak kutsatu gabe.

c.2. Peillen Barkoxeren eskuizkribua (XVIII. mendea)

Argitaragabea. Herri horretako eta gure arbasoen Barkoxeko *Peillen* etxean eman ziguten. Euskararen, baita idazkeraren aldetik ere, XVIII. mendekoa dugu, ikusiko dugun bezala.

Baliteke, Jean-Pierre Peillen orduko etxeko nagusiak aldatu izatea idatzi bezala ez nire kusu Jean Pierre Chabalgoityk, testua eman zidanak.

Besteen alderantziz, gaitzak gutxi azaltzen ditu, baita errezetetan ere esamoldeak laburtzen ere. Oinarrizko lapurtera batzuetan, gaizki ulertuz edo gaizki irakurriz bizpalau bitxikeria idazten ditu. Errezeta batzuk galdu ditu (lehenbiziko seiak) eta bere kartillan ageri da kendu egin direla.

Besteek ez dituzten errezetarik badauka, zahar bat eta berriago bat. Utzi ditut ugari erabiltzen dituen bi puntu ikurrak norbaitek ohitura hori argituko duelakoan.

c.3. Garazikoa, Bertrand Goyenetcherena (1830-1831)

Aranburu garaztar errejentak fotokopia baten egiten utzi zidan eta hau da lapurtarrena eta Bertrand Goyenetze batek klaseak ematen erabilia izan dena. Kopiatzen irudi politak egin zituen, emango ditugunak.

c.4. Amikuzekoa, Jaureguiberryrena (1891koa, nonbait)

Txomin Peillenek argitaratua, “Recettes vétérinaires de Jaureguiberry” hauek Parisko *Bibliothèque Nationale* delakoan zeuden lo, Abadia Urrustoikoaren emaitzetan dago, *Manuscrits Celtiques et Basques* katalogoan 118. eskuizkribu hau. Itzulpena eman nuenean, Baionako *Bulletin du Musée Basque* argitaratu zidan.

Hizkuntzaren aldetik oso nahasia ematen du: zubereraren gisa “ü” eta “u” bereizten ditu, hiztegian badira zubererazko aldaerak, aditza batzuetan Amikuzekoa da, eta batzuetan ere jatorrizko lapurteraz. Grafia gaurkotu nuen argitaratzean. Eta horrela dator. Zahar hotsezko baigorriarra baino argiago eta gehienetan hobeki. Beharbada, beste hirurek iturri berdina bazeukaten eta Amikuzekoak beste bat edo azken horren kopiatzailea begi argiko jendea zen.

Benetan bi dira argitaragabeko idazkiak, Barkoxekoa eta Donibane Garazikoa, besteen irakurketa aberastu didatenak eta bilduma honen egitera bultzatu nautenak².

Nire hitzaurre honetan xedeak eta oztopoak azaldu ondoren, errezeta bakoitzaren ondotik hizkuntza oharrak alde batetik eta albaitaritzarako erabilgarritasunak emango ditut. Ikus dezagun liburu zahar horren benetako balioa.

² Nire baimenik gabe P.U.k kopiatuak.

I.2. Irakurleari abisua

Jatorrizko ikasketak, biologiakoak, Parisko Sorbonan egin nituelako, hogeita sei urtez higie eta biologia irakaslea izan naizelako, Elhuyarren batzuetan gai horietaz idatzi dudalako, ikerketa honen egitera eta abisu honen ematera atrebitzen naiz.

Horregatik, Daranatz kanonigo euskaltzaleak idatzitakoak harriduraz irakurri nituen, lehenik zoologia eta albaitaritzaz zer den ez zekien batek behin *Curiosités du Pays Basque* liburuan 1927an argitaratu zuelako txantxeta moduan liburuxka hau. Ikasi berriek herriarenganako daukaten betiko gaitzespenak bultzaturik ote? Zoritxarrez, zoologia edo kimika gehiago ez zekiten euskaltzaleek iritzi oker hau errepikatu dute, testua zertan zegoen gaizki erakutsi gabe, ez zirelako horretarako inolaz ere gai. Oraindik, Gaztanbide medikuaren *aprobazioneek* haienak baino gehiago balio dute.

Daranatzen artikulua, frantsesez, jakina: “Un vétérinaire basque du XVIIème siècle” izenburua dauka, ezen euskara elizarako edo baserritar zo-zoekin erabiltzeko erreserbatzen zen eta frantsesa gauza jakintsuentzat. Bere buruari aplikatu ziezaiokeen gaitzespenarekin hasten zaigu Daranatz d’Iharce Lekuineko mediku erdalzalearen hitzez:

“L’ignorance et l’erreur enfantent tous nos maux

On ne peut les dompter que par mille travaux”.

“Gure gaitz guziak hutsak eta ezjakinak sortuak

Hamaika lan eginaz baizik ezin zuzenduak”. (Itzultzailea: Txomin Peillen)

Erakutsiko dugu aztertuz liburu horretan ageri diren higie aholkuek oraingoraino balio dutela, nahiz XIX. mendean ahaztu egingo diren eta Pasteurrek lanak izango dituen horien behararen frogatzen, eta zoritxarrez oraingoraino ez direla erietxe denetan obratzen, gaitz nosokomialen garatzeak darakutsanez. Gainera daitekeena XVII. mendeko jende medikuntza liburu arruntak baino askoz hobea da hau ezen agertzen diren droga eta belar gehienak oraingoraino erabiltzen direlako. Horren frogatzeko Koxe Elorga Paueko jaun botikariari erakutsi diot, bere iritzia eman zezan. *Dictionnaire de la Pharmacopée Française* liburuarekin egin dut kimika gaien azterketa.

Ezjakintasuna izan bada liburu honen baztertzeko arrazoia, beste zergati asko gainera genitzake, XX. mendeko jakintzaren harrokeriaz kanpo, eskuizkribu horiek herrikoiegi zirelako ez zirela ontzat eman. Gure liburu zahar hau, noski, ez zen ez unibertsitariario, ez beste astolarrudun baten lumapetik atera: diplomoen mirespenik, babesik gabe munduratu zitzaigun.

Oraingo “adituek” ikus dezatela eman osagai, ohar eta iruzkinekin liburu horrek zer balio zuen eta zer balio izan dezakeen gurea den abereen sendakuntzazko liburu zaharrenak.

I.3. Ekaiak, xedeak eta azterbideak

1. *Xedea*. Lan hau, beste eskuizkriburik eta osoa aurkitzeko itzaropena galdurik abiatu dugu. Mongongo Dassanzaren liburua noizbait osorik agertu arte; alde batetik, testu osoena lortzeko, bigarrenik, aldaeren ikertzeko eta, azkenik, errezeta horien balio eta baloratzeak zein izan diren jakiteko.
2. *Ekaiak*. Zuzenean hirur eskuizkribu dira, eta Daranatzek inprimatu argitalpena. Ekaien artean ezar genitzake gorago aipatu frantses hiztegi teknikoa, baita landareentzat UZEI eta Elhuyarrek ondu euskal hiztegiak ere.
3. *Azterbideak*. Aztertzeko, diakronia/sinkroniaren batez besteko baldintzak kontuan edukiko ditut, oharren bidez hiztegia zehaztu egiten saiatuko da eta ahal denean fisiologiaren aldetik errezeta horiek zer balio duten ikusiko.
4. *Eskerrak*. Heriotzak eroan digun Izpurako Xalbador Aramburu jaunari, Garaziko eskuizkriburik osoena eta ederrenarengatik. Baigorriko Jean Haritschelharri, Daranatzek argitalpena ezagutarazi zidalako. Barkoxeko Jean Pierre Chabalgoity “Peillen” lehengusuari eman zidan zubererazko eskuizkribuarengatik. Abbadia Urrustoikoari, Amikuzeko aldaera salbatu zuelako, Parisko *Bibliothèque Nationale*ari eman zena.
Koxe Elorga jaunari farmakologiaren bideetan gidatu nauelako batik bat magia errezeta uste nuen bietarik bat (‘asto atzapar’ eta ‘idi adar hautsezkoa’) oraingo abere erremedioak direla erakutsi didalako.
5. *Hiztegiak*. Azkenean joango dira fitoterapiatzko hiztegiak testua oharrez zamatuegi egon ez dadin eta jakituria azpimarratzen leku gehiago emango delako. Halere, ahal oroz saiatuko gara gertatzen direnean landareen latin eta euskara batuko izenen ematen idazkiak ulergarriak izan daitezen.
6. *Galdua litekeena*. Dassanzak ardien errezetak agindu arren idienak dira salbatu eta ardiez agertzen den bakarra, ikusi dugunez Baigorriko eskuizkribuan

dago “Ardien zaragarra” 43. zenbakia daramana. Gainera, Gaztanbide medikuari *aprobazionerako* liburua ematen dionean badirudi ardiez hitz eman errezetak ere liburuan zeudela.

7. *Gaineratua litekeena*. Ez dirudite jatorrizko liburukoak, han hor jendeentzat sendagailua, mandoentzat edo ardientzat topatuko ditugunak, batzuetan berrikiago kopiatuak baina hizkuntza ezberdinekoak.

Bestalde, kopiatzaileen tipografia begiratu dugu.

I.4. Baigorriko idazlana

Jatorrizko titulurik gabe, eskaintza batekin hasten da “A MONSIEUR GAZTANBIDE MEDICUARI DEDICAZIONE”. Eskuizkribu horretaz dakiguna J.B. Daranatzek 1927an *Curiosités du Pays Basque* argitaratu liburutik hartzen dugu, euskarara itzultzen duguna:

“Haraneder Testament Berriaren argitaratzaile batez, Dassance apezaz nioen, Baigorriko laborari baten eskuetan zegoen XVII. mendeko eskuizkribu bitxia Baionako Lasserre etxean 1902an hogeita hamar aleetan argitaratu eman zuela”. (*op. cit.*, 368. or.) (Itzulpena: Txomin Peillen)

Frantsesetik euskaratu dudan aipamen horretan ez dakigu lanak zer neurri zeukan, zer idazkera zehatz, zer grafia. Zer ortografia? Badirudi hizkuntza ez zela hobetu non ez den gaizki irakurri.

Nor zen Baigorriko eskuizkribuaren jabeaz hitzik ez. Gaineratzen ditu beste albiste batzuk, hala nola:

“Nafarroa Behereko eta kopiatzaile horren laborari adiskideen artean agian ediren genezake lan honen aldaki bat. Maurice Harriet kalonjeak kopia bat zeukan eta 1896an Darricarrère kapitainak honen berri jakin zuen eta beretzat bat egin. Halere, Harrieten kopiak hutsune asko ditu. Badatoz, agian kopiatzaileak begipean zeukan eskuizkribua egoera txarrean zegoela irakurgaitz edota gauez irakurri zelako ezko hori tantak us-tekabeen erorita liburukia narriatu zutelako.” (*op. cit.*, 378. or.) (Itzulpena: Txomin Peillen)

Hizkuntza dela-eta, biziki gaizki aztertzen du nahiz kopiatzaile bakoitzak bere euskalkian ipini eta liburua dakigunez Donibane Lohizunen idatzi baitzen, hona zer dioen Daranatzek:

“Jatorrizko idazkia behe nafarreraz (?) idatzia izan zen osoki (!) baina Haltungs eskuidatziaren kopiatzaileak lapurtar erranairuak (?) eta testuak ez zeuzkan hutsak sartu ditu.” (*op. cit.*, 378. or.) (Itzulpena: Txomin Peillen)

Daranatzen azalezko ustekeria hutsa da: XVII. mendean Nafarroa Behereko euskarari idazten ez zelarik zergatik behar zukeen euskalki horretan idatzi Dassanza donibandarrak, lapurteraren urrezko garaian? Geuk Garazi-Baigorriko euskararen kutsua aurkitu diogu jatorriz lapurteraz zen testu horri.

Bestela ere noiz esan da *naiz, zarete* eta *etbortcen Baishe Nabarreko* euskalkian? Alta behe nafarreraz dela jatorrizkoa dio Daranatzek.

Baigorriko (?) eskuizkribu horrek ez dirudi osoa denik ezen lehenbiziko hiru errezetak eskas ditu eta laugarrenaren erdian hasten delako. Noski, urteekin idazkiak suntsitzen ziren, batzuetan zerbait hitzarmentxo edota zor baten idazteko, errezeta orrialde batez baliatzen.

Hitzaurreetan, ordea, Baigorriko kopia hau da osoena. Halere mintzairaren aldetik aldaera hau ez da hoberena, baina inprimategiko akatsez (?) kanpo, beti hizketa herrikoa atxikitzen du. Idazki honetan besteetan legez, jatorrizko errezeta batzuek frantsesezko eredu bat begien aurrean itzuliak izan direla salatzen dute landare izen mordoak frantses izenez ematen direlako, eta garai-ko Axularrek baino hizkuntza nahasiagoa darabilelako M. Dassanzak (*pharte, erremarkatu, arribatu, accident*) eta Axularrek (*aurkientza, obartu, heldu, nabigabe*), baina joskera aldetik ez da hain txarra, bere gisako aberastasunak ditu, itzulpen itsutik urruntzen dutena.

Daranatzek ez ditu Dassanzaren irakurketa okerrak zuzendu, ez oharrez azaldu, ez eta liburu horretan gaineratu direnak ere: beraz, hau da testu guztietan hutsik gehien daukana eta erakusten ere bi apez argitaratzaileek ez zutela biologiako jakituria gehiegirik, ez eta linguistikan ondotik lehenik etorriko dena, lapurtera hutsean baita³.

³ Lehen zati batean lau testuak oharrik eta iruzkinik gabe emango ditut, bigarren zati batean euskalkien aldetik eta bere sendakuntzaren ikuspuntutik errezeta zenbakituak aztertuko, ezen idazki batetik bestera kopiak direlako.

BAIGORRIKO IDAZLANA

Dedikazionea

“A MonsieurGaztanbide Medicuari Dedicacionea

Jauna entrepenitu dut obra chume bat ezcoaraz imprimatcera Laborarien fagoretan; eta nola azco critica mende huntan baita, ezdut dudatcen ezden cenbait ičanen cerbait erraiteco dutenic obra chume hunen gainean. Bainan, Jauna heyen bistara eman baino lehen, heldu nitçaçu har deçaçun hanbat pena, laborarien amoreagatic, obra hunen examinatceco eta baldin iduritcen baçaitçu merceduella imprima dadin, çure aprobacionea emaitiaz, ecen badaquite Lapurdin eta berce ingurutaco ezcualdun gucietan, çure frogac ederraq direla, causa ossoqui sinhexia çarela eta egonen naiz çure sendimenduaren beguira erraiten dudala bethiere naiçela. **Mongongo Dassança, chimista.**

APROBACIONEA

Ikhussi eta irakurri dut amplequi Monjongo (sic) Dassança chimistac ezcuaraz eguin duen liburua eta hala desiratceco liteke lehen bait lehen imprimiraz deçan, laborariac balia daiteçentçat hango erremedio miragarriez; ecen hain justuqui traditua da Maison Justiaco (sic) eta berce auctor handiren sendimendua, iduritcen baitçait obligatua naiçela ene aprobacionearen emaiterat, hala nola emaiten baitut, Donibane Ciburun oxaillaren 14 eta 1692.

Gastanbide, doctor, maison Justiaco (sic)

LABORARIEN ABISSUA

Badu cembait ere dembora laborariac Laphurdico pharte gucietaric aditu ditudala erremarcatzen idietan eta behietan eta ardietan arribatcen çaizcoten mortalitatez, non uste baidute issurritea beçalaco eritarçuna hequien assindetan hedatua dela. A(coz)tarrec sendituric accident horren berria, beldurrez façoin berian yeien aberiac guertha daitecen, othoisten naute adisquide batçuec cembait fagore eritarçun horren contra eguiteaz eta hala resolutu dut hayen satisfacionea gatic obra chume baten eguitera, ceinetan erakutxiko baiteret idien eta behien eta ardien eritarçun principalen eçagutça eta heyer comeni çaizcoten erremedio miragarriac. Orduyan segura çaiteste ez direla hemen gauçac nic pentsatuac bainan bai I(l)khiac lehenagoco auctor handi eta oraico moderno famatuyetaric.

Eta nola hanitç norc bere naçionentçat travaillatu baidire alemaniacoac alemanez, espainiacoac espaignolez hala nola francian eguin baitute Maison Rustica-z frantsesez eta gu franciacoac içan arren ez daquigu erdaraz eta particularqui laborariac comprenitceco berehala entrepenitu dut obra chume hau ezcoaraz emaiterat bat bederac yaquin deçatentçat cein erreitx den ezcoaraz comprenitceco lehenagoco eta oraico auctorren sendimenduac.

Hartaracotz bada erranen daroçuet idiac eta berce aciendac guicen beçain ungui hanitx eritarçunetarat suyetatcen direla eta nola lucieguy bailitaque guicien causaren erraitea, contentatuco naiz choilqui principalenen eracustiaz. Handic harat Jaquinsun içanen çarete berce gaineracotan, cer eguin beharco duçuen seguidan clarqui aguerico den guisa.

Orai, bada mintçatcecotz gauça principal horietaz erranen darotçut ez dela mundu huntan aireric edo haxic hartu gabe bicitcen eta nola aire honac eta garbiac ossassuna conserbatçen baidu, hala gaiztoac ere cassarasten ta eritarçun eta heriotce dorpheac, ez solamente guiçonen baithan, bainan oraino munduco alimale gucietan, eta nola idiac munduco nombrecoac baitire, bai eta ez bada senditu behar dute aire onac eguiten dioten ontassuna

Lehen errezeta erdia^{4/5}

.....unhaduraz printaderetan (sic), Ceren ecen denbora hartan odol sobera-

PARATZAILEAREN OHARRAK (Txomin Peillen):

⁴ Lehen hiru errezetak galdurik, horregatik gakoan artean (G.). Garazikoaren zenbakia da eta "Kolikoa" izeneko laugarren errezetan erditan hasten da.

⁵ Garazikoan, 4.a.

nia hobequi errequeitcen baitira eta hala odola atheratu ondoan cenbait passaia eraguinen dioque ungui estaliric errefria ez dadin.

Bigarren errezeta⁶

Idiaren edo behiaren sabelminen khentceco erremedioa

Colica beçala heldu da eritarçun hura eta hala colicarentçat on diren erremedioac balia daitezque sabel minetan bai eta halaber briga (sic) eta orbietan finaz ere arnuarequin edatera emaiten diotela eta guero biharamunean odola atheraco dioque mihi azpitic edo sudurretatic edo ezperen edan araçico dioque erremedio huntaric. Hartaracotz harçaque arruta ta camarmilla (sic) ahur bana eta hec ungui iraquituric pinta erdibat arnotan, guero iraci duçuenean emoque bi colpez idiari edo behiari edatera.

Berce batçuec baliatcen dire erremedio huntaz ceina eguiten baita laur ontça turmentina gatz guti batequin pillotac idiari irex araztia, hurtuco tutçue arno be-roan eta guero edan araz adar batez denbora hartan idiac beroqui egon behar du barruqui bero batean.

Hirugarren errezeta⁷

Idia xarmadurez inquietatua denean cer guin behar den

Idia edo behia charmatua denean eçagutuço duque idiaren trubleçia handian eta guciz bere accioneac eguin nahi tubenean non orduan laburzqui argaltcen eta mehatcen baita, heticatua balitz beçala.

Hargatic du necessario prunqui erremedioac eguitea, hartaracotz eçagutu duçuenian idia charmatua dela, emoque lehen bait lehen, hur huntaric sudurretan ceina eguinen bai duque ahur bat erramu bihi eta ahur bat geniebra bihi eta untça bat sofre eta guero trempa hur ephelean hogoi ta laur orenez; iraci duçuenean balia çaitetzte hortaz goicetan eta arraxaldetan sudurretan barna emaiteco.

Hori eguin beçain sarri preparatuço dioque erremedio miragarry hortaz ceinac khenduço baititu charmac eta oçatura guciac. Hartaracotz har eçaque laur nerprun bihi eta bere laur untça Constantinopolitana, untza bat gatz larri; hec ungui cheaturic iraquitu behar dute pinterdi huretan eta guero hur hura eman idiari adar cilhatu batez. Baldin eta lehen colpetic ez bada idia erremediatcen emanen dioque cenbait aldiz erremedio hartaric eta hala iccusico duque effetu miragarria ez solamente idien gainian charmen contra eracusten duen efetua, bainan orai-

⁶ Garazikoan, 5.a.

⁷ Garazikoan, 6.a.

no erranen daroquet constantinopolitana horrek bertute handiac dituella, Peccacius (sic) arabiaco auctor famatu haren erranez; ecen hain espressuqui seguracn guitu erraiten darocunean khentcen tuella eta debecatcen charma suerte guciac, nahiz allimaletan, nahiz presunetan, lur eta eguiten diren guciac. Hartaracotz dio asqui dela erran dugun constantinopolitana bere lurretan edo etchetan iduquitcia; beraz balia çaiteste erremedio miragarry hortaz.

Laugarren errezeta⁸

Idiaren uchada edo sabeltasuna cer façoinez sendatu behar diren

Idiac uchad(a) edo sabeltasuna duenian eçagutuco duçue haren issurietan ezzen clar asqui agueri dire bat edo bercia eçagutceco.

Eta hala iccusten duçuenan sabeltasuna duella, eztiçoue dembora hartan yatera eman behar ez edatera bizpahirur egunez, choilqui cenbait mahax osto lipita edo ezperen mahax ostoac arnuan trenpaturic; haritx calitchac eta mirra gutibat trenpatua haraçico dioçoçue cenbait belhar fresco nahiz planturic (sic) edo çamari bustana deitcen den belharra eta guardia ondotik emaitetic; edatera emaiten çayonean ere, bere hura erramu ostuekin iraqituric eman behar dioçue.

Cer ere erremedio eman baitut sabeltasunarentçat baliatuco çarete uchadarentçat, ceren ezen biac bat beçala eguiten baitire.

Bosgarren errezeta⁹

Idiac edo behiac erorteco mina duenian cer eguin behar den

Idiac erorteco mina duenian eçagutuco dioçue idia colpez erori denean eta guero ahua macurturic goitica eta çarrapoa ahotic dariola eta çango bat bihurçen beçala çaiçcola eta finean bizpahirur orenen buruan deusic ez balu beçala altchatçen denean. Hartaco eritarçuna duten idiac ordinariozqui attaquatuac dire bi hilabetetic, bi hilabetetara.

Eritarçun horren sendatceco harraraci behar dioçue laurden bat arnotan asoaren çangoko azazcala eta idi copetaco heçurra, untça bana limaturic eta ungui chehaturic eta guero continua hogoi egunez goiz guciez emaiten dioçuela adar batetic.

Berce batçuec hanitx baliatcen dira erran dugun Constantinopolitana miragarry hortaz. Hartaracotz asqui duçue arnuan edo hurean iraqituric idiari edo behiari goiçetan eta arraxetan emaitia.

⁸ Garazikoan, 7.a.

⁹ Garazikoan, 8.a.

Seigarren errezeta¹⁰***Idiaren edo behiaren gatharra nola sendatu behar den***

Gatharraren erremedioric lasterrena da mihiaren azpitic odola atheratcia eta guero porrua, arruta, capiuu, salboina, morsus diabolus elgarrequin hurian hiraquituric, iraci eta hur hartaric idiari edo behiari edatera emaitia, eta finean padera batean arno liga, ogui mamiz eta hauxarequin ahia eguinic hartaz lephoa lotcea non bide hortaz lazter (sic) kenduco baitioçue gatarra.

Zazpigarren errezeta¹¹***Idiac odolez picha eguiten duenean cer eguin behar den***

Heldu çayo comunsequi accident hori hanitx berotua eta borthisqui malfonditua denian eta guciz udan cenbait belhar gaisto ihitcez bustia yan ondoan; gaitz horren erremediatceco ez du deus ere idiac edan behar, choilqui edari huntaric bai-cen: hartaracotz, har eçaçue hirur untça artho irin eta untça bat triaga, guero hec iraquituric pinterdi bat arnotan eta finean yuntatcen dioçue soffre gutti bat; edari hartaric emaoçue edatera idiari goicetan eta arraxetan plantain hura olioarequin.

Zortzigarren errezeta¹²***Idiac picharic ecin eguinez***

Idia penaz dagonean ecin picharic eguinez atheraco dioçue odol gutti bat bichicaco çainetaric eta guero hirur goicez emanen edatera estia eta olioa arno churian nahassiric.

Bederatzigarren errezeta¹³***Idiac harria duenean cer eguin behar den***

Noiz ere baitaquiçue segurqui harria duella bichican edo chilcuan barna piccaturic atheratcia da erremedio lasterrena eta segurrena; bainan batere ezpada possible nihorc atheratcia, baliatuco çarete erremedio huntaz haren oinhazea passarasteco: hartaracotz har eçaçue bi untça milla marin (sic) erro, untça laurden bat especia itce eta haren erdia bipher eta guero guciac ungui chehatu direnian emoçue idiari arno ephel guti batequin edatera eta continua cembait aldiz sasoin berean emaita.

¹⁰ Garazikoan, 9.a.

¹¹ Garazikoan, 10.a.

¹² Garazikoan, 11.a.

¹³ Garazikoan, 12.a.

Hamargarren errezeta¹⁴

Idiac bere natura edo pitchoua gogortua duenian cer eguin behar den

Eritarçun hori guerthatcen çayonian azqui (sic)duçue malbariscac egostea burrarequin batean eta guero hartaz, maiz phereca idiaren natura eta hala laster sufflaracico dio bere pitchoua.

Hamaikagarren errezeta¹⁵

Idiac edo behiac mihi azpia hantua duenean cer eguin behar den

Eçagutuco duçuenian idiac mihi azpia hantua duella ensea çaitetzte lehen bai lehen, mihi azpico çainetarik burdin bero batez chilhatuic edo lanceta çorrotz batez odola atheratcera eta guero gantçu edo phereca dioçoçue çauri hura olio eta gatça elkharrekin nahassiric, eta continua umore guciac camporat arthean.

Dembora hartan bazcatuco duçue idia belhar freskos; eta baldin apetitua ez badu ernatua, laster jan aracico dioçue erremedio huntaz.

Hartaracotz har ezazue arroltce baten churingoa eta gorringoa balsan ezti guti batequin, guero emoçue idiari edo behiari arnuarequin edatera: hantic harat emoçue bere yatecoetan cembait gatz bihi eta efetu ona atheratuco du.

Hamabigarren errezeta¹⁶

Idiec edo behiec errainetaco mina dutenian cer eguin behar den

Idiac errainetaco mina duenian eçagutuco duçue haren plainuetan eta guciz guibelleco tranaz ecin aitzina çangua heda deçaquenean; almaquez ere ecin segura daiteque ez eta hain gutti bustana biribilca, non orduyan dilindan baitario; haren guernuac ussain gaistoa du eta guibelleco traina ossoqui pisatua eta baldin inflamacioneric guerthatcen bada dembora hartan, idiaren picha odolaren guisa dohaco eta dena ere guti eta penarequin eguiten du: eta hanitx irauten badio ez da harentçat erremediric; baina ez bada picha hura aphur bat tindatua baicen, gorricara duella bere colorea, esperantça da eritarçun hartaric sendaturen dela.

Hartacotz atheraco dioçue odola almaquetaric eta maiz emanen idiari porruac ur clairian trempaturic eta hur hartaric.

¹⁴ Garazikoan, 13.a.

¹⁵ Garazikoan, 14.a.

¹⁶ Garazikoan, 15.a.

Hamahirugarren errezeta¹⁷***Idiaren berce errainetaco mina nola sendatu behar den eta particularqui erorcetic heldu çayonean***

Noiz ere sentitcen baituçuë idia erori dela cenbait gauça gogorren gainera, eçağutu baduçuë haren colpe handiac, ecen ez da behin ere falta colpe borthitça dela causa inflamacionea, hargatic laborariac dembora hartan idiac mehatchatcen dituenen ez ditu bere lecutic moviaracico, eta colpia duen lekhua maiz frescatuco dio hur hotcez eta guero gantçu edo pereca unguuy chucaturic urin hurtuz edo urdaiz; eritarçun horren seinaleac dire campoco aldetic gogor içaitea eta barabillac laburturic barnerat erretiratcia, ecin bere isterra ez alderdia aisiarat manaya deçasque eta pena handia du etçana denian bere lecutic ecin altchatuz.

Hamalaugarren errezeta¹⁸***Idiaren oinhace eta dolore suerte guehientçat erremedio guciz nekhaduraz heldu denian***

Har eçaçu ahur bat liho haci eta berce ahur bat camamila eta hec ungui iraquit panjeru batean urian erabiltcen duçuela maiz maquila batez ungui ahia eguin artean eta guero heda çaçue cenbait traputan eta hartaz lot non ere sendi baituçuë gogortasunic, hanturaric edo oinhace duen lecuan.

Hamabosgarren errezeta¹⁹***Idiac biriquetarin errengura dienian cer eguin behar den***

Biriquetarin er(r)engura horiec gaitz dire idier eta behier khentceco heyen movimendu handia dela causa; baina eguin daquiocote erremedio hunbat ceina baita lehenbicoric manyatera ur beroz garbitcia eta guero belhar ussain onezcoez urrindatcia. Dembora hartan khendu behar tuçuë barruquitic çamari, behor, urde eta berce hacienda guciac beldur(r)ez haren haxaz communica eztiçaten gaitz bera; hargatic orduyan utcico duçuë astoa aldian, ecen haren haxa probetxoz da biriquetaco errencurentçat.

¹⁷ Garazikoan, 16.a.

¹⁸ Garazikoan, 17.a.

¹⁹ Garazikoan, 18.a.

Hamaseigarren errezeta²⁰

Idiac edo behiac herciac galtcen hassiac dituenean cer eguin behar den

Idiac herciac deseguinac dituenean harturen duçue hirur untça turmentina, eta hura haur baten eskuaz idiari guibeleco aldetic sar dioçoçue ahalic eta barnena edo ezperen turmentinaren lecuan balia çaitetzque ganz guessaz edo urin hurtuz.

Hamazazpigarren errezeta²¹

Idia estulaz atacatua

Idia edo behia hestulaz atacatua denean eta guciz hestulla handia duella hartuco duçue aphur bat hissopa eta hura iraqit pinterdibat huretan guero iraci duçuenian edanaraz hur hura idiari. Dembora hartan emoçue yaterat forru ostuac chehaturic ogui nertroyarequin (sic) batean, berce batçuec emaiten diote idiari urmaiçaren hura amiron churiarequin batean hissopaz eguin den guissa.

Hemezortzigarren errezeta²²

Idiac edo behiac noiz ere sendi baituçue hatxa labor diela

Emoçue beharrietan cilhaturic hellebore noir deitcen den belharra gargandila balu beçala eta harec hun eguinen dio.

Hemeretzigarren errezeta²³

Idiac edo behiac almaquetan min duenian cer eguin behar den

Eçagutu duçuenian idiac almaquetan oinhace duella, har eçaçue hirur ahur alcipre eta hec hiraquit minagrean eta guero ungui chehatu tutçuenian lot çaçue dolorea duen lecuan eta laster sendatuco da; berce batçuec atheratcen diote odola almequetaco çainetaric; guero porruac hurian iraqituric hur hartaric edanarasten diote, edo ezperen idiaren guernu bera.

Hogeigarren errezeta²⁴

Idiari edo behiari lipia khentceco cer eguin behar den

Lipiaren erremedio segurrena eta lasterreña atheratcia da eta guero burra frescoz çauri hura goiz arraxetan pherecatcia.

²⁰ Garazikoan, 19.a.

²¹ Garazikoan, 20.a.

²² Garazikoan, 21.a.

²³ Garazikoan, 22.a.

²⁴ Garazikoan bakarrik 23.a.

Hogeita batgarren errezeta²⁵

Idiac edo behiac golardoa duenean edo lepho hantua duenean cer eguin behar den

Idiac golardoa duenian hanitx da lepho gucia hantua; eta baldin senti badioçute abces bilduma edo materiatic duella dembora hartan apparanciaz aguerian den lekhuian cilhatuco dioçue burdin gorri batez eta guero eman cilho hartan assunen erro guti bat edo esperen erran den hellebororen errua har eçaçue bethi; erro horien sanyatceco idiari edanaracico dioçue urri belharrarequin iraquituricaco huretic, nahiz goizetan eta arraxetan copetetic eta beharri guibeletaric odola atheratcia(c) probetchu handia eguinen du.

Hogeita bigarren errezeta²⁶

Idia hantua denean nola sendatu behar den

Ordinariosqui idiac hantcen dire belhar sendoeguiac yanez eta guciz ihiçarequin direnean eritarçun horren sendatceco, asqui da choilqui adar bat alderen alde cilhaturic eta hura olioz pherecatuic guibelleco aldetic ayuta beçala idiari edo behiari emaitia; hirur edo laur erhi ondarcian barna guero passaya çaçue, idiac haice hanitx eguin deçaquen arteraino eta adarra han dueno pherecatuco dioçue sabela naya (sic) sendo batez.

Hogeita hirugarren errezeta²⁷

Idiac edo behiac ceinbat (sic) animale chume iretxi duenean cer eguin behar den

Seindi duçuenian idiac iretxi ahal duquela animale cenbait, emoçue lehen bai lehen esnia edatera edo ezperen eguiçue decotionea picco melatuz arnoarequin batean eta guero eman arno hartaric idiari edo behiari edatera.

Hogeita laugarren errezeta²⁸

Idiaren handitchuen sendatceco cer eguin behar den

Har eçaçue andredena mariaren arrosaren tipula eta berce ahuribat constantinopolitana, eta hec unguay egos minagrean, guero lot çaçue erremedio hartaz hantura duen lekuan; eta hala laster leher aracico dio bere anditchia. Lehertu denean, garbi çaçue hura goiçetan eta arraxaldetan guernu eta (sic) pichas.

²⁵ Garazikoan, 24.a.

²⁶ Garazikoan, 25.a.

²⁷ Garazikoan, 26.a.

²⁸ Garazikoan, 27.a.

Hogeita bosgarren errezeta²⁹

Idiac çangua hantua duenian nola sendatu behar den

Hartaracotz har çaçue cenbait ahour (sic) osto sauca eta hec unguuy iraquit gantz guti batequin batean, eta guero egossi direnean, lot çaçue unxa cathaplasma hortaz eta hala laster iccusico duçue hantura consimitua(sic). Cataplasma hori eguin daiteque hoxic eta frescoqui; hartaracotz har çaçue ceinbait (sic) ahur sauca osto eta ungui hec cheatu direnian emoçue urin hurtua, cataplasma eguiteco asqui den beçala

Hogeita seigarren errezeta³⁰

Idiaren latoin (sic) eta aztaparretaco minen sendatceco erremedioa

Eritarçun hori arribatcen çayo idiari maicenic neguian eta guciz horman traillaatcen denian non orduan baitirudi (...) Idiari aztaparra lanceta çorrotz batez picca dioçoçue aphurbat barnazco eta guero erre dioçoçue picco hetan, arinqui gantçu urin hurtuz, senda arteraino.

Hogeita zazpigarren errezeta³¹

Idiaren berce façoinez aztaparra colpatua denean nola sendatu behar den

Lehenbicoloric gauça eguin behar dena da aztapar hura fundameneraino unguuy garbitcia eta guero lot goicetan eta arraxetan urin hurtuz ezcoarequin nahassiric bors edo sei egunez continatu (sic) duçuenen, guero berce harenberce egunez mainatuco duçue arnoz edo minagrez ezti guti batequin nahassiric.

Hogeita zortzigarren errezeta³²

Idiac barrabillac hantuac dituenean cer eguin behar den

Harçaçue clera guti bat eta hartaz vinagrearequin eguiçue liga edo ahia eta guerro gantçu edo phereca hantura duen lekhian. Idorcen denian lokarri hori lothuco dioçue gans guissaz (sic) berce batçuec diote photço baten minaz azqui (sic) dela perecatcia berehala hantura gucien eramateco.

²⁹ Garazikoan, 28.a.

³⁰ Garazikoan, 29.a.

³¹ Garazikoan, 30.a.

³² Garazikoan, 31.a.

Hogeita bederatzigarren errezeta³³***Idiaren adarra arrailatua denean cer eguin behar den***

Idiac adarra erdiratua duenean, frota dioçoçue adarra minagrez gatz eta olio guti batequin batean, eta guero phereca çoçue urin hurtuz arrachina guti batequin nahassiric eta continua pherecatce hori cazpi çortçi egunez.

Hogeita hamargarren errezeta³⁴***Idiac beguiac hantuac dituenean cer eguin behar den***

Beguiac hantuac dituenean; eguiçue ahia ogui nostrayaren irinez eta ezti guti batequin, batean; eta guero hartaz lot goiçetan eta arraxetan; orduan, estia dela causa uliec khexa baliçaquete debecatuco duçue accident hortaric baldin alastrenaz (sic) begui inguruac pherecatçen baitiotçue.

Hogeita hamaikagarren errezeta³⁵***Idiac beguiac churia duenean cer eguin behar den***

Noiz eta ere eçagutcen baitioçue beguiac churia duella (.....), hartaracotz lot eçaçue goiz arraxetan beguia (.....) berce batçuec baliatzen dira balea gaznaren (sic) erhautsaz.

Hogeita hamabigarren errezeta³⁶***Idi begui nigartiac nola behar diren sendatu***

Idiari nigarra darionian eguiçue ahia ogui nostrayaren irinez eta hartaz lot goicetan eta arraxetan edo ezperen hiraquit çaçue mairi arrosen erruac hura eta estiarequin batian; guero hartaz maiz lot idiaren beguia. Berce batçuec baliatcen dire thutiaz, vitriolaz, hur arrosatuarequin batean.

Hogeita hamahirugarren errezeta³⁷***Idiari çaragarra khentceco***

Hareçaçu ahur bat khedarra, ahur erdi bat soffre eta laur baratchuri buru; guero hec elgarrequin chehatu direnean frota çaçue idia bizpahirur aldiz edo ezperen har eçaçue idiaren behassun bat eta hartan barna emoçue bi unza sofre lore; guero

³³ Garazikoan, 32.a.

³⁴ Garazikoan, 33.a.

³⁵ Garazikoan, 34.a.

³⁶ Garazikoan, 35.a.

³⁷ Garazikoan, 36.a.

ungui nahassi dituçunean, gantçu eta phereca çaçue idia hirur goicez eta arraxez eta finean antzara (urinez?) edo ganz gueçaz.

Hogeita hamalagarren errezeta³⁸

Idiaren ulcera edo larrudura sendatceco erremedioa

Hartaracotz har eçaçue kalitx ungui ontuac eta idortuac eta hec passa zethabexi batian; guero erraux hortaz balia çaitetzte ulcera eta larrudura gucien sendatceco.

Hogeita hamabosgarren errezeta³⁹

Sugearen aussiquien eta photço errabiatuaren erremedioa

Senti duçuenian idiac poçoinstatuac direla, asqui duçue pherecatcia aussiquia den lekhuano olio escorpionaz edo esperen har eçaçue lau untça salboin çahar guero hurt laurden bat minagretan, hetaz maiz garbi eçaçue aussiquiac diren lekhuano. Façoin bera eguin deçaqueçue mirra arnoarequin hiraquituric, bai eta halaber leiçarrarequin eta finean ceinarhurdon (sic) edo pateo arrosarequin, arnuano edo minagreano hiraquituric.

Hogeita hamaseigarren errezeta⁴⁰

Idiari açazqualla erorcen cayoneano cer eguin behar den

Har eçaçue turmentina, ezco horia eta eztiaco bacoitçetic untça bana, eta hec elgarrequin hurtu direniano, asqui duçue pherecatcia idiaren hoina hamabors eguinez eta guero arnoz eztiarequin nahassiric edo ezperen lot eçaçue aloes-matic (sic) eta alun, untça bana eta ungui cheatu direniano eguiçue cataplasma arrolce churingoarequin bateano.

Hogeita hamazazpigarren errezeta⁴¹

Idiari leiçorren eta mandulien aussiquien contra cer eguin behar den

Leiçorrec manduli edo cembait berce uliec aussiquitcen tusteniano asqui duçue claira edo cerussa guti bat huriano trempatcia eta liga hartaz eguinanco bietano guero idia hartaz goicetan eta arraxetan lotcia.

³⁸ Garazikoano, 37.a.

³⁹ Garazikoano, 38.a.

⁴⁰ Garazikoano, 39.a.

⁴¹ Garazikoano, 40.a.

Hogeita hemezortzigarren errezeta⁴²***Idia leiçorrec, manduliec ez aussiquitceco erremedioa***

Hartaracotz azqui duçue malba osto pusca bat ungui chehatcia eta olio guti batequin liga beçala eguitea; eta guero idia hartaz goicetan eta arraxetan pherecatcia.

Hogeita hemeretzigarren errezeta⁴³***Leihotaric eta athetaric leiçorren cassatceco erremedioa***

Har çaçue ahur bat erramu osto edo bihi eta hiraquit hurian; guero hur hartaz phereca çaçue idia, guero berce alimale guciac ceinaren bidez casatuco baitire hetaric leiçor, manduli eta berce illi suerte guciac.

Berrogeigarren errezeta (G. 43.)^{44/45}***Ardien çaragarraq khentceco erremedioa***

Ardien çaragarra içan arren apparantciaz eritarçun chumea yaquin çaçue hura dela causa, ethortcen çayotela asco berce eritarçun gaisto, nola baidire piccotac, içurriac eta berce accident handiac eta hala bat bederac behar lituque artha handirequin hastetic eritarçun horri erremedioac eman.

Hartaracotz erranen daroçuet auctor handi batequin: asqui duçue ardiac mosten tuçuenian erremedio huntaz gantçutcia edo pherecatcia: har eçaçue beraz olio liga, arno churiaren liga eta cenbait lupin chehaturic, guero hirurac ongui trempatu direnian elkharrequin batian, phereca çatçue çuen ardiac immincione hortas ephelduric.

Ordean hori eguin eta hantic bi egunen buruan garbitu beharco tutçue hur gaciz edo itxasoco hurez eta hala iccusico duçue nola debeatuco titçuen eritarçunetaric ez solamente çaragarraric içaitetic bainan oraino eritarçun borthitcetaric; bide hortaz illea legunago eta dulciago eta emiago ethortcen baiçayote.

Azkena 1. Baigorrikoa

Heyetan fumigaçionez edo urrindatcia eguiteco promes emaiten derauçuet liburu hunen hastian eracuxico nauzquitçuela cer façoinez eguin behar ciren fu-

⁴² Garazikoan, 41.a.

⁴³ Garazikoan, 42.a.

⁴⁴ Garazikoan, 43.a.

⁴⁵ Hau da ardiez den errezeta bakarra; idazteko tankeraren aldetik eta Lapurdiko euskalkiaren aldetik Dassanzarena.

mingacioneac (sic) eta hala norc ere sendi baituque heya aire gaiztoz corrompitua dela.

Lehen bicoric garbituco duque hango hasquerietaric eta guero hartuco duque unza bat inssensu, unza bat soffre eta bi untça arrachina; guero hec elcarrquin nahassiric emanen ditucie choffeta bat brassarequin eta khe hartaz ingura çaque barruquia gucia eta continua guero erran den urrindatce hori droga finitu arteraino.

Funmigacione (sic) hori eguinen duquen beçain sarri hartuco duque erramuniac, erramiac, mayoranac, camamilla eta pulegium, eta guero hec su emanic, barruquiaren erdian iduc arasten duçuela khe hura, dela cembait dembora; eta guero emaue aire gutti bat norte phartetic edo ezperen levantetic eta bide hortaz içanen tutque çuen establiac hanitx precocionatuac eta haciendac conserbatuac dela eritarçunetic.

Orduan halere orhoit çaiteste fumingacione (sic) hori orduyan on citaqueyela cembait berdura emaitia barruquietan barna sugueric edo berce alimale liçunic han egon ez dadin; hartaracotz asqui içanen (duque) cucusso belharrez bradura (berdura?) hura eguitea edo esperen leiçar hostoz ihaurquitcen baituque ere ez derautque probetchuric baicen eguinen eta guciz cembait baratchuri buru balsan dutenian.

Droga ta belarrak⁴⁶

Liburu huntan diren droga eta belharren explicationea erran derauquet explicatuco narozquitçuela hemen diren icen barbaro iduriac eta hala banohaue chehequiago bat bederari erraitera clarqui cer diren misterio suerte horic.

Hartacotz yaquin eçaque: 1. Lupin, deitzen den droga hura dela ilhar çabal bat franciaco phartetic probeditcen garena. 2. Nerprun, duçu berriz oihan beltçetan causitcen den elhorri beltçaren frutua beçala, bacha-arana iduri duena? 3. Vesse, da ilhar chume çabala franciatic (sic) ekharcen dena. 4. Sabina, da belhar bat ossoqui alciprea iduri duena baratce curiosetan causitcen dena.

5. Loteron, da belhar bat fresco (sic) baratçetaco murailletan causitcen dena, ceina piccatu eta esnea baitario. 6. Issopa, da halaber belhar bat berberina iduri duena eta ordinariozqui baratçetan aurquitcen dena eta ussain handi batequin bide eta larrain gucietan frangoqui causitcen dena. 7. Issopa da halaber belhar bat berberina iduri duena eta ordinariozqui baratçetran aurquitcen dena eta ussain handi batequin buide eta larrain gucietan frangoqui causitcen dena. 8. Hellebore

⁴⁶ Baigorrikoan.

noir, duçu belhar bat mendietan causitcen dena. 9. çamari bustana deitcen den belharra causitcen da erriperetan.

10. Mirra da droga bat droguistec salcen dutena. 13. Vitriola façoïn berean droguistec saltcen dutena. 14. Litarqui, orobat, gurussa (sic) guisa bera eta nihorc baldin penetan baçarete eçin içanez erran ditugun belhar eta droga horiec, guidatuco çarete gure etchera behar duçuenaren içaiteco eta hala promez emaiten derauçuet probeditua içanen naiçela çuen cerbitçatceco erran tudan gauça guciez, hala nola asco aldiz erran dudan Constantinopolitana miragarrias.

Baigorrikoaren aurkibidea

Unhaduric primaderetan.....	1
Idiaren sabelminen khentceco.....	2
Idia charmadurez.....	3
Idiaren uchada edo sabeltasuna.....	4
Idiaren erorteco mina.....	5
Idiaren gatarra.....	6
Idiac odolez picha.....	7
Idiac picharic ecin eguinez.....	8
Idiac harria duenian.....	9
Idiac bere natura gogortua.....	10
Idiac mihi azpia hantua.....	11
Idiac errainetaco mina.....	12
Idiac berce errainetaco mina.....	13
Idiaren oinhacen eta doloren.....	14
Idiac biriquetaric arrangurac.....	15
Idiac herciac galtcen hassiac.....	16
Idia estulaz atacatua.....	17
Odiac haxa labur diela.....	18
Idiac almaquetan min duenian.....	19
Idiari lipia khentceco.....	20
Idiac golardo duenian.....	21
Idia hantua denean.....	22
Idiac cembait animale chume irexi duenean.....	23
Idiac handitchuac.....	24
Idiac çangoac hantuac.....	25
Idiaren aztaparren.....	27
Idiac barabillac hantuac.....	28
Idiac adarra arrailatua.....	29

Idiac beguiac hantuc dituenian.....	30
Idiac beguian churia duella.....	31
Idi begui nigartiac.....	32
Idiari çaragarra khenteco.....	33
Idiaren ulcera edo larruduren.....	34
Suguearen aussiquien.....	35
Idiari azzacalla erorcen.....	36
Idiari leiçorren eta mandullien aussiquien contra.....	37
Idia leiçorrec, manduliec ez ulithec ez aussiquitceco.....	38
Leihotaric eta athetaric leiçorren cassatceco.....	39
Ardien çaragarra khentceco erremedioa.....	40

I.5. Zuberoako idazlana


Barkoxe Peilleneneko idazlana (XVIII. mendekoa)

Gure Peillen deituraren jatorrizko etxea, Barkoxen Maidalenako bide abioan dago. Peilleneneko askaziei zor diet, beste erdal idazki askoren artean, idazlan hau gorde izana. Beste gehienek bezala ez du berezko izenbururik. Ez da eskuizkribu osoa, lehen hamar orrialdeak kendu direlako, bestalde hona bere ezaugarriak:

1. Neurriak: 11 x 16 cm
2. Orrialdeak: 35; 11tik 46eraino zenbakituak.
3. Paperean ez da markarik ageri, baina argian ikusita XVIII. mendeko mar-radun sendoa da. Denborarekin papera guti horitu da eta tinta marroitu.
4. Idazkera: XVIII. mendekoa (pastoral zaharrenetakoa).
5. Hizkuntza: XVIII. gizaldi erdiko zuberera oraingo zubererarekin desberdin: mahartce/mahats, lahasi/nahasi, arthio/artio, -drano/artino, thenpora/denbora, huts/hüts.

Peillen etxeko norbaitek aldaratu zuen ezen hemezortzigarren mende hasieran ageri baita, hirur urtez errejenta ordaindu zutela, etxeko seme txikiak, Peillen umezurtzak, idazten eta irakurtzen ikas zezan edo iraultza garaian Jean Pierre Peillen *Garde Nationale*ko kapitain izan zena alderatzailea litzateke⁴⁷.

⁴⁷ Eskerrak Jean Pierre Chabalgoity "Peillen" Barkoxeko kusiari, zeren ützi beinündian kartila zahar horren fotokopiatzera.



Besteekin alderatuz, Zuberoako idazki honetan ez da eritasunen xehe-tasunik ematen. Izenburuan baizik ez da agertzen gaitzaren izena. Ondotik errezetak zenbaituak idatzi zituen, baina ageri da eskupean ez zuela liburu bat, baina orrialde solteak zeuzkala zeren beste idazlanetan azkenik dagoena, Barkoxekoan IO.etik aurrera tartekatzen delako, nahasian. Hogeita hamazortzigarren eta hogeita hemeretzigarren errezeten artean, gure leinuko norbaitek agian, *Lupe beltcharen erremedia* tartekatu du, Barkoxeko euskaraz eta garai bereko idazkeraz.

Idazkera horretan ere hizki batzuk beti larri idatziak dira "E, S, I, D, L, eta B batik bat, ez "a, b, h, m, g, p". Hau XVIII. mendeko eskribauen ohitura zen. Ortografia, garaiko nahasia da, batzuetan frantsesari hurbil azentu batzuk han-hor, "k" eta "kh" hitzen erditan, batzuetan hasieran. Kopaaren tipografiarekin ematen dut.

Ondotik testu honen azterketa zehatza eginen dugu orain lehenik osorik eta den bezala emanen; hamaikagarren orrialdean hasten da:

ZUBEROAKO IDAZLANA

(11. or.)

(..) hory eguin beçain sarry: har eçaçu: laür ontça ne(r)prun bihy: eta beste laur ontça Konstantinopolitana: eta ontçabat neffar gaitz (sic) larritic eta hourac algarreky onxa cheheka: eta pintoubat houretan onxa herakituric doy hoztu denian emoçu idiary hartaric edatera eta ezpada lehen aldian idia sendotcen continia eçaçu çombait egunez suitan.

(12. or.)

6. errezeta: Idiac Sabeltarçuna dianian cer Eguin Beharden sendatceko

Eçaguturen (düçie) noiz dian Eritarçun hora imoretan ordenariozky: eta ordian eztiçoçula Eman Jatera: ez eta edatera: vigne (sic) edo hirour egunez: çombait mahartce (sic) osto baicic: eta hourac éré ardouan trempaturic: eta mirra gutibat ardouan trempaturic emoçu idiary edatera:

Eta guero hirour egunen burian (13. or.) presenta içoçu plan- plaigtaigna (sic): edo camamila edo çamary buztan deitcen den belharra.

Eta ondoko egunetan gogua eman içoçu edatera Emaitian emoçu Erramu ostouareky trempaturic: hoguey eta laur orenez: edo bestela heraky eraciric Erramu ostoueky doy hoztu denian çombait egunez idiary edatera: goizçan barourric (sic)...

(14. or.)

7. errezeta: Idiac Erorteko mina dianian: Cer Eguin Behar den

Idia eçaguturen duçu: bere maneria partikularretic: Jesto Eguinen du: ahoua

okherturic: çankhoac éré: ahotic barouxa doukola (sic): eta bigua: edo hirour orenen burian: deus ezpeilu beçala: jaikiren da: eta ordenarizky eritarçuna ukheiten dicie: by hilabetetic: by (15. or.) hilabetetara: eritaçun haren sendotceko:

Har eçaçu:pintoubat ardou hobenetic: eta astoaren çankoco azazkulutic: eta idiaren belarreko eçurretic: limaturic ontça bat: eta onxa chéhekaturic trempakhin hartaric idiary edatera hoguey egunez goiz oroz Emaiten derioçularic barouric ahotic behera idiary....

8. errezeta: Idiaren colpien: eta erorten direnian sendotceko cer Eguin Behar den.....

Noiz éré sendy beituçu idia erory dela: eta badiala inflamationé: eta colpia den lekhia: hour hotcez onxa frescatuco deroçu eta guero ourin hotcez: bereka içoçu: edo ourdakhiz: eta gogortia bada: Ecin haboro houn dikeçu seignatcia Bertan sendotceko

(17. or.)

9. errezeta: Idiaren Leherduren: Edo Doloren contre: cer Eguin Behar den....

har Eçaçu ahur bat li-acy eta beste ahur bat cama- camamilla (sic): eta hourak onxa heraky eracy: pintoubat houretan: eta makhila batez lahas boulia beçala: eta guero: oyhal batetan eçar emplastu houra: non ere beita leherkura: edo hankura edo orano

gogortarçuna:sendy beituçeçu idiary....

(18. or.)

10. errezeta: Idiac Litiketaric (sic) Erranoura aztura (sic) denian: cer Eguin Behar den Berhala...

Dirisketako (sic) errankura hory gaitz da idiary eguiteko mobimentu handian kontua heguiteko (sic)...

Bena halere eguiçoçu lehenic: hour beroz mangeteraren ukhuçtia: eta guero belhar urin hounez fretatcia; eta d (sic) ordian idoky itçaçu theguy hartaric: ourdiac: bohor eta beste cabale suertiac: salbu asto çombait amorekatic eta harçara eman eztiçen eritarçuna.

(19. or.)

11. errezeta: Idiac Errayac gastaturic dutianian: cer eguin Behar den...

har eçaçu hirour ontça thurmentina: eta Eremedi houra; haur baten eskiaz: idiary guibelesko aldetic sar eracy içoçu ahalic barnena thurmentina houra...

Edo Ezpaduçu thurmentina-ric: Eguioçu gantz gueçaz: edo ezperé ourin hou-
hez hourtu gabe hirour goitcez (sic)...

12. errezeta: Idia Eztulez atakaturic denian cer eguin Behar den...

har Eçaçu ahur bat hisopa eta hora heraky eracy pinta (20. or.) erdibat houre-
tan eta guero iraz: eta eman batera: eta ordian emoçu phorru osto ahur bat chehe-
katuric onxa: eta garagar irinareky batian hourian trempaturic...

13. errezeta: Idiac haxa Labur denian cer eguin Behar den...

Eguioçu beharrietan chilo: eta guero helebore deitcen den belharra cherka
eçaçu: gargandilla beilu beçala: eta harec sendo eraciren labursky...

(21. or.)

14. errezeta: Idiac alamaketan(sic) min dianian: cer Eguin Behar den...

Eçagutu duçunian idiac alamaketan ornaua (sic): doloriac: dutiala...har eçaçu
hirour ontça alcipre: eta hora heraki eçaçu vvnagrian (sic) eta guero onxa
chehekaturic idiary eçar icoçu doloria dian lekhian:

Bestela aldiz seigna eçacu almaketako çaignetaric: eta guero phorru ahur bat
hourian onxa herakituric hartaric emaçu pintoubat aldian idatera (sic) sendo
arthio..

(22. or.)

**15. errezeta: Idiac Luppiaren contreko Erremedioa noula sendotcen den Idia
eta cer Eguin Behar den...**

Luppiaren erremediric hobena: duçu phicatcia: eta guero Bourra freskez çaury
haren fretatcia: eta goiz arax (sic) oroz cambiatcia: eta freskatcia...

**16. errezeta: Idiac Golardoua. Edo Lepphoua hanturic dianian: cer eguin
Behar den...**

Idiac golardoua dianian: Lepphoan dikeçu: eta uste Baduçu Badila mathe-
riaric: chilaturen duçu Bourduigna gorri Batez: eta guero Emoçu (23. or.) Chilo
hartara assun çain gutibat: eta guero: seignaturen duçu Behari guibeletic: edo Be-
llarretic. Eta içanen da sendoric...

17. errezeta: Idia,c (sic) hanturic denian: cer eguin Behar den.

Behar duçu ukhen: urrutx tartabat: Besso Baten ungu-ria Lucé: eta haren
Buria Ly apur Batez ungu-ratu: eta plegatu:eta onxa ollioz: edo Bestela ourin ho-
tcez Berekatu: eta Idiary guibeletic sar Içoçu: Errain Kurutchiala drano (24. or.)

eta ez haboro: eta guero passey a Eracy Eçaçu Idia eta orano Dembora Berian Barra Batez Bidec Barraren By Burietaric Lothuric: onxa Sabella Bereka Içoçu..

18. errezeta: Idiac çombait ainharba edo animal gaizto Jaten dianian: cer eguin Behar den...

Idiary Emoçu Lehen beno lehen: Behy ezné Edatera: edo Ezpere; Eguiçu phi-ko malatuz: ardouareky Egos Eraciric: Emoçu pintoubat aldian Edatera: sendo artio Idiacontinia.

19. errezeta:Idiaren hankuren sendotceko cer eguin Behar den...

har Eçaçu ahur bat: Andere dana Maria: arrosaren thipoulan edo lilia: eta Beste ahur bat Constantinopolitana eta hourac onxa egos Eracy vignagrian: eta guero Eçar Emplastu houra oyhal edo Larru batetan hankura dian Lekhian eta Laster Chilaturen çioçu: eta leherturen çayonian chahat Içoçu Çaury houra; ourinez: edo phichaz: goiz eta arrax oroz sendo arthio...

(26. or.)

20. errezeta: Idiaren çankhoac hanturic dutienian: cer eguin Behar den.

har eçaçu çombait ahur sabiko osto: eta hourac onxa heraky

Eracy ourinin: eta guero Eçar Eçaçu oyhal: edo larru Batetan Emplastu hory: eta Eçar Içoçu Idiari hankura den Lekhian: eta suitan houn dukeçu hotzic éré: Emplastu houra...

21. errezeta: Idiac aztaparra: edo achurhoingnin min dianian: cer eguin Behar den

(27. or.)

Ordian Idiaren aztaparra Lantceta Batez Chehekatu behar cioçu: aphur bat Barna eta guero ourinez onxa freta sendo arthio çoimbait (sic) Egunez.....

22. errezeta: Idiac achur hoigna colpa- colphaturic (sic) edo amurraturic dianian: cer eguin Behar den...

Lehenic Behar diçu hoing hau onxa Chahatu: fonda-menila drano: eta guero ourina Cyhouareky Lahastekaturic: (28. or.) goiz arraxetan onxa fretatu Bost edo Sey Egunez: eta orano continia Içoçu ardouz edo vinagrez: Ezty gutibateky lahas-tekaturic sendo arthio...

23. errezeta: Idiac Barabillac hanturic dutianian: cer Eguin Behar den..

har eçaçu clera gutibat:eta hora vignagriareky nahas: eta Eguin Emplastu Edo drogabat erta guero harez: Bereka Içoçu hankura: eta Idortu denian: Bereka Içaçu Berriz: gantz gueçaz: goiz (29. or.) eta arraxetan edo orobat pptxo (sic) Baten Behassunaz: Edo ourde minez Bereka Içoçu: Laster sendoren çioçu..

24. errezeta: Idiac adarra hausten dianian: Cer eguin Behar den..

ordian Behar du vignagrez: gatcez: eta ollioz onxa freta içoçu adar lekhia: eta guero gantz ourinez eta Errecignaz: algarreky Lahastekaturic: harez onxa freta Içoçu sazpi Egunez goiz: arax oroz...

(30. or.)

25. errezeta: Idiec Beguiac hanturic dutienian: Cer eguin Behar den.

Eguiçu Emplastia: garagararen Irinaz: eta harez Bereka Içoçu onxa goiz araxetan..

Bena noula Eztia dela Causa ulliec fatigua Beliro-ye: Bereka Içoçu Beguy Inguruniac aleatrenaz: edo ourinez...goiz oroz...

26. errezeta: Idiac Beguietan Chouria Dienian: Cer eguin Behar den.

(31. or.) har eçaçu sel amouniac gutibat eta ezty gutibat: eta guero Lahas algarreky: eta hartçaz: onxa Bereka: edo Bestela orobat: gazna Çaharraren cizkaz: edo her- herhauxaz achalecotic..

27. errezeta: Idiec beguietan Nigar dianian: Cer eguin Behar den

Eguiçu emplastia: garagararen Irinaz: eta harez Bereka Içoçu onxa goiz araxetan

Eta bestela Bassa arrosaren çaingna: ardou Chourian herakituric: Eta Ezty Eçariric Bereka Içoçu onxa goiz arraxetan ..

(32. or.)

29. errezeta: Idiac thigna dianian: cer eguin Behar den

har eçaçu Calitz onxa hountietaric: eta I(d)ortietaric: eta hora Cetabian onxa Igaren (sic) ondouan:haren erhauxaz onxa fretatcia...

30. errezeta: Idiac sugue oussoukien edo phoçu Erabiatiaren contre: Cer eguin behar den

Bereka Içoçu oussouky hora: ollio genebrez: edo Bestela har Eçaçu Laur ontça sablou (sic) Çaharretic (34. or.) Eta guero pintoubat vignagretan hora onxa hourt eracy: eta harez onxa chahat Içoçu onxa oussoukia hirouretan (sic)..

31. errezeta: Idiac golardoua dianian cer...

Idiary golardoa (azpian golardoac) dianean (çaitçonian ezabatua). Cer eguin behar den sendo erazteko

Eritarçun haren erremedioric lasterrena Mihy petic segnat-cia: eta guero phorru ahur bat Capis: sabina: Morsceaus Diabolios (sic): algarreky herakituric: eta guero Iraciric. (35. or.) Edatera Emoçu hour hartaric: Eta guero ontcy Batetan ardou hobenetic: Ly-acy: maris: hauxareky nahasiric: eguiçou Emplastia: eta guero harez onxa bereka Lephoua:

32. errezeta: Idiary azazkuliac Erorten Çaitçonian cer Eguin behar den sendotceko..

har Eçaçu Thurmentina Ezko hollity: eta Ezty ontça Bedera: eta hourac algarreky (36. or.) hour Eracy dutuçunian fitez Eçar Içoçu Idiari aztaparrian..

33. errezeta: Idiac odolez phicha eguiten dianian: Cer eguin behar den Sendo Erazteko..

Ordian Idiac Eztiçu deusere Edan behar:

Bena har eçaçu hirour ontça artho irin eta triagua eta pintou Erdibat ardoutan heraky Eracy: eta hartara Emoçu soffre Bilhobat:eta Edary hartaric Emoçu Idiary (37. or.) Edatera hirur Egunez goiz: araxetan eta sendo arthio continia Içoçu...

34. errezeta: Idiac ecin phicha Eguiten dianian: cer Eguin Behar den

Idiac phenatcen dira Ebiltian Ecin phicha Eguiten dianian.

Seignaturen duçu: mihipeko Çaignetic:eta guero hirour goizcez Edan Eraz Içoçu: ardou Chourian Lahaste-caturic: ollio hounetic: eta Ezty gutibat: suyan Ephélturic amoderatuky...

(38. or.)

35. errezeta: Idiac harria dianian Cer Eguin Behar den

Noiz Eta Eré: Eçagutu Beituçu Idiac harria diala: phicatcia da: eta Idokitia hobena: eta segurena:

Bena Ezpada posible amenx: Emoçu Erremedio haur: har eçaçu By ontça millu marin (sic): eta Erro ontça laurden bat: especia itce: eta haren Erdia piper: eta guero hourac onxa Chehekaturic (39. or.) Emoçu Idiari Edatera ardou Ephélian: eta continia Çombait Egunez aitcinna...

36. errezeta: Idiac Bereitidura dianian: eta gogorturic denian: Cer Eguin Behar den..

Asky duçu: malbaren Egostia Burriareky lahasiric: eta hartaric Edatera Emoçu Çortcy Egunez: eta natura ere Bereka Içoçu hour hartaric çombait goitcez..

(40. or.)

37. errezeta: Idiac Mihy ondoua hanturic dianian: Cer eguin Behar den...

Eçagutu duçunian Idiac Mihy ondoua hanturic diala:

Demboraric galdu gabe chila Içoçu: mihy peko Çainnegty (sic): bur- Burduigna (sic) gorry batez: edo Bestela Lancetta çorrotz Batez: eta Idokoçu odol aphurbat: eta guero çaury houra freta Içoçu (41. or.) ollio hounez eta gatcez algarreky Lahastekaturik: eta Continia Içoçu: Amorekatic Camporat Jouan dakhion hour houra: eta Thempora hartan Jatera Emoçu Idiary Belhar fresk: eta Ezpadu apetituric Emoçu arrautcebat: Ezty guty Bateky hour Epphelin: Edatera: eta hantic aiticina Emoçu çombait gayez: Bihy jatera: edo ascary: mestura prestetic: altchatutic.

(42. or.)

38. errezeta: Idiaren Erraigneko minaren sendotceko cer eguin Behar den:

Eçaguturen duçu plaignu Eguitetic: eta partikularky traigna Eratciren deriço çankhoac: çointan Ecin heda Beititatké: edo hedaturic Badutu: Ecin Bil Beitiçatke: alphéétaric éré Ecin Balia daite: eta Buztana éré Ecin çotuka ez eta Byribilka: eta haren guerrentcia éré Jossia date: eta guibleko traina ere (43. or.) ossoky desguissatia: (*hitz bat jana*) Enkas eta Inflammationeric Badu: phuntu eta Casu hartan: eta orano picha odolla udury: eta dena éré guty: eta grado hartan hanitz Iraiten Badu: ezaté harez hounic:

Bena Ezpadu gorridura Baicic: Idoky Içoçu odol gutibat: seignatcen duçulatic: almaketaric: eta phorru ahurrutabat (sic) hour Chahu Batetan trempaturic: eta hour hartaric: çortcy Egunez Emoçu Idiary Edatera Barouric. (44. or.)

Paratzailearen oharra: Beste esku batez tartekatua

Lupe belcharen Erremedia

Lehenic Cines Ségna odol aphurbat, boutilabat ardou beltz gobeletbat binagre ascar ahurtarabat nefar ga(t)z ahurbat baratchouri chekaturic ahurbat chremant haux eta ahurbat kherade egosiric Minen gagnen hez(?) hancura agery bada.

(45. or.)

39. errezeta: Borda edo theguy eta Cabalen Egon Lekhien parfumatcia: ayre (sic) edo khoçu gaiztouen contre:

Noiz Eré Sendy Beituçu Cabaletan ayré gaizto edo theyutarçun hetaric:

Hartuco duçu:gaitz haren contre houn diren eremedioac: çoin Beitiradé ontçabat Intxentçu: eta Beste ontçabat soffre eta By ontça Errecigna.(46) Eta hourac algarreky Lahassy dutuçunian: Eçar Içeçu: Chofeta Batetan Intkhaz (sic) aphur bat suyareky: Eta Khé hartçaz verritan Borda: edo thegua ungura: eta continia Drogac akaba hartio parfumatcia..

Eta houra Eguin Beçain sarry:har Eçaçu ahur bat Eramolia eta Erramu mayonana: eta Camamila ...(..)⁴⁸

I.6. Garaziko idazlana

- Goihenetxeren *Marixalen liburia* (1830)

Euskaldun errejenta edo maisu baten abezedario edo, lehen ziotenaz, “Jesus” baten ondotik dator idazlana. Jesusak dakar nola zenbakiak idatzi, nola kontsonanteak eta bokalak bereizi eta idatzi euskaraz.

Lana idazkeraz XIX. mendekoa da eta azalak dakar noiz, norik eginan izan den, jabetasuna mintzaira ofizialean ziurtaturik.

MARICHALEN LIBURIA Escuaraz

Bertrand Goyenetche

Fait à Saint Jean Pied de Port le 25 mars 1830

Eskolan erabilia izan da eta erran bezala oraingo eskola maisu batek fotokopiatzera utzi zidan 1984an Donibane Garazin berean, elkar ezagutu genuenean. Hona eskuizkribuaren ezaugarri nagusiak:

1. Neurriak: 11 x 15 (ik. Zuberoako idazlana)

2. Orrialdeak: 174. Errezetak ere zenbakituak dira: 44 errezeta.

Nonbaitetik bildua, besteek ez daukaten errezeta bat ematen du Goyenetchek *Mandoak çamarra beguian duenian*.

(Azken orrialdeetan ematen du hitzaurrea eta ondotik bi aurkibide: senda-belarrena eta gaitzena)

⁴⁸ Azken orrialdea kendu da.

3. Papera: markarik ez da ageri.
4. Idazkera txukuna, garbia, argia, erdi *script* gisakoa, XIX. gizaldikoa: hizki larriak bakarrik perpausen hastean agertzen direlarik. Batzuetan frantses grafiarako joera du: (ou, ai, oi)⁴⁹
5. Euskara: lapurtera, oso guttitan aldatua.
6. Aurkibide argia ere dauka idazkiaren azkenean.

Eskuizkribu hau osoena da, errezeta kopuru aldetik baita 8. errezeta due-nean, 7.a da zubereraz eta 6.a Baigorriko zaharrena omen delakoan.

Barkoxe eta Amikuzeko idazkietan “Laborarier abisua” agertzen ez delako eta horiek baizik ez bagenitu, ez genekike non eta nork eginik den, baina Garaziko idazlanean Lapurdikoa dela jakiten dugu eta Baigorriko aldakiaren bidez egilea nor den.

Kopia honetan, ageriki, Dassanzarenak ez diren bi errezeta daude: jendeen purga bat, mandoen errezeta, baita ere aingirak harrapatzeko beste bat ere.

Idazlan honen beste ezaugarrien artean, badugu marrazki bat 46-47. orrialdeetan: tintaz egindako idi eder bat dago eta gainean gizon bat erretzen (pipatzen) ari, eta edaten. Azpian idatzita dago:

“Hau da behien eta idien corcoillo barbera gastia, pipatcen du ederqui arno edaten emaiten badacoté. Usatia flascoa aldera, baina barber famatia etc.”⁵⁰

Noski karikatura honek ez du errejenta erakusten baina herriko al baitaria eta beharbada, gazteen onerako eskolan erabil zezan, Goyenetcheri eskuizkribua prestatu zion adiskidea.

Beste marrazki batean zezen itxurakoa agertzen da “Lascaux-ko tankeran” egina eta azpian idatzirik “idia”, hori eskuizkribuaren 28. orrialdean agertzen da. (ikus ondotik).

⁴⁹ “l” ez da gaurko “l” bustia, euskarazko “l” sendoa baizik.

⁵⁰ Den bezala emanen dugu eta saiatuko gara errezeten arteko marrazkiak ihakintzen.

Garazikoaren marrazkiak



Garazikoaren lehen orrialdea



Idiaren marrazkia eta bere orrialdea



Liburu buruaren alboko orrialde zurian garaiko izkiriataileek egin ohi zituzten trebetasunezko kiribil politak daude. Liburuaren izena bera kopia-tzaileak emana da ziur asko ezen Garazi aldean baita albatariari “marixala” esaten. Lehen orrialde horren ondotik JESUS bat edo abezedario bat agertzen da:

Chifretan ikhasteco exemplera

1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 0, 10, 20, 30, 40, 50, 60, 70, 80, 90, 100, 200, 300 400, 500, 600, 700, 800, 900, 1000, 2000, 3000, 4000, 5000, 6000, 7000, 8000, 9000, 1.000.000 etc.

Jesusen ikhasteco moldea

ABCDEFGHIJKLMNQRSTUUVYZ

Æ, Œ, W, C, E, É, È.

a, b, c, d, e, f, g, h, i, j, k, l, m, n, o, p, q, r, s, t, u, v, x, y, z,

Consonac b, c, d, ç, d, f, g, h, j, k, l, m, n, o (sic), p, q, r, s, t, v, x, y, z, eta Vo-yellac a, e, i, o, u, tc..

Beste ezaugarri bat da azkenean kopiatzea noiz bukatu duen idaztea. Urtebeteren lana? Hasieran hizki larritan 1830 agertzen delako eta azkenean *Fait à Saint Jean Pied de Port le 1er avril 1831*. Hemen ere berriz frantsesez dago jabetasun ikurra ere. Bestalde, egileak ez du inoiz erabiliko *Dona Ioane Garazi*, edo *Donibane Garazi* izena idazkian.

Eta 47. orrialdetik aurrera abere sendakuntzarekin ezer ikustekorik ez duena dago: Frantziako Louis Philippe konstituziozko errege berriaren ome-nezko urteko bertsoak. “Libertateko kantua” izenburuarekin kopiatuak dira aurkibidean edo “tabla” delakoan agertzen dira. Hain zuzen, 1830eko Iraultzatxoak zuen Parisen Charles X.a absolutista kendu eta Louis-Philippe konstituziozalea, “errege burgesa” boterera ekarri”.

Ondotik azkenik ematen duen *Laborarier Avisua* gaizki kopiatu du Gohiene-tzek, Gastanbideren aprobazionea Dassanzaren “avisua”-rekin nahasiz.

GARAZIKO IDAZLANA

(1. or.)

1. errezeta: IDIAREN SUKHARRA sendatceco cer eguin behar den.

Idiac sukarra duenian eçagutuco duçe idiaeren inquietadura eta guciz gorputza ikharatcen çayonian. Copetan ere eztu su eta lamaric baicic agueri eta particularqui bi adarren artian.

Halaber berotcen çaiçco beharriac eta ahua icerdia cantoin gucietaric dariola.

Ecen dembora hartan ecin deusic jan deçaque.

Bainan nahi luque cembait gauça fresco milicatu mihiaren idortasuna dela causa.

(2. or.)

Buria ere hanitz pisua du eta beguiac nigarretan tuela, eta finian muthurra limburriz garnitia hanitz lucia.

Façoin hartan sendi duçuenian idia sukharrez atacadua dela egun hartan barrur aracico dioçue eta guero biharamunian, atheraco dioçue odol guti bat buztanaren azpitic.

Ondoco borz egunetan entretenituco duçe gluteron deitcen den belhar fresco hétaric urarequin iraquitu eta hur hartaric maiz edatera emaiten dioçuela eta halaber continua edate hori sukharra yoan arteraino

(beherean mota horretako marra baten azpian)

beharri guibeletaric eta copetatic

(3. or.)

2. errezeta: LANTÇAR deitzen den eritasuna edo ezperen IDI MARTEILIA

Idi marteilia deitzen den eritasuna eçagutcen da noiz eta ikhusten baduçu idiaren iliac sagarroyaren izpiac guisa laztuac tuela, eta idia hanitz tristatua, beguiac ilhucnac eta pisuac, lephua makhurtia, ahotic dariola, bizcarra eztoca beçala gogortua, urhatsa anhitz pisua, appetitia galdua auxnarria edo ruminatcia ezarriagoa.

Eritasun hori hastian sendo çaiteque facilqui behar den erremedioac (sic) emaiten çaiçconian.

Bainan çahartuchez gueroztic (4. or.) escapatcen da eritasun hortaric.

Halere entseyatu behar da eguin ahalaren eguitera.

Hartaracotz harçaçue Constantinopolitana eta meloin erroac, bakhotchetic ahur bana eta hirur ahur gatz larri; eta guero hec elkharrequin chehaturic, trempa çaçue laurden bat arnotan; eta eman arno hartaric idiari edatera goiz guciez gathulu baten betia aldian eta continua dioçoçue arno hartaric idia ossoqui sendotu arteraino.

3. errezeta: IDIAREN BIHOTZ-TERRA khentceco, cer eguin behar den.

Idiac bihotz terra duenian eçagutuco (5. or.) duçue, idia gombite iduriz dagoenian, non orduan berehala mustupila edo muthurra fretattuco dioçue phorruz eta baratchuriz: eta posible bada hetaric chehaturic, arnoarequin har aracico dioçue goizean eta arratxean.

4. errezeta: IDIAREN COLICA sendatceco cer eguin behar den.

Idiac colica duenian eçagutuco duçue idiaren pleinutan, bai eta halaber haren estoc eta gogortasunean, hasi leptotic eta isterrereinoco gucian.

Ordu hartan habarrots hanitz eguiten çayo sabelian, maiz etçan, maiz yaiquitcen da eta ecin dago (6. or.) bere lekuan, icerdia churrupitan dariola, cainton gucietaric.

Gaitz horren sendotceco, batçuec emaiten diote baratchuriac eta phorruac chehaturic, eta arnouan iraquituric arno hartaric edatera laurden erdi baten inguria aldi bakhotchian.

Berce batzuec erremedio hori yuntatcen diote, intzaur, oliva eta tipula, arnotan egosiric.

Hartaracotz harçaçue ahur bana mirra, eta erramou bihiac eta hec iraquitu ondoan arnoarequin, iraci eta emoçue édatéra (sic) arno houra (sic).

Berce batçuec idiari picatzen diote behatz azpico haraguiac eta buztan (7. or.) azpitic, odol guti bat ekkhar deçantçat

Colica suete (sic) hori arribatcen da ordenariozqui unhaduaz primaderetan,

ceren ecen dembora hartan odol soberantciac hobequi errequeitatcen baitira, eta hala odola atheratcen ondoan cembait pasaye eraquin dioçoque ongui estaliric errefria eztadin.

5. errezeta: IDIAREN sabelminen erremedioa

Colica beçala eguiten da eritasun hura eta hala colicarentzat on diren erremedioac bakia daitezque sabelminetan; bai eta halaber drigas (sic) eta orbietan finaz ere arnoarequin edatera emaiten diotela; eta guero biharamunian odola atheraco dioçue mihi azpitic edo suduretaric edo ezperen edan aracici dioçue erremedio huntaz ceina eguiten baita lau untça tormentina eta gatz guti batequin pirolac idiari iretxarazteco eta baldin posible ez bada cintçurrian pasaraztea, urtucotuçue arno beroan; eta guero edana aracico adar batetaric.

Denbora hartan idiac beroqui egon behar du barruqui bero batean⁵¹.

6. errezeta: Idia charmadurez incantatua denian cer eguin behar den

Idia charmatua denian eçagutuco duçue tristeçia handian; bay eta guciz laster bere accioneac eguin nahi tuenian, non orduan idia laburzki hagatcen eta mehatcen baita, heticatua baliz bezala.

Hargatic da neseario prompqui erremedioac eguitea. Hartaracotz eçagutu duçuenan idia charmatua dela emeoçue lehen bai lehen ur hartaric sudurretan barna ceina eguinen baituçue lehen bai lehen ahur bat erramou bihi eta ahurbat yenobria bihi eta untça bat sofre lore, eta guero ur epeletan hogoi eta lau orenez iraçi duçuenian balia çaitetze ur hartaz goiçetan eta arratsetan sudurretan barna emaiteco. Hori eguin beçain sarri preparatuco dioçue miragarri hau, ceina (sic) khenduko baititu charmac eta encantadura.

Hartaracotz harçaque laur ontça Constantinopolitana, untça bat gatz larri; eta hec chehaturic ungui iraquitu behar dute pinterdibat uretan eta guero eman hur hura idiari edatera.

Baldin eta lehen colpetic ezpada idia erremetitia emanen dioçue cembait aldiz erremedio hortaric eta hala ikhussico duçue, efetu miragarri ez solamente idien charmen contra eracusten duen efetua, baina oraino erranen darotçut Constantinopolitana horrec berthute handiac dituela Sedacicus (sic) Arabiaco autor famatu haren erranez, etcen (sic) hain espresuqui seguracen gaitu erraiten darotçunian khentzen tuela eta debecatzen guciac nahiz alimalia presunetan lur eta etçetan eguiten diren guciac.

⁵¹ Hizki txikietan: vulgar vult.

Hartaracotze dio asqui dela erran dugun Constantinopolitana hori bere lurretan eta etchetan idukhitcia. Beraz balia çaitetze erremedio miragarri hortaz.

7. errezeta: Idiac sabeltasuna dianian cer eguin behar den sendotzeko

Idiaren utchada edo sabeltasuna duenian eçagutuco duçue haren issurietan, zeren etzen(sic) clar asqui baitire bat eta berçia eçagutcecotz; eta hala ikhusten duçuenian sabeltasuna duela eztioçue dembora hartan yatera ez edatera eman behar bizpahirur egunez, baiçen choilqui cembait mahatx bihi pipita edo ezperen mahatx ostoac arnotan trenpaturic hara aracico dioçue idiari, eta guero hirur egunen buruan presenta dioçue cembait belhar fresco, nahiz plantagnac edo çamari bustana deitcen den belharra eta guardia ondotic ere bere hura erramou ostoequi iraquituric eman behar dioçue. Cer ere erremedio eman baitut sabeltasunarentçat ceren etzen biac bat beçala eguiten baitire.

8. errezeta: IDIAC ERORTECO MINA duenian cer eguin behar den.

Idiac erorteco mina duenian eçagutuco duçue idia colpez erortcen denian eta guero ahua makhurturic guerlia eta arrapoa ahotic dariola eta çangoa bihurcen beçala, eta finian bizpahirur orenen buruan deusic ezpalu beçala altchatcen denian. Halaco eritasuna duten idiac ordenariosqui atacatuac dira bi hilabetetari bi hilabetetara.

Eritasun horren sendatceco hararaci beharco dioçue laurden bat arnotan astoaren çangoco heçurra, untça bana lumaturic eta ungui chehaturic eta guero continua hogoi egunez goiz guciz emaiten dioçula adar batetari, berce batçuec hanitz baliatcen dire erran dugun Constantinopolitana miragarri hortaz. Hartaracotz asqui dute arnouan edo urian iraquituric ur hartaric idiari goicetan eta arraxetan emaitia.

9. errezeta: IDIAREN GATARRARI EDO CAINNARRARI cer eguin behar den

Gatarraren erremedioric lasterrena mihiaren azpitic odola atheratcia da eta guero porruac, arruta, apio, salbina eta morsus diabolus elgarrequin urian iraquituric iraci eta ur hartaric idiari edatera emaitia.

Eta finian panyeru batian arno ligaz, ogui mamiz eta hautxarequin ahia eguic hortaz lepoa lotcea non bide hortaz laster khenduco baitioçue bere gatharra.

10. errezeta: IDIAC ODOLEZ PICHA egiten cer eguin behar den

Idiac odolez picha eguiten duenian heldu çayo comusqui accident hori hanitz berotua eta bortizqui marfunditua denean eta guciz udan cembait belhar gaisto ihintzez bustia yan duenian.

Gaitz horren erremediatcecotz ezdu deusere idiac (edan behar) edo behar luqye (sic) choilqui edari huntaric baicen hartaracotz harçaçue hirur untça artho irin eta untça bat trigada (sic). Guero hec iraquit pinterdi bat arnotan eta finian yuntacen dioçuela safran guti bat.

Edari hortaric emoçue edatera goiçetan eta arratxetan plantain ura olioarequin.

11. errezeta: IDIAC ECIN PICHAegüinez dagoenian: cer eguin behar den

Idia penaz dagoenian ecin picharic egüinez atheraco dioçue odol gutibat bicicaco çainetaric eta guero hirur goicez edan araz:eztia eta olioa arno churitan nahassiric.

12. errezeta: IDIAC HARRIA duenian cer eguin behar den

Noiz ere baitaquiçue idiac harria duela bicican edo chilcuan barna picaturic atherracia da erremediric segurrena.

Bainan halere ezpada posible nihorc atherracia baliatuco çarete erremedio huntaz haren oinacea apagegatcecotz.

Hartaracotz harçaçue untça bat millu mari (sic) erro untça laurden bat especia itze eta haren erdia bipher; eta guero gucia ungui chehatu direnian emoçue idiari arno ephel guti batequin edatera eta continua cembait aldiz façoin berian emaitera.

13. errezeta: Idiac bere natura edo pitostoa gogortua duenian cer eguin behar den

Eritasun hori guertatcen çayonean idiari asqui duçue malvarisca egostia burrarequin batian eta guero hartaz maiz perca idiaren natura eta laster suflaracico dio bere pithoa.

14. errezeta: Idiac mihi azpia hantua duenian cer eguin behar den

Eçagutu duçuenian idiaren mihi azpia hantua dela enseya çaitetzte lehen bai lehen mihi azpico çainetaric burdin bero batez cilhaturic edo lantceta çorrotz batez odola atherracia da guero gantçu edo perca diaçoçue çauri hura, olioa eta gatza elkarrekin nahassiric eta continua umore gucia camporat joan artino.

Dembora hartan idia entretenituco duçue belhar frescoz eta baldin appetitua ezpadu ernatua laster içan aracico dioçue erremedio huntaz :

Hartacotz harçaçue arroltce bat churingoa (eta goringoa) balxan eta nahas ezti guti batequin guero emoçue anoarequin idiari edatera. Hantic harat emoçue bere yatecotan cembait gatz bihi eta hala efetu onac atheraco dire.

15. errezeta: Idiac errainetaco mina duenian cer eguin behar den

Idiac errainetaco mina duenian eçagutuco duçue plainutan eta guciz guibelego trainaz, ecin aiticina çangoac heda ditçazquenian; almaquez ere ecin segura daiteque; ez eta hain guti bustanna biribilca, non ordian dilindan baitario, haren guernuac usain gaistoa du eta guibelego traina ossokhi pisatua; eta baldin inflamacioneric guerthatcen bada dembora hartan idiaren picha odolaren guisa gorri dohaco eta penarequin eguiten du.

Eta hanitz (irauten) badio, ez da içanen harentçat erremedioric. Bainan ezpada picha hura aphurbat tindatua baicen gorri cara sic) duela bere coloria esparantça da eritasun hartaric sendatuco dela.

Hartaracotz atheraco dioçue odola almaquetaric eta maiz eman idiari edatera porruac (23. or.) ur clarrian trempaturic.

16. errezeta: IDIAREN berce errainetaco mina nola sendatu behar çayon.

Noiz ere senti baituçue idia erori dela cembait gauça gogorren gainera eçagutuco duçue haren colpe handian, ecen ezta behinere falta colpe borthitza dela causa contusione eta inflamacionea.

Hargatic Laboraria dembora hartan idiac mehatchatcen tuenian eztitita (sic) bere lekhutic moviaracico eta colpia (24. or.) duen lekhua maiz frescatuco dio ur hotcez, eta guero gantçu edo péréca (sic) ungui chukhaturic, urin hurtuz, edo urdaiez.

Eritasun horren seignaliac dire campoco aldetic, gogor içatea aisiarat manaya (ez) deçaque; eta pena handia du etçana denian bere lekhutic ecin althchatuz.

17. errezeta: Idiaren oinace eta doloren suerte guehientçat erremedioa eta guciz nekhadurez heldu çayotenetan .

(25. or.) Har çaçue ahur bat liho aci eta berce ahur bat cammamilla eta hec ungui iraquit payeru batetan urian erabiltcen duçue maiz makhilla batez, osokhi ahia eguin arteraino eta guero heda çaçue cembait traputan eta hartaz lot non ere sendi baituçue gogortasuna hanturaric edo oinace duen lekhuan.

18. errezeta: IDIA biriquetaric errencura denian cer eguin behar den. (26. or)

Biriquetaric arrangura horiec gaitz dire idier khentcia heien moimendu handia dela causa.

Bainan halere eguin daquioque erremedio haü (sic) ceina baita lehen-bicicoric Manyatera ur beroz garbitcia eta guero belhar frescoz usain onetacoez ungui urrindatcia.

Dembora hartan khendu behar tuçue barruquitic çamari edo behor, urde eta

berce acienda guciac beldurrez ecen haren hatxac communica eztiocoten eritasun bera.

Hargatic orduan utcico dioçue (*kartako bihotzaren irudi beltza*) (27. or.) cem-bait asto aldian haren hatxac probetchu eguiten diote biriquetaco arrancuren.

19. errezeta: IDIA Estulez atacatua denian cer eguin behar den.

Idia Marfundiz atacatua denian eta guciz eztul handia duela, hartuco duçue ahur bat hissopa eta hura iraquit pinterdi bat huretan. Guero iraci duçuenian edan araz deçaco-çue ur hura idiari.

DEMBORA HARTAN (sic) emaoçue yatera (28. or.) forru ostoac chehaturic ogui nostroarequin batian.

BERCE (sic) batçuec emaiten dio-te idiari armoisaren ura ami-run churiare- quibn batian hissopa eguiten den guisa

(*Idiaren irudia, azpian idia idatzirik*)

(29. or.)

20. errezeta: IDIAC Hertciac galtcen hassia dituenian cer eguin behar den.

Idiac hertciac dessequinac (sic) Ditue-nian hartu behar duçue hirur unçça tur-mentina, eta hura haur baten escuz sar, idiari guibleco aldetic ahalic eta barnena; edo ezperen turmentinaren lekhuana balia çaitetzte, gantz guessaz eta urin hurtuz.

(30. or.)

21. errezeta: IDIAC hatxa laburra duenian cer façoinez sendatuco den

Noiz ere sendi baituçue idiac hatxa laburra duela emoçue beharritan cilhaturic...

Hellebore noir deitcen den belharra gargandilla baliz beçala eta harc on handia eguinen diote.

(31. or.)

22. errezeta: IDIAC almaquetan min dueni-an cer eguin behar den

Eçagutuco duçuenian idiac alma-quetan hoin-haciac eta doloriac dituela, harçaçue hirur ahur alcivre eta hec iraquit mina-gretan

Eta guero ungui chehatu tuçuenian lot çaçue doloria den lekhuana eta laster sendatuco da. Berce batcuc (sic) atheratcen diote odola çainetatic.

Guero porruac urian iraquitu (32. or.) eta hur hartatic idi (ari) edan arazten, Edo ezperen idiaren guernu bera.

23. errezeta: Idiari lipua khentceco edo min gaistoa

Lipiaren erremedioric segur-rena eta lasterrena da, picaturic atheratcia, eta guero

bourra frescoz çauri hura goiz guciez, arratxez gantcucia eta perecatcia.

(33. or.)

24. errezeta: IDIAREN Golardoa edo lepho hantuan cer eguin behar den

Idiac golardoa duenian hanitz tu(sic) lepho gucia hantua, eta baldin sendi badioçu abcestilduma edo materiariç duela, dembora hartan haparantciaz, agueri den lekhuana cilhatuco duçue burdin gorri batez eta guero eman cilho hartan assunen erro guti bat edo ezperen erran dugun Hellebororen (34. or.) erroa eta harçaçue bethi artha erro horietaric sanyatceco idiari edan-aracico dioçue urri belharrarequin iraquitu uretic nahiz goicetan eta arratxetan; copetatic eta beharri guibeletaric odola atheratcia ere probetchu handi eguinen diote.

(35. or.)

25. errezeta: IDIA hantua denian; nola sendotu behar den.

Ordenariosqui idiac hantcen dire belhar sendoqui yanez eta guciz ihitzarequin direnian.

Eritasun horren sendarazteco azqui da choilqui adar bat alde-ren alde cilhatcia, eta olioz gantçuturic edo perecaturic guibelesco aldetic, ayuta beçala idiari emaitia, haise hanitz eguin déçaqueen arteraino: eta adarra (36. or.) han dueno perecatuco dioçue sabela haga sendo batez.

(37. or.)

27. errezeta: Idiaren handitchuen sendatceco cer eguin behar den

Har çaçue ahur bat andre dena maria arrosaren tipula eta berce ahur bat constantinopolitana, eta hec ungui egos minagrian guero lot çaçue erremedio hortaz hantua den lekhuana, eta hola laster leher aracico dio bere hantixua.

Lehertu denian garbi çaçue çauri hura goicetan eta arratxetan guernuz eta pichaz.

(38. or.)

28. errezeta: Idiac çangoa hantua duenian nola sendotu behar den

Hartacotz har çaçue cembait ahur sauca osto eta hec ungui iraquit gantz guti batequin batian eta guero egossi direnian lot çaçue cataplasma hortaz: eta hala laster ikhussico duçue hantura cont-somitua.

Erran dugun cataplasma hori eguin daiteque hotzic eta frescoqui.

(39. or.). Hartacotz har çaçue cembait ahur sauca osto eta hec ungui chehatu direnian emoçue urin hur-tua cataplasma eguiteco asqui den becenbat.

29. errezeta: IDIAREN taloin eta aztaparre-taco minen sendatceco erremedioa

Eritasun suete(sic hori idiari arribat-cen çayo maicenic neguan, eta guciz horma eta carroïnetan trabailatcen denian non orduan baiciduri (...) idiari aztaparra lantceta chorroix batez sacrificatuco dioçue **(40. or.)** aphur bat barnascotho eta guero erre dioçaque pico hetan arin-qui eta gantzu urin hurtuz senda arteraino.

30. errezeta: Idiaren astaparra berce facoinez (sic) colpatua denian nola sendatuco den

Lehenbico gauça dena da aztapar hura fundamenaren (quin, *ezabatua*) ungui garbitcia, eta guero lot goicetan eta arratxetan urin hurtuz segoarequin nahasiric **(41. or.)** borz edo sei egunez continuatu duçuenian, guero berce haren mainatuco dioçue edo minagrez ezti guti batequin nahasiric.

31. errezeta: Idiac barrabilac hantuac dituenian cer eguin behar den

Har çaque clera guti bat eta hartaz minagriarequin eguiçue liga edo ahia, eta guero gantzu eta pere-ca hantura duen lekhan.

Idortcen denian gantçuce hori gantzutuco dioçue gantz guessaz goicetan eta arratxetan

(42. or.) Berce batçuec badiote ho(r)txo baten behassunaz edo minaz asqui dela gantçutcia beheala hantura gucien eramaiteco.

32. errezeta: Idiaren adarra arrailatua denian cer eguin behar den

Idiac adarra erdiratua due-nian frotta içoçie bere adarra mina-gre, gatz eta olio, guti batequin batian, eta guero gantzu edo pere-ca içoçie urin hurtuz arrachina guti batequin nahasiric, eta continua gantcutce hori cazpi (sic) egunez.

33. errezeta: Idiac beguiac hantuac dituenian. Cer eguin behar den

Beguiac hantuac dituenian eguiçue ahia ogui nostrayaren irinez eta ezti guti batez eta guero lot goiçetan eta arratxetan. Ordian nola ezti dela causa, uliec khecha bai-leçaquete debecatuco dioçue accident hortaric baldin eta alcaquerenaz beguiac unguriac pecatcen baitioçaque.

(44. or.) 34. errezeta: IDIAC Beguiac churia duenian cer eguin behar den.

Noiz ere eçagutcen baitioçue beguiac churia duela har çaque sel armonia guti bat (sic) eta nahas ezti pusca batequin; guero hartaz lot çaque goiz arratxetan beguiac

Berce batzuec baliatcen dire balea garrharen (sic) herauthez.

(45. or.) 35. errezeta: Idi begui nigartuac nola sendatu behar dien. (sic)

Idiari nigarra darionian eguiçue ahia, ogui nostroiaren irinez eta hartaz lot goicetan eta arratxe-tan edo ezperen iraquit çaçue mairu arrosaren erroac, ura eta eztiarequin batian.

Guero hartaz maiz lot idiaren beguia.

Berce batzuec baliatzen dire tuthiaren vitriolaz ur arrosatuarequin batian

36. errezeta: Idiaren zaragarra edo hasteria khentceco

(46. or.) Har çaçue ahur bat chimiaco khedarre; ahur e(r)di bat sofre; eta lau barratchuri buru guero el-garrequin chehaturic frotta çaçue idia.

37. errezeta: Hauche Cerbitçatcen da beguietaco, (Are marratua) Aïre edo colpen-daco.

Hartuco duçue Parisco pinta bat ur corritutan. Hirur sosen coupa Rocha churia, sos baten Iris florentça hori egossi gabe ungui nahassiric den gutienaz arratxetan (47. or.) lotceracoan, bustico duçue beguiaren barnia bederatci arratxex seguidan. Odolaren idortasunetic ez pada ezdu faltaco sendatcia.

38. errezeta: Mandouac çamarra beguien duenian cer eguin behar den

Ikhusten duçuenian mandoua samar gorri batequin beguia nigartua duela, asquico duçue imintcia arrolce bat gorringoa khenduric gatcez erdica-la suyan eta guero beltchatu denian, le-hertu gabe athera çaçue campora eta untsa chehaturic piloun batian guero macian passaturic irina (48. or.) beco hura tuta batian imini eta guero oufa batez beguira houtz Bizpahirur Goicez

FINA

Chanson basque

1 er

Philippe iceneco lehen erreguea
Frantces patriot hunen oy buruçaguaia,
Ministro gaisto gucien aborricaillea,
Franciaco chartaren conserbatcaillea (bis)

2na

Charles hamargarrennac bere ministroequin
Guciec nahi gintusten esclabo eçarri,
Noblecia oro aphiesac heyeiquin
Gutas placer çutena nahi çuten eguin (bis)

3na

Bainan trompatu dira yaincoa laudatu
Lafayet eta Lafita ciren abissatu,
Memento beretican ciren abiatu,
Francian libertatia nahis sostengatu (bis)

Fait A St Jean-Pied-de port le 1^{er} avril, 1831 Bnd Gche⁵²



⁵² Beherean irudia, gizon bat pipa erretzen, idi etzan baten bizkarrean eta inguruan idatzirik: *Hau da behien eta idien corcoillo barbera gasia pipatcen du ederqui arno edaten emaiten badacote usatian flascoa aldera bairan Barber famatia etc.*

(Paratzailearen oharra: 50. eta 51. orrialderik ez da, eta 52.a zuri dago)

(53. or.) 38. errezeta: Idiaren çainnerrari cer eguin behar den.

Çainnarraren erremedioric lasterrena mihiaren aspitic odola atheratcia da guero 15 garren paya.

39. errezeta: Idiaren larruduren sendatce-cotz cer eguin behar den.

Hartaracotz har çaçué calitz ungui ondoa eta idortuac, eta hec passa cetatché batetatic guero herrauts hor-tas balia çaiteste ulcera eta larrudu-ra gucien sendatcecotz.

(54. or.) 40. errezeta: SUGUIAREN ETA HOR errabiatuen aussiquien erremedioa

Sendi duçuenian idiac poçoindatua(c) direla sugue edo hor errabiatuen aussiquias asqui duçue gantçucea aussiquia den lekuan olio escorpiona edo esperen har çaçue laur untça chabon çahar guero ur laurden bat minagretan hartaz ardura garbiçaçue aussiquiac duen lekuan. Facoin bera eguin deçaqueçue mirra arnoarequin, bai eta halaber leissarrarequin, eta finean cinartha don edo potso arrosarequin arnotan edo minagretan iraqituristic.

(55. or.) LEISSORREN edo Mando oulien contra cer eguin behar den.

Leissorrec eta Mando uliec edo cembait berce uliec aussiquitcen tus-tenian asqui duçue clera cerusa guti bat urean trempatcea eta gue-ro aussiquiac egunean bi-guetan lotcea.

LEISSORREC mando uliec es hain guti ouli chehec es aussiquitceco erremedioa.

Hartaracotz asqui duçue mal-ba osto pilica bat ungui chehatcea eta olio guti batequin ligatcea eta guero idia hartaz goicetan eta arraxetan pecatcea. (56)

(56. or.) BARROQUIETARIC leissorren cassatcecotz erremedioa.

Har çaçue ahur bat erramou osto edo bihi iraqituristic urean guero ur hartaric gantçu çaçue idia edo berce animaliac, ceinaren bides cassatuco baitire barroquie-taric leissor mando ulie(c) eta berce suerteac.

LIBURU Huntan diren drogac eta belharren Explicationeac

Erran darotçuet esplicatuco narosquitçuela hemen diren icen barbaro iduria(c) eta hala banohatçue chehequi bat bede-rari adiaraztera clarqui cer diren misterio suerte horiec hartaracotz yaquin (57) çaçue (lupin) deitcen den droga hura dela

illar çabal bat frantciaco partetic providitcen dena; garena. (sic) (Nerprun) duçu berris oyan Beltcetän aurquitcen dena, Elhorri beltçaren fruitua diduriëna (vesse) da ilhar chume çabala frantciatic ecartcen darotçuetëna.

BARROUQUIETAN fumigacio-nea edo Urrindatcea Eguiteco.

Promes emaiten darotçuet liburu hun-tan hastean eracutxico narosquitçuela cer façoines eguin behar diren fumigationeac eta hala norc eré (58) senti baduçué barrouquia airé gaistos corrompitua dela, Lehen bicioric garbituco duçué hango ongarri guciac campora eta guero hartuco duçue unza bat isenzu unza bat soffré loré eta unza arroichina guero hec elguarrequin (sic) nahastecaturic emanen tutçue chaufeta bat brassetan, eta qué hartas ingura çacué barrouqui goucia (sic) et guero continua erran dugun urrindatce hori drogac fini arteraino.

Fumigatione hori eguin duçuen beçain sarri hartuco duçué erramoniac, maio-ranac, camammilac eta pulegium eta guero heier su eman barrouquiaren erdian iducarasten tutçuela que hura barrouquian barna cembait demboraz eta guero emoçue aire guti bat norteco ppartetic edo esperen levantetic hala bidé hortaz içanen tutçue ciaun establiac precocionetuac eta halaber asindac conservatuac eritasunic gabe ordean hala ere orhoit çaiteste fumigationé hori eguin ondouan on litaquela cembait berdura emaita barrouqui hetan barna sugueric edo berce alimale lissunic han eguin estadin hartaracotz asqui duçué belharrez berdura hura eguitea edo esperen leiçar ostoac ihaurguiarequin batean ematen batutçue eré estarotçué probetchuric baicen eguinen eta gucis cembait baratchuri bouru (sic) balsan dutenean.

(Cette livre appartient (sic) a M. Bertrand Gche.. fin de la..

Pourga baten compositionea

Harçaçu sauca erro pillica bat bi ahur béçala gaineco achala utz eta bigarren achal guicen hura éçar acieta batian, bi cuillera urequin besperatic, guero biharamou-nian, erro hec untsa tinca yussa ken guero emoçu yus hari bortz cuillera esne nahassiric eta iraciric epheldou eta edan guero oren baten (buruan) edan ur ephel eta salda ardura eta marrusqua sabela esquerreco aldetic ikhussico duçu effectu handia eguiten.

Haurrendaco asqui da cuillera bat gutiago gorphutz arauca.

(63. or.)

GASTANBIDE Doctor Medicuac (sic)

LABORARIER avisua⁵³

Badu cembatere dembora Lapourdico parte gucietaric aditcen dudala laborariac arranguratcen direla idietan eta ardietan arribatcen çaizcoten mortalitatez, noun uste baitute içurria beçalaco eritasuna hequien aciendetarat hedatua dela.

Akhostarrec sendituric accident horren berria beldurrez façoin berian heyen abreac guertha citcesteen beldurrez othoiztu naute adisquide batçuec cembait fagore eritasun horrien contra eguitiaz; eta hala erresolitu dut horien satisfacionea gatic obra chume baten eguitia, ceinetan erakhutxico baitayet, idien eta ardien eritasun principalen eçagutciac combeni çaizcoten erremedio miragarriac.

Ordean segura çaitezte eztirela hemen diren gauçac pentsatuac, bainan bai direla ilkiac lehenagoco Autor handi eta Oraingo moderno famatuetic.

Eta nola hanitz nor bere nacionetan eta nacionentçat travaillatu baitire, Alamaniaoac alemanez, E(s)paniaoac espagnolez, eta berce nacionetacoac, norc bere erresumetaco lengoayez, hala nola francian eguin baitute liburu bat Maison rustica franceses eta gu franciaoac içan arren Hescualdun guciec ez daquigu e(r) derraz eta particulazqui laborariac comprenitceco beheala liburu miragarri hartan diren misterioac hargatic intrepenu dut obra chume bat escaraz emaiterat bat bederac yakhin deçatentçat, cein errazchi den escuaraz comprenditcea lehenagoco eta etorren sendimenduak

0

Ainguiren hatxemaiteco erremedioa.

Emaçu amia ontsa dragaturic, ez eman sisari gorriric batere, bainan (?) bat belsca-ra edo beltça edo hoberenic buria eta Bustana eta amia. Comply.

(67. or.) Liburu huntan diren drogen eta belharren icenac yaquiteco çoin diren

Gluteron	Lapatina
Constantinopolitana	
Melloin erruac	
Gatz larria	
Mirra	

⁵³ (Aitzin oharra) Ondotik doan testua aprobazionearen eta abisuaren nahasketa bat da, testu honen idazlea ez da Gastanbide medikua, baina Dassanza bera. Gastanbide Baigorriko eskuizkribuan aprobazione emaile beste idazki batekin agertzen da.

Trigada	
Orvitan fina	
Arruda	Arrota
Turmentina	
Genevra	Orria
Nerprun bihia	Elhorri beltça
(68. or.) Plantagnac	
Çamari bustana	prella pl
Apioa	
Sabina churia	
Morsus Diabolus	aramaizia errua
Hausina errua	
Helleboren erru	Ahounts corna
Urribelharra	Uson belharra
Millu marin	Mihoala
Ogui nostroya	
Armoizaren hura	Artemiza
Amirun churia	Empesa
Hellebore noir	Ahounts corna beltza
Alcipre	Alcipria
(69. or.) Ségouarequin	CIHOUA (sic)
Potro baten behassunas	
Alcatrena	
Selarmonia	
Mairu arrosa	
Tutrias eta vitriolas	
Idiaren behassun bat	
Calits	
Olio Escorpionas	
Cinarthodon	
Aloes mastic	
Cerusa	
Clera	
Lupin eta vesse et pulegium etc..	

(70. or.) LIBURU HUNTAN DIREN GAUCEN edo eritasunen CAUSITCECO
TABLA

0

Gastanbide doctor medicua laborarier abisua	p.61
Idiaren sukharra sendatceco cer eguin behar den	p.1
Lantçar deitzen de eritasuna	p. 3
Idiaren bihozterra k.	p.4
Idiaren colica k.	p.5
Idiaren sabelminen	p.7
Idia charmadurez attaccatua	p.8
Idiaren utchadak.	p.12
(71. or.)	
Idiaren erorteco mina	p.13
Idiaren gatarraren k.	p.15
Idiac odolez picha eguiten	p.16
Idia ecin picharic eguinez dagoenian	p.17
Idiac harria duenian cer eguin behar den	p.18
Idiac bere natura gogortua	p.19
Idiac mihi azpia hantua duenian	Idem
Idiac errainetaco mina duenian cer	p.21
Idiaren berce errainetaco mina	p. 23
Idiaren oinace eta doloren	p.24
Idia biriquetaric errencura denian	p.25
Idia eztulez attaccatua denian	p.27
Idiac hertciac galcen hassiac dituenian	p.29
(72. or.)	
Idiac hatxa laburra duenian	p.30
Idiac almaquetan min duenian	p.32
Idiac min gaistoa kentceco cer eguin	idem
Idiaren golardo sendatceco	p.33
Idia hantua denian sendatceco	p.35
Idiac cembait alimale chume iretxi duenian	p.36
Idiaren handitxuen sendatceco erremedioa	p.37
Idiac çangoa hantua duenian	p.38
Idiaren taloin, eta aztaparretaco minen	p.39
Idiaren aztaparra bertce façoinez colpatua	p.40
Idiac barrabilac hantuac dituenian	p.41

Idiaren adarra arrailatua sendatceco	p.42
Idiac beguiac hantuac dituenian	p.43
Idiac beguiac churia duenian	p.44
Idi begui nigartua sendatceco	p.45
Idiaren zaragarra edo hasteria	p.46
Idien beguietaco airen edo colpendaco	idem
Mandouac çamarra begian duenian	p. 47
(Libertateco cantuac)	p.49
Idiaren larruduren sendatceco	p.53
Idia suguiac eta hor errabiatuac aussiqui a denian cer eguin behar den	p.54
Leissorren eta mando ulien conta cer eguin behar den	Idem
Barruquietaricleissorren kassatceco erremedioa	p.56
Liburuhuntandirendroguen etabelharren esplacacionea...Idem	

I.7. Amikuzeko idazlana

Jaureguiberryren idazlana, Amikuzekoa (1891)

Idazki hau Parisko *Bibliothèque Nationale*an Legs d'Abbadie d'Arrast eta "Fonds celtique et basque" eskuizkribuetan 118.a da. Esan bezala, 1972.ean *Bulletin du Musée Basque* delakoan lehenbizikoz eman nuen. "Recueil de recettes vétérinaires de Jaureguiberry" izena eman nion, *Jaureguiberry à Belçaguy* jabetasun marka baitu⁵⁴.

1. Orrialdeak 81etik 104raino, idazki hau beste errezeta askoren atzetik datorrelako araugabeko zenbakiak dirudite. Errezetak ez dira zenbakidunak: 39 dira.
2. Neurriak: 25 x 15 cm.
3. Idazkera: XIX. mendekoa.
4. Hizkuntza: oinarrizko lapurteraren gainetik, Amikuzeko kutsua eta zübereraz bezala "ü" ta "u"-ren bereizketa. Fonetikaz kanpo hiztegiaren "mane-

⁵⁴ Beltzagi: Xarles Videgainek idatzirik Uharte Amikuzen dago, azken etxea Arhantsusi alde-ra.

xago” da Amikuzekoa. Eredu berdina izan ote dute Barkoxekoak eta Amikuzekoak?

Amikuzeko idazlan honek ez du hitzaurrerik ez eta ere Dassanza inolaz ere aipatzen. Goyenetchek eta besteek landareen zerrenda ematen badute, Jau-reguiberrik berriz, zer diren laburzki esaten saiatzen da ”Liburu huntan diren izen barbaroen explikazionea” emanaz.

Idazki hau, agian Abbadierentzat kopiatua izan da beste batetik, nahiz ez delako higitua edo gehiegi erabilia izan, halere norbaiten eskuetan egon da aitzinetik edo bitartean, ezen ohitura zaharrez bazter batean zor kontu bat frantsesez idatzia (ofizialtasunez) irakurtzen delako.

AMIKUZEKOAREN IDAZLANA

Amikuzekoaren lehen orrialdea

A monsieur Gaztambide Medicuari dedicacionea

Jauna entrepenitu dut obra chume bat ezcoaraz imprimatcera, laborarien fagoretan; eta nola azco critica mende huntan baita, ez dut dudatcen ez den cenbait içanen cerbait erraiteco dutenic obra chume hunen gainean. Bainan jauna heyen bistara eman baino lehen heldu niçacu har deçacun hanbat pena Laborarien amore gatic, obra hunen examinatceco, eta baldin iduritcen baçaitçu merce duella imprima dadin, çure approbaciones emaitiaz, ezen badaquite Lapurdin eta berce ingurutako ezcualdun gucietan, zure frogac ederrac direla causa, ossoqui sinhexia çarela eta egonen naiz hala çure sendimenduaren beguira erraiten dutala bethiere naicela

Mongongo Daçança, chimista

(APROBAZIONEA)

Ikhussi eta irakurri dut ampleki Mongongo Dassança chimistac ezcuaraz eguin duen liburua eta hala desiratceco liteke lehen bait lehen imprimaraz deçan, laborariac balia daiteçentçat hango erremedio miragarriez: ecen hain justuqui traditua da Maison Rustiaco eta berce asco auctor handiren sendimendua, iduritcen baitçait obligatua naicela ene approbacionearen emaiterat, hala nola emaiten baitut Donibane ciburun, oxaillaren 14 eta 1692.

Gastambide, docteur, maison Justiaco.

OTHOITÇA

(Copie du 9 Juillet 1891 (?) jusqu'au 21)

Ene gincoua sinhesten dut fermoqui çu cirela gauça gucién autorra eta conserbaçalia, ceria eta lurra çouriac dire, hetan causitcen diren gauça guçiác (sic) çoure escuco obrac dire, çu cira eri gucién ossagarria, erremedio guçién indarra, çuri gomendatcen dautçut jauna ene içaite guçia, emaguçu çure benedictione seindia goure gainian, goure etchetan, lurretan eta cabaletan othoi erremedia itçaçu heetan causitcen diren infirmitate, malinitate eta inkomoditate guçiác eman eçaguçu erier eta erremediuer benedikzione seindia. Amen

Jauréguiberry à Belçaguy⁵⁵

Idiaren sükarra sendotzeko zer egin behar den

Idiak sükarra dienian (sic) ezagütüko düzie idiaren inkiartzünian eta güziz gorphitz güzia ikarutzen zaronian kopetan ere eztü sü eta lamarik baizen ageri eta partikülarzki bi adarren artian; halaber berotzen zazko bortizki beharriak eta ahua, izerdia kantoin güzietarik dariola ezen denbora hartan deusik ezin jan deza-ke, bainan nahi lüke zonbait gauza fresko milikatü mihiaren idortazüna (sic) dela kausa, büría ere anhitz pisua dauka, begiak nigarretan müthürra linburiz garnitia eta hatsa anhiz lüzia.

Fazoin hortan seindi düzienian idia sükarraz atakatia dela, egün hartan barur eraginen diozie, eta biharamunian idokiren dakozie odol güti bat büztanaren petik, ondoko bor(z) egünetan entretenitüko düzie gluterron deitzen den belhar fresko hetarik hurian erakitürük ardüra edaterat emaiten diozüela, halaber kontinüa edate hori sükarra joan artio, bertze batzuk odola idokitzen diote beharri gibeletarik eta kopetatik.

Lankar deitzen den eritarzüna edo bertzela idi marteillia

Idi marteillia deitzen den eritarzüna ezagützen da noiz eta ikusten baita idiaren biluak sagarroiaren izpiak bezala laztuak direla edo idia bera anhitz tristetia, begiak ilhundiak eta pisuak. Lephua makürtia, ahotik gerlia dariola bizkarra esteka eta gogortia, ürrhatsa anhitz pisua, apetitia kasik galdia, ausnarria ezterraula, eritarzün hori hastian senda daiteke aiseki behar den erremedioak egiten zaizkola-

⁵⁵ Frantsesez zor baten aitorra: *Depuis le 27 octobre 1839 jusque le 11 novembre 1840 l'intérêt 12f 15 et pour le foin de Bentaberry la somme de 10 F.*

rik, bainan zahartüz geroz güti eskapatzen da eritarzün hortarik, halere enseiatü behar da eginahalaren egitera.

Hartakotz harzazie Constantinopolitana eta meloin erruak bakoitzetik ahür bana eta hirur ahür gatz larri gero hek elgarrekin xehatürik trenpaitzazie laurden bat arnotan eta eman arno hartarik idiari edatera goiz güziez gathülü baten bethia aldian eta kointinüa arno hartarik idia osoki sendo artio.

Idiaren sabelminen erremedioa

Sabelian, ardüra etzan eta jeikitzen da eta ezin dauke bere lekhian, izerdia xurrustan (84. or.) dario kantoin güzietarik, gaitz horren sendotzeko batziek emaiten diote porriak eta baratxuriak xehatürik eta arnuan erakitürik edatera laurden erdi baten inguria aldian. Bertze batziek oliua eta tipula arnuan erakiturik. Eta berriz bertze batziek egiten diote edari bat fazoin huntan, hartako harzazie ahur bana mirra eta erramu bihi eta hek erakitü unduan arnuarekin irazi eta emozie edatera arno hura.

Bertze batziek idiari pikatzen diote behatzpeko haragiak eta büztanpia odol güti bat ekar dezatentzat, kolika suerte hori arribatzen da, ordenariozki unhadü-raz primaderan zeren denbora hartan odol soberanziak honeki errekeritzen baititü eta paseiaraziko düzie ontsa estalirik refria eztaadin.

Idiaren sabelminen khentzeko erremedioa

(85. or.) Kolika bezala egiten da eritazun haur eta kolikarentzat hon diren erremediak balia daitezke sabelminentzat baita halaber triaga finaz eta orbietan finaz ere arnuarekin edatera emaiten diotela eta gero biharamunian odola atherako diozüe mihi azpitik edo südürretarik edo ezperen edan eraziko diozüe erremedio huntarik, hartako harzazie arruta kamamila ahur bana eta hek unts eraki pinterdi bat arnotan, gero irazi düzienian emaozie idiari bi kolpez edatera.

Bertze batzü baliatzen dira erremedio huntaz zoin egiten baita laur onza tormentina gatz güti batekin pillatürik idiari irets arazteko eta gero baldin posible ez bada zintzürrian pasatzia, hurtüko tützie arno beruan eta gero edaneraziko adar batetarik, denbora hartan idiak beroki egon behar dü barrukian airiak har eztezan.

(86. or.) Idiak xarmadurrez inkantatua d(ir)enian

Ezagütüko düzie idiaren tristezia handian eta güziz bere akzioniak laster egin nahi tienian, nun ordian idia laster mehatzen baita, etikatia baliz bezala, hargatik da nesesario prunki erremediuen egitia, hala ezagütü düzienian idia Xarmatia dela emozie lehen bai lehen hur huntarik südürretan barna, zoin eginen baitüzie ahur bat erramu bihi beste ahur bat orre bihi eta onza bat sofre lore eta gero tren-

pa hur ephelian hogei eta laur orenez irazi düzienian balia zitezte hur hartaz goiz arratsetan südürretan barna emaiteko hori egin bezain sarri preparatüko düzie erremedio miragarria zoinek khentzen baititü xarmak eta inkantadüra güziak.

Hartako harzazie laur onza nerprün bihi, beste laur ontzea Constantinopolitana, onza bat gatz larri eta hek ontsa xehatürik erakitü behar düte pinterdi hurretan eta gero eman hur hura idiari edatera (**87. or.**) adar batetarik baldin eta lehen kolpetik idia ezpada erremediatzen emanen diozüe zombait aldiz erremedio huntarik eta ikhusiko düzie efekto miragarria, ez solemete idien Xarmen kontre, bena orano erranen derautazie Constantinopolitana horrek berthüte handiak dituela Pedocines Arabiako Doktor famatü haren erranez ezen espreski segürtazen gaitu erraiten deraukunian khentzen tiela eta debetetzen Xarma suerte güziak. Hartakotz dio aski dela erran dügün Constantinopolitana hori bere lürretan edo etxian edükitzia beraz balia zaitezte erremedio miragarri hortaz.

Idiaren uxada edo sabeltasuna sendotzeko

Idiaren üxada edo sabeltasüna dianian ezagütüko düzie haren ezürrietan zeren aski klar baitira bata eta bestia ezagützeko eta hala ikhusten düzienian sabeltasuna diela (sic) eztiozie denbora (**88. or.**) hartan jatera ez edatera eman behar bizpahirur egünez xoilki zenbait mahats bihiren pipita edo ezperen mahats ostuak arnuan trenpatürik edo haritx kalitzak eta mirha güti bat arnoan trenpatürik hareraziko diozie idiari gero hirur egünen бүrian presenta diozozie zenbait belhar fresko, nahiz plantainak edo zamari бүztan deitzen den belharra eta goardia ondotik edatera emaitetik eta emaiten zaonian ere bere hura erramü ostuekin erakitürik eman beharko diozüe, zer ere erremedio eman baitüt sabeltasunendako baliatüko zirezte üxadarendako zeren biak bat baitira.

Idiak erorteko mina dianian zer egin behar den

Ezagütüko düzie idia kolpez erortzen dianian eta gero ahua makhürtürik, gurlia eta arrapua ahotik dariola eta zanguak bihurtzen bezala zazkola eta finian bizpahirur orenen бүrian deus (**89. or.**) ezpalü bezala jeikiten da, halako eritarzüna düten idiak ordenariozki atakatiak dira bi hilabethetarik, bi hilabethetara.

Eritazün horren sendotzeko idiari hareraziko diozüe laurden bat arnotan, astuaren zangoko behatza eta idi kopetako hezürra onza bana limatürik eta ontsa xehatürik eta gero kontinua hogeie ehünez goiz güziez emaiten dioziela adar batetarik.

Bertze batzü anhitz baliatzen dira erran dügün Constantinopolitana miragarriaz, hartarakotz aski dute arnuan edo hurian erakitürik hur hartarik idiari goizetan eta arratsetan emaitia.

Idiaren gatharrari zer egin behar zaion

Gatharraren erremediorik lasterrena mihiaren petik odolaren idokitia (**90. or.**) eta gero forruak, arruda, apiuak, sabina eta morsus diabolus elgarrekin hurian erakitürrik irazi eta hur hartarik idiari edatera emaitia. Eta finian pangerü batean arno ligaz, ogi mamiz eta hautsarekin eginik orhia, hartaz lephua lotzia, nun bide hortaz laster khendüko baitiozie bere gatharra.

Idiak odolez pixa egiten dienian zer egin behar den

Odolez pixa egite hori heldü zaio komunzki, anhitz berotia eta borthizki marfonditia denian eta güziz üdan zonbait belhar gaisto ihitzez bustia jan denian. Gaitz horren erremediatzeko eztü deusik idiak edan behar, edari huntarik baizen, hartako harzazie hirur onza artho irin eta onza bat triaga, gero hek erakit pinterdi bat arnotan eta finian jüntatzen dioziela sofre güti bat edari hortarik emaozie idiari edatera goizetan eta arratsetan, plantain hura oliuarekin.

Idiak harria dienian zer egin behar den

Noiz ere baitakizie segürki idiak harri diela bixikan barna xilhatürrik atheratzia da erremediorik segürena, bena ezpada posible pikatürrik atheratzia baliatüko zirete erremedio huntaz, haren oinhazen pasatzekotz, harzazie bi onza milu marin (sic) edo onza laurden bat espezie itze eta haren erdia biphir(sic) eta gero güzia ontsa xehatürrik emaozie idiari arno ephel güti batekin edatera eta kontinüa zonbait aldiz fazoin berian emaitera.

Idiak bere natura gogortia dienian

Eritazün hori gerthatzen zaionian aski düzie malbariska egostia bürrarekin batean eta gero hartaz ardüra pereka natüra eta hala laster suflaraziko dakozie bere berga.

(92. or.) Idiak mihipia hantia dienian

Iseia zitezte lehen bai lehen mihi peko zainetarik bürdin bero batez xilatürrik edo lantzeta zorrotz batez odola idokitera eta gero ganza z(a)uri hura, oliua eta gatz elgarrekin nahasirik eta kontinüa ümore güzia kanporat juan artino; denbora hartan idia entretenitüko düzie belhar freskoz eta baldin apetitia ezpadü laster jineraziko diozie erremedio huntaz; hartako harazie arrolz baten xuringua eta gorringoa elgarrekin nahas ezti güti batekin, gero emozie idiari arnoarekin edatera, hantik harat emozie bere jatekotan zenbait gatz bihi eta hala efeto hona idokiko (edukiko?) düzie.

Idiak errainetako mina dianian

Ezagütüko düzie haren plainietan eta güziz gibelesko trainaz ezin aitzina, zangua heda dezakenian mainaz ere ezin leküra daiteke ez eta hain güti büztana biribilga nun ordian dilindan baitario, haren (93. or.) gerniak usain gaistua dü eta gibelesko trena osoki pisua eta baldin inflamazionerik gerthatzen bada, denbora hartan idiak pixa gorri düke eta dena ere güti eta penerekin egiten dü eta anhitz irhauten badü ezta harendako erremediorik, bainan ezpadü gorritüxia baizik esperantxa ezazie eritarzün hortarik sendotüko da.

Hartakotz idokiren diozie odola almaketarik eta ardüra emanen edatera idiari porriak hur klarian trenpatüz eta hur hura.

Idiaren berze errainetako mina nola sendotü behar den eta güziz erortetik heldü denian

Noiz ere seindi (sic) baitüzie idia erori dela zenbait gauza gogorren gainera, ezagütüko düzie haren kolpe handia, ezen ezta behin ere falta kolpe borthitza dela kausa kontüsiõne eta inflamazione, hargatik laborariak denbora hartan idiak (94. or.) heiarazten tienian eztitü bere lekhütik igiaraziko eta kolpia dien lekhia ardüra freskatüko diozie hur hotzaz eta gero ganzü ontsa xükatürük urin hurtuz edo urdaiez; eritarzün horren seinhaliak dira kanpoko aldetik gogor izaitia eta barabillak labürtürük barna erretiratzia, ezin bere ister alderdia aisera manea dezake eta pena handia dü etzana denian bere lekhütik jeikitzia.

Idiaren oinhaze eta dolore suerte güzienendako eta güziz nekhadüras heldü direnendako

Harzazie ahur bat liho azi eta berze ahur bat kamamila eta hek ontsa egos kaxo batian hurian, erabiltzen düziela ardüra makhila batez osoki orhia egin artio eta gero hedazazie zenbait oihaletan eta hartaz lot non ere seindi baituzie gogortazünik hantürarik edo oinhaze dien lekhian.

Idia mixiketarik arrangüra denian

Mixiketako arrangüra horik gaitz (95. or.) dira idier khentzeko heien móbimendü handia dela kausa, halere egin deiteke erremedio hon bat, zoin baita lehen bizirik, mainatera ur beroz garbitzia eta gero belhar üsain hunetakotz ontsa lanhestatzia denbora hartan khendü behar tüzie heietarik zamari, behor, urde eta berze hazienda güziak beldürrez haren hatsak kotsa ditzan, ordian ützi-ko düzie zõnbait asto aldian ezi haren hatsak probetxü eginen diote mixiketako arregürari.

Idiak herziak galdiak ditienian

Hartü behar düzie hirur onza tormentina eta hura haur batin (sic) eskiaz idiari gibealeko aldetik sar ezazozie ahalik barnena edo ezperen tormentinaren plazan balia zitezte ganz gezaz edo urin hurtüz.

Idia marfondiz atakatia denian

Eta güziz eztül handia diela, hartüko düzie ahur bat issopa hura erakit'pinteredi bat huretan, irazi eta edanaraziko düzie idiari, denbora hartan emozie jatera porrü ostuak xehatürük ogi zahiarekin batean berze batzük emaiten diote arthaminaren hura amidon xuriarekin issopaz egin den gisa.

Idiak hatsa labür dienan zer egin behar den

Noiz ere seindi baitüzie idiak hatsa labür diela emozie beharrietan cilatua helebore noir (sic) deitzen den belharra gargandilak balitü bezala eta hark on handia eginen dako.

Idiak almaketan min dienan

Ezagütü düzienian almaketan min edo doloriak ditiela harzazie hirur ahur alcipée eta erakitarazi ozpinian eta ontsa xehatü tützienian lot ezazie dolore den lekhian eta laster sendotüko ditü. Bertze batzük odola atheratzen diote almaketako zainetarik gero porriak hurian erakitü eta hur hartarik edan erazi edo ezperen idiaren beraren pixa.

(Paratzailearen oharra: hemen hasten da errezeten zenbakitzea)

23. errezeta: Idiaren lüpiaren khentzekotz

Lüpiaren erremediorik eta lasterrena (97. or.) pikatürük eta idokitzia dü eta gero bürra freskoz zauri hura goiz arratsez urinez perekatzia.

24. errezeta: Idiak golardua hantia dienan

Hanits dü (sic) lepho güzia hantia eta baldin seindi badüzie absez bildüma edo materia bildia diela, denbora hartan aperentziaz ageri den lekhian xilatüko düzie bürdin gorri batez eta gero eman xilo hartan asun erro güti bat edo berzela erran den helchorom (sic) erruak eta harzazie bethi artha erro horietarik xanjatzeko idiari edanaraziko diozüe ürri belharrekin irakitürükako hura: goizetan eta arratsetan kopertatik eta beharri gibeletarik odola idikotziaz ere probetxü haundia eginen diote.

25. errezeta: Idia hantia denian zer egin behar den

Ordenariozki idiak hantzen dira belhar sendoegiak janez eta güziz ihitzarekin direnien eritarzün hori (sic) sendotzeko aski da adar bat alde batetik bestera xilatzia eta hura olio z perekatürük gibelesko (98. or.) aldetik hirur edo laur erhi barna sartzia, gero paseia zazie idia haize anhitz egin artio. Eta adarra han dieno perekatüko diozüe sabela (bis) haga azkar batez.

26. errezeta: Seindi düzienian idiak iretsi diela zonbait animale

Emozie lehen bai lehen behi eznie edatera edo berzela egizie dekokzionia piko malatüz arnuarekin batian eta gero eman arno hartarik idiari edatera.

27. errezeta: Idiaren handütsien sendotzeko zer egin behar den

Harezazie ahür bat Andredena Mariaren liliaren erruak, beste ahür bat Constantinopolitana hek ontsa egos ozpinian gero lot ezazie erremedio hartaz hantua den lekhian eta hola laster lehertüko dio bere hantüra edo handütsia lehertü denian xahu zazie zauri hura goizetan eta arratsetan gernüz edo pixaz.

(99. or.) 28. errezeta: Idiak zangua hantia dienian zer egin behar den

Hartakotz harzazie zonbait ahur sauka osto eta hek ontsa erakit ganz güti batekin eta gero egosi direnien lot ezazie enplastü hartaz eta hala laster ikhusiko düzie hantüra konsomitia, enplastü hori egin daiteke hotzik eta freskia, hartakotz harzazie zonbait ahur sauka osto eta hek ongi (sic) xehatü direnien emozie urin hurtia enplastia egiteko aski den bezanbat.

29. errezeta: Idiaren azatal eta behatzetako minen erremedioa

Eritarzun suerte hori idiari jiten zaio arduora negian eta güziz karroin eta izotza denian travaillatzen direnien, nun ordian idüri baitü idiari behatza kanpora doha-kola, fazoin hortan ikhusten düzienian idiaren aztaparra lantzeta zorroz batez pikatülo diozüe aphür barnaskotto eta gero ere piko hetan arhinkiz pereka urin hurtüz (100. or.) sendo artino.

30. errezeta: Idiaren behatza berze fazoinez kolpatua denian nola sendotuko den

Lehenbiziko gauza egin behar dena behatz hura fundamenerano ontsa garbitzia eta gero lot goiz arratsetan urin hurtüz zihoarekin nahasirik bost edo sei egün kontinüatü düzienian gero berze hainbeste egünez ikuziko düzie (arnoz) eta ozpinez ezti güti batekin nahasirik.

31. errezeta: Idiak barabilak hantiak ditienian

Harzazie klera güti bat eta hartaz ozpinarekin egizie liga edo orhera eta gero gantzü hantüra dien lekhian idortzen denian gantzütze hori ganzütüko düzie ganz gezaz goiz arratsetan.

Bertze batzük badiote hor baten minaz aski dela perekatzia hantüra hura berheala erremaiteko.

32. errezeta: Idiak adarra erdiratia dienian

Frota zakozie minagre gatz eta olio güti batekin eta gero pereka ezakozie urin hurtüz arrasiña güti batekin (101. or.) nahasirik eta kontinüa perekatü hori zazpi egünez.

33. errezeta: Idi begi negartiak nola sendotu behar di(r)en

Idiari nigarra darioenian egizie orhia ogi nostaraiarekin irinez eta hartaz lot goizetan eta arratsetan edo berzela irakit ezazie mairu arrosen erruak eta eztiarekin batean eta gero hartaz ardura lot idiaren, begia, berze baliatzen dira thütiaz, vitriolaz, arrosaren hurarekin batian.

34. errezeta: Idiari zaragarra khentzeko

Harzazie ahur bat xemineako khidarre, ahur erdi bat sofre, laur baratxuri buru, gero hek elgarrekin xehatü direnian frota zazie idia bizpahirur aldiz. Edo berzela harzazie idiaren, belhatxün bat eta hartan barna emozie bi onza lili gero ontsa nahasi duzienian ganza zazie idia hirur goiz eta arratsez eta finian anzara urinez eta gantz gezaz.

35. errezeta: Idiaren ulzera edo larrudurez

Hartako harzaie kalits ongi onduak eta idortuak eta hek iragan zethabe batian, gero erhauts hartaz balia zaitezte ülzera edo larrüdüra güzien sendotzeko.

36. errezeta: Sugiaren ausikien eta hor errabiatien erremediua

Seindi duzienian idiak pozoindatiak direla düge edo hor errabiatien ausikiz, aski düzie ganzützia ausikia den lekhian olio Escopionaz (sic).

Edo berzela harzazie laur onza salboin zahar gero hurt' laurden bat ozpinekin, hartaz garbi zakozie ardüra ausikiak duen lekhian, fazoin berian egin dirozie mirha arnoarekin erakitürük baita halaber lizarrarekin, eta finian zinhorodon, hor arrosarekin arnotan edo ozpinian erakitürük.

37. errezeta: Idiari behattza erortzen zaionian

Harzazie tormentina, ezko horia eta ezta bakoitzetik onza bana eta hek (103. or.) elgarrekin hurtü direnian ganzü ezazie idiaren hoina hamabost egünez eta gero arnoz eztiarekin nahasirik edo berzela lotezazie idia kataplama (sic) fazoin hunta-kuaz hartako harzazie aloez martik eta alün onza bana hek ontsa xehatü direnian egizü kataplasma arrolze xurongoarekin batian.

38. errezeta: Listorren eta mandulien ausikien kontre

Aski düzie klera edo Cerusa güti bat hurian trenpatzia eta gero liga hartaz egünian bietan lotzia.

39. errezeta: Listorrek manduliek ez hain guti uli xehek ausikitzeo

Hartakotz aski düzie malba osto aphür bat ontsa xehatzia eta olio güti batekin liga bezala egitia eta gero hartaz idia goiz arratsetan ganzützia.

40. errezeta: Heietarik listorren kasatzeko erremediua

Harzazie ahur bat erramü osto edo bihi eta erakit hurian gero hur hartaz frota-zazie idia edo berze animalia zoin haren bideez kasatüko baitira heietarik listor, manduli eta berze suertiak.

(fumigazioneak)

Promes eman derauziet liburu hunen hastian erakutsiko nauziela zer fazoinez egin behar ziren fumigazioniak eta hala nork ere seindi baitüzie heia edo barrükia aire gaistoz korronpitia dela, lehenbizikorik garbitüko düzie hango hazkerietarik eta gero hartüko düzie onza bat intsentsu, onza bat sofre eta bi onza erresina hek nahastekatürük ezarriren tützie, chauffeta bat brasian eta khe hartaz ingüra zazie heia güzia eta gero kontinüa ürindatze hori drogak ahi arteraino.

Hori egin düzien bezain sarri erramülia, erramiak, majoranak, kamamilak eta pulegium heer sü emanen establiaren erdian, gero atxikarazten düziela khe hura zenbait denboraz establian (105. or.) eta gero emozie aire güti bat norteko aldetik edo ekhia jalkiten den aldetik eta hala bide hortaz ükhanen tützie zien establiak anhitz prekozionatiak eta halaber haziendak kontserbatiak eritarzün gabe.

Ordian halaber orhit zitezte fumigazionearen unduan hun lizatekeiala zombait berdüra emaita estable hartan sügerik edo berze animale lizünik han egin ezta-din. Hartakotz aski düzie leizar osto, orrez eta küküso belharrez berdüra hura egitia eta zombait baratxuri bürü nahas emaitia.

LIBURU HUNTAN DIREN IZEN BARBAROEN EXPLIKAZIONIA

Erran derauziet explikatüko nahozkitziela libürü huntan diren drogen eta belharren izen barbaro guziak eta banohazie bat bederari adiaerazteko klarki zer diren misterio horik (**106. or.**). Hartakotz jakin ezazie lüpin deitzen den droga hura dela ilhar xabal bat Frantziako partetik probeditzen girenak.

Nerprün, düzü berriz oihan beltzetan kausitzen (den) elhorri belza haren fruitia, baxa arhana idüri diena. Sabina, düzü belhar fresko bat baratzetako murrailletan kausitzen dena zointan pikatü eta esnia baitario berhala. Issopa da halaber belhar bat beberña idüri diena komuzki baratzetan kausitzen dire. Kamamila da berriz lili xuri bat erdian horia dena usain handi bateki (sic) bide eta larrain güzietan Frangoki kausitzen dena. Marrubium düzü osoki arhamenda idüri diena eta ordenariozki murrail zaharren kontra kausitzen dena.

Helebore(sic) noir düzü belhar bat mendietan kausitzen dena Zamari büztana (plantain) deitzen den, belharra aurkhitzen da eripeira hurzietan. Mirha, Intsentsü, Sel ammoniac eta Litarge dira droga batzü drogistetan saltzen direnak.

FINIS CORONAT OPUS

2.

ALBAITARITZA ETA HIZKUNTZA AZTERKETAK

Albaitaritzako azterketan zoopatologia, fitofarmazia eta kimiofarmazia aipu dira.

2.1. Hitzak, ekaiak eta ekintzak

Sarritan, irakurri ez dituzuelakoan Ipar-ekialdeko euskalkien hitzak beren itxura zahar edo bereziekin, on iruditu zait testuan sartu baino lehen hauen zerbait berri ematea oharretan emango badira ere, lagun zaitzaten zuzenean idazkian sartzen.

Beharbada, beste eskuizkriburik egongo da Euskal Herrian etxalde batean edo bestean. Guztiak ezin bilduz eta inprimaki zahar baten gabea ditugun lau eskuizkribuekin liburu horren berpizteko bat egin dut.

Biologiaren aldetikakoa balioesteko, ez lau aldiz errepikatzeke, errezetak banaka-banaka eta laurak, errezeta zenbakien arabera, elkarrekin eman ditut. Honelako gisan, gaien erkaketak eta aldaerak berehalaxe hobeki ikusteko. Beraz lan hau, biologiazkoa da, ez bakarrik filologiazkoa, baldin hizkuntzaren balorazio batzuk egiten baditut ere⁵⁶.

Eskuizkribuen hiztegia.

Agintaldiak aditz erroa eskatzen zuen eta eskatzen du gure Ekialdeko euskaran eta ez harri(tu) “lot ezazue” irakurtzean”:

ezar: ezarri, ipini

gantzu: gantzutu

garbi: garbitu

harzazue: har(tu) ezazue

iraquit eraquit: irakin

iraz: irazi, iragazi (filtrar)

ken: kendu.

lot, lot ezazue: lotu (vendar).

⁵⁶ Ez da botanikakoa ere irakurri zuen zerri batek azpi ohar batean idatzi bezala.

Agintaldi jokatuan bi itxuratan agertzen da “ezan”: *ezaiozu/ezaiozue* edo *diozozu* eta *diozozue*.

Aditzak. Behin edo beste *ukhen, ukhan* ikusiko duzue *eduki* ere bai eta aditz laguntzailean lapurterazko forma luze eta osoak ere bai: *darotzute=dizuet, narozkitzuen=nizkizuen*. Baina lau eskuizkribuak euskalki desberdinetan kopiatuak izanez gero, Zuberoakoan zuberera zaharraren formak, Amikuzekoan lapurtera eta amikuzerazkoak nahasia, Baigorrikoan hango kutsua batzuetan, eta Garazikoan jatorrizko lapurterazkoak. Denen artean, ez da tarte haundirik eta aldi bakoitzean oin-ohar batek argituko zaituzte. Agintaldian eragilea “araz” da, ez “arazi”.

Aditz teknikoak.

berekatu/pherekatu/fretatu (frotatu ere): igurtzi, adierazteko;

gantzutu: lardatu, ukendu edo miritza batekin igurtzi .

garbitu, ikuzi, xahutu: garbitu.

lanhestatu, urrindu: lurrindu (*fumigar*).

larrua pikatu: ebaki (Ekialdean landareak baizik ez dira ebakitzen).

odol idokitia, odol ateratzea, zeinatzea: odol kentzea.

trempatu: urez blai jarri.

Hitz teknikorik erabilienak.

Aiuta (purga ematea); barur: barau; eritasun: gaixotasuna

gantz (miritza); **kataplasma**; **enplastu**

Olio eskorpiona, olio genebrea: orre olioa

Liga: gauza bi izan daiteke, ardoaren hondoan egoten den zikina, edota irinarekin egiten den ore likido bat, ahi bat.

Urin: gantza da urin gogorra, baina gatzik gabe denean **gantz geza** da; gero urin urtua badago eta zihoa ere.

Hitz guztientzat eta hemen azaldu ez direnentzat oin-oharrak izango dira, hasieran behintzat eta bakanentzat beti.

Nire hiztegia.

Zehaztasun apur bat emateko azterketa honi saiatu natzaizue erabili hitz zenbaiten argitzen eta mugatzen.

sendabideak: eragiketa fisikoarentzat, batik bat, hala nola *hotza, beroa, bustia, lehorra*. Baita sendabide fisiko-kimikoak ere.

badira: *urrindatzeak*, sufre kea, belar errearen kea eta beste.

sendagailu edo erremedio: kimika bidez eragiten duena, nahiz landarekia, landaregai adibidez: *erroak, aziak*.

sendabelarra: *menta*

nahiz kimigai: adibidez *gatza*.

nahiz janaria izan: adibidez *belarra, eztia*.

sendagai: sendagailuen, farmakoen osagai nagusiari hala deritzot, hala nola, mendan (arramendan): *menthol*

hartaile: deritzet sendagai bat gorputzean hobeki sarrarazteko edota eradukitzeko erabiltzen den *irin* (eszipientea), *ardo* (alkoholtoa), *ura* (hidroltoa), *gantz*, *urinak* eta *olioak* (ukendu, gantzu eta beste). Bestalde hartaile batzuk babesgarri, estalgarri dira, mikrobioen aizolbean zaurien jartzeko.

eragin: hitz hori erabiltzean esan gura dut, sarritan zelan ez dakigula, sendagai edo sendagailu horrek oinazea edo gaitzaren garapena aldatzen duela.

2.2. Idazlanak

2.2.I. Onespena eta eskaintza

Onespena eta eskaintza Baigorrikoan baizik ez da ageri.

Dedikazionea

“*A Monsieur Gaztanbide Medicuari Dedicacionea*”

Jauna entrenitu dut obra chume bat ezcoaraz imprimatcera Laborarien fagoretan; eta nola azco critica mende huntan baita, ezdut dudatcen ezden cenbait ičanen cerbait erraiteco dutenic obra chume hunen gainean. Bainan, Jauna heyen bistara eman baino lehen, heldu nitçaçu har deçaçun hanbat pena Laborarien amorea gatic, obra hunen examinatceco, eta baldin iduritzen baçaitçu mereci duella imprima dadin, cure aprobacionea emaitiaz, ecen badaquite Lapurdin eta berce ingurutaco ezcualdun gucietan, çure frogac ederrac direla causa ossoqui sinhexia çarela eta egonen naiz hala çure sendimenduaren beguira erraiten dudala bethiere naiçela. Mongongo Dassança, chimista

Aprobacionea

Ikhussi eta iracurri dut amplequi Monjongo(sic) Dassança chimistac ezcuaraz eguin duen liburua eta hala desiratceco liteke lehen bait lehen imprimaraz deçan, laborariac balia daiteçentçat hango erremedio miragarriez; eçen hain justuqui

traditua da Maison Justiaco⁵⁷ eta berce auctor handiren sendimendua, iduritçen baitçait obligatua naiçela ene aprobacionearen emaiterat, hala nola emaiten baitut Donibane Ciburun, oxailaren 14 eta 1692.

Gastanbide, doctor, maison Justiaco.

2.2.2. Hitzaurreak

2.2.2.I. Baigorrikoa

LABORARIEN ABISSUA

Badu cembait ere dembora laborariac Laphurdico pharte gucietaric aditu ditudala erremarcetzen⁵⁸ idietan eta behietan, eta ardietan arribatcen⁵⁹ çaizcoten mortalitatez, non uste baidute issuritea beçalaco eritarçuna hequien⁶⁰ assindetan hedatua dela. A(koz) tarrec⁶¹ sendituric accident horren berria, beldurrez façoin berian yeien aberiac⁶² guertha daitecen, othoisten naute adisquide batçuec cembait fagore eritarçun horren contra eguiteaz, eta hala resolutu dut hayen satisfacionea gatic obra chume baten eguitera, ceinetan erakutxiko baiteret⁶³ idien eta behien eta ardien eritarçun principalen eçagutça eta heyer comeni çaizcoten erremedio miragarriac. Orduyan segura çaiteste ez direla hemen gauçac nic pensatuac bainan bai ilkhiaç⁶⁴ lehenagoco auctor handi eta oraico moderno famatuyetaric. Eta nola hanitx norc bere naçionentçat travaillatu baidire alemaniacoac alemanez, espainiacoac espaignolez hala nola francian eguin baitute *Maison Rustica*-z fran-

⁵⁷ Dassanzak bere eskaintza eta Gaztanbidek bere onespena lapurtera hutsez idatzi dituzte jatorrizko hizkuntza ongi mugatua delarik. Kopiatzaileak *Maison Rustica*, Maison Justiaco irakurri du testuan.

⁵⁸ *erremarcetzen*: ohartzen, hautematen.

⁵⁹ *arribatcen*: arribatzen, heltzen, iristen.

⁶⁰ *hequien assindetan*: haien aziendetan, abereetan

⁶¹ *A(koz)tarrec*: Akotz Donibane Lohizuneko auzoko bizizaleek.

⁶² *yeien aberiac*: haien abereak.

⁶³ *baiteret*: baitiet (*baiterauet* lapurteraz)

⁶⁴ *ilkhiaç*: ilkiak, ateratakoak.

tsesez eta gu franciacoac içan arren, ezcualdun guciec ez daquigu erdaraz eta particularqui laborarietac comprenitceco berehala entreprenitu dut obra chume hau ezcoaraz emaiterat bat bederac yaquin deçatentçat cein erreitx(sic) den ezcoaraz comprenitceco lehenagoco eta oraico auctorren sendimenduac.

Hartaracotx (sic) bada, erranen daroçuet idiac eta berce aciendac guicen beçain ungui hanitx eritarçunetarat suyetatcen direla eta nola lucieguy bailitaque gucien causaren erraitea, contentatuco naiz choilqui principalenen eracustiaz. Handic harat Jaquinsun içanen çarete berce gaineracotan, cer eguinbeharco duçu(e)n seguidan clarqui aguerico den guisa.

Orai, bada, mintçatcecotx (sic) gauça principal horietaz, erranen darotçut ez dela mundu huntan aireric edo haxic⁶⁵ hartu gabe bicitcen eta nola aire honac eta garbiac ossassuna conserbatcen baidu, hala gaiztoac ere cassarasten (di)tu eritarçun eta heriotçe⁶⁶ dorpheac, ez solamente guiçonen baithan, bainan oraino munduco alimale gucietan, eta nola idiac munduco nombrecoac baitire⁶⁷ bat eta ez bada senditu behar dute aire onac eguiten dioten ontassuna.

2.2.2.2. Garazikoa

Idazlan honetan ez dago ez *Eskaintzarik*, ez *Onespenik*. Ezkerreko orrialdean okerka idatzia frantses grafia txarrean *Laprobation* irakurtzen da eta eskuineko orrialdean onespen honen sinatzailearen izena bakarrik, hizki larrietan “Gastanbide Doctor Medicuac”, baina, jakina, mediku hori ez da aldakiaren egilea, ezen ezkerreko aldetik lumaren trebatzeko zirriborroen artean irakurtzen baita legezko frantsesean, baina hutsez beterik:

“Cette (sic) livre apartien (sic) a Monsieur
Monsieur Philippe Goyenette
Fils

⁶⁵ *baxic*: hatsik, arnasarik.

⁶⁶ *heriotce*: heriotza.

⁶⁷ *baidire*: lapurteraz eta hots aldaketa gabe ematen du: *naiz, zarete, daroçuet, baidu, baidire, ez bada*. Beraz, harritzekoa da nola euskaltzale zaharrek Nafarroa Beherekoa bezala eman duten hitz edo aditz aldaketa batzuegatik; egia da Garazikoak errespetatzenago duela lapurtera honek baino.

Ezkerreko trebakuntza kaligrafia zirriborroen artean agertzen da andere biluzi baten marrazki bakuna eta gizon sudur luze baten burua. Beti lumaren trebatzeko ezkerreko orrialdean irakurtzen da “ur hartaric” “Ah moundou enganagarria, Courtho” eta frantses bitxian mandoaz errezeta baten oroitzapena “Pour le (sic) mule agitée”.

Bitxi dena iragarri hitzaurrea liburuaren azkenean kopiaturik dago, aldatzaileak agian errezetak garrantzitsuago eta presago irizten zituelako eta, beharbada, prestatu zionak, azkenik, aski denbora utzi baitzion “Laborarier avissua” emateko eta batzuetan Baigorrikoa baino argikiago. Hala nola errespetatzen baititu lapurterazko hitzak, eritasun, akotzarrek (ez Aktarrek), *eskara* (hizkuntzaren XVII. mendeko izena).

Grafiak ordea, batzuetan, frantses kutsua du: “u”, “ou” idaztea eta nahiz bere saioen arabera frantsesa oso txarto ortografiatzen duela erakusten duen. Testua ez da Baigorrikoa bezain osoa, hogeit bat lerro gutiagorekin delako: bien artean hitzaurrea argi eta irakurgarri gelditzen zaigu ezen Garazikoak huts gutiago duelako.

Oro har, hitzaurre horren xede aitoprenak hiru ideia nagusi erakusten ditu, ekimenaren argigarri:

1. Gertatu berri diren izurrite eta plagei erantzutea
2. Abeltzainei garaiko jakituria helaraztea
3. Euskaraz ematea orduko lapurtar eta beste euskaldun gehienek besterik ez zekitelako

LABORARIER AVISSUA

Badu cembat ere dembora Lapourdico parte gucietaric aditcen dudala laborariac arranguratcen direla idietan, eta ardietan arribatcen çaiçcoten mortalitatez, noun uste baitute içurria⁶⁸ beçalaco eritasuna hequien aciendetarat hedatua dela.

Akhostarrec⁶⁹ sendituric accident horren berria beldurrez façoïn berian he-

⁶⁸ *içurria*: izurria, epidemia, peatea.

⁶⁹ *Akhostarrec*: Akhotzarrek. Gaur ere Donibane Lohizuneko auzo bati Akhotz deritzo eta hain zuzen Eugène Goihenetxe zenak behin esan zidan nola garai hartako idazkietan Akhozetik hain urrun ez den Urruña herrian “hildako behien zerrenda egin zela” hamazazpigarren mende erditsutan. Bai: benetako izurriaren abioa zen.

yen abreac guertha citcesteen beldurrez othoiztu naute adisquide batçuec cembait fagore eritasun horren contra eguitiaz; eta hala erresolitu dut horien satisfacione gatic obra chume baten eguitia, ceinetan erakhutxico, baitayet, idien eta ardien eritasun principalen eçagutçiaz combeni çaizcoten erremedio miragarriac.

Ordean segura çaiztezte (sic) eztirela hemen diren gauçac pentsatuac, bainan bai direla ilkiac⁷⁰ lehenagoco Autor handi eta Oraingo moderno famatuetic⁷¹.

Eta nola hanitz nor bere nacionetan eta naçionentçat travaillatu baitire, Alamaniaoac alemanez, E(s)painiaoac espagnolez, eta berce nacionetacoac, norc bere erresumetaco lengoayez, hala nola francian eguin baitute liburu bat Maison Rustica francesez⁷² eta gu franciacoac⁷³ içan arren Hescualdun⁷⁴ guciec ez daquigu ederraz (sic)⁷⁵ eta particulazqui laborariac comprenitceco beheala liburu miragarri hartan diren misterioac hargatic intreprenitu dut obra chume bat escaraz⁷⁶ emaiterat bat bederac yakhin deçatentçat, cein errazche⁷⁷ den escuaraz comprenitcea lehenagoco eta (oraiko) autorren sendimenduac.

⁷⁰ *Ilkiac*: ilkiak, ateratakoak.

⁷¹ Autore handi: alde batetik, Dassanzak garai hartan egin ohi zen moduan autore zahar eta berrien babespean jartzen da, jakina bereziki Euskal Herrian gai horretako lehen liburua delarik beharrezkoago da

Horrela ere, geroago askok egingo ez dutena egingo du: liburuetan bilketa bat egin duela eta zein liburu nagusitan ere aitortu eta jakinaraziko digu. Hemen bat-batean hitzaurrea amaitzen da eta ondotik azpiko zuriuneaz baliatuz, nekez irakur daitekeen errezeta dago:

“Ainguiaren hatcemaiteco erremedioa. Emaçu amia ontsa dragaturic, ez eman sisari gorriaric batere bainan (...) belscara edo beltça eta hoberenic buria eta bustana eta amia. Comply.”

⁷² *Maison Rustica: La Maison Rustique*, lehenbizikoz XVI. mendean argitaratu laborantza liburu baten hobekuntza, eta XVII. mendeetan European zehar banatu zen.

⁷³ *franciacoac*: hizki xeheetan idazten du eta ez *frances* erraiten herritarrentzat.

⁷⁴ *hescualdun*: Nafarroa Behereko XIX. mendeko hitzak kutsatua.

⁷⁵ *ederraz*: erdaraz.

⁷⁶ *escaraz*: XVI. mendean denek (*b*)*euskara* idatzi dute, XVII. mendean *eskara* eta *beskara* ere, XIX. mendean *beskuara* (Nafarroa Beherean) *eskuara* Lapurdin.

⁷⁷ *errazche*: bizkaiera kutsuko hitza, Lapurdin “erretx”, Nafarroa Beherean “aisa”.

2.2.2.3. Amikuzekoa

Copie du 9 juillet 1891 jusqu'au 21⁷⁸

OTHOITZA

Ene Jinkua sinhesten düt fermoki zü zirela gauza güzien autorra eta konserbazalia, zeria⁷⁹ eta lürra zuriak dire(la), hetan kausitzen diren gauza güziak zure esküko obrak, zü zira eri güzien osagarria⁸⁰, erremedio güzien indarra, zuri gomendatzen dautzüt⁸¹ jauna ene izaite güzia, emagüzü zure benedikzio-ne seindia⁸² gure gainian, gure etxeetan, lürretan eta kabaletan⁸³, othoi erremedia itzatzü hetan kausitzen⁸⁴ diren infirmitate, maliñitate eta inkomoditate güziak eman ezagüzü erier eta erremediuer benedikzione seindia. Amen⁸⁵

Azpian ohar bitxi bat, geroztik egindako kondua ote, urtegunen nahasgarri?

Jaureguiberry à Belçaguy

depuis le 29 octobre 1839 jusque le 11 novembre 1840 l'intérêt 12F 15 et pour le foin de Bentaberry la somme de 10 F.⁸⁶

⁷⁸ 1891ko uztailearen 9tik 21eraino.

⁷⁹ *zeria*: zerua.

⁸⁰ *osagarria*: osasuna.

⁸¹ *dautzüt*: dizut, lapurterazko aditza apur bat zuberotartua fonetikaz.

⁸² *seindia*: saindua.

⁸³ *kabaletan*: abereetan.

⁸⁴ *kausitzen*: aurkitzen.

⁸⁵ *Amen*: halabiz, hala izan dadila.

⁸⁶ 1839ko urriaren 27tik 1840ko azaroaren 11eraino 12 libera eta 15 zentimoko interesa eta hamar libera Bentaberriko belarrarentzat. (Itzultzailea: Txomin Peillen)

3.

MONGONGO DASSANZAREN ERREZETAK

Errezeten izenburuak laburturik eman dira, ez baitira beti bat, erraterako, Baigorrikoa, Barkoxekoa, Garazikoa eta Amikuzekoa. Halaber, errezeta horien inguruko ohar linguistikoak eta albaitaritzakoak egin ditu paratzaileak.

3.I. *Sukarra*3.I.a. *Garazikoa*⁸⁷***Idiaren sukharra sendatceco cer eguin behar den***

Idiac sukharra duenian eçagutuco duçue idiaren inquetadura eta guciz gorphutza ikharatcen çayenian. Copetan⁸⁸ ere eztu su eta lamaric baiçen agueri eta particularqu bi adarren artian.

Halaber berotcen çaiçco beharriac eta ahua icerdia caintoin guçietaric dariola.

Ecen dembora hartan ecin deusic yan deçaque. Bainan nahi luque cembait gauça fresco milicatu, mihiaren idortasuna⁸⁹ dela causa (lehen orrialdea).

Buria ere hanitz pisua daduca eta begiak nigarretan tuela eta muthurra limburriz⁹⁰ garnitia hanitz lucia.

Façoin hartan sendi duçuenian idia sukharrez atacatua dela egun hartan barur aracico dioçue eta guero biharamunian *atheraco* dioçue *odol* guti bat buzta-naren azpitic.

Ondoco borç egunetan entretenituco duçue *gluteron* deitcen den belhar fresco hetaric urarequin iraquitu eta ur hartaric maiz edatera emaiten dioçuela eta halaber continua edate hori sukharra yoan arteraino. Berce batçuec atheratcen diotela odola beharri guibeletaric⁹¹ eta copetatic.

PARATZAILEAREN OHARRAK (Txomin Peillen):

⁸⁷ Baigorriko idazlanean, galdua eta Barkoxekoan, kendua.

⁸⁸ *copetan*: kopetan, bekokian, belarrean.

⁸⁹ *idortasuna*: lehortasuna.

⁹⁰ *linburriz*: hemen mukiz, lirdinga bustiduraz.

⁹¹ *beharri guibeletaric*: belarri gibeletarik, atzetik.

3.I.b. Amikuzekoa

Idiaren sükarra sendotzeko zer egin behar den

Idiak sükarra dienian (sic) ezagütüko düzie idiaren inkietarzünian eta güziz gorphitz güzia ikarutzen zaronian, kopetan ere eztü sü eta lamarik baizen ageri eta partikularzki bi adarren artian; halaber berotzen zazko bortizki beharriak eta ahua, izerdia kantoin güzietarik dariola, ezen denbora hartan deusik ezin jan dezake, bainan nahi lüke zonbait gauza fresko milikatü⁹² mihiaren⁹³ idortazüna (sic) dela kausa, büria ere anhitz pisua dauka, begiak nigarretan, müthürra linburiz garnitia eta hatsa⁹⁴ anhitz lüzia.

Fazoin hortan seindi düzienian idia sükarraz atakatia dela, egün hartan barur eraginen⁹⁵ diozie, eta biharamunian idokiren dakozie⁹⁶ odol güti bat büztanaren petik, ondoko bor(z) egünetan entretenitüko düzie *gluterron* deitzen den belhar fresko hetarik *hurian erakitürrik*⁹⁷ ardüra⁹⁸ edaterat emaiten diozüela, halaber kontinüa edate hori sükarra joan artio, bertze batzuk odola idokitzen diote beharri gibeletarik eta kopetatik.⁹⁹

Albaitaritzaren balorazioa

Gaitzaren azalpena

Idiaren sukarrarena, ezin da laburrago eta hobekiago egin. Hiztegian *inkietarziüna* hitzak, frantses eredua salatzen du, arrangura edo esan bailiteke hitz herrikoiaz. Berriz, *sü ta lama* eliza hiztegitik harturik dago “su eta gar” sukarraren eraginaren adierazteko. Gaitz hori “Piroplasmosis” delakoa litzateke Europan ematen den bere mota arinean eta bi idazkiek berdin erakusten dutena, nola ezagutu eta nola senda.

⁹² *milikatü*: milikatu, miazkatu.

⁹³ *mihiaren*: mingainaren.

⁹⁴ *batsa*: arnasa.

⁹⁵ *barur eraginen*: barau eraginen.

⁹⁶ *idokiren dakozie*: aterako diozue, erauziko diozue.

⁹⁷ *hurian erakitürrik*: urean irakinik.

⁹⁸ *ardüra*: ardura, maiz.

⁹⁹ Donibane Garazikoa ez da Amikuzekoaren eredu izan, ezen azken horrek “hatsa anhitz lüzia” gaineratzen duelako. Biak iturri berdinekoak dira, ordea, Amikuzekoak zubereraren kutsua duelarik “ü”-tan eta hitz batzuetan *inkietarziüna* (inkietasuna), *petik* (azpitik), *bura* (ura).

Sendabidea

Sendagailuaren balioaz. *Odol ateratzea* ez da garai hartan ez eta XIX. mendean irakurtzea harrigarri, oraindik udaberri guztiz sukarren eta odol kolpeen ekiditeko jendeekin egiten baitzen¹⁰⁰. Noski, odola leku batean metatzen zenean eta kongestiorik ez izateko egokia zitekeen, baina sistematikoki erabiltzea jendeekin jadanik XVIII. mendean gaizki ikusia izan zen.

Gluteron, *Xanthium strumarium L.* izeneko belarra da. Oraingo frantsesean “petite bardane” izena dauka, gingilen sendatzeko ere erabilia.

Ez dakit oraindik zenbat euskaldun laborari edo artzainek darabilten sendabelar hori. Errazago eta irudiz merkeago direlako gaur sintesiko antibiotikoak edota gluteronarekin egindako eta izen barbaroz estalitako espezialitatea, ondoren jende okelajaleok irensten ditugunak.

3.2. Lankarra

3.2.a. Garazikoa¹⁰¹

Lantzar deitzen den eritasuna edo ezperen idi marteillia

Idi marteilia¹⁰² deitzen den eritasuna eçagutzen da noiz eta ikhusten beituçu idia-
ren iliac sagarrayoaren¹⁰³ izpiac guisa laztuac tuela eta idia hanitz tristatua, be-
guiac ilhunac eta pisuac lephua¹⁰⁴ makhurtia, ahotic guerlia¹⁰⁵ dariola, bizcarra
eztoca¹⁰⁶ beçala gogortua, urhatsa¹⁰⁷ anhitz pisua apetitia galdua auxnarria edo
ruminatcia ezarriagoa.

Eritasun hori hastean senda daiteque facilqui behar den erremedioac emaiten
çaiçconian. Bainan çahartuchez gueroztic escapatcen da eritasun hortaric. Halere
entseyatu behar da eguin ahalaren eguitera.

¹⁰⁰ Gure aitari, Zuberoan, urtero egiten zioten.

¹⁰¹ Baigorriko idazlanean, galdua eta Barkoxekoan, kendua (atal bat besterik ez da ageri).

¹⁰² *idi marteillia*: idi mailua.

¹⁰³ *sagarroia*: trikua, kirikinoa.

¹⁰⁴ *lephua*: lepoa, sama, iduna.

¹⁰⁵ *gerlea*: hemen ez da “suero de leche”, *lerdea* baizik.

¹⁰⁶ *estoca*: zurgin mahaiko torlojua.

¹⁰⁷ *urhatsa*: urratsa, pausoa.

Hartaracotz harçaque *Constantinopolitana* eta *meloin erroac*, bakhotchetic ahur bana eta hirur ahur *gatz larri*; eta guero hec elkharrequin chehaturic, trem-pa çaque laurden bat *arnotan*; eta eman arno hartaric idiari edatera goiz guciez gathulu baten betia aldian eta continua dioçoque ossoqui sendotu arteraino.

3.2.b. Amikuzekoa

Lankar deitzen den eritarzüna edo bertzela idi marteillia

Idi marteillia deitzen den eritarzüna ezagützen da noiz eta ikusten baita idiaren biluak sagarroiazen izpiak bezala lastuak direla edo idia bera anhitz tristetia, begiak ilhundiak eta pisuak. Lephua makürtia, ahotik gerlia dariola bizkarra esteka eta gogortia, ürrhatsa anhitz pisua, apetitia kasik galdia, ausnarria ezterraula, eritarzün hori hastian senda daiteke aiseki behar den erremedioak egiten zaizkolarik, bainan zahartüz geroz güti eskapatzen da eritarzün hortarik, halere enseiatü behar da eginahalaren egitera.

Hartakotz harzazie *Constantinopolitana* eta *meloin erruak* bakoitzetik ahür bana eta hirur ahur *gatz larri* gero hek elgarrekin xehatürrik trenpaitzazie laurden bat *arnotan* eta eman arno hartarik idiari edatera goiz güziez gathülü baten bethia aldian eta kontinüa arno hartarik idia osoki sendo artio.

Hizkuntzaren balorazioa

Eritasunaren izenak arazoak sortzen ditu: *lanka?* *langar?* *lantzar*. Herri etimologiaz edo darabiltenaren susmoz hiru hitzak “lano” hitzetik etorriko lirateke, *lanbroa*, *langar* (*zirimiri*), *lantzar* *lantxurda* hitzak bezala, baina denbora berean “langor” hitzetik etor liteke, azken hitz horrek gaitzaren ezaugarria baitu: ahulezia. Azkueren hiztegia beti “llovizna” esanguraz ematen du. Baina *Idi marteiluak* argitzen ote gaitu, frantses zaharrean *lupu beltzaren* beste izena “*marteau*” edo “*maillet*” zelako, sendotzen nekeza?

Bitxi da nola Goyenetze errejentak frantsesten duen testua “*ruminatcia*” hitza sartuz euskaldun artzainek ez eta itzainek ere egundaino erabili ez dutena. Gainera, beste “euskarantses” hitza darabil “*facilqui*” jende gehienek “*aisa*, *erretxki*” diotelarik.

Zerbait ilun gelditzen da bi testuak erkatuz Garazikoak baitio: “ausnarria ezarriagoa” eta Amikuzekoak “ausnarria ezterraula”. Bestalde Amikuzekoak, “bizcarra estoka (tornua) bezain gogor” eta bere gisara, idatzi du “bizcarra esteka(loturik)” berdin ulergarria dena.

Sendabidea

Gaitzaren azalpena. “Idiaren ahulezia” edo lupu mota horrentzat ezaugarri nagusiak emanak dira, ezen gorputzaren jardun guztiak murrizten baititu eta jangura kentzen abereari. Badirudi, leku batean, bi kopiatzaileek ez dutela berdín irakurri. Garazikoak dio: “Zahartuxez geroztik eskapatzen eritasun hortarik” eta Amikuzekoak, “Zahartüz geroz *güti* eskapatzen da eritarzün hortarik”.

Itxuraren arabera lehen perpausa ez osoa izaki, bigarrenak arrazoi luke eta oraingo jakituriak hala dio. Eskuizkribu zaharrenak zer zioen ez dakigu, baina badirudi mikrobiodun eritasuna dela, holako immunetasuna eman zezakeenik zahartzearekin eta lehenak luke arrazoi “da” aditza gaineratuz.

Erremedioak eta sendaketa

Errezeta honetan, *ardoa* agertzen zaigu, jende eta abere sendakuntzan ha-maika bider erabilitako “urtzaile” edo, hobeki erran, disolbatzaile, agian berez zertxobait egin dezakeena bere taninoekin, gero *melein* erroak pixa eragile eta aiuta ona dena. Orain ere jendeekin erabilia da larruminen eta gibelminen hobari moduan. *Constantinopolitana* uste izan genuen elektuario edo sendagailu nahasketa zela, zertaz egina zen ez genekielarik, baina beste testu batean dio baratzeetan, ortuetan sor daitekeena dela: beraz, sendabelarra?

Susmoa izekitzen zaigu Garaziko eskuizkribuak ez ote zuen edan, beste hirurek ikusi ez zuten, Dassanzaren iturri osoago batetik.

3.3. Bihotzerrea**3.3.a. Garazikoa (2. zk. idazkian)¹⁰⁸*****Idiaren bihotz-terra khentceco, cer eguin behar den***

Idiac bihotz terra duenian eçagutuco duçue idia gombite iduriz dagoenian, non orduan berehala mustupila edo muthurra frotatuco dioçue *phorruz* eta *baratchuriz* eta posible bada hetaric chehaturic, *arnoarequin* hara aracico dioçue goiçean eta arratxean.

¹⁰⁸ Baigorriko idazlanean, galdua eta Barkoxekoan, kendua.

3.3.b. Amikuzekoa (2. zk. idazkian)

Idiaren bihoztarraren erremedioa

Idiak bihotztarra dienian (sic) eçagütüko düzie bomitze idüriz dagonian, nun ordian berheala müthürra frotatüko diozie phorrüz eta baratxuriz eta posible bada hetarik xehatürik arnuarekin hararaziko diozüe goizian eta arratsian.

Hizkuntzaren balorazioa

Garaztarrak bi zatitan idatziz bihotz-terra herri etimologia bat egiten badu ere, bi idazkien edukia berdina da, baina baxenabartarrak lapurtera jarraitzenago du “gombite” *goitika* hitzarekin eta amikuztarrak zubereraren “bomitze” darabil. Garaztarrak “-ea” grafia gordetzen du nahiz ez den bere euskalkikoa eta amikuztarrak “-ia” bihurtzen. Jakina, *bihotzerre* (pyrosis) hitzaren jatorriari kasu egiten badiogu, antzinako ustekeria badago eta urdailean gertatzen dena bihotzari lotzea: Europa guztian halaxe da, baina Ipar Afrikako magrebtarrek ere esaten zidaten “*Ana merid ma gelbi*” (bihotzetik minez nago), urdaileko oka zutelarik.

Sendabidea

Gaitzaren azalpena.

Laburra izan arren, beharrik gabeko fantasiarik ez dago, ez nondik datorren gaixotasuna. Erdi Aroko *Alberto Txiki* liburuetan emango ziren hipotesi bitxiak ez dira hemen azaltzen.

Gero, ez da erraza asmatzea idiari zerk eman diezaiokeen *bihotzerrea*, jan duen zerbait kutsatua izateak, zomorro kaltegarri baten bat irentsi duelako edota janaria hartziduraz egosten hasi delako? Egia da idiak dauzkan urdail poltsekin haien orekatzen lan duela eta maiz ikusi ditudala behiak hausnartze-ko arazo batekin korroka egiten eta goitika egiten ere.

Sendagailuak.

Egia da muturrean zikinkeria (teiutasun) bat baldin badago *baratxuriak* badeuela eragin bakteriozidio ezagutua antibiotikoa daukalako, ezen izurriteetan ere gaixoen bisitatze-koan sendagileek aurpegian baratxurizko mozorroa zera-bilten. Baratxuria *alizinarekin* sufreduna delako, antiespasmodikoa da. Bestalde, porrua urdailetako minetan oso ona da, bere muzilagoen bidez barruaren, eztigarri eta emagarri.

Guztiengatik errezetan aholkatzen dena ez da bakarrik “muturraren igurztea” baina “ardoan xehatuta” *porru* eta *baratxurien* irenstea. *Ardoak* ere bere eragintxoia izan dezake, neurrian, barruaren garbitzeko eta apetituaren beroztzeko. Beraz, sendagailu horiek balio lukete orain ere kimikariak eta botika saltzaileak hortik igaro ez balira.

3.4. *Kolikoa*

3.4.a. Baigorrikoa¹⁰⁹

...unhaduraz printaderetan(sic). Ceren ecen denbora hartan odol soberaniaoa hobequi errequeitcen baitira eta hala odola atheratu ondoan cenbait passaia eraguinten dioçue ungui ezta liric errefria ez dadin.

3.4.b. Donibane Garazikoa¹¹⁰

Idiaren colica sendatceco cer eguin behar den

Idiac colica duenian eçagutuço duçue idiaren pleinuetan¹¹¹ bai eta halaber haren estoc eta gogortasunean, hasi lepotik eta isterretaraino gucian.

Ordu hartan habarrotx hanitx¹¹² eguiten çayo sabelian; maiz etçan, maiz jaiquitcen da eta ecin dago bere lekuan, icerdia churripitan¹¹³ dariola, cainton guciataric¹¹⁴.

Gaitz horren sendotceco batçuec emaiten diote *baratxuriak* eta *phorruac* xehaturic eta *arnouan* iraquituric, arno hartaric edatera laurden erdi baten inguria aldi bakotchian.

Berce batçuec erremedio hori yuntatcen diote *intzaur*, *oliva* eta *tipula* arnotan egosiric.

¹⁰⁹ Errezeta honen azkena agertzen da eta Daranatzek izenburu gisa ematen du, perpaus horren zati baten azkena.

¹¹⁰ Barkoxekoa kendua.

¹¹¹ *pleinu*: zinkurin, intziri.

¹¹² *habarrotx hanitx*: harrabots anitz, zarata asko, hots ugari, azantz ainitz.

¹¹³ *churripitan*: zurrustan, ura dariola.

¹¹⁴ *caintoin guciataric*: izkina, kantoï guziatarik.

Hartaracotz harçaque ahur bana *mirra* eta *erramou bihiac* eta hec iraquitu ondoan *arnoarequin*, iraci¹¹⁵ eta emoçue édatéra arno houra¹¹⁶.

Berce batçuec idiari picatzen diote behatz azpiko haraguiac eta buztan azpitic, odol guti bat ekhar deçantçat.

Colica sue(r)te hori arribatcen da ordenariozqui u(n)haduraz¹¹⁷ primadere-tan¹¹⁸ ceren ecen¹¹⁹, denbora hartan odol soberantciac hobequi errequeitatcen baitira; eta hala odola atheratou ondoan cenbait pasaye eraquin dioçoque ungui estaliric errefria eztadin.

3.4.c. Amikuzekoa

Idiaren kolikaren sendotzeko

Idiak kolika dianian ezagütüko düzie idiaren plainietarik bai eta halaber haren gogortarçünian hasirik lephotik eta isterretarainoko güzian; ordü hartan abarrots anhitz egiten zaio sabelian, ardüra etzan eta jeikitzen da eta ezin dauke bere lekhian, izerdia zurrustan dario kantoin güzietarik.

Gaitz horren sendotzeko batziek emaiten diote *porriak* eta *baratxuriak* xehatü-rik eta *arnuan* erakitürik. Eta berriz bertze batziek egiten diote edari bat fazoin hontan, hartako harzazie ahur bana *mirra* eta *erramu* bihi eta hek erakitü unduan *arnuarekin* irazi eta emozie edatera arno hura.

Bertze batziek idiari pikatzen diote behatzpeko haragiak eta büztanpia *odol* güti bat *ekar* dezatentzat, kolika suerte hori arribatzen da ordenariozki, unhadü-raz primaderan zeren denbora hartan odol soberantziak hobeki errekeritzen bai-titü eta paseiaraziko düzie ontsa estalirik refria eztadin.

Albaitaritzaren balorazioa

Gaitzaren azalpena.

Gaitzaren nolakotasunak sabel oinazeak luzazki eta zehazki emanak dira eta erabiltzen duen hiztegiarekin, agian Dassanzak idatzia.

¹¹⁵ *iraci*: irazi.

¹¹⁶ *édatéra arno houra*: edatera ardo hura. (frantses ortografiaz)

¹¹⁷ *unbaduraz*: unaduraz, nekaduraz.

¹¹⁸ *primadere-tan*: udaberrietan, bedatseetan.

¹¹⁹ *ecen*: eken irakurtzen bada “heyen”, bestela pleonasma “zeren ezen”.

Sendabidea– *Leben erremedioa*

Porru (*Allium sativum* L.) eta *baratxuri* (*Allium porrum* L.) (berakatz), bien eragin antiseptikoak batuz, sendagailu hobea da, gainera biak xehatuak, ardoan irakinik ahoarentzat, urdailarentzat jasangarriago eta hesteentzat digerigarriago dira. Bestalde, *porrua* hesteen aiuta ona da eta baratxuria espasmo eta hertsuren eztigarri. Beraz, fisikazko eta kimikazko eraginak baditu erremedioak.

– *Bigarren erremedioa.*

Sendagailu hau Donibane Garaziko eskuizkribuan baizik ez da irakurtzen. Agian, espainol liburu batean irakurria izan da, ezen *oliba* eta *tipula*, antzinako Mediterraneoko janari eta sendagailu ezagunak baitira.

Oliba, (*Oliba europaea* L.) purga ezta da eta gibelaren zirikagarria eta eragi-lea. Kolesterolaren jaisteko ere ona.

Tipula *Allium cepa* (L.) heste gogortuentzat aiuta; kipula.

Intxaurra *Juglans regia* (L.) bere olioaren bitartez purga sendoagoa. Oraindik ere erabiltzen dira *oliba* olio eta limoia gaitz horren sendatzeko.

– *Hirurgarren erremedioa*

Jakina, bere droga dendan Mongongo Dassanzak sal zezakeen *mirra* *Balsamodendron mirra* (Nees) baliagarria da, Donibane Lohizunen hango botikariarengana, harengana, ikustaldi bat egiten dutenentzat. Alabaina, ez dugu horretaz barre egiterik, eta euskal entziklopedia batek antzinako sendagai bezala ematen duenean oker dago. Oraindik, gaur, espasmo kengarri gisa *Garrus* sendagailuan alkoholarekin nahasian emana erabiltzen da mirra eta gure errezetan berriz ardoarekin. Mirra zuhamu baten goma erretxina gorria da.

Ereñotz edo *erramuaren* alea (*Laurus nobilis* L.) oso ona da hestearen garbitzeko eta haren lanaren laguntzeko bere samingai eta taninoen bitartez. Ez da bakarrik sukaldaritzan erabilia, baita sendagintzan ere.

– *Laurgarren erremedioa*

Odol kentzea. Hau da sendabide zaharkituena. baina XIX. mendean eta XX. mendean hasieran jendeen eta sendagile batzuen ustezkoa zen, udaberrian (bedatsean Zub., primaderan Lap.) odola –abereetan eta jendeetan–sendoegi, azkarregi zela, behar zela orduan zain ebaki bat egin. Bakarrik laugarren sendabide hori baizik ez liteke erabil gure egunetan beste guztiei *satisfecit* erdi bat eman behar.

3.5. *Sabeleko mina*

3.5.a. Baigorrikoa (eskuizkribuan 2.a)¹²⁰

Idiaren edo behiaren sabelminen khentceco erremedioa

Colica beçala heldu da eritarçun hura eta hala colicarentçat on diren erremedioac balia daitezque sabel minetan bai eta halaber *briga* (sic) eta *orbietan* finaz¹²¹ ere arnuarequin edatera emaiten diotela eta guero biharamunean odola atheraco dioçue mihi azpitic¹²² edo sudurretariç edo ezperen edana araçico dioçue erremedio huntariç. Hartaracotz harçaçue *arruta ta camarmilla*¹²³ ahur bana eta hec unguay iraquituric¹²⁴ pinta erdibat *arnotan*, guero iraci¹²⁵ duçuenean emoçue bi colpez idiari edo behiari edatera.

Berce batçuec baliatçen dire erremedio huntaz ceina eguiten baita laur untza¹²⁶ *turmentina*¹²⁷, *gatz* guti batequin pillotac¹²⁸ idiari irex araztia, hurtuco tuçue *arno* beroan eta guero edan araz adar batez denbora hartan idiac beroqui egon behar du barruqui¹²⁹ bero batean.

3.5.b. Donibane Garazikoa (5. eskuizkribuan)

Idiaren sabelminen erremedioa

Colica beçala eguiten da eritasun hura eta hala colicarentzat on diren erremedioac balia daitezque sabelminetan; bai eta halaber *drigas* (sic) (eta *orbietan* finaz) ere arnoarequin edatera emaiten diotela; eta guero biharamunian *odola atheraco* dioçue mihi azpitic, edo suduretaric edo ezperen edan aracico dioçue erremedio huntaz ceina eguiten baita lau untça *tormentina* eta *gatz* guti batequin, piro-

¹²⁰ Barkoxekoan kendua.

¹²¹ *briga*: hutsa, "triaga" behar luke. *Triaga*, grezierazko *theriaka* da.

¹²² *mibi azpitic*: mihi azpitik.

¹²³ *arruta ta camarmilla*: (*Ruta Graveolens* (L) eta *Marricaria chamamila* (L.).

¹²⁴ *unguy iraquituric*: ongi irakinik.

¹²⁵ *iraci*: irazi.

¹²⁶ *untza*: ontza.

¹²⁷ *turmentina*: terebentina.

¹²⁸ *pillotac*: pildorak.

¹²⁹ *barruqui*: barrukia, ukuilua.

lac idiari iretxarazteco eta baldin posible ez bada cintcurrian pasaraztea, urtuco tuçue *arno beroan*; eta guero edana aracico adar batetaric.

Denbora hartan idiac beroqui egon behar du barruqui bero batean.

3.5.c. Amikuzekoa (zenbaki gabea)

Idiaren sabelminen khentzeko erremedioa

Kolika bezala egiten da eritarzun haur eta kolikarentzat hon diren erremediak balia daitezke sabelminentzat, baita halaber *triaga finaz* eta *orbietan finaz* ere arnuarekin edatera emaiten diotela eta gero biharamunian *odola atherako* diozue mihi azpitik edo sūdūrretarik edo ezperen edan eraziko diozue erremedio huntarik, hartako harzazie *arruta*, *kamamila* ahur bana eta hek untsa eraki¹³⁰ pinterdi bat arnotan, gero irazi düzienian emaozie idiari bi kolpez edatera.

Bertze batzū baliatzen dira erremedio huntaz zoin egiten baita laur onza *tormentina*, *gatz güti* batekin pilatürük idiari irets arazteko eta gero baldin posible ez bada zintzürrian pasatzia, hurtüko tützie *arno beruan* eta gero edaneraziko adar batetarik, denbora hartan idiak beroki egon behar dü barrukian airiak har eztezan.

Albaitaritzaren balorazioa

Gaitzaren azalpena.

Gaitzaren ezaugarriak ez dira gehiegi aipatzen, ez eta kolikoarekin bereizten. Agian hizkuntzaren bidez, orduan, dena argi zegoen.

Sendagailu eta sendabideak

Sendabide gisa betiko moda zaharreko *odol ateratzea*.

Berriro *triaga* edo *theriaka* XIX. mende azkeneraino egiten zen eta beste itxura baten pean, gaurkotasunez, Kneipp sendagaiekin, berpiztu dena, berrogeita hamar belarren nahasketa da.

Ondoren, *Arruta: Ruta graveolens* L. (erroak bereziki, zurtoinean eta hostoetan edena dauka). Oraindik erabiltzen den belarra erortzeko minarentzat eta ausiki ondoko oinazeentzat, jendeekin ere.

Kamamila, Matricaria chamomila L. Ez bakarrik bazkalondoko astuntasunentzat, *manzanilla* gisa, baina gaitzetan, eritasunetan emagarri.

¹³⁰ *untsa eraki*: ontsa irakin, ondo irakin.

Orbietan. Orvietoko Ferrante-k asmatu theriaka mota bat. Ez dakigu zer landare mota sartzan zen hartan.

Tormentina: ez dirudi hemen *Potentilla tormentilla* L. Oraindik, urdailetako oinazeentzat eta beherakoarentzat erabiltzen den belarra, baina erretxinatik atera *terebentina*. Euskalki askotan *tormentinaz* ezaguna eta sendagailu moduan erabilia olio antiseptiko gisa. Erdi Aroan hasirik Baionak Europa guztiari saltzen zion Eugenio Goyenechek bere ikerketan erakutsi zuenez¹³¹.

Beraz, odol ateratzea izan ezik beste sendagailu guztiak erabiltzen dira, jendeentzat ere.

3.6. *Xarmadura*

3.6.a. Baigorrikoa (3. zk. eskuizkribuan)

Idia xarmadurez*¹³² *inquetatua denean cer eguin behar den

Idia edo behia charmatua denean eçagutuco duçue idiaren trubleçia handian¹³³ eta gucz bere accioneac¹³⁴ eguin nahi tubenean¹³⁵ non orduan laburzqui argaltcen eta mehatcen baita, heticatua¹³⁶ balitz beçala.

Hargatic du necessario prunqui¹³⁷ erremedioac eguitea; hartaracotz eçagutu duçueanean idia charmatua dela, emoçue lehen bait lehen hur huntaric sudurretan ceina eguinen bai duçue ahur bat *erramu bihi*¹³⁸ eta ahur bat *geniebra bihi*¹³⁹

¹³¹ E. Goyheneche, 1990, *Bayonne et la région bayonnaise du XII ème au XVème siècle*. Leioa: EHU. "Dans les exportations les produits des Landes: cire, gomme, résine, *térébenthine*, brai, goudron tiennent une grande place".

¹³² *charmadura*: xarmadura, enkantadura, anemia mota bat.

¹³³ *trublecia handian*: beste guztiek "tristura" idatzi dute.

¹³⁴ *accioneac*: pixa eta gorotza.

¹³⁵ *tubenean*: dituenean.

¹³⁶ *heticatua*: hetikatua, tuberkulosiak joa.

¹³⁷ *prunqui*: laster, okzitaniarazko *pruntamen* hitzaren euskalduntzea. Hemen laster esangura du baina, beste kasuetan ugari izan daiteke.

¹³⁸ *erramu bihi*: ereinotz ale.

¹³⁹ *geniebra*: orrea, ipurua.

eta untça bat *sofre* eta guero trempa¹⁴⁰ *hur ephelean* hogoi ta laur orenez¹⁴¹; iraci duçuenan, balia çaitetze hortaz, goicetan eta arraxaldetan, sudurretan barna¹⁴² emaiteco, hori eguin beçain sarri¹⁴³ preparatuco dioçue erremedio miragarry hortaz ceinac khenduco baititu charmac eta oçatura guciac¹⁴⁴.

Hartaracotz har çacue laur *nerprun* bihi¹⁴⁵ eta berce laur untça *constantinopolitana*, untza bat *gatz larri*; hec ungui cheaturic¹⁴⁶ iraquitu behar dute pinterdibat huretan eta guero hur hura eman idiari edatera adar cilhatu batez¹⁴⁷; baldin

Eta lehen colpetic ez bada idia erremediatcen emanen dioçue cenbait aldiz erremedio hartaric eta hala iccusico duçue effetu miragarria ez solamente idien gainian charmen contra eracusten duen efetua, bainan oraino erranen daroçuet¹⁴⁸ *constantinopolitana* horrek bertute handiac dituella, Peccacius(sic) arabiaco auctor famatu haren erranez; ecen hain espressuqui seguracen guitu erraiten darocunean¹⁴⁹ khentcen tuella eta debecatcen charma suerte guciac, nahiz allimaletan, nahiz presunetan, lur eta etchetan eguiten diren guciac. Hartaracotz dio asqui dela erran dugun *constantinopolitana* hori bere lurretan edo etchetan iduquitcia¹⁵⁰; beraz balia çaiteste erremedio miragarry hortaz.

3.6.b. Barkoxekoa¹⁵¹

...hory eguin beçain sarri hareçacu: laur ontça *ne(r)prun* bihy: eta beste laur ontça *Constantinopolitana* eta ontça bat *Neffar gatz larriti* eta hourac algarrek

¹⁴⁰ *trenpatu*: trenpatu, busti, blai utzi.

¹⁴¹ *hogoita laur orenez*: hogeita lau orenez.

¹⁴² *eguin beçain sarri*: egin bezain sarri.

¹⁴³ *sudurretan barna*: sudurraren barruan.

¹⁴⁴ *charmac* eta *oçatura*: xarmak eta enkantadura gaizki irakurria? (Garazikoan “charma ta escantadura”, Amikuzekoan, “charma ta inkantadura” irakur daiteke).

¹⁴⁵ *nerprun*: *Rhamnus catharticus* L., hesilarra.

¹⁴⁶ *cheaturic*: xehaturik, txikiturik.

¹⁴⁷ *erranen daroçuet*: erranen dizuet, esango dizuet.

¹⁴⁸ *adar cilbatu batez*: idi adar zulatu batez inbutu onil gisa.

¹⁴⁹ *erraiten darocunean*: erraten digunean.

¹⁵⁰ *iduquitcia*: edukitzea, ukaitea.

¹⁵¹ Bere hamaikagarren orrialdean hasten da salbatu dena, errezeta zati honekin eta atzetik *constantinopolitanari* buruzko hitzaldi luzerik ez dauka.

onxa cheheka: eta pintubat houretan onxa herakituric doy¹⁵² hoztu denian emoçu idiary hartaric edatera eta ezpada lehen aldian idia sendotcen continia eçaçu conbait egunez suitan¹⁵³.

3.6.c. Garazikoa

Idia charmadurez incantatua denian cer eguin behar de

Idia charmatua denian, eçagutuco duçue tristeçia handian; bay eta guciz laster bere accioneac eguin nahi tuenian, non orduan idia laburzki hagatcen¹⁵⁴ eta mehacen baita heticatua baliz beçala.

Hargatic da nesario prompqui¹⁵⁵ erremedioac eguitea. Hartaracotz eçagutu duçuenian idia charmatua dela, emeoçue lehen bai lehen ur hartaric sudurretan barna ceina eguinen baituçue lehen bai lehen ahur bat erramou bihi eta ahur bat yenobria bihi eta untça bat sofre lore, eta guero ur epeletan hogoi eta lau orenez iraçi duçuenian balia çaitetzte ur hartaz goiçetan eta arratsetan sudurretan barna emaiteco. Hori eguin beçain sarri preparatuco dioçue erremedio miragarri hau, ceina(k) khenduco baititu charmac eta escantadura¹⁵⁶ guciac.

Hartaracotz harçaçue laur untça *Constantinopolitana*, untça bat *gatz larri*; eta hec chehaturic ungui iraquitu behar dute pinterdi bat *uretan* eta guero eman hur hura idiari edatera.

Baldin eta lehen colpetic ezpada idia erremetitia¹⁵⁷ emanen dioçue cembait aldiz erremedio hortaric eta hala ikhussico duçue, efetu miragarri ez solamente idien charmen contra eracusten duen efetua, bainan oraino erranen darotçut *Constantinopolitana* horrec berthute handiac dituela Sedacius¹⁵⁸ Arabiaco autor famatu haren erranez. Etcen (ecen) hain espresuqui seguracen gaitu erraiten darotçunian khentcen tuela eta debeatzen guciac nahiz alimalia, presunetan lur eta etçetan eguiten diren guciac.

¹⁵² *doy*: doi, ia-ia.

¹⁵³ *suita*: jarraipena (*segida* ere erraten da Zuberoan).

¹⁵⁴ *hagatcen*: haga legez argaltzen.

¹⁵⁵ *prompqui*: laster.

¹⁵⁶ *escantadura*: enkantadura aztikeriazkoa?

¹⁵⁷ *erremetitia*: gaskoitik "erremetir", sendoturik.

¹⁵⁸ *Sedacius*: beste irakurketa nekea.

Hartaracotz dio asqui dela erran dugun Constantinopolitana hori bere lurretan eta etchetan idukhitcia. Beraz balia çaitetze erremedio miragarri hortaz.

3.6.d. Amikuzekoa

Idia xarmadurez inkantatua denian

Ezagütüko düzie idiaren tristeria handian eta güziz bere akzioniak laster egin nahi tienian nun ordian idia laster mehatzen baita etikatia baliz bezala; hargatik da neseario prunki erremedioen egitia, hala ezagütü düzienian idia xarmatia dela emozie lehen bai lehen hur huntarik südürretan barna, zoin eginen baitüzie ahur bat *erramu bihi* eta onza bat *orre bihi*¹⁵⁹ eta onza bat *sofre lore* eta gero trenpa hur ephelian hoge eta laur orenez; irazi düzienian balia zitezte hur hartaz goiz arratsetan südürretan barna emaiteko, hori egin bezain sarri preparatüko düzie erremedio miragarria zoinek khentzen baititu xarmak eta inkantadura güciac.

Hartako harzazie laur onza *nerprün* bihi, beste laur onza *Constantinopolitana*, onza bat *gatz larri* eta hek ontsa xehatürik erakitü behar düte pinterdi *huretan* eta gero eman hur hura idiari edatera adar batetarik baldin eta lehen kolpetik, idia ezpada erremediatzen emanen diozie zonbait aldiz erremedio huntarik eta ikhusiko düzie efekto miragarria, ez solamente idien xarmen kontre, bena orano erranen derautazie Constantinopolitana horrek berthüte handiak ditiela Pedocines Arabiako Doktor famatü haren erranez, ezen espreski segürtazen gaitu erraiten deraukunian khentzen tiela eta debetetzen xarma suerte güziak.

Hartakotz dio aski dela erran dügün Constantinopolitana hori bere lurretan edo etxian edükizia beraz balia zaitezte erremedio miragarri hortaz.

Albaitaritzaren balorazioa

Constantinopolitana. Badirudi testu horien arabera sendagai hau belarrezkoa dela diotela.

– *Lehen erremedioa*

Ereintz aleak, *orre* aleak eta *sufre* urean eman eta iragazi; gero *sudurretik* eman. *Ereintza Laurus nobilis* L... Tanino, samingaia, lipidoduna. Hostoak udan,

¹⁵⁹ *orre bihi*: hemen euskal hitza “orre” darabil besteek beti genebre, yenobre erabili dutelarik.

fruta lehorrak udazkenean bil. Antiseptiko eta sukar kentzailea da. Astenia kasuetan lagungarri. Lo eragilea.

Orrea Juniperus communis.L. Diuretiko eta antiseptiko. gehiegi hartzeak jende bixika erretzen. Odol garbigarria eta azal gorritzailea.

Sufrea, kasu honetan berriz arnas gaitzentzat ona da.

– *Bigarren erremedioa*

Hau ahotik eman behar da, gatz larria darabil purgagarri dena, nerprun edo *Rhamnus catharticus L. hesilarra* delakoa.

Azal zaharra eta fruta umotua erabiltzen dira. Hesilarraren kimikagaiak antrazenikoak, heteroxido bat, C bitamina baditu. Odolaren garbitzeko, erraiak odolez desgorritzeko, eta lasaigarritzat hartua da. Albaitaritzan xarabe bat egiten da gure egunetan.

Euskaraz behin “elorri beltz” izenarekin gaizki itzultzen da: izan ere koptatzaileek ez zekiketen zehazki zer den frantsesez, baina frantsesez ere “*épine noire*” esaten zaio. Ez du ezer ikusteko euskarazko elorri beltzarekin (basarandondoa), bildumen ondoko hiztegietan gaizki jarria.

Errezetaren izenak ez gaitu asko laguntzen, hemen Garazikoak ez baitu inkantadura ikusi nahi eta inkietatu irakurtzen baitu. Nolanahi gaitzaren jatorri (aztikeriazkoa) eta izenak baino gehiago balio dute deskribapenek eta erremedioek. Sendabide sistema horrek ematen du arnas aparatua eta, hesteak ukituak direla ustez, bientzat ematen dela sendagailua. Anemia mota bat litzateke, gripe itxurazkoa. Idietan *anemia* mota asko dago, janariaren desorekatik edo birus kutsutik edo bizkarkin baten eraginaz heldu direnak, horregatik hain da zabala sendagaien metatzea.

Beharbada, inkantadura izenaren jatorria begizkoaren sinestetik letorke ezen gure egunetan ere badira nekazariak uste dutenak jende batzuek borondate txarrez edo ustekabeen abere bat gaixoarazi lezaketela. Halatan ere abeltzainek begizkoa ikus balezate hor, apaiz exorzista eta azti baten ekintza aipa lezakete eta ez da holakorik.

3.7. Sabeltasuna

3.7.a. Baigorrikoa (4. eskuizkribuan)

Idiaren uchada edo sabeltasuna çer façoinez sendatu behar diren(sic)

Idiac uchad(a) edo sabeltasuna duenian eçagutuco duçe haren isurrietan¹⁶⁰ ez zen¹⁶¹ clar asqui agueri dire bat edo bercia¹⁶² eçagutceco.

Eta hala iccusten duçunean sabeltasuna duella, eztiocue dembora hartan yatera eman behar ez edatera, bizpahirur egunez, choilqui cenbait *mahax osto lipita*¹⁶³ edo ezperen *mahax ostoac arnuan* trempaturic; *haritx calitchac*¹⁶⁴ eta *mirra* gutibat trenpatua haraçico dioçue idiari edo behiari eta guero hirur egunen buruan presenta dioçoçue cenbait belhar fresco nahiz *planturic*¹⁶⁵ edo *çamari bustana*¹⁶⁶ deitcen den belharra eta guardia ondolik emaitetic; edatera emaiten çayonean ere, bere *hura*¹⁶⁷, *erramu ostuekin* iraquituric eman beharco dioçue.

Cer ere erremedio eman baitut sabeltasunarentçat, baliatuco çarete uchadarentçat, ceren ezen biac bat beçala eguiten baitire.

3.7.b. Barkoxekoa (6. zk.)¹⁶⁸

Idiac sabeltarçuna dianian cer eguin beharden sendotceko

Eçaguturen (duçe) noiz dian eritarçun hora imoretan¹⁶⁹ ordenariozky eta ordian eztiçoçula eman jatera: ez eta edatera vigue (sic) edo hirour egunez: çombait *mahartce osto*¹⁷⁰ baicic eta hourac éré *ardouan* trempaturic: eta *mirra* gutibat *ardouan* trempaturic emoçu idiary edatera:

¹⁶⁰ *issurietan*: glanduletan, guruinetan? ala isurietan(txiza eta zirin)?

¹⁶¹ *ez zen*: ezen, bi zatitan idatzia, (ik. urrunago "zeren ezen" pleonasma).

¹⁶² *bata eta bercia*: bata eta bertzea, esan nahi baita, "uxada eta sabeltasuna".

¹⁶³ *mabatx osto lipita*: gaizki irakurria "mahats hosto edo pipita".

¹⁶⁴ *haritx calitchac*: haritz kalitxak, orrietan, zomorro ziztat egiten den kanika.

¹⁶⁵ *planturic*: gaizki irakurri "plantainic".

¹⁶⁶ *çamari bustana*: edo azeri buztana *Equisetum biemale* L.

¹⁶⁷ *hura*: edateko ura.

¹⁶⁸ Gaitza ez da aztertzen, bakarrik errezeta ematen.

¹⁶⁹ *imoretan*: umoretan, likidoetan.

¹⁷⁰ *mahartce osto*: mahats hosto.

Eta guero hirour egunen burian presenta içoçu *plaintaigna* edo *camamila* edo *çamary buztan* deitzen den belharra.

Eta ondoko egunetan gogua eman¹⁷¹ içoçu, edatera emaitian: emoçu *erramu ostouareky* trempaturic: hogeï eta laur orenez: edo bestela heraky eraciric: *erramu ostoueky* doy hoztu denian çombait egunez idiary edatera: goizéan barouric.

3.7.c. Garazikoa

Idiaren utchada edo sabeltasuna duenian eçagutuço duçue haren issurietan, ceren etzen (sic) clar asqui baitire bat eta berçia eçagutcecotz; eta hala ikhusten duçuenian sabeltasuna duela eztioçue dembora hartan yatera ez edatera eman behar bizpahirur egunez, baiçen choilqui çembait *mahatx bihi pipita* edo ezperen *mahatx ostoac arnotan* trenpaturic hara araçico dioçue idiari, eta guero hirur egunen buruan presenta dioçue cembait belhar fresco, nahiz *plantagnac* edo *çamari bustana* deitzen den belharra eta guardia ondotic ere bere *hura erramou ostoequi* iraquituric eman beharco dioçue. Cer ere erremedio eman baitut sabeltasunarentçat ceren etzen biac bat beçala eguiten baitire.

3.7.d. Amikuzekoa (zenbaki gabea)

Idiaren uxada edo sabeltasuna sendotzeko

Idiaren uxada edo sabeltasuna duenian (sic) ezagütüko düzie haren ezürretan (sic) zeren aski klar baitira bata eta bestia ezagützeko eta hala ikhusten düzienian sabeltasuna diela eztiozie denbora hartan jatera ez edatera eman behar bizpahirur egunez xoilki zenbait *mahats bihiren pipita* edo ezperen *mahats ostuak arnuan* trenpaturic edo *haritx kalitzak* eta *mirha* gütibat *arnoan* trenpatürük hareraziko diozie idiari; gero hirur egunen burian presenta diozöue zenbait belhar fresco, nahiz *plantainak* edo *zamari büztan* deitzen den belharra eta goardia ondotik edatera emaitetik eta emaiten zaionian ere bere *hura, erramü ostuekin* erakitürük eman beharko diozöue, zer ere erremedio eman baitut sabeltasünendako baliatüko zirete üxadarendako zeren biak bat dira.

¹⁷¹ *gogua... eman*: guardia eman (Baigorrikoan).

Albaitaritzaren balorazioa

Gaitzaren azalpena

Ez da argi, uste baita irakurleak badakiela gaitz arrunt horren ezagutzen xehetasunik eman gabe. Gainera, nekez irakurri edo ulertu luke Amikuzekoak “ezürretan”, hezurretan baldin balitz, baina badirudi *izurri* hitza dela jatorrizkoa baigorriar eta garaztarrak “isurri” esangura ulertu du, erran nahi baita, “glandula”. Zuberotarrak, ordea, “imore” egokitu du eta gaitzaren arabera “isuriak”, pixa eta zirina lirateke. *Uxada* disenteria da, beheitikoa da eta ez du noski azalpen beharrik, baina sabeltasuna badirudi likidoago dela.

Sendagailuak eta sendabideak

Badirudi sendabide nagusia dela baraurik edukitzea, jendeekin ez du aspaldi egiten zen moduan. Orokorki, orain ere erabili genitzake *mahats hostoak* eta *mahats pipitak* (*Vitis vinifera* L.) beheitikoaren, zirineriaren sendatzeko, antiseptikoak eta antidiarreikoak direlako. Mahats pipitaren olioia, orain ere, bertute horrengatik erabiltzen da¹⁷². Hitz hori ez da gehiago Zuberoan erabiltzen ez eta erraz ulertzen.

Haritz kalitxak eta *hostoak* halaber, neurritan, antiseptikoak eta gogorgarri dira. *Erramu hostoa* (*Laurus nobilis* L.) Agian taninoen bidez heste garbitzailea ezaguna da. Jendeekin ere erabilia.

Plantaina (*Plantago Majus* L.) Landare osoa freskorik, haziak lehorrik. Bere kimikagaiak: muzilagoa, gluzidoa, sufrea, mea gatza. Beherakoen disenterien aurkako sendagai hautua, urdailarentzat ere ona dena. *Kamamila* *Matricaria chamomila* (L.) edo *Anthemis nobilis* (L.) gaineratzen du Barkoxeko kopiatzaileak.

Gutxi edo asko sendagailu honetako sendagai guztiak gure egunetan erabiliak dira jendeen eta abereen sendakuntzan.

3.8. Erortzeko mina

3.8.a. Baigorrikoa (6. zk. eskuizkribuan)

Idiac edo behiac erorteco mina duenian cer eguin behar den

Idiac erorteco mina duenian eçagutuco dioçue idia colpez erori denean eta guero

¹⁷² *Mahartze* hitza hapax gisa X. Videgainek bildu du Inhazi Biarnoko herrian dagoen euskaldun auzo batean.

ahua macurturic¹⁷³ goitica eta çarrapoa¹⁷⁴ ahotic dariola eta çango bat bihurcen beçala çaiçcola¹⁷⁵ eta finean bizpahirur orenen¹⁷⁶ buruan deusic ez balu beçala altchatzen¹⁷⁷ denean. Hartaco eritarçuna¹⁷⁸ duten idiac ordinariozqui attaquatuac dire bi hilabetetaria, bi hilabetetara.

Eritarçun horren sendatceco hararaci behar dioçue laurden bat *arnotan astoaren çangoko azazcala*¹⁷⁹ eta *idi copetaco heçurra*¹⁸⁰, untça bana limaturic eta ungui chehaturic eta guero continua hogoi egunez goiz guciez emaiten dioçuela adar batetaria.

Berce batçuec hanitx baliatcen dira erran dugun *Constantinopolitana* miragarri hortaz. Hartaracotz asqui duçue *arnuan* edo *hurean* iraquituric idiari edo behiari goiçetan eta arraxetan emaitia.

3.8.b. Barkoxekoa (7. zk.)

Idiac erorteco mina dianian: cer eguin behar den

Idia eçaguturen duçu: beré maneria partikularretic: Jesto eguinen du ahoua okher-turic: çankhoac éré: ahotic barouxa doukola¹⁸¹ eta bigua edo hirour orenen bu-rian: deus ezpeilu beçala jaikiren da¹⁸² eta ordenarizky eritarçuna ukheiten diçe by hilabetetaria by hilabetetara Eritarçun haren sendotceco har eçaçu: pintoubat *ardou* hobenetic: eta *astoaren çankoko azazkulutic* eta *idiaren belarreko*¹⁸³ eçurretic limaturic ontçabat eta onxa chéhékaturic trempakhin hartaric idiary edatera ho-guey egunez goiz oroz emaiten derioçularic barouric ahotic behera idiary.

¹⁷³ *macurturic*: makurturik, behera buruz okerturik (zubereraz ere).

¹⁷⁴ *goitica eta çarrapoa*: goitika eta barautsa (zubereraz *babüts*).

¹⁷⁵ *çaiçkola*: zaiola, behar luke; testu gehienetan holako hutsak badira.

¹⁷⁶ *orenen*: orduen.

¹⁷⁷ *altchatzen*: altxatzen, zutitzen.

¹⁷⁸ *eritarçuna*: ekialdeko forma, lapurteraz eritasuna (gaixotasuna).

¹⁷⁹ *çangoko*: oineko zehatzago litzateke, zangoak ez baitu azazkalik.

¹⁸⁰ *copetaco heçurra*: kopeta hezurra, bekoki hezurra.

¹⁸¹ *barouxa doukola*: barautsa dariola.

¹⁸² *jaikiren*: jaikiko (zuberotarrak ez du altxatu erabiltzen).

¹⁸³ *belarreko*: bekokiko.

3.8.c. Garazikoa

Idiac erorteco mina duenian cer eguin behar den

Idiac erorteco mina duenian eçagutuco duçue idia colpez erortcen denian eta guero ahua makhurturic guerlia ta arrapoa ahotic dariola eta çangoa bihurcen beçala, eta finian bizpahirur orenen buruan deusic ezpalu beçala altchatzen denian. Halaco eritasuna duten idiac ordenariosqui atacatuac dira bi hilabetetariac bi hilabetetara.

Eritasun horren sendatceco hararaci beharco dioçue laurden bat *arnotan astoaren çangoco heçurra*, unçça bana, limaturic eta ungui chehaturic eta guero continua hogoi egunez goiz guciz emaiten dioçula adar batetariac, berce batçuec hanitz baliatcen dire erran dugun *Constantinopolitana* miragarri hortaz. Hartaracotz asqui dute *arnouan* edo *urian* iraqituric ur hartariac idiari goicetan eta arraxetan emaitia.

3.8.d. Amikuzekoa

Idiak erorteko¹⁸⁴ mina dienian¹⁸⁵ zer egin behar den

Ezagütüko düzie idia kolpez erortzen denian eta gero ahua makhürtürük, girli¹⁸⁶ eta arrapua ahotic dariola eta zanguak bihurtzen bezala zazkola eta finian bizpahirur orenen bürian deus ezpalü bezala jeikiten da¹⁸⁷ halako eritarzüna düten idiak ordenariozki atakatiac dira, bi hilabetetariac bi hilabetetara.

Eritarzüen horren sendotzeko idiari hareraziko diozüe laurden bat *arnotan, astuaren zango behatza¹⁸⁸* eta *idi kopetako¹⁸⁹ hezürra* onza bana limatürük eta on-

¹⁸⁴ *erorteko mina*: testu guztiek «erorteko mina» ematen dute nahiz erorten Zuberoan baizik ez den erraten. Gero Amikuzekoak eta beste guztiek idazkian zehar idazten dute “erortzen”, zuberotarrak “erorten”.

¹⁸⁵ *dienian*: *duenian* hitzaren aldaketa da ez, *dutenean*.

¹⁸⁶ *girli*: goi-nafarreraz Oiartzunen berdin esaten omen da. Gerlea barautsa baino likidoago litzateke “elder”.

¹⁸⁷ *jeikiten*: zubereraz bezala, *jaikitzen* nafar-lapurteraz.

¹⁸⁸ *behatza*: azazkal hitzaren ordez.

¹⁸⁹ *kopeta*: bekokia. Gorputzeko atal honekin debekuak, tabuak balirean hitz asko dago euskaraz: *belar*, *bekoki borontea*, *kopeta*. Zuberoan jendearen “borontea” (bataioko latinetik “fronte”) baina idiaren “belarra” esaten da. Ez da harritzekoa, beraz, *bekokiari* sendakuntza bertuteak ematen bazaizkio.

tsa xehatürrik eta gero kontinua hogei egünez goiz güziez emaiten dioziela adar batetarik.

Bertze batzü anhitz baliatzen dira erran dügün *Constantinopolitana* miragarriaz, hartarakotz aski dute *arnuan* edo hurian erakitürrik¹⁹⁰ hur hartarik idiari goizetan eta arratsetan emaitia.

Albaitaritzaren balorazioa

Gaitzaren azalpena.

Gainera laburra baina zehatza, behin Barkoxekoan ere lehenbizikoz deskribapen hau irakurtzen dugu eta bere ezaugarriekin jende eta abere epilepsiaren sintoma gehienak ematen dizkigu.

Sendabidea eta sendagailua.

Orokorki, itxuraz behintzat, agertzen da aztikeria kutsuzko sendagailua, astoaren *oin azazkala* eta idi bekoko *hezur errautsa* (Garazikoan falta dena). Alabaina, oraindik albaitaritzan eta jendeentzako sendagailugintzan biak erabiliak dira, ezen sineste bat izan bada (belenetan ere ez ote dira astoa eta idia belau-nikatzen) sinesteak farmaziarekin ustekabeen bat egin du, erabilian erabiliz konturatu delako jendea eragin horretaz.

Asto oinaren azazkalean eta hemen aipatzen ez diren kima eta buztaneko zurdetan dagoen keratinaz gaur ere erremedioak egiten dira. Keratina sufredun proteina da. Hezur-irinez ere abereentzat sendagailuak eta sendogarriak atontzen dira. Constantinopolitanaz ez dezakegu iritzirik eman ez baita gehiago ezagutzen.

Halere, ez da baztertzeakoa gaitza burutik etorria eta hanken kordokagarri izanaz –berdinak berdina senda bailezake– bekoki eta atzapar horiek “elkar irudien sendakuntzazkoak” izatea jatorriz.

¹⁹⁰ *hurian erakitürrik*: zubereraz bezala, urean irakinda / irakindurik.

3.9. Gatarra

3.9.a. Baigorrikoa (7. zk. eskuizkribuan)

Idiaren edo behiaren gatharra nola sendatu behar den

Gatharraren erremedioric lasterrena da mihiaren azpitic *odola atheratcia* eta guero *porrua*, *arruta*, *capiua*, *salboina*, *morsus diabolus* elgarrequin *hurian* hiraquituric, iraci eta hur hartaric idiari edo behiari edatera emaitia, eta finean padera batean¹⁹¹ *arno liga*¹⁹² *ogui mamiz* eta *hauxarequin*¹⁹³ *ahia* eguinic¹⁹⁴ hartaz lephoa lotcea non bide hortaz lazter (sic) kenduco baitioçue gatarra¹⁹⁵.

3.9.b. Barkoxekoa (eskuizkribuaren azkenean, 3I.a)

Idiary gatarda dianian: cer eguin behar den sendo erazteko

Eritarsun haren erremedioric lasterrena mihy petic *seignatcia*¹⁹⁶ eta guero *phorru* ahurbat, *capio: sabina: morsceaus diabolios* (sic): algarreky herakituric; eta guero iraciric: edatera emoçu idiary: hour hartaric. Eta guero ontçy batetan *ardou* hobetic: *ly-acy maris*¹⁹⁷: *hauxareky* nahasiric: eguiçu *emplastia*: eta guero harez onxa bereka lephoua:

3.9.c. Garazikoa (9. zk. eskuizkribuan)¹⁹⁸

Idiaren gatarrari edo Cainnarrari cer eguin behar den

Gatarraren erremedioric lasterrena mihiaren azpitic *odola atheratcia* da eta guero *porruac*, *arruta*, *apio*, *salbina*, eta *morsus diabolus* elgarrequin *urian* iraqituric

¹⁹¹ *padera batean*: zartagin batean (zub.).

¹⁹² *arno liga*: ardo ahetz edo zikina (gaztelaniaz “hez”) (edo *liga*, zubereraz).

¹⁹³ *hauxarequin*: hautsarekin.

¹⁹⁴ *ahia*: papilla, egur-suko hautsaz egina.

¹⁹⁵ *gatarra*: fluxio, ahulezia, hats nekea. Orain “galtzarra” esaten zaio.

¹⁹⁶ *seignatcia*: zeinatzea, odol kentzea.

¹⁹⁷ *ly-aci maris*: linazi mamiz, kataplasma klasiko batean bezala linazia sartu; barkoxtarrak *mamiz* ez du ulertu ogiaren mamiari “bihotza” esaten diogulako.

¹⁹⁸ Errezeta honen lerroak 53. orrialdean moztuak agertuko dira eta 15.ean gaineratuak.

iraci eta ur hartaric idiari edatera emaitia.

Eta finian panyeru¹⁹⁹ batian *arno ligaz, ogui mamiz* eta *hautxarequin ahia* egu-
nic hortaz lepoa lotcea non bide hortaz laster khenduco baitioçue bere gatharra.

3.9.d. Amikuzekoa (zenbaki gabea)

Idiaren gatharrari zer egin behar zaion

Gatharraren erremediorik lasterrena mihiaren petik *odolaren idokitia*²⁰⁰ eta gero *forruak* (sic), *arruda*, *apiuak*, *sabina*²⁰¹ eta *morsus diabolus* elgarrekin *hurian* era-
kitürük irazi eta hur hartarik idiari edatera emaitia. Eta finian pangerü batean *arno*
ligaz, ogi mamiz, eta *hautsarekin egin orhea*²⁰², hartaz lephua lotzia, nun bide hor-
taz laster khendüko baitiozüe bere gatharra.

Albaitaritzaren balorazioa

Gaitzaren azalpena

Ez da lau testuetan batere agertzen. *Zainar* gaitzaz dio Azkuek "Aulegi-
tik sortzen da gaitz au ta zurrungotsa erabiltzen due bera daukaten abelgo-
rriak"²⁰³.

Sendagaiak eta sendabideak

Sendabide zaharkitua da odol kentzea eta hemen ere eskaintzen da, agian,
gatarra edo galtzarra edo zainarra deritzona udaberrian gertatzen delako.

– *Leben sendagailua*. Barrutikakoa, urean irakinda

I. *Morsus diabolus Scabiosa morsus diabolus* (L.) edo *Succis praemorsa* (Gilib.)
Honen kimika gaiak eskabiosia, almidoia, mea gatza, saponosidea eta taninoa
dira. Hosto eta lore berriak eta erro lehorrak erabiltzen dira. Fitoterapian
eztularen lagungarri, mukien jariagarria, baina larru minetan eta zaurien sen-
dagarri ere erabiltzen da

¹⁹⁹ *panyeru*: pangeru, (L.) panderoa (G) "pertz txikia", perxko (Z.).

²⁰⁰ *odolaren idokitia*: odolaren idokitzea (kentzea), zubereraz bezala.

²⁰¹ *sabina*: Amikuzekoak eta Zuberoakoak ongi irakurri dute sabina, besteeek salbina eta salboina.

²⁰² *orhea*: orea, ahia hitzaren ordez (*abia* ez da ulertzen Zuberoan), gainera zuberotarrak bere
izen zehatza ematen dio nahasketari "emplastu".

²⁰³ G. Andoain, Hiztegia, 402. or.

2. Erruda, Arruda *Ruta graveolens* (L.)

Hosto eta loreak kaltegarri izan daitezke, zainak, erroak dira izerditzeko erabiltzen direnak.

3. Apioa. *Apium graveolens* (L.)

Fitoterapian ezaguna da, batik bat sasiko apioa. Hosto, fruta eta erro lehorrak erabiltzen dira, eztularen sendagarri, tonu emaille moduan

4. Porru, phorru, forru, *Allium porrum* (L.)

Muzilagoa, sufrea eta mea gatzak direla bide eztularen lagungarria da.

5. Sabia, salbina, salboina izen horiekin zabuka gabiltza. Agian, *Juniperus sabina* (L.) Sabina zuria litzateke. (Sabina albar, gaztelaniaz).

Lehen erremedio honek nahiko ona dirudi, gaur ere, honen osagai gehienak horretarako erabiliak direlako.

– *Bigarren sendagailua*. Kanpotikakoa, enplastua.

Kataplasma mota honetan bitxiena da ogi mamia erabiltzea eta hautsarekin -agian *hauts beroarekin*- eta *ardo abetzarekin*. Zuberotarrak klasikokiago *linazia*, *Linum angustifolium* (L.) nahasten dio bere oreari.

3.I0. *Pixa odoletan egitea*

3.I0.a. Baigorrikoa (I0. zk. eskuizkribuan)

Idiac odolez picha eguiten duenean cer eguin behar de

Heldu çayo comunsqui accident hori hanitx berotua eta borthisqui malfonditua²⁰⁴ denian eta guciz udan cenbait belhar gaisto ihitcez bustia²⁰⁵ yan ondoan; gaitz horren erremediatceco ez du deus ere idiac edan behar, choilqui edari huntaric baicen: hartaracotz, har eçaçue hirur untza *arho irin* eta untça bat *triaga*²⁰⁶, guero hec iraquituric pinterdibat *arnotan* eta finean yuntatcen dioçue *soffre* gutti bat; edari hartaric emoçue edatera idiari goicetan eta arratsetan *plantain hura oliorequin*.

²⁰⁴ *malfonditua*: mafrunditua, marrantatua.

²⁰⁵ *belhar gaisto ihitcez bustia*: belar txar ihintzez bustia.

²⁰⁶ *triaga*: theriaka.

3.I0.b. Barkoxekoa (bildumaren azkenean, 33. zenbakiarekin)

Idiac odolez picha eguiten dianian: cer eguin behar de(n) sendo erazteko

Ordian idiac eztiçu²⁰⁷ deusere edan behar: bena har eçaçu hirour ontça artho irin: eta triagua eta pintou erdibat ardoutan heraky eracy: eta hartara emoçu soffre bilhobat²⁰⁸ eta edary hartaric emoçu idiary edatera hirour egunez; goiz ar(r)axetan: eta sendo arthio continia içoçu...

3.I0.c. Garazikoa (10. zk. idazkian)

Idiac odolez picha eguiten duenian cer eguin behar den

Idiac odolez picha eguiten duenian heldu çayo comusqui accident²⁰⁹ hori hanitz berotua eta bortizqui marfunditua denean eta guciz udan cembait belhar gaisto ihintzez bustia yan duenian.

Gaitz horren erremediatcecotz ezdu²¹⁰ deusere idiac (edan behar) edo behar luqye²¹¹ choilqui edari huntaric baicen hartaracotz harçaçue hirur untça *artho irin* eta untça bat *trigada* (sic). Guero hec iraquit²¹² pinterdibat arnotan eta finian yuntacen dioçuela *safran* guti bat.

Edari hortaric emoçue edatera goiçetan eta arratxetan *plantain ura olioarequin*.

3.I0.d. Amikuzekoa (zenbaki gabea)

Idiak odolez pixa egiten dienian zer egin behar den

Odolez pixa egite hori heldü zaio komunzki anhitz berotia eta borthizki marfonditia denian eta güziz üdan zonbait belhar gaisto ihitzez bustia jena denian. Gaitz horren erremediatzeko eztu deusik idiak edan behar edari huntarik baizen²¹³.

²⁰⁷ *eztiçu*: besteek “ezdu, eztu” darabiltzate, zukako zuberotarrak alokutiboa ere.

²⁰⁸ *soffre bilhobat*: sufre bilo edo ile bat.

²⁰⁹ *accident*: gaskoiaren mailegu zaharra (istripua).

²¹⁰ *ezdu*: hots aldaketaren grafiarik gabe.

²¹¹ *luqye*: luke.

²¹² *iraquit*: irakin(du) irrealan.

²¹³ *baizen*: baizik.

Hartako harzazie hirur onza *artha irin* eta onza bat *triaga* gero hek erakit pinterdi bat arnotan eta finian juntatzen dioziela *sofre* güti bat edari hortarik emaozie (sic) idiari edatera goizetan eta arratsetan *plantain* hura olioarekin.

Albaitaritzaren balorazioa

Gaitzaren azalpena.

Ez da bakarrik eritasuna *hematuria* azaltzen, dena baina bere etorria ere eta ez da beti oker janariak, berotasunak eta katarroak ekarritakoa daitekeela.

Sendagailuak

– *Lehen erremedioa* (goizekoa)

Triaga, teriaka hori antzina. Mithridatesek asmatu omen zuen, berrogeita hamar osagai elkartu zituen eta elektuario hori asmatu. Osagaien artean landareki, aberekiak eta lurkiak omen ziren. Hemeretzigarren mende azkeneraino botikariek saltzen zituzten, agian ez osagai berdinekin, baina denek opio apur bat zeukaten.

Artoirina. (*Zea mays* L.) Egosita giltzurruna bere jardunean laguntzen du arto irinak, baina hemen hartzaille moduan izan daiteke.

Sufrea: antiseptiko eta eztl eragilea (ikus katarroaren aipamena). Bitxi da halere, nola Garaziko kopiaitzaileak *safran* irakurri edo aldatu duen, ezen azken horrek antiseptiko gisa balio duen.

– *Bigarren sendagailua* arratsetako erremedioa

Plantain ura olioarekin. *Plantaina* (*Plantago major* (L.) txiza eragile, pixa eragile eta eztl eragilea da begiko minetan, beherakoetan eta zaurietan erabilgarria.

Triagaren bertuteak aztertzea zaila delarik, eta teriaka bat baino gehiago zelako, bizpahiru osagai hauek baliagarriak genituzke: arto irina, sufrea eta plantaina.

Safran *Crocus sativus* L. Azafraia. Honen kimika gaiak usain olio, samin-gaia, heteroxido usainduna. Hipnotikoa eta lasaigarria. Ahoerian, ezturean eta urdailarentzat jendeekin erabilia, ez bakarrik txorizoetan.

3.II. *Ezin pixarik egin*

3.II.a. Baigorrikoa (8. zk. eskuizkribuan)

Idia ecin picharic eguinez dagonian cer eguin behar den

Idia penaz dagonean ecin picharic eguinez atheraco dioçue odol gutti bat bichicaco çainetaric²¹⁴ eta guero hirur goicez emanen edatera estia eta olioa arno churian nahassiric.

3.II.b. Barkoxekoa (bildumaren azkenean 34. zk.)

Idiac ecin phicha eguiten dianian: cer eguin behar den

Idiac phenatcen dira ebiltian ecin phicha eguiten dianian. Seignaturen²¹⁵ mihi-ko²¹⁶ çaignetic: eta guero hirour goicez edan eraz içoçu ardou chourian lahastekaturic²¹⁷ ollio hounetic: eta ezty gutibat: suyan ephelturic²¹⁸ amoderatuky.

3.II.c. Garazikoa (II. zenbakia eskuizkribuan)

Idiac ecin picha eguinez dagoenian cer eguin behar den

Idia penaz dagoenian ecin picharic eguinez atheraco dioçue odol gutibat bicicaco çainetaric eta guero hirur goicez edan araz: eztia eta olioa arno churitan nahassiric.

3.II.d. Amikuzekoa²¹⁹

²¹⁴ *bichicaco çainetaric*: bixikako zainetarik, puxikako zainetatik.

²¹⁵ *seignaturen*: odola kenduko. *Senba* biarnes hitzak, “sangratuko” baztertzen du.

²¹⁶ *mibiko zainetik*: barkoxtarrak “bixika” ez du ulertu “pixasturu” baita zubereraz.

²¹⁷ *lahastekaturic*: zubereraz arkaismoa, orain “nahastekatürik”.

²¹⁸ *suyan epheltürik*: suan epeldurik.

²¹⁹ Errezeta hau ez da idatzi.

Albaitaritzaren balorazioa

Gaitzaren azalpena

Anuresia osokiago azaltzen duena, kasu honetan, barkoxtarra da, gaineratzen baitu “phenatcen dira ebiltian” penatzen direla ibiltzean, beste kopieta beharbada hitz horiek ez ziren jasoak izan.

Sendabideak eta sendagailuak

Betiko *sendabidea* hemen ere agertzen zaigu, kongestio edo sukar zerbait sumatzen den aldikal odol ateratzea, baina zuberotarrak “bixika” ezin ulertuz eta betiko mihi azpiko zainaren mozteko aholkua ematen du.

Erremedio bakarra

1. Ardo zuria: pixa eragitean bere eragina badu baina idiaren neurriak ikusita nahikoa eman behar zitzaion. Hemen sendagailu hartzailea ardoa da.

2. Eztia, ezti ura oraindik “melita” izenarekin erabili daiteke hain zuzen eztingarri moduan.

Barkoxtarrak bakarrik gaineratzen du eta agian ez du asmatu beste hirurek ez zeukaten iturri batetik hartu luke, ezen dio erremedioaz:

“süyan epheltürük amoderatuky”.

Noski, erremedioek ez dute eta ez zuten beti sendatzen... orain bezala, minak, oinazeak ezitzen baizik eta ahal bezala abereak berez sendatzen ziren, odol hustuketa gehiegi egiten ez bazitzaien: jende handi batzuei legez gertatu zena eta hortik hil zirenak.

3.12. Harria

3.12.a. Baigorrikoa (9 zk. eskuizkribuan)

Idiac harria duenean cer eguin behar den

Noiz ere baitaquiçue segurqui harria duella bichican edo chilcuan²²⁰ barna piccaturic²²¹ atheratcia da erremedio lasterrena eta segurrena; bainan batere ezpada possible nihorc atheratcia²²², baliatuco çarete (sic) erremedio huntaz haren oin-

²²⁰ *chilcuan*: xilkooan, zilean, ez da bitxia, idiaren anatomia ezagutuz geroz.

²²¹ *barna piccaturic*: sakon mozturik.

²²² *nihorc atheratcia*: inork ateratzea.

zea passarasteco: hartaracotz har eçaçue bi untça milla marin erro²²³, untça laurden bat especia itce²²⁴ eta haren erdia bipher²²⁵ eta guero guciac ungui chehatu direnian, emoçue idiari arno ephel guti batequin edatera, eta continua cembait aldiz sasoin berean emaita.

3.I2.b. Barkoxekoa (bildumaren azkenean 35. eskuizkribuan)

Noiz eta eré eçagutu beituçu idiac harria diala: phicatcia eta idokitia hobena eta segurena: bena ezpada posible amenx emoçu erremedio haur²²⁶ har eçaçu by ontça millu marin: erro ontça laurdenbat especie itce eta haren erdia piper eta guero hourac²²⁷ onxa chehekaturic emoçu idiari ardou ephelian eta continia çombait egunez aiticinna.

3.I2.c. Garazikoa (12. zk. idazkian)

Idiac harria duenian cer eguin behar den

Noiz ere baitaquiçue idiac harria duela bicican edo chilcuan barna picaturic atherracia da erremediric segurrena.

Bainan halere ezpada posible nihoc²²⁸ atherracia baliatuco çarete erremedio huntaz haren oinaces apacegatcecotz²²⁹.

Hartaracotz harçaçue untça bat *millu marin erro*²³⁰ untça laurden bat *especia itze* eta haren erdia *biphèr*; eta guero guciac ungui chehatu direnian emoçue idiari arno ephel guti batequin edatera eta continua cembait aldiz façoin²³¹ berian emaitera.

²²³ *milu marin erro*: milura min erro (*Anethum feniculum* L.).

²²⁴ *especia itce*: iltzea, kanela, (gaztelaniaz *especia*).

²²⁵ *bipher*: piperra.

²²⁶ *haur*: hau (erakusle zaharra, ik. bizkaieraz *aor* hitzaz A. Irigoyenek idatzia).

²²⁷ *bourac*: haiek (bakunki “hura”; plurala, “hurak” da zubereraz).

²²⁸ *nihoc*: inork.

²²⁹ *apacegatcecotz*: Garazikoak “pazegatzen”, Amikuzekoak “pasatzen”.

²³⁰ *millu marrin erro*: milura min erro. (*Anethum deniculum* L.).

²³¹ *façoin*: era, tankera. (Garazikoak, “sasoin” irakurri du).

3.12.d. Amikuzekoa (zenbaki gabea)

Noiz ere baitakizie segurki idiak harria diela bixikan, barna xilhatürik²³² atheratzia da erremediorik segurena, bena ezpada posible pikatürrik atheratzia baliatüko zirete²³³ erremedio huntaz haren oinhazeen pasatzekotz, harzazie bi onza *milu marin* edo onza laurden bat *espezia itze* eta haren erdia *biphir*²³⁴ eta gero güzia ontsa xehatürrik emozie idiari arno ephel güti batekin edatera eta kontinüa zenbait aldiz fazoin berian emaitera.

Albaitaritzaren balorazioa

Gaitzaren azalpena

Ez da zehatzegia ez dakigulako nola ezagutzen den idiak harria duela. Oinazeak aipatzen badira, badirudi abeltzainek gai horretan aski bazekitela eta ez zitzailela azaldu beharrik.

Sendagailuak

1. Milla marin, millu marin: Milura min *Anethum foeniculum* L.
Oraindik ere pixa eragile, diuretiko ona da.
2. *Espezia iltzea*. *Caryophyllus aromatica* L. *Eugenia caryophyllata* Thumb. Honek eugenola, kariofilina, salizilatoa dauka antiseptikoak direnak eta oinaze kentzailea da .
3. *Piperra*. *Capsicum sativum* (L.). Hau antiseptiko latza, bortitza eta sendoa da. (Afrikan aiuta gisa darabilte zizareen hiltzeko!). Gehiegi hartuz giltzurrunari min egin liezaioke.
4. *Ardo* epela: irensten laguntzekoa, sendagailu hartzailea.
Ebakuntza saioei buruz ezin balioespenik eman, baina dirudienez ez zen beti erdiesten harriaren ateratzea, bere lekuan mozturik ere.

Zilaren (zilborraren) barruan harria izateari galdera ipini genezake baina nola idiak xilkoaren mailan larruaren azpian daukan uretra han eskuaz aurki daiteke gogortasuna, baina bixikan, puxikan nola?

²³² *xilhatürrik*: zulaturik.

²³³ *zirete*: zarete.

²³⁴ *biphir*: piperra (*Capsicum sativum* (L.)).

3.I3. *Natura bantua*

3.I3.a. Baigorrikoa (IO. zk. idazkian)

Idiac bere natura edo pitchoa gogortua duenian cer eguin behar den

Eritarçun hori guerthatcen çayonian azqui duçue *malbariscac*²³⁵ egostea *burrarequin*²³⁶ batean eta guero hartaz, maiz phereca idiaren natura eta hala laster *sufflaracico*²³⁷ dio bere pitchoa.

3.I3.b. Barkoxekoa (bildumaren azkenean 36.a)

Idiac bereitidura*²³⁸ *dianian: eta gogorturic denian cer eguin behar den

Asky duçu: *malbaren* egostia *burriareky* lahasiric eta hartaric edatera emoçu çortci egunez: eta natura ere bereka²³⁹ içoçu hour hartaric çombait goitcez (sic)...

3.I3.c. Garazikoa (I3. zk. idazkian)

Idiac bere natura edo pitostoa (sic) gogortua duenian cer eguin behar den

Eritasun hori guertatcen çayonean idiari asqui duçue *malvarisca* egostia *burrarequin* batian eta guero hartaz maiz pereca idiaren natura eta laster *sufklaracico* dio bere pithoa.

3.I3.d. Amikuzekoa (zenbaki gabea)

Idiak bere natura gogortia dianian

Eritarzun hori gerthatzen zaionian aski duzie *malbariska* egostia *bürarekin* batean eta hala laster *sufklaraziko* dakozie bere berga.

²³⁵ *malbariscac*: malba zuria, *Althaea officinalis* L.

²³⁶ *burrarequin*: esne gurinarekin.

²³⁷ *sufklaracico*: malguaraziko. Mailegu galdua da, frantsesezko “*assouplit*”-etik zetorren, orain *marduaraziko*, esaten da.

²³⁸ *bereitidura*: gaizki irakurri du “*bere natura*” baina urrunago zuzen ematen du.

²³⁹ *bereka*: fereka, igurtzia.

Albaitaritzaren balorazioa

Gaitzaren azalpena.

Laster egina da, baina organo horrentzat zenbat izen eta aldaera: *berga* (gaskoi hitza Amikuzen), *natura* (testu guzietan) *pitoa* (Z), *pitboa*, *pitostoa* (Garazi), *pitchoa* (Baigorri).

Sendagailua

Gurina: malgugarria, bigungarria da.

Malbabiska, malba zuria: *Althaea officinalis* L. Sendabelar hau ez da burdin ontzian eduki behar, ez eta alkohola erabili hartzaile gisa. Erroak eta hostoak erabilgarri. Bere landare mukiekin kanpotik malgugarria da baita barrutik ez-tigarria, antiseptikoa eta larru minetan, azal minetan gaurko erabileran.

Beraz sendagailu egokia, presarik ez denean, noski.

3.14. Mingain azpia hantua

3.14.a. Baigorrikoa (bere idazkian II. zk.)

Idiac edo behiac mihi azpia hantua duenean cer eguin behar den

Eçagutuco duçuenian idiac mihi azpia hantua²⁴⁰ duella ensea çaitetzte²⁴¹ lehen bai lehen mihi azpico çainetaric burdin bero batez chilhaturic²⁴² edo lanceta çorrotz batez *odola atheratcera* eta guero gantçu²⁴³ edo phereca dioçoçue çauri hura *olio eta gatça* elkharrekin nahassiric, eta continua umore guciac camporat²⁴⁴ arthean.

Dembora hartan bazcatuco duçue idia belhar frescos; eta baldin apetitua ez badu ernatua, laster jan aracico dioçue erremedio huntaz.

Hartaracotz har ezazue *arroltce* baten²⁴⁵ churingoa eta gorringoa balsan²⁴⁶ *ezti*

²⁴⁰ *hantua*: haunditua.

²⁴¹ *ensea çaitetzte*: entsea, saia zaitetzte.

²⁴² *chilhaturic*: zulaturik.

²⁴³ *gantçu*: ukendu (agintaldian).

²⁴⁴ *camporat*: kanporatu.

²⁴⁵ *arroltce baten*: arrautza baten.

²⁴⁶ *balsan*: nahasian.

guti batequin, guero emoçue idiari edo behiari *arnuarequin*²⁴⁷ edatera: hantic harat emoçue bere yatecoetan cembait *gatz bihi*²⁴⁸ eta efetu ona atheratuco du.

3.I4.b. Barkoxekoa

Idiac mihy ondoua hanturic dianian: cer eguin behar den

Eçagutu duçunian idiac mihy ondoua hanturic diala, demboraric galdu gabe chila içoçu²⁴⁹ mihy peko çaingnety: burduigna²⁵⁰ gorry batez edo bestela lancetta çorrotz batez: eta idokoçu²⁵¹ odol aphurbat: eta guero çauri hora freta²⁵² içoçu *ollio* hounez: eta *gatcez* algarreky lahastekaturic²⁵³ eta continia içoçu amorekatic camporat jouan dakhion hour hora eta thempora²⁵⁴ hartan jatera emaoçu *arraultce* bat: *ezty* guty bateky *hour* ephelin²⁵⁵ edatera eta hantic aiticina emoçu çombait gayez bihy jatera²⁵⁶ edo ascary²⁵⁷ mestura²⁵⁸ prestetic, altchatutic²⁵⁹.

3.I4.c. Garazikoa (eskuidazkian I4. zk.)

Idiac mihi azpia hantua duenian cer eguin behar den

Eçagutu duçuenian idiaren mihi azpia hantua dela enseya çaitetzte lehen bai lehen mihi azpico çainetarik burdin bero batez cilhaturic edo lanceta çorrotz batez odola atheratcia, da guero gantçu edo pereca diaçoçue çauri hura, *olioa* eta *gatza*

²⁴⁷ *arnuarequin*: arnoarekin, ardorarekin.

²⁴⁸ *atz bihi*: gatz ale.

²⁴⁹ *chila içoçu*: zula iezaiozu.

²⁵⁰ *burduigna*: bürdüña, burdina.

²⁵¹ *idokoçu*: idoki iezaiozu, ken iezaiozu.

²⁵² *freta*: (okz. fretar) igurtzi.

²⁵³ *labastekaturic*: nabastekaturik delakoaren forma zaharra.

²⁵⁴ *thempora*: (forma zaharra) orain “denbora” zubereraz (*denpora* B.).

²⁵⁵ *hour ephelin*: ur epelean (*ephelian* Basabürüan, *ephelin* Pettarrean eta jadanik XVIII. mendeko idazleetan batzuetan (ik. J Egiategi).

²⁵⁶ *çombait gayez bihi jatera*: jatorriz “zenbait *gauz* ale jatera” “*gatz* bihi jatera” gaizki irakurri du.

²⁵⁷ *ascary*: gosari eta hitz horretarik aurrera eta gakoan artean Barkoxeko testuan baizik ez dago.

²⁵⁸ *mestura*: gari irin, arto irin edo beste egosirik zeudenean.

²⁵⁹ *altchatutic*: altxaturik, altxatua, legamiarekin egina; beraz nekez artoarena.

elkharrekin nahassiric eta continua umore gucia camporat joan artino.

Dembora hartan idia entretenituco duçue *belhar frescoz* eta baldin appetitua ezpadu ernatua laster içan araçico dioçue erremedio huntaz.

Hartaracotz harçaçue *arroltce* bat *churingoa* (eta gorringoa) balxan eta nahas *ezti* guti batequin guero emoçue *arnoarequin* idiari edatera. Hantic harat emoçue bere yatecotan cembait gatz bihi eta hala efetu onac atheraco dire.

3.I4.d. Amikuzekoa (zenbaki gabea)

Idiak mihi pia hantia dienian

Issia (sic) zitezte lehen bai lehen mihi peko zainetarik bürdin bero batez xilatürrik edo lanzeta zorrotz batez odola idokitera eta gero ganza z(a)uri hura, *oliua* eta *gatza* elgarrekin nahasirik eta kontinüa ümore güzia kanporat juan artino.

Denbora hartan idia entretenitüko düzie *belhar freskoz* eta baldin apetitia ezpadü laster (ernatua) jineraziko²⁶⁰ diozie erremedio huntaz; hartako harazie *arrolz* baten *xuringua* eta gorringua elgarrekin nahas *ezti* güti batekin gero emozie idiari *arnoarekin* edatera hantik harat emozie idiari arnoarekin edatera, hantik harat emozie bere jatekotan zenbait gatz bihi eta hala efeto huna idokiko²⁶¹ düzie.

Albaitaritzaren balorazioa

Gaitzaren azalpenak

Mingaina handituta egoteak ez du ezagupen beharrik, baina hiztegian *mibipe* eta *mibiazpi* eta *mibi ondo* hirurak agertzen dira.

Sendabideak eta sendagailuak

Sendabidea da burdin bero batez zulatzea, edota lantzeta zorrotz batekin eta odola ateratzea. Hemen ordea “sangratze” zahar eta alferrekin ez du ezer ikustekorik, baliagarria delako handituaren kentzeko eta gerliaren husteko.

– *Leben erremedioa*: kanpotikoa

*Olio*a eztigarria da, baina *gatza* ez hainbeste, gehiegi eta luzaroegi ipintzen bada behintzat, itsasoan bainatzearekin ikusten den legez.

²⁶⁰ *jineraziko*: jinaraziko, etorraraziko.

²⁶¹ *idokiko*: “kenduko” irakurria: kontraesana, “edukiko” behar luke.

– *Bigarren erremedioa*: barrutikoa

Gatzak, hor jangura sortzeko asko balio du. artzainek eta abeltzainek beren galtzarbean gatzak gordetzen dakite, baita harri zabal gainean ardiei ematen, idi eta behientzat gatzarri handiak daude sehaska eta asketan ipintzekoak.

– *Hirugarren erremedioa*: ezti gehi ardo gehi arrautza gorringo eta zuringoa. Jendeek erabili ohi dute Porto ardoarekin gainera, orain. Eztiaren bertuteak ikusi ditugunaz geroz, arrautzarenak ez dira hain ezagunak, nahiz farmazian oraindai-no, pozoien aurkako sendagailu gisa *ur eta zuringoa* nahasian erabil daitezkeen; biak zuringo eta gorringo elkarrekin erabiltzen badira emultsiogarri dira.

Belar freskoa ematea ez da aholku txarra, ezen lehorrak zauria zikin eta mintu baitzezakeen; bestalde holako kasuetan erakargarriago da idiarentzat freskoa idorra baino.

3.15. *Giltzurruneko mina*

3.15.a. Baigorrikoa (12. zk. idazkian)

Idiec edo behiec errainetaco mina dutenian cer eguin behar den

Idiac errainetaco²⁶² mina duenian, eçagutuco duçue haren plainuetan²⁶³ eta guciz guibelleco tranaz²⁶⁴ ecin aitzina çangua heda deçaquenean; almaquez²⁶⁵ ere ecin segura daiteque ez eta hain guti bustana biribilca, non orduyan dilindan baitario; haren guernuac²⁶⁶ ussain gaistoa du eta guibeleco traina ossoqui pisatua eta baldin inflamacioneric guerthatcen bada dembora hartan, idiaren picha odolaren guisa dohaco²⁶⁷ eta dena ere guti eta penarequin eguiten du; eta hanitx²⁶⁸ irauten badio ez da harentçat erremediric; baina ez bada picha hura aphur bat tindatua baicen, goricara duella bere colorea, esperantça da eritarçun hartaric sendaturen dela.

²⁶² *errainetaco min*: errainetako mina, giltzurrun mina (errain, okzitanieratik mailegua).

²⁶³ *plainuetan*: (gaskoi mailegua), auhena, zinkurina.

²⁶⁴ *guibelleco trainaz*: (galizismoa “arrière train”), “atzeko aldeaz”.

²⁶⁵ *almaquez*: alpez, alboz (gaztelaniaz “ijada”).

²⁶⁶ *guernuac*: gernuak, pixak (usaina aipatzen delako tabu hitza dator lumapean).

²⁶⁷ *dohaco*: hemen “doaio”, (joaiten zaio, ez, komeni zaio).

²⁶⁸ *hanitx*: anitz, asko.

Hartacotz atheraco dioque odola almaquetaric eta maiz emanen idiari *porruac* ur clairian²⁶⁹ trempaturic eta hur hartaric.

3.15.b. Barkoxekoa (bildumaren azkenean 38. zk.)

Idiaren erraigneko minaren sendotceko cer eguin behar den

Eçaguturen duçu plaignu eguitetic eta partikulariky traigna eratciren deritço çankhoac²⁷⁰: çointan ecin heda beitiçatke edo hedaturic ecin bil beitiçatké: alphéétaric²⁷¹ ere ecin balia daite: eta bustana éré eçin çotuka²⁷² eta byribilka eta haren guerrentcia éré jossia date²⁷³ eta guibleko traina ere ossoky desguisatia²⁷⁴ ere, enkas²⁷⁵ eta inflammationerioc badu: phuntu eta casu hortan eta orano picha odolla udury; eta dena éré guty: eta grado hartan hanitx iraiten badu: ezaté harez hounic²⁷⁶.

Bena ezipadu gorridura baicic: idoki içoçu odol guti bat: seignatcen duçularic almaketaric: eta *phorru* ahurutabat²⁷⁷ *hour* chahu²⁷⁸ batetan trempaturic: eta hour hartaric: çortcy egunez emoçu idiary edatera barouric.

²⁶⁹ *ur clairian*: ur garbian. “Clairian” galizismoa da, frantsesez “clair” delako. Garazi Amikuzek “klar” gaskoia darabil, Barkoxek “xahü”.

²⁷⁰ *eratciren deritço çankhoak*: jaitsiko dizkio hankak (bakarrik Barkoxek).

²⁷¹ *alphe*: almeka, sarkutza (euskarak maiz anatomian jendeen eta abereentzat izen ezberdinak eman nahi ditu eta erdaratan hartzen animalienak hala nola gaztelania zaharretik Ekialdeko euskalkietan “alma” ‘ijada de animal’ bezala.

²⁷² *çotuka*: geldiunetik mugitzera.

²⁷³ *guerrentcia jossia daté*: “gernuaren ussaina” ez du ulertu eta leku berean gaitzaren ezaugarri ‘gerruntzea jossia’ asmatu.

²⁷⁴ *desguissatia*: itxuragabetua (gaskoieraz, *desguisat*).

²⁷⁵ *en kas*: (gaskonismoa), sekulan ere, zer heldu ere.

²⁷⁶ *estaté haréz hounic*: ez da izango harez onik (geroaldi arkaikoa).

²⁷⁷ *phorru ahuretabat*: porru ahur, eskukada bat.

²⁷⁸ *hour chahu*: ur xahua, ur garbia.

3.I5.c. Garazikoa (I5. zk. eskuizkribuan)

Idiac errainetaco mina duenian cer eguin behar den

Idiac errainetaco mina duenian eçagutuco duçue haren plainutan eta guciz guibelego trainaz²⁷⁹, ecin aiticina çangoac heda²⁸⁰ ditçazquenian; almaquez ere ecin segura daiteque; ez eta hain guti bustanna (sic) biribilca, non ordian dilindan baitario, haren guernuac usain gaistoa du eta guibelego traina osokhi pisatua; eta baldin inflamacioneric guerthatcen bada dembora hartan idiaren picha odolaren guisa gorri dohaco eta penarequin eguiten du.

Eta hanitz (irauten) badio, ez da içanen harentçat erremedioric. Bainan ezpada picha hura aphur bat tindatua baicen gorri cara (sic) duela bere coloria espapantça da eritasun hartaric sendatuco dela.

Hartaracotz atheraco dioçue odola almaquetaric eta maiz eman idiari edatera *porruac* ur clarrian trempaturic.

3.I5.d. Amikuzekoa (zenbaki gabea)

Idiak errainetako mina dienian

Ezagütüko düzie haren plainietan eta güziz gibelego trainaz ezin aitzina, zangua heda dezakenian mainaz ere ezin leküra daiteke²⁸¹ eta hain güti büztana biribilga nun ordian dilindan baitario; haren gerniak usain gaistua dü eta gibelego trena osoki pisua eta baldin inflamazioneric gerthatzen bada, denbora hartan idiak pixa gorri düke eta dena ere güti eta penerekin egiten dü eta anhitz irhauten (sic) badü ezta harendako erremediorik, bainan ezpadü gorritüxia baizik ezparantxa ezazie eritarzün hortarik sendotüko da. Hartakotz idokiren diozie odola almaketarik eta ardüra emanen edatera idiari *porriak hur* klarian trenpatüz²⁸² eta ur hura.

Albaitaritzaren baloratzea

Gaitzaren azalpena.

‘Errainetako mina’ itzulpena ez da zehatza, ezen frantses ereduak dituen

²⁷⁹ *guibelego traina*: atzealdea.

²⁸⁰ *anka bedatua*: eskuizkribu guztietan bakoitzak zatitxoa gaineratzen du.

²⁸¹ *mainaz ere ezin leküra daiteke*: maltzurkeriaz ere ezin bere lekura itzuli.

²⁸² *hur clarrian trenpatüz*: ur garbian trenpatuz, blaituz (gaskonismoa).

nahaskerietan sartzen gara ezen haientzat “mal de reins” berdin *lunbalgiaa* ala *nefritis*, *bizkar min* ala *gultzurrun min* izan daitezke. Akats hori frantsesak sartu digu kalkoz.

Gure kasuan deskribapenak erakusten du giltzurrunak direla ukituak, ez bizkarreko giharrak, zeren denek aski luzazki erakusten baitizkigute idiaren oinazeak eta kopiatzaileak bilduman aski ohituak eta trebatuak direnez gero Barkoxekoak eta Amikuzekoak beren aldaera ekarriko dute, idiaren egoeraren kontatzeko.

Hona aldaerak:

Barkoxek “çointan ecin heda beitiçatke edo *bedaturic badutu ecin bil beitiçatke*“ guibeleco traina ossoky *desguisatia* (ez, pissatua).

(Apaiz eta mediku oratoriako formula behargabekoak sartzen ditu “enkas eta “phuntu eta casu hortan” “grado hortan”.)

Amikuzek

“*mainaz ere ezin leküra daiteke*” beste eskuizkribuetan ez dena.

Beraz bakoitzak bere egokitzapena egiten du, eta kopiatzeko ordez testua-
ren argitzen saiatzen da.

Sendabide eta sendagailuak

Sendabidea ez da, agian, egokiena, baina XIX. mende azkeneraino adituek ez zioten uko egin, alegia *odolaren kentzeari*. Ahula zen abere bati ez zion on egingo.

Sendagailua, askozaz hobea da *porruaren salda* (*Allium porrum* L.) Muzilagoa, mea gatza, sufrea dira bere kimika gaiak pixa eragilea, diuretiko eta antiseptikoa delako.

Errezeta emaileak ez du itxaropen handirik ematen sendatuko dela non ez den gaitz arina, ezen garai hartan giltzurrunean zeuden harri, mikrobio eta pozoientzat ez zelako erremedio ezagunik. Gaur ere kasu horietan hiltzen dira idi eta behiak.

3.I6. *Gerruntzeko mina*

3.I6.a. Baigorrikoa (I3. zk. eskuizkribuan)

Idiaren berce errainetaco mina nola sendatu behar den eta particularqui erorcetik heldu çayonean

Noiz ere sentitzen baituçue idia erori dela cenbait gauça gogorren gainera, eçagutu baduçue haren colpe handiac, ecen ez da behin ere falta colpe borthitça²⁸³ dela caussa inflamacionea, hargatic laborariac²⁸⁴ dembora hartan idiac mehatchatcen dituenean ez ditu bere lecutic moviaracico, eta colpia duen lekhua maiz frescatuco dio *hur hotcez* eta guero gantçu²⁸⁵ edo pereca ungu²⁸⁶ chucaturic²⁸⁷ *urin hurtuz* edo *urdaiz*; eritarçun horren seinaleac dire campoco aldetic gogor içaitea eta barabillac laburturic barnerat²⁸⁸ erretiratcia, ecin bere isterra ez alderdia²⁸⁹ aisiarat²⁹⁰ manaya²⁹¹ deçasque eta pena handia du etçana denian bere lecutic ecin altchatuz²⁹².

3.I6.b. Barkoxekoa²⁹³

Idiaren colpien eta erorten (sic) direnian sendotzeko cer eguin behar den

Noiz éré sendy beituçu idia erori dela; eta badiala inflammationé; eta colpia den lekhia: bereca içoçu: edo *ourdakhiz*: eta gogortia bada: ecin haboro houn dikeçu *seignatcia* bertan sendotzeko.

²⁸³ *borthitça*: bortitza, gogorra.

²⁸⁴ *laborariac*: laborariak, nekazariak.

²⁸⁵ *gantçu*: gantzutu, ukendua ipini (untar).

²⁸⁶ *unguy pereca*: ongi fereka, igurtzi.

²⁸⁷ *chucaturic*: xukaturik.

²⁸⁸ *barnerat*: barruraino.

²⁸⁹ *alderdia*: (izterraren) alderdia.

²⁹⁰ *aisiarat*: errazera.

²⁹¹ *manaya*: manea, erabil.

²⁹² *altchatu*: altxatu, jaiki.

²⁹³ Jatorrizkoaren azkena kopiatu ondoren, aurrealdera itzuliz errezeta honi 8. zenbakia ipintzen dio.

3.I6.c. Garazikoa (I6. zk. eskuizkribuan)

Noiz ere senti baituque idia erori dela cembait gauça gogorren gainera eçagutuco duçue haren colpe handian ecen ezta behinere falta colpe borthitza dela causa constusione (sic) eta inflamacionea.

Hargatic laboraria dembora hartan idiac mehatchatcen tuenian eztitu bere lekhutic moviaracico eta colpia duen lekhua maiz frescatuco dio *ur hotcez* eta guero gantçu edo péréca ungui chukhaturic, *urin hurtuz* edo *urdaiez*.

Eritasun horren seignaliac dire campoco aldetic gogor içatia (ezin) aisiarat manaya deçaque; eta pena handia du etçana denian bere lekhutic ecin altchatuz (...)

3.I6.d. Amikuzekoa (zenbaki gabea)

Noiz ere seindi (sic) baitüzie idia erori dela zenbait gauza gogorren gainera, ezagütüko düzie haren kolpe handia ezen ezta behin ere falta kolpe borthitza dela kausa kontüsiõne eta inflamazione, hargatik laborariak denbora hartan idiak heiarazten tienian eztitü bere lekhütik igiaraziko eta kolpia dien lekhia ardüra freskatüko diozie *hur hotzez* eta gero gantzü ontsa xükatürük *urin hurtuz* edo *urdaiez*; eritarzün horren seinhaliak dira kanpoko aldetik gogor izaitia eta barabillak labürtürük barna erretiratzia, ezin bere ister alderdia aisera maneia dezake eta pena handia dü etzana denian bere lekhutik jeikhitzia.

Albaitaritzaren balorazioa

Gaitzaren azalpena.

Aski luzea da denetan eta errezeta eman ondoren berriz hasten. Barkoxtarrak, ordea, ez du deskribapenik kopiatu. Amikuzekoek “*bigiarazten*” du idia, besteek *mubiarazten* dute. Amikuzekoak “*heiarazten*” behitegian sartzen ditu eta besteek “*mehatxatzen*”, baina denetan bizkarreko mina bezala ongi agertzen zaigu, ez giltzurrunetakoa, aurreko errezetarekin ikusi duguna.

Sendagailuak

Ur hotzak noski bere eragina badu, garai hartan ez baitzen hozkailurik hor-maren erabiltzeko.

Gero *urina* edo *urdaia* aspaldikoak dira igurtziketen lagungarri eta sendagailuaren hartzaileak. Masaje-emailek, jakina, gantz finduagoak erabiltzen dituzte.

Hizkuntza obar batzuk zubererazko testuari perpausean euskalki horren bereizitasun asko metatzen delako²⁹⁴.

3.17. Oinazea

3.17.a. Baigorrikoa (14. zk. eskuizkribuan)

Idiaren oinhace eta dolore suerte guehientçat erremedio guciz nekhaduraz heldu denian

Har eçaçu ahur bat *liho haci* eta berce ahur bat *camamila* eta hec ungui iraquit panjeru batean *urian* erabilcen duçuela maiz maquila batez ungui ahia eguin artean eta guero heda çacue cenbait traputan eta hartaz lot non ere sendi baituçue gogortasunic, hanturacic edo oinhace duen lecuan.

3.17.b. Barkoxekoa (9. zk.)

Idiaren leherduren edo doloren contre: cer eguin behar den

Har eçaçu ahur bat *li-acy* eta beste ahur bat *camamilla*: eta hourac²⁹⁵ onxa heraky eracy: pintoubat *houretan* eta makhila batez lahas boulia beçala²⁹⁶: eta guero oyhal batetan eçar²⁹⁷ emplastu hora non ere beitu leherkura edo hankura edo orano gogortarçuna: sendi beituçeçu idiary..

3.17.c. Garazikoa (17. zk. eskuizkribuan)

Idiaren oinace eta dolore suerte guehientçat erremedioa eta guciz nekhadurez heldu çayotenetan

Har çaçue ahur bat *liho aci* eta berce ahur bat *cammamilla* eta hec ungui iraquit payeru batetan *urian* erabilcen duçue maiz makhilla batez, osokhi ahia eguin arte-

²⁹⁴ *Ezin haboro boun dikeçu seignatcia bertan sendotceco*: 1. *Ezin haboro*: ezin gehiago. 2. *bon dikezü*: on izango du (geroaldi zaharra). 3. *seignatcia*: zeinatzea, odol ateratzea. 4. *bertan*: orain berean, laster.

²⁹⁵ *hourac*: haiek.

²⁹⁶ *lahas boulia beçala*: nahas ahia bezala.

²⁹⁷ *eçar*: ezar, ipini.

raino eta guero heda çaçue cembait traputan eta hartaz lot non ere sendi baituçue gogortasuna hanturaric edo oinaze duen lekhuan.

3.I7.d. Amikuzekoa (zenbaki gabea)

Idiaren oinhaze eta dolore suerte guzienendako eta guziz nekhaduraz heldu direnendako

Harzazue ahur bat *liho azi* eta berze ahur bat *kamamila* eta hek ontsa egos kaxo baten hurian erabiltzen düziela ardüra makhila batez osoki orhia egin artio eta gero hedazazie zenbait oihaletan eta hartaz lot non ere seindi (sic) baitüzie gogortazünik hantüararik edo oinhaze dien lekhian

Albaitaritzaren balorazioa

Gaitzaren azalpena eta adaptazioak

Bakarrik izenburuetan agertzen da, nahiz ez itxura berean kopiatzaileen askatasun neurria erakutsiz.

I7.I.a. *Idiaren oinbace eta dolore suerte guebientçat erremedioa guciz nekhaduraz heldu denian.*

I7.I.b. *Idiaren leherduren edo doloren contre cer eguin behar den.*

I7.I.c. *Idiaren oinace eta dolore guebientçat erremedioa eta guciz nekhadurez heldu çayotenetan.*

I7.I.d. *Idiaren oinhaze eta dolore suerte guzienendako eta guziz nekhaduraz heldu direnendako.*

Sendagailuak

1. Liho-hazia: *Linum catharticum* (L.)/ *Linum angustifolium* (Huds.) Pektina, lipidoa, glukosido lipidoa eta, batik bat, muzilagoa dauka. Lihoak eman hazia kataplasmetan berogarri eta bigungarria, lasaigarria da; gazte garaian, idiak ez izan arren, kataplasma horiek jasan genituen, kimikari dei egin gabe sendatze-ko “idien patxadaz” itxaron eta igurikatu behar zen.

2. Kamamila *Anthemis nobilis* L. Espasmo kentzailea da. Bitxi da erabilera hau ezen beharbada leku batzuetan kamamilaria idibegi esaten zaiolako. Hau ez al da izango *Matricaria chamomila* (L.), zizare kentzaile eta ernagarria dena?

3.18. *Biriketako arrangurak*

3.18.a. Baigorrikoa (I6. zk. eskuizkribuan)

Idiac biriquetaric erregura dienian cer eguin behar den

Biriquetaric erregura horiec gaitz dire idier eta behier khentceco heyen movimendu handia dela causa; bainan eguin daquiocote erremedio hunbat²⁹⁸ ceina baita lehenbicoloric manyatera *ur beroz garbitcia* eta guero *belhar* ussain onezcoez urrindatcia²⁹⁹ Dembora hartan khendu behar tuçue bar(r)uquitic çamari, behor, urde, eta berce hacienda guciac beldur(r)ez haren haxaz³⁰⁰ comunica eztiçaten gaitz bera; hargatic orduyan utcico duçue astoa aldian, ecen haren haxa probetxoz da biriquetaco errencurentçat.

3.18.b. Barkoxekoa (I0. zk.)

Idiac litiketaric (sic) errancoura ardura denian cer eguin behar den berhala

Dirisketako (sic) errankura hory gaitz da idiary kentceco mobimentu handian kontua heguitico (sic). Bena halere eguiçu lehenic: *hour beroz* manjeteraren ukhuztia³⁰¹ eta guero *belhar* urin hounez fretatcia: eta ordian idoky itçaçu theguy hartaric: ourdiac bohor eta beste cabale suertiac; salbu asto çombait amorekatic eta harçara eman eztiçen eritaçuna.

3.18.c. Garazikoa (I8. zk. eskuizkribuan)

Idia biriquetaric errencura denian cer eguin behar den

Biriquetaric arrangura horiec gaitz dire idier khentcia hein moimendu handia dela causa.

Bainan halere eguin daquioque erremedio haü ceina baita lehenbicoloric manyatera *ur beroz* garbitcia eta guero *belhar frescos* usain onetacoez ungui urrindatcia.

²⁹⁸ *bunbat*: on bat.

²⁹⁹ *urrindatcia*: lurrindatzea (perfumar).

³⁰⁰ *haxaz*: hatsaz, arnasaz.

³⁰¹ *manyatera garbitzia, manjeteraren ukhuztia*: manjeteraren, askaren garbitzea, ikuztea.

Dembora hartan khendu behar tuçue barruquitic çamari edo behor urde eta berce acienda guciac beldurrez ecen haren hatxac communica eztiçoeten eritasun bera.

Hargatic orduan utcico dioçue çembait asto aldian, ezen haren hatxac probetchu eguiten diote biriquetaco arrencuren

3.I8.d. Amikuzekoa (zenbaki gabea)

Idia mixiketarik (sic) arrangura denian

Mixiketako³⁰² arrangura horiek gaitz dira idier khentzeko heien mobimendü handia dela kausa, halere egin deiteke erremedio hon bat, zoin baita lehenbizirik maniatara *hur beroz garbitzia* eta gero *belhar* usain hunetakoz untsa lanhestatzia³⁰³ dembora hartan khendü behar tüzie hetarik zamari, behor, urde eta berze ha-zienda güziak beldürrez haren hatsak kotsa³⁰⁴ ditzan, ordian ützioko düzie zombait arto³⁰⁵ aldian ezi haren hatsak probetxü eginen diote mixiketako arregürari.

Albaitaritzaren balorazioa

Gaitzaren azalpena

Euskalki desberdintasunak leize ulergaitza egin du zuberotarrak eta amikuztarrak ez baitute “birika” hitza ulertu, ez baita euskalki horietan batere ezaguna “*gibelerrai*” esaten delako. Dirudienez eta ez delako izenburuan baizik deskribatzen gaitza, jatorrizkoan *pneumonia kutsuduna* litzateke, edo tuberkulosia.

Besteek Amikuzen behintzat, *aheria* bezalako “mixikadun” larruaren gaitz bezala ulertu dute eta Barkoxtarrari ez dio kopiatzaileak opari on bat egin. Ez dakit nire arbasoek errezeta hau nola ulertu duten, “dirisquetak eta likiketak” ez direlako ezer? Apika, kopiatzailea ez zen etxeko -etxekoek beste eskuz errezeta bat gaineratuko dutelako-, baina kanpokoak bere kopia lantxoak huts eta guzti saldu zuela baliteke.

³⁰² *mixiketako*: mixikak dira azalean agertzen diren puntu gorriak, hatz ematen dutenak. Hemen gaizki ulertu du “birika”.

³⁰³ *lanhestatzia*: lainoxtatu “vaporizar”.

³⁰⁴ *kotsa*: kutsa.

³⁰⁵ *arto*: *asto* bitxi iruditu zaio kopiatzaileari eta “arto” aldatu du.

Sendabideak

Ur beroz asken garbitzea aholku ona da eta maiz gaur ere egin baledi ez legoke gaizki antibiotikoa erabili baino lehen. Bestela belar usain onen efektua agian psikologikoa litzateke. Dirudienez gaitz horrentzat ez zegoen erremedio handiegirik.

Aztikeria

Jakina; aztikeria da *astoaren* arnasarena, baina ez da Euskal Herrian gaur hedatuena, izan ere gehiagok uste dute *akerra* artaldearen erdian edukitzeak mikrobioak urruntzen dituela. Hau da beharbada Daranatzan iritziarekin bat letorkeena, baina liburu guztiaren gaitzestekoa handixko? Gainera, nola harria bota behar genuke holako sinesteari beste horrenbeste bizirik daudelarik, ilargi goraz eta beheraz, horoskopoaz eta integrista berrien sorginkeriez asko genuke errateko.

Astoarekin bukatzeko indoeuropar kulturetan behintzat astoa ez da ondo ikusia deabru eta likitsa omen delako, nahiz kristautasunak Jesusen zamari eginaz apur bat zuritu duen.

3.19. Hertzeak galtzen basiak**3.19.a. Baigorrikoa (I6. zk. idazkian)*****Idiac edo behiac herciac galcen hassiac dituenean cer eguin behar den***

Idiac herciac desseguinac dituenean, harturen duçue hirur unça *turmentina*³⁰⁶ eta hura haur baten eskuaz idiari gibealeco aldetic³⁰⁷ sar dioçoçue ahalic eta barnena³⁰⁸ edo ezperen turmentinaren lecuan balia çaitetzque *ganz guessaz*³⁰⁹ edo *urin hurtuz*.

³⁰⁶ *turmentina*: trementina.

³⁰⁷ *gibealeco aldetic*: gibealeko, atzeko aldetik.

³⁰⁸ *barnena*: sakonena.

³⁰⁹ *gantz guessaz*: gantz gezaz, gazitu gabeaz.

3.I9.b. Barkoxekoa (I I. zk. eskuizkribuan)

Idiac errayac gastaturic dutianian cer eguin behar den

Har eçaçu hirour ontça *thurmentina* eta er(r)emedi houra haur baten eskiaz idiary guibeleko aldetic sar eraçy içoçu ahalic barnena *thurmentina* houra..

Edo ezpaduçu *thurmentinaric*: eguioçu *gantz gueçaz*: edo ezpere *ourin houxez* hourtu gabe hirour goitcez (sic).

3.I9.c. Garazikoa (I9. zk. eskuizkribuan)

Idiac hertciac galtcen hassia dituenian cer eguin behar den

Idiac hertciac desseguinac dituenian hartu behar duçue hirur untça *turmentin* eta hura haur baten escuz sar idiari guibeleco aldetik ahalic eta barnena; edo ezperen *turmentinaren* lekhuan balia çaitezte, *gantz guessaz* eta *urin hurtuz*.

3.I9.d. Amikuzekoa (zenbaki gabea)

Idiak herziak galdiak ditienian

Hartü behar düzie hirur ontza *tormentina* eta hura ahur betin (sic) eskiaz idiari gibleko aldetik sar erazozie ahalik barnena edo ezperen *tormentinaren* plazan balia zitezte *gantz gezaz* edo *urin hurtüz*.

Albaitaritzaren balorazioa

Gaitzaren azalpena

Nonbait I5. errezetan hasita gaitzaren azalpena murrizten da eta galtzen, izenburuak bakarrik esaten digun zein den eritasuna. Zer den hesteen galtzea edo desegitea ez dakigu.

Sendabideak

Hasiera batean *tormentina* *Potentilla tormentilla* zela uste nuen, baina erre-txinaren *trementina* hautsetan izango zen, jendeentzat fuertexko, nahiz erdi animismoz uste zen *tormentinak*, *tormentu* minak biltzen zituela, baina idientzat tira! Besterik ez zegoenean batik bat hesteen ustelduraren kentzeko ereinotza baino hobea, agian.

3.20. *Eztula*

3.20.a. Baigorrikoa (17. zk. idazkian)

Idia edo behia hestulaz attacatua denean cer eguin behar den

Idia marfondiz³¹⁰ attacatua denean eta guciz hestulla handia duella, hartuco duçue aphurbat *hissopa*³¹¹ eta hura hiraquit pinterdibat *huretan* guero iraci duçuenian edanaraz hur hura idiari. Dembora hartan emoçue yaterat *forru ostuac*³¹² chehaturic *ogui nertroyarequin*³¹³ batean, berce batçuec emaiten diote idiari *urmaiçaren hura*, *amiron churiarequin*³¹⁴ batean hissopaz eguin den guissa...

3.20.b. Barkoxekoa (12. zk. eskuizkribuan)

Idia eztulez atakaturic denian cer eguin behar den

Har eçaçu ahurbat *hisopa* eta houra heraky eracy pinta erdibat houretan eta guero iraz: eta eman Edatera ordian emoçu: *phorru osto* ahurbat chehekaturic onxa: eta *garagar irinareky*³¹⁵ batian *hourian trempaturic*³¹⁶.

3.20.c. Garazikoa (20. zk. eskuizkribuan, 19.aren aurretik kopiatua)

Idia estulez atacatua denian cer eguin behar den

Idia marfundiz atacatua denian eta guciz estul handia duela, hartuco duçue ahurbat *hissopa* eta hura iraquit pinterdi bat *huretan*. Guero iraci duçuenian, edan araz deçacoçue ur hura idiari.

Dembora hartan emoçue yatera *forru ostoac* chehaturic *ogui nostroarequin* batian.

³¹⁰ *marfondiz*: mafrundiz, marrantaz, katarroz.

³¹¹ *hissopa*: *Hyssopus officinalis* L. Isopa.

³¹² *forru ostuac*: porru hostoak, orriak.

³¹³ *ogui nertroyarequin*: gaizki irakurria “ogui nostraiarekin”.

³¹⁴ *urmaiçaren ura*: Garazikoak dio “Armoisa” (belarra) Amikuzekoak “arthamiña Armiron churia: almidoi zuria da.

³¹⁵ *garagar irinareky*: zuberotarrak “ogi nostraia” ulertu du, alegia, garagarrez egina, eta zuzenean idazten du “garagar irina” erabil daitekeela.

³¹⁶ *hourian trempaturic*: urean trenpaturik, bustirik.

Berce batçuec emaiten diote idiari *armoisaren ura amiron churiarequin* bation, hissopa eguiten den guisa³¹⁷.

3.20.d. Amikuzekoa (zenbaki gabea)

Idia marfundiz atakatia denian

Eta güziz eztül handia diela, hartüko düzie ahur bat *issopa* hura erakit' pinterdi bat *huretan*, irazi eta edanaraziko düzie idiari, denbora hartan emozie jatera *porrü ostoak* xehatürrik *ogi zahiarekin* batean bertze batzük emaiten diote *arthamiñaren* hura *amidon xuriarekin* issopaz egin den gisa.

Albaitaritzaren balorazioa

Gaitzaren azalpena

Izenburuan bakarrik Baigorrikoak *marfondiz*, Garazikoak *marfundiz* idazten dute eta marranta hitza horren ordeaz darabiltenek *eztul* idatzi dute.

Sendagailuak

Orain arte Garazikoa argiena eta zuzenena izaki haren *Armoisa*, *Artemisia vulgaris* L. dela uste dugu, gainera irakurketan Armoisatik *Arthamiñara* iragaitea ez da zaila. (*urmaiza* irakurri da) landareen zerrendetan agertzen da bildumen azkenetan eta landare horren izen bat euskaraz *artamixa* da, artoarekin ezer ikusteko ez duena. "Armoise" itzuli gabeko frantses izena da, beraz iturrietatik hurbilena. Sukarraren kentzeko oraindano erabilia da. Herri etimologia eta irakurketa kontuan har bagenitza, ustekabeak, gertatzen da artoaren ura min emagarri, eztigarri dela (K bitamina eta salizilato gatzen bidez), baina nahiago dugu *Artemisiaren* bertuteekin jarraitu.

Hissopa. *Hyssopus officinalis* L. Glukosida, tanino kolina, eta usain olioduna. Landare hau gaur ere jendeen bronkitisetan erabilgarria da, espasmo kentzaile delako, hain zuzen bere esentzia, olio eta kolinarekin bidez. Bere tanino eta glukosidoen eraginez bizkorgarria da. Landare honen lore eta hosto lehortuak erabili ohi dira. Gure testuen arabera XVII. mendean baratzeetan bazegoen.

³¹⁷ Orrialdearen azpian idi beltz baten marrazkia eta euskaraz IDIA, liburuaren hasieran kopia dago.

Ogi nostraia. Daranatzek edo aurrekoek gaizki irakurri dute “nertroya” eta ez ohar batez zuzendu, baina baserritar kopiatazaileak XVIII. mendeko barkoxtarrak bazekien zer zen “garagar irinez” egina, eta XIX. mendearen azkenekoak susmoa ogi zahia aldatzen baitu. Oraingoan garagarra *Hordeum vulgare* L. da. Haren urak bazuen eta badu fama eztingarria, emagarria izatea, baina denbora berean bizkorgarria. Errusiako “kvas” delakoa horrelakoa da.

Porrua, *Allium porrum* L. Nahiz Oihenartek bildu duen, “Porru eta gatz/bazkari latz” landare horrek bere muzilagoen bidez zintz eta ez tul eragile, eta muki altxagarri ona da beraz jendearen bronkitisetan orain ere erabilgarria. Errezeta honetan ez da azti sendagailurik, baina ez tulari bihurtzeko sendagai-lu eztiak, lasaigarriak: jakina, denek dakigu katarroa sendagailuekin orain bi astez sendatzen dela eta botika gabe hamabost egunez.

3.2I. *Arnasa labur*

3.2I.a. Baigorrikoa (18. zk. idazkian)

Idiac edo behiac noiz ere sendi baituque hatxa labur diela

Emoçue beharrietan cilhaturic³¹⁸ *hellebore noir* (sic) deitzen den belharra gargandila balu beçala³¹⁹ eta harec hun eguinen dio...

3.2I.b. Barkoxekoa (13. zk.)

Idiac haxa labur denian cer eguin behar den

Eguioçu beharrietan chilo eta guero *Helebore*³²⁰ deitzen den belharra cherka eçaçu³²¹: gargandilla beilu beçala: eta harec sendo eraciren du labursky.

³¹⁸ *chilaturik*: zulataturik.

³¹⁹ *gargandila bezala*: guruin txarra.

³²⁰ *Helebore noir*: *Helleborus niger* L.

³²¹ *gargandila bezala*: guruin itxura.

3.2I.c. Garazikoa (2I. zk. eskuizkribuan)

Idiac hatxa laburra duenian cer façoinez sendatuco den

Noiz ere sendi baituçe idiac hatxa laburra duela emoçe beharritan cilhaturic *Hellebore noir* (sic) deitzen den belharra gargandilla baliz beçala eta harc on handia eguinen diote (sic)

3.2I.d. Amikuzekoa (zenbaki gabea)

Idiak hatsa labur dienian zer egin behar den

Noiz ere seindi baitüzie idiak hatsa labür diela emaozie beharrietan xilatua *Helebore noir* (sic) deitzen den belharra gargandilak balitü bezala eta hark on handia eginen dako³²².

Albaitaritzaren balorazioa

Gaitza. azalpenik gabe, arnasa (hatsa) labur uzten gaitu albaitariak.

Sendagailua. *Helleborus niger* L. Otsababa arra

Ezin da barne-sendagailu izan, hazia batik bat edenduna duelako.

Erdi Aroan hazi horiek *eroen* sendagarri ematen ziren. Bere bertuteak dira *purgagarria* eta *zizare hiltzaila* izatea. Jakina, idiek beren “txitxi” metekin jendeek baino errazkiago erremedioaren bortitza, pozoia eta latza jasan dezakete ahoan ematen ez zaien ber.

3.22. Alboko mina

3.22.a. Baigorrikoa (19. zk. idazkian)

Idiac edo behiac almaquetan min duenian cer eguin behar den

Eçagutu duçuenian idiac almaquetan oinhace duella, har eçaçe hirur ahur *alcipre*³²³ eta hec hiraquit *minagrean*³²⁴ eta guero ungui chehatu tutçuenian lot çaçue

³²² dako: dio.

³²³ *alcipre*: altzifrea *Cupressus sempervirens* (L.).

³²⁴ *minagrean*: ozpinean.

dolorea duen lecuan eta laster sendatuco da; berce batçuec *atheratcen* diote *odola* almequetaco çainetariç: guero, *porruac hurian* iraquituric, hur hartariç edanaras-ten diote, edo ezperen *idiaren guernu* bera.

3.22.b. Barkoxekoa (14. zk. eskuizkribuan)

Idiac alamaketan min dianian cer eguin behar den, arrunt³²⁵

Eçagutu duçunian idiak alamaketan ornaua³²⁶ doloriac dutiala. Har eçaçu hirour ontça *alcipre* eta houra heraki eçaçu *vignagrian* eta guero onxa chehekaturic idiary eçar içoçu doloria dian lekian.

Bestela aldiz *seigna* eçaçu almaketako çaignetic eta guero *phorru* ahurbat³²⁷ hourian onxa herakituric hartariç emoçu pintou bat aldian edatera sendo arthio.

3.22.c. Garazikoa (22. zk. ezkuizkribuan)

Idiac almaquetan min duenian cer eguin behar den

Eçagutu duçuenian idiari almaquetan hoin-haciac (sic) eta doloriac dituela, har çaçue hirur ahur *alcivre* eta hec iraquit *minagretan*; eta guero ungui chehatu tuçuenian lot çaçue doloria den lekhuan eta laster sendatuco da. Berce batçuec *atheratcen* diote *odola* çainetariç.

Guero *porruac urian* iraquitu eta ur hartariç idi(ari) edanarazten, edo ezperen idiaren *guernu* bera.

3.22.d. Amikuzekoa (zenbaki gabea)

Idiak almaketan min dianian

Ezagütü düzienian almaketan min edo doloriak ditiela harzazie hirur ahur *alcipée* eta erakitarazi ozpinian eta ontxa xehatü tützienian lot ezazie dolore den lekhian eta laster sendotüko ditü bertze batzük odola atheratzen diote almaketako zainetariç gero porriak hurian erakitü eta hur hartariç edan erazi edo ezperen idiaren beraren *pixa*.

³²⁵ *arrunt*: berehala.

³²⁶ *ornaua*: oinazea (gaizki irakurrita).

³²⁷ *aburbat*: ahur, eskukada bat.

Albaitaritzaren balorazioa*Gaitzaren azalpena*

Ez da ematen, abeltzainek ezagutuko zituzketen «albo min» Alborengo (?) horren ezaugarriak.

Sendagaiak

1. *Altzipre*. Kanpotikoa. Amikuzek *alcipée*, Garazik *alcivre*. Bi sendagailu mota izan daitezke. Bere eragina eta bere egitura ezagutzen ez dizkiogun elektuarioa, landare nahasketa edo *Cupressus sempervivum* L. altzifre zuhaitz horren hostoek eta frutek orbaintzeko eta odol zainen estutzeko bertuteak dituztelako. Gehiago erabilia da oliotan ezen ez hidrolatoetan. Landarearen sapa nerbioen eztigarri, eta fruta sukar kentzaileak dira.

2. *Porruak*, *Allium porrum* L. Barrutikoa, barne-sendagailu izaki uste izatekoa da oinaze horiek barruko errai baten jarduera txarragatik ematen direla: giltzurruna ote da gaizki? Bai porruak kalitate asko dauka besterik ez dagoenean: baratze guztietan aurki daiteke botikari batengana joan gabe.

3.23. Lupua**3.23.a. Baigorrikoa (20. zk. idazkian)*****Idiari edo behiari lipia³²⁸ khentceco cer eguin behar den***

Lipiaren erremedio segurrena eta lasterrena atheratcia da eta guero burra³²⁹ frescoz çauri hura goiz arraxetan pherecatcia.

3.23.b. Barkoxekoa (15. zenbakia)***Idiac luppiaren contreko erremedioa. Noula sendotcen den idia eta cer eguin behar den***

Lupiaren erremediaric hobena: duçu phicatcia; eta guero bourra freskez çauri haren fretatcia: eta goiz arax oroz cambiatcia: eta freskatcia....

³²⁸ *lipia*: lupua, hemen lipu arrunta gargandiladuna (tuberkulosia).

³²⁹ *burra*: gurina.

3.23.c. Garazikoa (23. zk. eskuizkribuan)

Idiaren lipua khentceco edo min gaistoa

Lipiaren erremedioric segurrena eta laisterrena da, picaturic atheratcia eta guero bourra (sic) frescoz çauri hura goiz guciez arratsez gantçutcia eta perecatcia...

3.23.d. Amikuzekoa (zenbaki gabea)

Idiaren lüpiaren khentzekotz

Lüpiaren erremediorik eta lasterrena phikatürük eta idokitzia dü eta gero bürra freskoz zauri hura goiz arratsez urinez perekatzia.

Albaitaritzaren balorazioa

Gaitzaren azalpena

Hemen ez da aipatzen eritasuna, sumatzen da larruan agertzen den edozer kentzen dela. Bi lupu mota daude ordea

1. *lipu beltza* “ikatzá”, idi marteilua, lankarra, lehen ardi asko arin hiltzen zuenak. Ez da hau hemen aipatzen den lupua.

2. *lipu arrunta* tuberkulosi ganglioduna da (zubereraz antzina ezürre ganglio baitzen honi zeritzon gohenezürre). Jendeetan ez dira sarritan holako gaitzak Europan ikusten.

Sendabideak

Pasteurren aurkikuntzaraino ez zegoen sendagailu asko *Lupu* beltzarentzat geroago ikusiko dugu Barkoxeko nire arbasoek, beste nonbaitik, ardien lupu beltzaren errezeta bat bildu zutela.

Lupu arruntaz ordea badago zeregina eta hemen eskaintzen den *ebakuntza* eta *gurinez* gantzutzea arrazoizkoa da. Neronek Afrikan nengoelarik Gurutze Gorriarekin, gaitz hori jendeetan ikusi dut. Sendagilearen aholkuz, gargandila (ganglio handitua) horiek xiringa batekin hustu egiten nituen. Eta gero alkohola botata zornea erretzen, xiringak eta beste esterilizatzen. Geroago ganglioaren barruan ez nuen idiei bezala gurinik sartzen, baina bai antibiotikoak zuzenean eta garai hartan, leku hartan ez zutelako aurretik antibiotikorik behin ere erabili horregatik aski laster sendatzen.

Beraz, idiekin egiten zena antzina gaurkotua, jendeekin Ipar Afrikan egin nuen. Bai, XVII. mendean ez zegoen gurina edo gantza baizik eskaintzeko, baina hargatik urrun gaude liburu eta praktika batzuez zeinek garai haietan zioten jendeen eta abereen zauriak olio irakinez erre behar zirela garbitzeko, hemen ez dugu inoiz holakorik irakurriko.

Beste lupurik ere badago hemen aipatzen ez direnak, baina idiek ezagutzen ez dituztenak. Afrikan ikusi nituen jendeak goiko ezpainaz eta sudurraz gabetuak, hori beste lupu mota da “otso aurpegia” deritzona.

3.24. *Goloa*

3.24.a. Baigorrikoa (21. zk. idazkian)

Idiac edo behiac golardoa duenean edo lephoa hantua duenean cer eguin behar den

Idiac golardoa³³⁰ duenian hanitx da lepho gucia hantua; eta baldin senti badioçute abces bilduma edo materiari³³¹ duella dembora hartan apparanciaz aguerian den lekhuian cilhatuco dioçue burdin gorri batez eta guero eman cilho hartan³³² assunen erro guti bat edo esperen erran den *hellebororen errua* har eçaçue bethi; erro horien sanyatceco idiari edan aracico dioçue *urri beharrararequin* iraquiturica-co *huretic*, nahiz goicetan eta arraxetan copetetic eta beharri guibeletaric *odola atheratcia* probetchu handia eguinen du.

3.24.b. Barkoxekoa (16. zk. eskuizkribuan)

Idiac golardoua lepphoua hanturic dianian cer eguin behar den

Idiac golardoa dianian lepphoan dikeçu: eta ouste baduçu badila matheriaric chilaturen duçu bourduigna³³³ gorri batez eta guero emoçu chilo hartara assun çain

³³⁰ *golardoa*: girgiloa, kokospetia (paperas, bocio, goître).

³³¹ *materiaric*: materiari, zornieric.

³³² *chilho hartan*: zulo hartan.

³³³ *bourduigna*: burdüña (zuberera zaharraz), gaur bürdüña “burdina”.

gutibat: eta guero: seignaturen³³⁴ duçu behar(r)ri guibeletic: edo belarretic³³⁵ eta ičanen da sendoric...

3.24.c. Garazikoa (24. zk. eskuizkribuan)

Idiaren golardoa edo lepho hantuan cer eguin behar den

Idiac golardoa duenian hanitz tu (?) lepho gucia hantua, eta baldin sendi badioçu abcestilduma³³⁶ edo materiariac duela, dembora hartan haparantciaz agueri den³³⁷ lekhuan cilhatuco duçue, burdin gorri batez eta guero eman cilho hartan assunen erro guti bat edo ezperen erran dugun *Hellebororen* erroa eta har çaçue bethi artha³³⁸ erro horietaric sanyatceco³³⁹

Idiari edan aracico dioçue *urri belharrarequin* iraquitu *uretic* nahiz goicetan eta arratxetan; copetatic eta beharri guibeletaric odola atheratcia ere probetchu handi eguinen diote.

3.24.d. Amikuzekoa (zenbaki gabea)

Hanits dü lepho güzia hantia eta baldin seindi badüzie abzes bildüma edo materia diela, dembora hartan aperentziaz ageri den lekhian xilatüko düzie bürdin gorri batez eta gero eman xilo hartan asun erro guti bat edo berze-la erran den *helchororm*³⁴⁰ (sic) erruak eta harzazie bethi artha erro horietaric sanjatzeko, idiari edan araziko diozüe *ürri belbarrekin* irakitürük *ura*: goizetan eta arratsetan, kopetatik eta beharri gibeletaric odola idokitiaz ere probetxü handia eginen diote.

³³⁴ *seignatüren*: zeinatuko, odola aterako.

³³⁵ *bellarretic*: belarretik, kopetatik, bekokitik.

³³⁶ *abcestilduma*: gaizki irakurri "abces bilduma".

³³⁷ *haparantciaz agueri den*: pleonasma arrunta, Amikuzekoak errepikatuko du. "Aparentziaz da-goena"edo ageri dena», baina ez biak batean.

³³⁸ *artha*: arta, errekeritzea, axola.

³³⁹ *sanyatceco*: aldatzeko; gaskoieraz sandjar, aspaldian "manex" euskalkitan sartua zubereraz "kanbiatu" sartzen zelarik.

³⁴⁰ *helchororm*: heleboraren (ezagutzen ez den hitza nola irakurri? Nork egin du hutsa jatorrizko inprimakiak ala Daranatzek?).

Albaitaritzaren balorazioa*Gaitzaren azalpena*

Golardoa, jakina ez da tiroideko “bocio, goître” delakoa, baina kolpez, zauriz besteen ostikoz kokospean sortzen den abzesua edo hantura.

Sendabideak

Ebakuntza. Gaur jakina alkoholarekin erre genezake burdina mina zulatu baino lehen, baina jadanik bazekiten suak tresnak garbitzen eta esterilizatzen zituela nahiz XIX. mendean maiz ahaztu egingo den. Aldiz, odol kentzeak XX. menderaino iraungo du.

Odol ateratzea. Odolaren ateratzea belarri atzetik eta bekokitik ez da harritzekoa, baina ez dakusagu zertan laguntzen zuen sendatzen. Odol ateratze hori jadanik XVII. mendean dudatan jarri zen, baina XIX. menderaino iraun zuen, sangratzeak.

Helleborus niger (L.) Heleboro hor aipatzen dena bere zati guztietan pozoiduna da, eta barne erabileretan ezin hartu, eta bestela erabiltzen dena bakarra erroa da gutxiago kalte egin dezakeena.

Urtica dioica (L.) Asuna Osagai askoko belarra: azetilkolina, histamina, azido galikoa eta formikoa, karotenoa, C bitamina, taninoa, potasioa, kaltzioa, burdina, sufrea eta manganesoa dauzka. Hamabi orduz lehortzen utzi behar da erabili baino lehen. Zauri horretan odolaren geldiarazteko eta larruaren, azalaren sendatzeko onak dira oroz gain sufrea, azetilkolina eta azido formikoa.

Urri belarra. Ez dugu uste udazkenean, urrian egiten den bigarren belarra denik. *Urri* ematen du *artoxebe* esateko hitza Belak XVII. mendean; oraindaino oinarritzko janaria zen *Milletum* hori Belaren eta Dassanzaren garaian, lehen aipamena litzateke sendagailu moduan, baina urrian egin *bigarren belar* goxoa da. Bestalde, badakigu garagarra eta gari irina orduan erabiliak zirela.

Zorionez sinonimo bat ematen zaigu desbideratzetik urruntzen gaituena alegia: Urzo belarra, *Uso belarra* dela. *Lotus corniculatus* L. nonahi belardietan baita haizetan ikusten dena bere lore hori tximeletekin. Loreak dira erabiltzen. Flabonoide zianogenetikoekin antiespasmodikoa da, nerbioentzat eta lo ezinezkoetan gaur jendeekin ere erabilia.

3.25. *Hanpatzea*

3.25.a. Baigorrikoa (22. zk. idazkian)

Idia hantua denean nola sendatu behar den

Ordinariosqui idiac hantcen dire belhar sendoeguiac yanez eta guciz ihitçarequin³⁴¹ direnean eritarçun horren sendatceco, asqui da choilqui *adar bat* alderen alde cilhaturic eta hura olioz pherecaturic guibelleco aldetic *ayuta* beçala idiari edo behiari emaitia; hirur edo laur erhi³⁴² ondarcian (sic)³⁴³ barna guero passaya çaçue, idiac haice hanitx eguin deçaquen arteraino eta adarra han dueno pherecatuco dioçue sabela naya³⁴⁴ sendo batez.

3.25.b. Barkoxekoa (17. zenbakia)

Idia hanturic denian: cer eguin behar den

Behar duçu ukhen *urrutx* tartabat³⁴⁵; beso baten ungunia lucé eta haren buria ly apurbatez unguratu eta plegatu³⁴⁶ eta onxa ollioz: edo bestela ourin hotcez berekatu: eta idiary guibeletic sar içoçu errain kurutchiala drano eta ez haboro: eta guero passey a eracy eçaçu idia eta orano dembora berian barra batez, bidec³⁴⁷ barraren bi burietaric lothuric: onxa sabella bereka içoçu.

3.25.c. Garazikoa (25. zk. eskuizkribuan)

Idia hantua denian nola sendotu behar den

Ordenariosqui idiac hantcen dire belhar sendoqui yanez eta guciz ihitzarequin direnian.

³⁴¹ *ibitcarequin*: ihintzarekin.

³⁴² *laur erbi*: laur eri, hatz (luze).

³⁴³ *ondarcian*: hondertzean, hondestean.

³⁴⁴ *naya*: haga gaizki irakurria.

³⁴⁵ *ürrüttx thartabat*: hurritz makila bat (tharta hitza zubereratik adiera horrekin galdu da).

³⁴⁶ *plegatu*: tolestu.

³⁴⁷ *bidec*: biek (bida hitza azkenik XIX. mende hasieran erabili da).

Eritasun horren sendarazteco azqui (sic) da choilqui adar bat alderen alde cilhatcia, eta olioz gantçuturic edo perecatunic guibeleco aldetik, *ayuta* beçala idiari emaitia, haise hanitz eguin deçaquen arteraino eta *adarra* han dueno perecatuco dioçue sabela haga sendo batez.

3.25.d. Amikuzekoa³⁴⁸ (25. zk.)

Idia hantia denian zer egin behar den

Ordenarioz idiak hantzen dira belhar sendoegiak janez eta guziz ihitzarekin direnian eritarzün hori (sic) sendotzeko aski da *adar* bat alde batetik bestera xilatzia eta hura olioz perekatüririk gibelesko aldetik hirur edo laur erhi barna sartzia, gero paseia zazie idia haize anhitz egin artio Eta adarra han dieno perekatüko diozie sabela haga azkar batez.

Albaitaritzaren balorazioa

Gaitzaren azalpena

Nondik heldu den nahiko ondo azaltzen zaigu belar sendo eta ihintzez, garoz busti janaz. Gainera nezake meteorismoa, puztatze hori, udaberriko belar berriekin maiz ematen dela, orduan ihintzean bakterioak eta protozooak ugaltzen direlako. Haien eraginez haizeak idien zorroetan egosten dira.

Sendabidea

Osoki fisikoa da gogorduran bezala barruko *makila*, *zubaitz adarra* ipini eta kanpotik haga batetik igurtzi behar da (izenak aldakorrak dira: makila, barra, haga). Halere, badirudi barruko makila hori tutu moduan erditik hustua dela “alderen alde cilhaturic”. Eskupean albaitaririk ez dagoenean ziur dago holako pipeta sistemak erabiltzen direla.

³⁴⁸ Hemen hasten dira zenbakiak.

3.26. *Idiak animaliatxoak irentsi dituenean*

3.26.a. Baigorrikoa (23. zk. idazkian)

Idiac edo behiac ceinbait (sic) animale chume iretxi duenean cer eguin behar den

Seindi duçuenian idiac iretxi ahal duquela animale cenbait, emoçue lehen bai lehen esnia edatera edo ezperen eguiçue decotionea *picco melatuz*³⁴⁹ *arnoarequin* batean eta guero eman arno hartaric idiari edo behiari edatera.

3.26.b. Barkoxekoa (18. zk. eskuizkribuan)

Idiac çombait ainharba*³⁵⁰ *edo animal gaizto jaten dianian: cer eguin behar den

Idiary emoçu lehen bai lehen: behy ezne edatera edo ezpere: eguiçu *phiko malatuz: ardouareky* egos eraciric: emoçu pintoubat aldian edatera: sendo artio idia continia (sic)

3.26.c. Garazikoa (26. zk. eskuizkribuan)

Idiac cembait alimale chume iretxi duenian cer eguin behar den

Sendi duçuenian idiac iretxi ahal duquela, cembait alimale, emoçue, lehen bai lehen, *behi esnia* edatera, edo bercenaz eguiçue dicostionia (sic) *pico melatuz arnoarequin* batian eta guero batian eman *arno* hartaric idiari edatera.

3.26.d. Amikuzekoa (26. zk. eskuizkribuan)

seindi duzienian idiak iretzi diela zonbait alimale emozie lehen bai lehen behi eznie edatera edo berzela egizie dekokzionia *piko malatüz arnuarekin* batian eta gero eman arno hartaric idiari edatera.

³⁴⁹ *piko melatu*: piku melatua, piku pasa (*Ficus carica* (L.)).

³⁵⁰ *ainharba*: armiarma.

Albaitaritzaren balorazioa*Gaitzaren azalpena*

Hemen gaia oso zabala da, zehaztasunik gabekoa zomorroa, zizarea, ar-miarma? Zer irentsi du? Ikusi ez badugu irensten nola jakin? Denentzat aterabide berdina izango da.

Sendabideak

Piku pasa ardoarekin, jakina purga bat dela eta naski animalia txikiei behe-rako bidean lagundu diezaieke, gainera ardoa edanaz animalia xumeentzat baldintza ederretan.

Esnearen erabilera egokia da pizti txikia aberexka hestegorrian trabaturik balego, baina gaur ere asko aipatzen bada esnea, toxiko eta pozoï kasuetan baztertu behar da.

3.27. Handitsuak eta banturak**3.27.a. Baigorrikoa (24. zk. eskuizkribuan)*****Idiaren handitchuen sendatceco cer eguin behar den***

Har çaçue *andredena mariaren arrosare tipulla*³⁵¹ eta berce ahur bat *constantinopolitana*, eta hec unguay egos minagrean, guero lot çaçue erremedio hartaz hantura duen lekhuana; eta hala laster leher aracico dio bere anditchia. Lehertu denean, garbi çaçue çauri hura goiçetan eta arraxaldetan *guernu* eta *pichas*.

3.27.b. Barkoxekoa (19. zk. eskuizkribuan)***Idiaren hankuren sendotceco cer eguin behar den***

Har eçaçu ahur bat: *andere dena maria*; arrosaren thipoula edo lilia: eta beste ahur bat *Constantinopolitana* eta hourac³⁵² onxa egos eracy vignagrian; eta guero eçar emplastu houra oyhal edo larru batetan hankura dian lekhiara eta laster chila-

³⁵¹ *tipulla*: tipula (bustidura gabe).

³⁵² *hourac*: (hurak) haiek, "hura" ren plurala zubereraz.

turen cioçu³⁵³; eta leherturen³⁵⁴ çayonian: chahat içoçu³⁵⁵ çaury houra *ourinez*: edo *pichaz*³⁵⁶: goiz eta arrax oroz sendo arthio³⁵⁷.

3.27.c. Garazikoa (27. zk. eskuizkribuan)

Idiaren handitchuen sendatceco cer eguin behar den

Har çaçue ahur bat *andre dena maria arrosaren* tipula eta berce ahur bat *constantinopolitana* eta hec ungui egos minagrian guero lot çaçue erremedio hortaz hantua den lekhuana eta hola laster leher aracico dio bere hantixua (sic).

Lehertu denian garbi çaçue çauri hura goicetan eta arratxetan *guernuz* eta *pichaz* (sic)

3.27.d. Amikuzekoa (28. zk. eskuizkribuan)

Idiaren handutsien sendozteko zer egin behar den

Har ezazie ahür bat *Andredena Mariaren lilia*(ren) erruak beste ahur bat *Constantinopolitana* hek ontsa egos ozpinian gero lot ezazie erremedio hartaz hantua den lekhan eta hola laster lehertuko dio bere hantüra edo handützia, lehertü denian xaha zazie zauri hura goizetan eta arratsetan *gernü(z)* edo *pixaz*.

Albaitaritzaren balorazioa

Gaitzaren azalpena

Izenburuek bakarrik ematen digute gaitzaren aipamen “handitsua” tumore zornetsua liteke forunculosis motakoa eta “hantura” tumore zorne gabekoa

Sendabideak

I. Andre dena Mariaren tipula, *Parietaria officinalis* L. Hosto lehor eta freskoak ere on. Bere kimika gaiak dira, *sufrea*, *potasio nitratoa*, gainera gaitz honetan

³⁵³ *chilaturen cioçu*: zulatuko zaio (zuka).

³⁵⁴ *leherturen*: lehertuko, zartatuko.

³⁵⁵ *chahat içoçu*: garbi iezaziozu.

³⁵⁶ *pichaz*: bai, pixaz, zuberotarrak “gernu” ez irakurri “ourin” idatzi du.

³⁵⁷ *arthio*: artio, arte (XVIII. mendeko forma zubereraz).

dauzkan muzilagoek eta pigmentu flabonikoek minaren malgutzen, biguntzen lagundu dezakete.

2. *Constantinopolitana*: zer den ez dakigu, Dassanzak salgai.

3. *Ozpina*: Minaren malgugarria, gurigarria izan liteke eta handitsuaren zartarazteko osagai egokia bere azido azetikoa, jakina.

4. *Pixa*: Pixaren erabilerak irauten du XX. mendean, besterik ezean, mendian norbait zauritua denean likido bero mikrobio gabeko bakarra pixa berria delako. Baigorriko eta Garaziko kopiazaileek iturri berdina eduki dute, biek gernu eta pixa diote; Barkoxek, ordea, gernu, urin edo pixa (urina=orina ez da gehiago erabiltzen).

3.28. Zangoak hantuk

3.28.a. Baigorrikoa (25. zk. idazkian)

Idiac çangua hantua duenian nola sendatu behar den

Hartaracotz har çaçue cenbait ahour³⁵⁸ *osto sauca*³⁵⁹ eta hec unguy iraquit *gantz* guti batequin batean, eta guero egossi direnean, lot çaçue unxa cathaplasma hortaz eta hala laster iccusico duçue hantura consimitua³⁶⁰. Cataplasma hori eguin daiteque hoxic eta frescoqui; hartaracotz har çaçue ceinbait (sic) ahur *sauca osto* eta ungui hec cheatu (sic) direnian emoçue *urin hurtua*, cataplasma eguiteco asqui den beçala.

3.28.b. Barkoxekoa (20. zk. eskuizkribuan)

Idiaren çankhoac hanturic dutienian cer eguin behar den

³⁵⁸ *ahour*: ahurra, eskukada, arra. Behin edo beste nahiz ez dakien ongi frantsesez, frantses grafiaren tentazioa dauka.

³⁵⁹ *osto sauca*: sabuka hostoa behar luke baina nonbait frantses ereduia "feuille de sureau" izaki, itzulpen lasterra da, kalko askoren emaila.

³⁶⁰ *konsimitia*: desagertua.

Har eçaçu combait ahur *sabiko osto*: eta hourac³⁶¹ onxa heraky eracy *ourinin*³⁶²: eta guero eçar eçaçu oyhal: edo larru batetan emplastu hory: eta suitan³⁶³ houn dukeçu hotzic éré: emplastu houra.

3.28.c. Garazikoa (28. zk. eskuizkribuan)

Idiac çangoa hantua duenian nola sendotu behar den

Hartaracotz har çaçue cembait *ahur sauca osto* eta hec ungui iraquit *gantz* guti batequin batian eta guero egossi direnian lot çaçue cataplasma hortaz: eta hala laster ikhussico duçe hantura contsomitua.

Eman dugun cataplasma hori eguin daiteque *hotzic* eta frescoqui hartaracotz harçaçue cembait ahur *sauca osto* eta hec ungui chehatu direnian emoçue *urin hurtua* cataplasma eguiteco asqui den beçenbat.

3.28.d. Amikuzekoa (28. zk. eskuizkribuan)

Idiak zangua hantia dienian zer egin behar den

Hartarakotz harzazie zonbait ahur *sauca osto* eta hek ontsa erakit *ganz* guti batekin eta gero egosi direnian lot ezazie enplastü hartaz eta hala laster ikusiko düzie hantüra konsomitia, emplastü hori egin daiteke hotzik eta freskia hartakotz harzazie zonbait ahur *sauca osto* eta hek ongi xehatü direnian emaozie *urin hurtia* enplastia egiteko aski den bezenbat.

Albaitaritzaren balorazioa

Gaitzaren azalpena

Gaitzak, minak ez du azalpen gehiegi behar, nahiz ez zaigun esaten hantura hori nondik heldu den, eta zornerik izan dezakeen edo ez.

³⁶¹ *hourac*: haiek.

³⁶² *ourinin*: (Basaburuan urinian/ urinean) diptongoaren ezabatzea aspaldikoa da.

³⁶³ *suitan*: jarraian (suita, frantsetetik gaskoiez sartu zen XVII. mendean eta Iparraldean euskaraz ere bai).

Sendabideak

Enplastua da sendabide, baina berriro Amikuzekoak eta Zuberokoak iturri berdina eduki dutela agertzen da, bi horiek enplastu diotenean, Garazikoak eta Baigorrikoak kataplasma darabilte. Enplastu hori *gantzarekin* eta bero, edo *urinarekin* eta hotzik egin daiteke.

Erabiltzen den landarea berdina sabuka hosto, edo Intsusa beltza, *Sambucus nigra* L., zeinek kimika gai hauexek dauzkan: taninoa, alkaloidea, potasio nitra-toa eta muzilagoa, usain olioia, flabonikoak, C bitamina Azalmin erredura eta zornedun hanturetan, oraindik jendeentzat ere, erabilia da.

3.29. Atzaparretako mina**3.29.a. Baigorrikoa (26. zk. idazkian)*****Idiaren latoin³⁶⁴ eta aztaparretaco minen sendatceco erremedio***

Eritarçun hori arribatcen³⁶⁵ çayo idiari maicenic neguian eta guciz horman tra-baillatcen³⁶⁶ denian, non orduan baitiduri (.....)³⁶⁷ Idiari aztaparra lanceta çorrotz batez *picca dioçoçue*³⁶⁸ aphurbat barnazco³⁶⁹ eta guero *erre dioçoçue picco* hetan, arinqui gantçu *urin hurtuz*, senda arteraino.

3.29.b. Barkoxekoa (2I. zk. eskuizkribuan)***Idiac aztaparra edo achurhoingnin³⁷⁰ min dianian cer eguin behar den***

Ordian idiaren aztaparra lantceta batez *chehekatu* behar cioçu: aphurbat barna:

³⁶⁴ *latoin*: taloin hitzaren metatesia: orpoa.

³⁶⁵ *arribatcen*: arribatzen, heltzen, (jadanik gaskonismoa nafar-lapurteran sartua da).

³⁶⁶ *trabaillatcen*: lan egiten. Hitz hori XIX. mendean osoki galdu da.

³⁶⁷ Hutsunea denetan, ez Amikuzekoan "idiari behatza kanpora dohakola".

³⁶⁸ *picca dioçoçue*: ebaki iezaiozue.

³⁶⁹ *barnazco*: barnasko, apur bat sakon.

³⁷⁰ *achurhoingnin*: N-L. axiroinean (axiroina: abereen orpoa, taloia).

eta guero *erra* içoçu phiko houra: ahal beçain arhizky³⁷¹ eta guero *ourinez* freta³⁷² sendo arthio çoimbait egunez.

3.29.c. Garazikoa (29. zk. idazkian)

Idiaren taloin eta aztaparretaco minen sendatceco erremedioa

Eritasun sué(r)te hori idiari arribatcen çayo maicenic neguan; eta guciz horma eta carroïnetan³⁷³ travaillatcen denian non orduan baiciduri (.....)³⁷⁴ idiari aztaparra lanceta chorroix (sic) batez *sacrificatuco* dioçue aphur bat barnascotho³⁷⁵ eta guero *erre* dioçaçue pico hetan arinquí eta gantzuz *urin hurtuz* senda arteraino.

3.29.d. Amikuzekoa (29. zk. eskuizkribuan)

Idiaren aztal eta behatzetako minen erremedioa

Eritazün suerte hori idiari jiten³⁷⁶ zaio ardura³⁷⁷ negian eta güziz karroin eta izotza³⁷⁸ denian travaillatzen direnien, nun ordian idüri baitu idiari behatza kanpora dohakola, fazoin hortan ikusten düzienian, idiaren aztaparra lanzeta zorrotz batez *pikatüko* diozüe aphur barnaskotto eta gero ere piko hetan arhinkiz(....)³⁷⁹ *urin hurtüz* sendo artino.

³⁷¹ *arbizky*: arinki.

³⁷² *freta*: igurtzi.

³⁷³ *carroïnetan*: karroinetan, gaineratzen du *horma* hitzari Garazikoak, ezen herri horretan *horma* ez baitarabilte hitz egitean.

³⁷⁴ Baigorrikoan bezala hutsune bat ezin irakurriz, testu berdina dutelako Baigorrikoak eta Garazikoak. Amikuzekoak "kanpora dohakola" ematen digu. Barkoxekoak ez du aipatzen.

³⁷⁵ *barnascotho*: barnaskotto, sakontto ("t"bustiaren okzitaniar grafia "th").

³⁷⁶ *jiten*: zubereraz bezala, "etortzen".

³⁷⁷ *ardüra*: maiz.

³⁷⁸ *Horma* hitza ez darabil: *karroin* eta *izotz* idatziko zuen zuberotarrak zati hau kopiatu balu.

³⁷⁹ Zauriaren erretzea ez du aipatzen Amikuzekoak; Barkoxekoak «erra içoçu».

Albaitaritzaren balorazioa*Gaitzaren azalpena*

Hemen esaten zaigu noiz, nola neguan eta hormarekin mina heldu den. Zuberotarrak, ordea, hasieran zuen ohitura lasterra berrituz ez du gaitzaren ezaugarria kopiatu, errezeta baizik. Hain urri ahal zegoen paper aldetik ala gaitzen ezaugarriak aski zekizkien, kopiatzen denborarik ez galtzeko? Ez du idatzi.

Sendabidea

Itxaron eta igurika zitekeen hemen ur hotzaren erabilera edota enplastu batena, baina atzaparraren kongestioa ekiditeko edota kentzeko *ebakuntza* artamendatzen da, orain egiten den moduan. Gero, *urina* zaurian sartzea nahikoa zenetz eulien eta kutsaduren urruntzeko? Oraingo artzainek eta abeltzainek *batzartekoa* denean mina karrakatzen dute eta “*olio jinebrea*” orre-olioa, ipintzen eulien urruntzeko.

Neronek, duela hogeita hamar urte, behiak lanean zebiltzanean holako zerak ezagutu ditut errepideko errepidean atzaparra suharturik, batzuetan gaizki ferratuak zirelako, ferra galdu zutelako ere bai.

3.30. Atzapar kolpatua**3.30.a. Baigorrikoa (27. zk. idazkian)*****Idiaren berce façoinez aztaparra colpatua denean nola sendatu behar den***

Lehenbicoric gauça eguin behar dena da aztapar hura fundameneraino unguy *garbitcia*, eta guero lot goicetan eta arraxetan *urin hurtuz ezcoarequin*³⁸⁰ nahassiric bors³⁸¹ edo sei egunez continatu (sic) duçuenen, guero, berce harenberce egunez³⁸² mainatuco duçue *arnoz* edo *minagrez ezti* guti batequin nahassiric.

³⁸⁰ *ezcoarequin*: ezkoarekin, argizariarekin.

³⁸¹ *bors*: bost.

³⁸² *berce haren berce*: bertze hainbertze, hainbeste.

3.30.b. Barkoxekoa (23. zk. eskuizkribuan)

Idiac achur hoigna colpa colphaturic edo amurraturic*³⁸³ (4) *dianian: cer eguin behar den

Lehenic behar diçu hoing harc onxa *chahatu*³⁸⁴ fundamenila drano³⁸⁵: eta guero *ourina cyhouareky*³⁸⁶ lahastekaturic³⁸⁷: goiz arraxetan onxa fretatu bost edo sey egunez: eta orano continia içoçu *ardouz* edo *vignagrez: ezty* gutibateky lahastekaturic sendo arthio.

Albaitaritzaren balorazioa

Gaitzaren azalpena

Hemen ez gaude aurreko errezetan legez berodura edo suhar batekin, baina kontusio batzuekin eta zuberotarrak gaineratzen du kolpeen artean zainartatua, zaintiratua baino zerbait latzagoa dena, urradurak eta hezur zauriak susmarazten dituelako.

Sendabidea

Lehenik *garbitzea* beharrezkoa da, ikusteko ea zer dagoen lohi eta gorotz hondakinen azpian eta zauria baldin bada ikus dadin; gero *gizenki bigun eta gogor* nahasian minaren emagarri da eta *eztia ardo* eta *ozpinekin* nahasirik hobeki sartzen dira larru azpira.

Ikusten denez lan hau ez da osoki Constantinopolitana edo beste botiken saltzeko egina bakarrik. Hemen edozein baserritarrek eskupean eduki dezakeen sendagaiak dira, sendagailu bakun baten egiteko. Orain erosten diren gehienen osakuntza ikusita gure osagai zaharrak aurki genitzake.

³⁸³ *amurraturic*: anburaturik, zainartatua (luxación).

³⁸⁴ *onxa chabatu*: ontsa xahutu, ondo garbitu.

³⁸⁵ *fundamenila drano*: hondoraino (*drano* XVIII. mendean zubereraz galdu atzizki zaharra).

³⁸⁶ *cyhouareky*: (ez da *ezkoa* hemen) ardien bilgorraren antzekoa.

³⁸⁷ *lahastekaturic*: XVIII. mendeko zuberera, orain «nahastekaturik».

3.3I. *Barrabil hantuak*

3.3I.a. Baigorrikoa (28. zk. idazkian)

Idiac barrabillac hantuac dituenean cer eguin behar den

Harçaçue *clera*³⁸⁸ guti bat eta hartaz *vinagrearequin* eguiçue liga edo ahia³⁸⁹ eta guero gantçu edo phereca hantura duen lekhian. Idorcen³⁹⁰ denian lokharri hori lothuco dioçue *gans guissaz* (sic), berce batçuec diote *photço* baten *minaz* azqui (sic) dela perecatcia, berehala hantura gucien eramateco.

3.3I.b. Barkoxekoa (23. zk. eskuizkribuan)

Idiac barabillac hanturic dutianian cer eguin behar den

Har eçaçu *clera* gutibat eta houra *vignagriareky* nahas: eta eguin emplastu edo drogabat eta guero harez *bereka*³⁹¹ içoçu hankura: eta idortu denian: bereca içoçu berriz; *gantz gueçaz*³⁹²: goiz: eta arraxetan: edo orobat *ppotxo* baten *behassunaz*³⁹³ edo *ourde minez*³⁹⁴ bereka içoçu: laster sendoren cioçu..

3.3I.c. Garazikoa (3I. zk. eskuizkribuan)

Idiac barrabilac hantuac dituenian cer eguin behar den

Har çaçue *clera* guti bat eta hartaz *minagriarequin* eguiçue liga edo ahia, eta guero gantz u eta pereca hantura duen lekhuan. Idortcen denian gantçuce hori gantzutu-co dioçue *gantz guessaz* goicetan eta arraxetan. Berce batçuec badiote *hortxo* baten *behassunaz* edo *minaz* asqui dela gantçutcia beheala hantura gucie eramateco.

³⁸⁸ *clera*: klariona, kare zuria.

³⁸⁹ *liga edo abia*: biak oreka baino likidoxeago.

³⁹⁰ *idorcen*: idortzen, lehortzen.

³⁹¹ *bereka*: fereka, igurtzi.

³⁹² *gantz gezaz*: gatzik gabeko gantza.

³⁹³ *ppotxo baten behassunaz*: zakur txiki baten behazunaz.

³⁹⁴ *ourde minez*: urde min, txerri min (“min”, “gibelmin”: *vesícula*, “behazun”: *biel* zubereraz bereizten dira).

3.3I.d. Amikuzekoa (3I. zk.)

Idiak barabilak hantiak ditienian

Harzazie *klera* güti bat eta hartaz *ozpinarekin* egizie liga edo orhea eta gero gantzü hantüra dien lekhian idortzen denian gantzütze hori gantzütüko düzie *gantz gezaz* goiz arratsetan.

Bertze batzük badiote *hor* baten *minaz* aski dela perekatzia hantüra hura be-rehala eramaiteko.

Albaitaritzaren balorazioa

Gaitzaren azalpena

Gaitzaren deskribapenik ez dago, ez beharrik ere.

Sendagailuak

Lehen erremedioa *Klera* eta *ozpina* nahasian ipiniz lehenak bere *azidoa* dakar antiseptikoa dena, bigarren enplastu bat egiten airetik eta euliengandik mina babesten duena.

Bigarren erremedioa *gantz gezazkoa*, eztigarri eta babeslea.

Hirugarren erremedioa ez zaigu artamendatzen “bertze batzuek” dio idazleak, ez dakit nolako eragina izan dezakeen *bebazunak* nahiz eta behazun gatzak likidoen tentsioa jaisten duen. Gero zer gibelman mota den ez da beti argi Baigorrikoak *potzo* ulertu du “zakur handi” bezala bere mintzairatik, baina Garazikoa *hortxo* “zakur txiki” hala delako berean, Amikuzekoa, *hor*, “zakur” Barkoxek *urdamina*, *txerriarena* gaineratu, (txakurrak baino maizago hiltzen di-relako ez ote?).

3.32. Adar arraildua

3.32.a. Baigorrikoa (29. zk. idazkian)

Idiaren adarra arrailatua denean cer eguin behar den

Idiac adarra erdiratua duenean, frota dioçoque adarra *minagrez gatz* eta *olio* guti batequin, batean; eta guero phereca çoque *urin hurtuz arrachina* guti batequin nahassiric eta continua pherecatce hori cazpi çorci egunez.

3.32.b. Barkoxekoa (24. zk. eskuizkribuan)

Idiac adarra hausten dianian: cer eguin behar den

Ordian behar du *vignagrez*: *gatcez* eta *ollioz* onxa freta içoçu adar lekha: eta guero *gantz ourinez*: eta *errecignaz*: algarreky lahastekaturic harez onxa freta içoçu sazpy egunez goiz: ar(r)ax oroz.

3.32.c. Garazikoa (32. zk. eskuizkribuan)

Idiaren adarra erdiratua duenean frotta içoçie bere adarra *minagre*, *gatz* eta *olio* guti batequin batian, eta guero *gantzu* edo *pereca* içoçie *urin hurtuz arrachina* guti batequin eta continua *gantcutce* hori *cazpi* egunez.

3.32.d. Amikuzekoa (32. zk. eskuizkribuan)

Idiak adarra erdiratia dianian

Frota zakozie *min(a)gre gatz* eta *olio* güti batekin eta gero *pereca* ezakozie *urin hurtüz arrasiña* guti batekin nahasirik eta kontinüa *perekatü* hori *zazpi* egünez.

Albaitaritzaren balorazioa

Gaitzaren azalpena

Batzuentzat hautsia besteentzat arraildua (pitzatua)

Sendaqailuak

Ozpinak, garbitzen, *gatzak* usteldura urruntzen eta *errexinak* olio ukenduari trinkotasuna ematen.

3.33. *Begi bandituak*

3.33.a. Baigorrikoa (30. zk. eskuizkribuan)

Idiac beguiac hantua dituenean cer eguin behar den

Beguiac hantua dituenean; eguiçue ahia *ogui nostrayaren irinez* eta *ezti* guti batequin, batean; eta guero hartaz lot *goicetan* eta *arraxetan*; orduan estia dela causa

uliec³⁹⁵ khecha baliçaquete debecatuco duçue accident hortaric baldin *alastrenaz*³⁹⁶ begui inguruac pherecatzen baitiotçue

3.33.b. Barkoxekoa (25. zk. eskuizkribuan)

Idiec beguiac hanturic dutienian: cer eguin behar den

Egüiçu emplastia *garagar irinez* eta *ezty* gutibateky eta guero harez onxa bereka goiz: arraxetan. Bena noula eztia dela causa ulliec fatigua beliroye³⁹⁷ (3): bereka içoçu beguy inguruniac *aleatrenaz*: edo *ourinez*.. goiz oroz...

3.33.c. Garazikoa (33. zk. eskuizkribuan)

Idiac beguiac hantuac dituenian...

Egüiçue ahia *ogui nostrayaren* irinez eta *ezti* guti batez eta guero lot goicetan eta arraxtetan. Ordian nola eztia dela causa, uliec khecha baileçaquete debecatuco dioçue accident hortaric baldin eta *alcaquerenaz* (sic) begui inguriac perecatcen baitoçaçue (sic)

3.33.d. Amikuzekoa³⁹⁸

Albaitaritzaren balorazioa

Gaitzaren azalpena

Begi handitua: ez zaigu esaten baina konjuntibitisa izan daiteke errautsak emanak edo euliek emandako gaitz bat, baina bilduma horren xedeak ez ziren hain handiak, lehenbailehen zerbait emateko egina baizik.

Sendagailuak

Sendagailu batzuen grafiak erakusten digu ez zeukatela ez bata ez bes-

³⁹⁵ *uliek*: euliek.

³⁹⁶ *alastrenaz* (*aleatrenaz*, *alcaquerenaz*): alkitranaz?

³⁹⁷ *beliroye*: bailiroie, bailezakete.

³⁹⁸ Ez da inon agertzen.

teek irarritako liburu bat eskuetan, horregatik ezagutzen ez zuten droga baten izenaren aurrean, ezin asmatuz zer zen, batzuk (Ez da harrigarri “c” eta “e” letrak nahastea, horregatik hala-hola zerbait kopiatzen zuten).

Baigorrikoak: *alastrena*.

Barkoxekoak: *aleatrena* eta gero *alcitrena*.

Garazikoak: *alcaquerenaz*.

Denen artean eta eskuz idatziz neronek *alkaterna* edo *alkatrena* irakurri dut lapurtar hitza dena “brea, resina” esateko. Gero *alcaquerena* idatzi duelarik tes-tuan Garazikoak aurkibidean zuzen ematen du *alcitrena* euskal forma zaharra.

Orain “ipuruaren/orrearen olioia ” erabiltzen dute abeltzainek, frantsesez “huile de Cade” eta euskaraz “olio jinebrea” dena.

Beste sendagaien artean *garaġar irina* (*Hordeum vulgare* (L.) enplatu egiteko egokia da eta *eztia* begiaren eztitzeko. Horrelako sendagaiak dendara joan gabe laborariak etxean eduki ditzake.

3.34. *Zuria begian*

3.34.a. Baigorrikoa (31. zk. idazkian)

Idiac beguian churia duenean cer eguin behar den

Noiz eta ere eġagutcen baitioċue beguian churia duella, (...) hartaracotz lot eċaċue goiz arraxetan beguia berce batċuec baliatcen dire *balea gaznaren* (sic) *erhau-txaz*.

3.34.b. Barkoxekoa (26. zk. eskuizkribuan)

Idiac beguian chouria dienian: cer eguin behar den

Har eċaċu *sel amouniac* guti bat: eta *ezty* gutibat: eta guero lahas algarrek: eta hartċaz: onxa bereka: edo bestela orobat: *gazna ċaharraren cizkaz* edo herhau-xaz achalekotic.

3.34.c. Garazikoa (34. zk. eskuizkribuan)

Idiac beguian churia duenian cer eguin behar den

Noiz ere eċagutcen baitioċue beguian churia duela, harċaċue *sel armonia(c)* guti

bat eta nahas *ezti* pusca batequin guero hartaz lot çaqué goiz arratxetan beguiac. Berce batçuec baliatcen dire *balea garrharen* (sic) herrauthez.

3.34.d. Amikuzekoa³⁹⁹

Albaitaritzaren balorazioa

Gaitzaren azalpena

Kornearen gaitza dirudi. Gaitzak idia itsutu lezake.

Sendagailuak.

I Sel ammoniac (amouniac, armoniac): amoniakoren kloruroa da kolirio latza baina azaleko zuria bere kaustikotasunez higa dezake pitin bat.

2. *Balearen gans errautsa* izan zitekeen. Baigorriin “*balearen gasna*” bilakatu da, Garazin “*balearen garrba?*” Zuberoan itsasotik urrunago balea kendu da “*gazna zabarraren zizka edo herbautsa*”.

Nire ustez, balearen burutik Lapurdin ateratzen zuten *spermaceti* delakoa da, sendagai hartzaile.

3.35. *Begi negartia*

3.35.a. Baigorrikoa (32. zk. idazkian)

Idi begui nigartiac nola behar diren sendatu

Idiari nigarra darionian eguiçue ahia *ogui nostrayaren irinez* eta hartaz lot goice-tan eta arraxetan edo ezperen hiraquit çaçue *mairi arrosen erruac*⁴⁰⁰ (1) hura eta *estiarequin* batian; guero hartaz maiz lot idiaren beguia. Berce batçuec baliatcen dire *thutiaz*⁴⁰¹ (2) *vitriolaz hur arrosatuarequin*⁴⁰² (3) batean....

³⁹⁹ Ez da kopiatu.

⁴⁰⁰ *mairu-arrosen erruac*: mairu arrosen erroak, basa arrosen erroak.

⁴⁰¹ *thutia*: tuthia (Nb), dutia (L) (frantsesez *du thé*) “tea”.

⁴⁰² *vitriola, ur arrosatuarequin*: zink sulfatoa eta arrosa ura.

3.35.b. Barkoxekoa (27. zk. eskuizkribuan)

Idiec beguietan nigar dienan: cer eguin behar den

Eguiçu emplastia garagararen irinaz: eta harez bereca içoçu onxa goiz arraxetan eta bestela *bassa-arrosaren* çaingna: ardou chourian herakitüric: eta ezty eçariric bereca içoçu.

3.35.c. Garazikoa (35. zk. eskuizkribuan)

Idi begui nigartuac nola sendatu behar dien

Idiari nigarra darionian eguiçue ahia, *ogui nostroiren* irinez eta hartaz lot goicetan eta arraxetan, edo ezperen iraqit çaçue *mairu arrosaren* erroac; *ura* eta *eztiare-quin* batian. Guero hartaz maiz lot idiaren beguia. Berce batcuc baliatcen dire tuthiaren *vitriolaz* (sic) *ur arrosatuarequin* batian.

Albaitaritzaren balorazioa

Gaitzaren azalpena

Gaitz horrek kausa franko izan dezake hala nola konjuntibitisa edo *betzain mina*.

Sendagailua

Leben sendagaia. *Garagar irina*: haren ura oraindik eztigarri, lasaigarri bezala erabilia da.

Bigarren sendagaia. Mairu-arrosa, basa-arrosa edo arkakaratsa *Rosa canina* L. Lorea, fruta, erroa erabil daitezke A, B, C, E, K, PP, bitaminak, taninoa, pektina dauka. Erroa orbantzeko sendagailuetan sartzen da, baita erreduren ematzeko ere. Beharbada zakur ausikientzat izatetik izena heldu zaio erabileratik ala erabileraz izenetik? Zuberotarrak bere kabuz ez du dekokzioa egiten *alkolata* baino, *ardo txuria* hartzailatzat aukeratuz.

Hirugarren sendagaia Bitriola. Horrek ez du ezer ikusteko frantsesez “*vitriol*” izenez ezagutzen dena, azido sulfuriko azkarrena eta jendeen aurpegia desitxuratzeko erabiltzen dena, ezen Europa zaharrean sulfatoei halaxe esaten zitzairen eta gurea *Zinkaren sulfatoa* da, bakterizidua larru eta begi erremediatan ez du aspaldi erabilia (neronek duela 35 urte).

Denetara bere garaiko kolirio ona zen, gurean beharbada hobeki egin genezake eta sendagailu ez hain latza baina denbora da hautatzailea.

3.36. *Zaragarra*

3.36.a. Baigorrikoa (33. zk. idazkian)

Idiari çaragarra khentceco

Hareçaçu ahur bat *khedarra*⁴⁰³, ahur erdi bat *soffre* eta laur *baratchuri* buru; guero hec elgarrequin chehatu direnean frota çaçue⁴⁰⁴ idia bizpahirur aldiz edo ezperen har eçaçue *idiaren behassun* bat eta hartan barna emoçue bi unza *sofre* lore; guero ungui nahassi dituçunean, gantçu eta phereca çaçue idia hirur goicez eta arraxez, eta finean *antçara* (ourinez) edo *ganz gueçaz*.

3.36.b. Barkoxekoa (28. zk. eskuizkribuan)

Idiac thigna dianian: cer eguin behar den..

Har eçaçu: ahur bat *khedarre* eta ahur erdibat *soffre* lily: eta laur *baratchoury* buru eta hourac algarreky onxa chehekatu: freta içoçu idiari *thigna*⁴⁰⁵ dian lekhia hirour goitzcez (sic): eta egun hetan boustatcetic beguira.

3.36.c. Garazikoa (36. zk. eskuizkribuan)

Idiaren zaragarra edo hasteria khentceco

Har çaçue ahur bat *chim(inia)co khedarre*; ahur e(r)di bat *sofre* eta lau *baratchuri* buru guero elgarrequin chehaturic frotta çaçue idia.

3.36.d. Amikuzekoan (34. zk. eskuizkribuan)⁴⁰⁶

Idiari zaragarra khentzek

Harzazie ahur bat xemineako khidarre, ahur erdi bat *sofre* laur *baratxuri* buru, gero hek elgarrekin xehatü direnian frota zazie idia bizpahirur aldiz. Edo berzela

⁴⁰³ *khedar*: kedarra, tximinia kedarra.

⁴⁰⁴ *frota çaçue*: (galizismoa), igurtzi ezazue.

⁴⁰⁵ *thigna*: tiña gatzelaniaz, zuberotar kopiatzaileak, zaragarra bezala, gaizki ulertua.

⁴⁰⁶ Bitartean bi galdu ditu kopiatzaileak.

harzazie idiaren belhatxün bat eta hartan barna emozie bi onza (sofre) lili gero ontsa nahasi düzienian ganza zazie idia hirur goiz eta arratsez eta finian anzara urinez eta ganz gezaz.

Albaitaritzaren balorazioa

Gaitza

Hemen ez idatzi arren, berresan behar da *Sarcoptes scabiei* izeneko akaro bat larru barruan sartuz etortzen dela zaragarra izugarriko hatza, hazteria ematen duena, bere galeriak dermoan egiten baititu.

Sendagailuak

Zaragar gaitza azaleko eritasuna denaz gain errezeta hauetan bistan da larruminentzat, azaleko gaitzentzat ezagutzen diren sendagai gehienak agertuko direla.

1. *Sufrea*. Zaragarraren zomorroaren hiltzeko oinarrizko sendagaia da eta beste kutsadurentzat antiseptikoa⁴⁰⁷.
2. *Gedarra*. Kedarra. Honek kreosota dauka eta beste brea batzuk inzektizidak direnak.
3. *Baratxuria*. *Allium sativum* L. Alizinaren, bitaminengatik bakterizidio zaharrena da⁴⁰⁸.
4. *Idiaren behazunaren* erabilera ez dugu ondo ikusten zertatik datorren⁴⁰⁹.
5. *Gantzaren* erabilera arrunta da errezeta ukendua delako.

Zuberotarrak zaragarra ez du ondo ulertu, ezkabiarekin (tiña) nahasi du. Azken hau urdindura bat da ile eta biloetan sartzen dena eta jendea burusoil dezakeena, behin-behineko, edo behin betirako, motaren arabera.

⁴⁰⁷ Orain idien zaragarra sulfuroekin sendatzen da. Gazte garaian, eta efektu onarekin, jendeak zaragarretik sendatu ditut Ipar Afrikan (1959-1960) zurdazko eskularru eta sufreakin azala igurtziz. Kedarrik ez nerabilen aski beltzaran ziren ni gabe.

⁴⁰⁸ *Legen beltzaren* eta *izurriaren* kasuetan sendagileek baratxuri mozorroa sudur-ahoen gainean ipintzen zuten.

⁴⁰⁹ Garaziko eta Barkoxeko errezetek ez diote kasurik eman.

3.37. *Ultzera*

3.37.a. Baigorrikoa (34. zk. idazkian)

Idiaren ulcera edo larrudura sendatceco erremedioa

Hartaracotz har eçaçue *kalitx*⁴¹⁰ ungui ontuac eta idortuac⁴¹¹ eta hec passa zethabexi⁴¹² batian; guero erraux hortaz balia çaitetzte ulcera eta larrudura gucien sendatceco.

3.37.b. Barkoxekoa (29. zk. eskuizkribuan)

Idiac aldura (sic)edo larrudura dianian: cer eguin behar den haren sendo erazteko

Har eçaçu *calitx* onxa hountietaric: eta i(d)ortietaric: eta hourac cetabian onxa igaren (sic) ondouan: haren erhauxaz onxa fretatcia.

3.37.c. Garazikoa (39. zk. eskuizkribuan)

Idiaren larruduren sendatcecotz cer eguin behar den

Hartaracotz har eçaçue *calitz* ungui ondoa (sic) eta idortuac, eta hec passa cetaché batetaric guero herrauts hartas balia çaiteste ulcera eta larrudura gucien sendatcecotz.

3.37.d. Amikuzekoa (35. zk. eskuizkribuan)

Idiaren ulzera edo larrudurez

Hartako harzazue *kalits* ongi onduak eta idortuak eta hek iragan zethabe batian gero erhauts hartaz balia zaitetzte ülzera edo larrüdüra güzien sendatzeko.

⁴¹⁰ *kalitx*: haritzaren kalitxa, garitxa edo kuku-sagarra.

⁴¹¹ *ungui onduac eta idortuac*: ongi ondu eta idortuak, ongi umotu eta lehortuak.

⁴¹² *zethabexi*: zethabe honela dio Baigorrikoak eta besteek ere bai Garazikoak cetatche, alta da-kidanez zetabe: gari irinarentzat “gari bahe”; zetatxe, zetatxu: arto irinarentzat (gazt. cedazo) “artabahe”.

Albaitaritzaren balorazioa*Gaitzaren azalpena*

Ez zaigu esaten ezer gaitzaz, bere izena larrudura dela Iparraldean eta beharbada ez edozein larru urradura.

Sendagailua

Kalitxa edo Garitxa. Zoozezidia da esan nahi baitu zomorro baten koskak ausikiak landareari eragin dion tumorea dela. Haritzaren orrietan, hostoetan gertatzen dena da hemen erabilia. Kanika baten neurria eta itxura dauka, berde eta gorrixka berrian, marroi heldu denean. Lehortu ondoren oso arina da. Gehiegi beltzarandu baino lehen bildu behar da eta errautsa erabili. Edozein haritzek eman dezake (*Quercus sp.* batek).

Kalitxaren errautsa *taninoetan* aberatsenetatik da, bizkorgarria da, antisep-tikoa, suhar (hantura) eta sukar kentzailea. Gaurko sendagailu latzen lekuan, bere denboran, eragina izan behar zuen.

Bitxi da hemen gantzik ez agertzea, baina agian larruduretan zornea da-goelako ez da beharrik, alderantziz, sikatzeak ez dio minari gaitzik egingo, bustidurak zernahi plaga erakar bailiezaioke zaurietara.

3.38. Sugearen eta zakurraren ausikiak**3.38.a. Baigorrikoa (35. zk. idazkian)*****Sugearen aussiquien eta photço errabiatuaren erremedioa***

Senti duçuenian idiac poçoinstatuac direla, asqui duçue pherecacia aussiquia den lekhan *olio escorpionaz*⁴¹³ edo esperen har eçaçue lau untça *salboin çahar*⁴¹⁴, guero hurt⁴¹⁵ laurden bat *minagretan*, hetaz maiz garbi eçaçue aussiquiac diren lekhan. Façoin bera⁴¹⁶ eguin deçaqueçue *mirra arnoarequin* hiraquituric, bai eta

⁴¹³ *olio escorpionaz*: olio jinebrea, orre-olioz.

⁴¹⁴ *salboin çaharra*: xaboi zaharra.

⁴¹⁵ *hurt*: urtu.

⁴¹⁶ *façoin bera*: tankera bera.

halaber *leiçarrarequin* eta finean *ceinarhurdon* edo *pateo arrosarequin*⁴¹⁷, *arnuan* edo *minagrean* hiraquituric.

3.38.b. Barkoxekoa (30. k. eskuidazkian)

Idiac sugue oussoukien edo phoçou⁴¹⁸ ***errabiatiaren contre: cer eguin behar den*** Bereka içoçu oussouky houra: *olio genebrez*⁴¹⁹; edo bestela har eçaçu: laur ontça *sablou çaharretic*; eta guero pintou bat *vinagretan* houra onxa hourt eracy eta harez onxa chahat içoçu⁴²⁰ onxa oussoukia hirourretan (sic)

3.38.c. Garazikoa (40. zk. eskuizkribuan)

Suguiaren eta hor errabiatuen ausiquien erremedioa

Sendi duçuenian idiac poçoindatua(c) direla sugue edo hor errabiatuen aussiquias asqui duçue gantçucea aussiquia den lekhuan *olio escorpiona* edo esperen har çaçue laur untça *chabon çahar* guero ur laurden bat *minagretan*, hartaz ardura garbi çaçue aussiquia diren lekuan. Façoin bera eguin deçaqueçue *mirra arnoarequin* eta finean *cinarthodon* (sic) potso arrosarequin arnotan edo minagretan iraquituric.

3.38.d. Amikuzekoa (36. zk. eskuizkribuan)

Sugiaren ausikien eta hor errabiatien erremedioa

Seindi düzienian idiak pozoindatiak direla sügue edo hor errabiatien ausikiz, aski düzie ganzützia ausikia den lekhian *olio escorpionaz*.

Edo berzela harzazie laur onza *salboin zahar* gero hurt laurden bat *ozpinekin*, hartaz garbi zakozie ardüra ausikiak diren lekhian, fazoin berian egin dirozie *mirha arnoarekin* erakitürük baita halaber lizarrarekin eta finian *cinhorrodon*, *horrosarekin* arnotan edo *ozpinian* erakitürük.

⁴¹⁷ *ceinarhurdon*: grezierazko izen aldatuxea, pateo arrosa, potzo arrosa.

⁴¹⁸ *phoçou*: potxo zuberotarrak pozoi ulertu du.

⁴¹⁹ *olio genebre*: gaurko izenez, gaurko erabileran.

⁴²⁰ *onxa chahat içoçu*: ontsa xahu iezaiozu, ondo garbi iezaiozu.

Albaitaritzaren balorazioa

Gaitzaren azalpena

Nola ezagutzen ahal den -ez bada ikusi- idi bat sugeaz edota zakurrak ausikia izan dela ez zaigu esaten.

Sendagailuak.

Naski, bazekiten ez zutela amorruren (errabiaren) edo suge edenaren aurkako erremediorik, baina zorionez zakur guztiak ez ziren amorratuak ez suge guztiak idien hiltzeko pozoiez aski kargatuak, beraz ikus dezagun zer eskaintza dagoen.

1. Zauriaren garbitzea xaboi zahar, ur eta ozpinekin ona da, haginkadetan sartzen direnak larrupean, zikinkeriak, mikrobioak direlako.
2. Olio eskorpion edo olio genebre, orre-olioa ongi da zauritik eulien urruntzeko, eta orain ere aski erabilia.
3. Errezetaren bigarren zatian garbitasun eta txukuntasun xedeetatik urrunduz zauriaren sendatzeko sendagaiak daude:
 - a. *Rosa canina Cinnorodon* (potxo arrosa, basa arrosa, hor arrosa, arka-karatsa, mairu-arrosa) Landare horrek badu osagai asko orbaintzen laguntzeko *pektina, taninoa, A, B, C, E, K, PP* bitaminak Alkoholean edo ozpinean eman berdin du osagaien gorputzean sartzea errazten duela-ko hautatu isurkariak. *Similia similibus*, ez ote da zakurraren ausikia zakurraren zerbaitekin sendatu behar? Hala balitz enpirismo zaharraren aztarna bat genuke.
 - b. Lizarra *Fraxinus excelsior*. Glukosidoa, erretxina, azido malikoa, taninoa, mea gatza dauka. Diuretiko da, baita argaltzeko erabileraz kanpo kolesterola kentzeko eta arnasa hobetzeko ere baliatua. Gure mitologia-tik datorren zuhaitza (lizar makila, Lizar izeneko hiriak, lizarraren mututasuna, lizarra ogi labekadaren egiteko) bere hostoengatik sendakuntzan erabilia da, baina amorrua senda lezakeelako ustea, ustekeria da.
 - c. Mira, Mirha edo *Commiphora sp. L. / Balsamodendron mirrha* (Nees) erretxina da, baina etxe guztietan ez zegoena, dendetan baizik. Bere eraginak: bizkorgarri eta antiespasmotikoa; benetako ausiki pozoitsu-tuetan eragina egiteko opio apur bat ipintzen omen zioten, hemen aipatzen ez dena, jakina.

Sugeen ausikiarentzat sendagailu baliagarriak ziren horiek eta sendatzen ziren idiak hortaz, zakur amorratuaren ausikiaz, ordea, nekez.

3.39. *Azazkala erortzen*

3.39.a. Baigorrikoa (36. zk. idazkian)

Idiari açazquala erorcen cayonean cer eguin behar den

Har eçaçue *turmentina*⁴²¹ *ezco horia*⁴²² eta *eztia*, bacoitchetiç unça bana, eta hec elgarrequin hurtu direnian, asqui duçue pherecatcia idiaren hoina⁴²³ hamabors⁴²⁴ egunez eta guero *arnoz eztiarequin* nahassiric edo ezperen lot eçaçue idia cataplasma hortaz, façoïn huntan, hartaracotz har eçaçue *aloez-matic*⁴²⁵ eta *alun*, unça bana eta ungui cheatu direnian eguiçue cataplasma *arrolce churingoarequin*⁴²⁶ batean.

3.39.b. Barkoxekoa (32. zk. eskuizkribuan)

Idiari azazkuliac erorten çaitçonian cer eguin behar den sendotceko

Har eçaçu *thurmentina ezko hollity*⁴²⁷ (7): eta *ezty* ontça bedera: eta hourac algarreky hour eracy: dutuçunian fitez eçar içoçu idiary aztaparrian.

3.39.c. Garazikoa⁴²⁸

3.39.d. Amikuzekoa (37. zk. eskuizkribuan)

Idiaren behatza erortzen zaionean

Harzazie *tormentina*, *ezkohoria*, eta *eztia* bakoitzetik onza bana eta hek elgarrekin

⁴²¹ *turmentina*: trementina (Baionako salpen handia).

⁴²² *ezco horia*: argizari horia (zuria ere badelako).

⁴²³ *hoina*: oina.

⁴²⁴ *hamabors*: hamabost (Zuberoakoan eta Amikuzekoan ere «hamabost»).

⁴²⁵ *aloez -matic*: *Aloes ferox* Mill.

⁴²⁶ *arrolce churingoa*: arrautzaren zuringoa.

⁴²⁷ *ezko hollity*: ezko horitik. Aspaldian zuberotarrek “holli” txikigarria erabiliz “hori” kolorearen izen zaharra galdu dute.

⁴²⁸ Ez dago.

hurtü direnian ganzü ezazie idiaren hoina hamabost egünez eta gero arnoz eztiarekin nahasirik edo berzela lotezazie idia kataplasma fazoin huntakuaz hartako harzazie *aloes martik* eta *alun* onza bana hek ontsa xehatü direnian egizü kataplasma arrolze xuringuarekin batian.

Albaitaritzaz baloratzea

1. *Lehenbiziko sendagailua*. Trementina, argizari horia eta eztia.

a. *Trementina*, Erdi Aroan hasita saltzen da, *turmentina* izenarekin erretxinatik atera olioia da eta eragin horiek izan ditzake: errebultsiboa, antiseptikoa jendeentzat ere. Oraindik erabilia da kanpo sendagai eta barne sendagai legean, ez bakarrik ez tul pastilletan. Antzina fama zeukan mina kanpora atera zezakeelako.

b. *Ezko horiak* ematen dio enplastuari loditasuna.

2. *Bigarren sendagailua: kataplasma*

Lehena hamabost egunez egin ondoren hau litzateke sendagarriena eta sendatzen zuena ezen.

a. *Aloes martic* edo *Aloe Ferox Mill.* da, antrakena heterosidoak dauzkana hala nola aloina orbaintzeko sendagai hautua. Hegoafrikatik zetorren eta dator. Landare honen sapa gogor eta beltz bilakatzen da eta forma honetan sendagailugintzan erabilia da, gaur.

Alun edo aluminioa, *potasio eta aluminio sulfatoa* da. Eragin fisikoa dauka, gogortzaile eta zail egilea da, beraz azazkal berri baten gogortzeko egokia.

Arrautza zuringoa sendagailu hartzailea da, neutroa da.

3.40. *Liztor eta mandeulien ausikiak*

3.40.a. Baigorrikoa (37. zk. idazkian)

Idiari leiçorren eta mandulien aussiquien contra cer eguin behar den

Leiçorrec manduli edo cembait berce uliec aussiquitcen tustenian asqui duçue *claira* edo *cerussa* guti bat *hurian* trempatcia eta liga hartaz eguinan bietan guero idia hartaz goicetan eta arraxetan lotcia.

3.40.b. Barkoxekoa⁴²⁹

3.40.c. Garazikoa (40. zk. eskuizkribuan)

Leissorren eta mandoulien contra cer eguin behar den

Leissorrec eta mando uliec edo cembait berce uliec aussiquitcen tustenian asqui duçue *clera cerusa* guti bat *urean* trempatcea eta guero aussiquiac egunean biguetan lotcea.

3.40.d. Amikuzekoa (38. zk. eskuizkribuan)

Listorren eta mandulien ausikien kontre

Aski düzie *klera* edo *cerusa* guti bat *hurian* trenpatzia eta gero liga hartaz egünian bietan lotzia

Albaitaritza baloratzea

Gaitzaren azalpena

Ez bada egiten ikusi, nola ezagutu ausikia, ez zaigu azaltzen?

Sendagailua

Zerusa *berun karbonatoa* denaz geroz pozoi bortitza da ahotik hartzen bada. Errezetak dio “guti bat” erabili behar dela, baina zauria handia ez denaz geroz zerusa ez da azalean asko sartuko.

3.4I. *Liztor, mandeuli eta eulitxoen urruntzeko erremedioa*

3.4I.a. Baigorrikoa (38. zk. idazkian)

Idia leiçorrec, manduliec, ez ulithec ez aussiquitceco erremedioa

Hartaracotz azqui duçue *malba osto* pusca bat ungui chehatcia eta *olio* guti batequin liga beçala eguitea; eta guero idia hartaz goicetan eta arraxetan pherecatcia...

⁴²⁹ Ez da inon irakurtzen.

3.4I.b. Barkoxekoa⁴³⁰

3.4I.c. Garazikoa (40. zk. eskuizkribuan)

Leissorrec mando ouliec es (sic) hain guti ouli chehec es aussiquitceco erremedioa
Hartaracotz asqui duçue *malba osto* pilica bat ungui chehatcea eta *olio* guti batequin ligatcea eta guero idia hartaz goicetan eta arraxetan perecatcea.

3.4I.d. Amikuzekoa (39. zk. eskuizkribuan)

Listorrek, manduliek ez hain guti uli xehek (ez) ausikitzeko
Hartakotz aski düzie *malba osto* aphür bat ontsa xehatzia eta *olio* güti batekin liga bezala egitia eta gero hartaz idia goiz arratsetan ganzützia.

Albaitaritzaren baloratzea

Minik gabe: Aurreko errezetetan euliek kosk egin ondorengo sendaketak ziren, hemen, berriz haginkatua izan ez dadinekoa. Gure gazte garaian behiak lanean erabiltzen zirenean, bizkarretik behera manta eta begietan “begieta-ko” oihal sareduna ipintzen genien ausikiak eta zitzak izan ez zitzen; baina lanetik kanpo beren buztanarekin ezinean, ira orrien artean, zuhaitz adarrei igurtziz eta lasterka baztertzen zituzten bizkarkin nazkagarriak.

Malba hostoaren erabilera. *Malva silvestris* L. Erro, hosto, lore lehorrak balia daitezke (itzalean lehortu eta eduki behar). Gehienetan begi minentzat eta ezturentzat erabilia da. Urruntzeko eta sendatzeko erabil daitezke landare horren usaina eta osagaiak. Aski eraginkorra ote?

3.42. Heietarik liztorrak urruntzeko erremedioa

3.42.a. Baigorrikoa (39. zk. idazkian)

Leihotaric eta athetaric leiçorren cassatceco erremedioa

Har çaçue ahur bat *erramu* osto edo bihi eta hiraquit hurian; guero hur hartaz

⁴³⁰ Ez da irakurtzen.

phereca çaçue idia, guero berce alimale guciac ceinaren bidez casatuco baitire he-
yeticar leiçor manduli, eta berce ulli suerte guciac.

3.42.b. Barkoxekoa⁴³¹

3.42.c. Garazikoa (zenbaki gabea)

Barroquietaric leissorren cassatecotz erremedioa

Har çaçue ahur bat *erramou* (sic) osto eta bihi iraquituric urean guero ur hartaric
gantçu çaçue idia edo berce animaliac ceinaren bides cassatuco baitire barroquie-
taric leissor, mando ulic (sic) eta berce suerteac.

3.42.d. Amikuzekoa (40. zk. eskuizkribuan)

Heietaric listorren kasatzeko erremediua

Harzazie ahur bat *erramü* osto edo bihi eta erakit hurian gero hur hartaz frota-
zazie idia edo berze animalia zoin haren bidez kasatüko baitira heietaric listor,
mandüli eta berze suertiak.

Albaitaritzaren baloratzea

Sendagailua

Erramua edo ereinotza *Laurus nobilis* L. Landarearen hostoak eta aleak zo-
morro urrungarri moduan, orain ere, albaitaritzan erabiliak dira.

Gainera, “ereinotz gurina” deritzon olio, farmazietan salgai, onena da
abereen larrua igurtziz zomorro gehienen urruntzeko ziztatuak izan ez daite-
zen. Beraz sendagailu ona zen eta da. Orain olio gisa erabilia.

⁴³¹ Ez da inon irakurtzen.

3.43. *Ardien zaragarra*⁴³²

3.43.a. Baigorrikoa (40. zk. idazkian)

Ardien çaragarra khentceco erremedioa

Àrdien çaragarra ičan arren apparantciaz eritarçun chumea⁴³³ (1) yaquin çaçue hura dela causa, ethorcen çayotela asco berce eritarçun gaisto, nola baidire piccotac⁴³⁴ içurriac⁴³⁵ eta berce accident handiac eta hala bat bederac behar lituque artha handirequin hastetic eritarçun horri erremedioac eman.

Hartaracotz erranen daroçuet auctor handi batequin:asqui duçue ardiac mosten⁴³⁶ tuçuenian erremedio huntaz gantçutcia edo pherecatcia:har eçaçue beraz *olio liga, arno churiaren liga*⁴³⁷ eta cenbait *lupin* chehaturic, guero hirurac ongui trempatu direnian elkharrequin batian, phereca çatçue çuen ardiac immincione hortas ephelduric.

Ordean hori eguin eta hantic bi egunen buruan garbitu beharco tutçue *hur gaciz* edo itxasoco hurez eta hala iccusico duçue nola debeatuco titçuen eritarçunetaric ez solamente çaragarraric içaitetic bainan oraino eritarçun borthitcetaric: bide hortaz illea legunago eta dulciago(sic) eta emiago, ethorcen baiçayote.

Albaitaritzza baloratzea

Errezeta bakan eta bakar honetan zaragarra –idietan bezala– beste gaitzen iturri eta sarbide moduan erakusten da horregatik uste du idazleak ez dela “eritasun hain xumea”.

Sendagaiak

I. *Leben sendagailua*. Olio eta ardo ligak erremedio hartzaile moduan dira erabiltzen, baina oinarrizko sendagaia, eragilea, landarea dugu *Lupinus albus* (L.) Eskuzuri edo lupino izenekoa. Lore eder luzexkara mulko batean emana dauka eta bere haziak erabiltzen dira, bakarrik kanpo sendagai antzean.

⁴³² Kontuz! Hau da ardién sendakuntzaz salbatu den errezeta bakarra, liburuaren bigarren erdia ez delako oraindik inon aurkitu.

⁴³³ *eritarçun chume*: eritasun xumea, gaixotasun txikia.

⁴³⁴ *piccotac*: baztanga.

⁴³⁵ *izurriac*: izurriak, pestreak.

⁴³⁶ *mosten*: moztan (ardi ilea).

⁴³⁷ *liga*: aheta (hez, gaztelaniaz).

Landare horren kimika gaiak dira, alkaloideen artean, *sparteina*, *lupinina* eta, denen gainetik, *lupanina* edentsua. Naski, bere pozoiarekin azaleko zomorro bizkarkinak hiltzen ditu. Oraindaino albaitaritzan erabili da horretarako, baita larrudura eta ekzema sendatzeko jendeekin ere.

2. *Bigarren sendagailua. Ur gazia.* Jakina, bizkarkin gehienei ez zaiela gogoko ez ahoko gatza eta ardien bainatze horrek erakusten digu garai zaharretan ere higieak bere garrantzia zuela, ez delako lehen aldia aipatzen dela. Itsasoko uraren aipamena ematen du Dassantza donibandarrarengandik datorrela errezeta eta akotzarrak itsasotik hurbil bizi direlako.

Gaur, goi-mendietan *pedilubioak* badituzte eta ardi moztua “bixkarratua” igaroarazten dute, atzamarren eta sabelaren garbitzeko, behintzat.

Bi arrazoiengatik uste dugu errezeta hau jatorrizko M. Dassanzaren liburuan zegoela, lehenik lapurteraz dagoelako eta, bigarrenik, beste kopietan lupinoa agertzen baita zerrendan eta errezeta honetan baino irakurtzen.

4.

BESTEEN ERREZETAK⁴³⁸

*Hauche cerbitcatcen da (idien) beguietaco, aire edo colpendaco*⁴³⁹

Hartuco duçue *Parisco* pinta bat *hur* corritutan⁴⁴⁰ hirur sosen *coupa Rocha churia*⁴⁴¹ sos baten *Iris florentça*⁴⁴² hori egossi gabe ungui nahassiric den gutienaz arratxetan lotceracoan bustico duçue beguiaren barnia bederatci arratxex seguidan. Odolaren idortasunetic ez pada ezdu faltaco sendotcia.

4.I. Zamarra

*Mandouac çamarra beguian duenian cer eguin behar den*⁴⁴³

Ikhusten duçuenian mandoua samar gorri batequin beguia nigartua duela, asquico duçue imintcia *arro(l)tce* bat *gorringoa* khenduric *gatcez* erdicala suyan eta guero beltchatu denian lehertu gabe athera çaçue campora eta untsa chehaturic piloun batian⁴⁴⁴ guero macian⁴⁴⁵ passaturic irina beçala. Irin hura tuta batian imini⁴⁴⁶ eta guero oufa batez beguira houtz⁴⁴⁷ bizpahirur goicez.

Albaitaritzaren balorazioa

Gaitzaren azalpena

Zamarra, begiko zuri mota bat da

PARATZAILEAREN OHARRAK (Txomin Peillen):

⁴³⁸ Garaziko idazlanean bakarrik ageri dira. Beste esku batek geroztik kopiatutako errezetak dira.

⁴³⁹ Lehen errezeta hau lapurteraz Dassanzarengandik letorke.

⁴⁴⁰ *Parisco hur corritutan*: Parisko ur gorritutan.

⁴⁴¹ *coupa Rocha churia*: kopa bat Rocha zuri erremediotik.

⁴⁴² *Iris florentça*: *Iris florentina* L. vs *Iris pallida*.

⁴⁴³ Bigarren errezeta behe nafarreraz izkiriaturia da eta Dassanzak aipatu gura ez zituen mandoez dihardu.

⁴⁴⁴ *untsa chehaturic piloun batian*: ontsa xeheturik piloi batean, ondo apurtuta piloi batean.

⁴⁴⁵ *macian passaturic*: mazean pasaturik, galbahean irazirik.

⁴⁴⁶ *tuta batean imini*: hodi batean ipini.

⁴⁴⁷ *oufa batez beguira houtz*: ufa batez begira hustu.

Sendagailuak

Lehen errezeta Pariskoa litzateke.

Paris hori norbaiten izena daiteke. Rocha edo Rochas zuria XIX. mendeko sendagaia zen. *Iris florentina* (L.) bere errizoma oraindik sudurrean ipintzeko sendagailuetan dago baita txakur ezgul, bronkitis, asmatan eta ez litzateke harri-garria, neurri txikitari, begientzat ere on izatea latza delako.

Bigarren errezeta.

Ezin dezakegu zehaztu, ez eta begitandu mandoen begiko zuria sendatzeko “arrautza zuringo gazituaren errautsak” zer bertute daukan, ala arrautzaren eta begiaren antzeak ekar lezake erabilpen homotetiko hau?

Orrialdearen behean⁴⁴⁸:

4.2. Jendearendako purga⁴⁴⁹***Pourga baten compositionea***

Har çaçü *sauca erro* pillica bat, bi ahur béçala gaineco achala utz eta bigarren achal guicen hura cieta batian⁴⁵⁰ bi cuillera⁴⁵¹ *urequin* besperatic guero biharamounian, erro hec untsa tinca yussa⁴⁵² ken guero emoçu yus hari bortz cuillera *esne* nahas-siric eta iraciric⁴⁵³ epheldou eta edan, guero oren baten (*burian*)⁴⁵⁴ edan *ur ephel*

⁴⁴⁸ Azpian marrazkia gizon bat erretzen dupel baten gainean eta hitz horiek azpianago “hau da behien eta idien corcoillo barbera gastia pipatcen du ederqui arno edaten emaiten badacoté. Usatia flascoa aldera, baina barber famatia etc.”

Lehen orrialdean “idazlearen” sinadura ikusi dugu. Hemen Bertrand Goyenetchek laburduraz bukatzen du. Hurrengo orrialdean badago Frantziako Louis-Philippe errege konstituzio zinegile berriaren omenez “Libertateko kantua”.

Bilduman, hitzaurrea eta aurkibidea edo taula azkenean ipini ditu, guk hitzaurrea jadanik bere lekuan ezarri dugu taularen ondotik dator.

⁴⁴⁹ Garazikoan bakarririk jende sendakuntzaz behe nafarreraz.

⁴⁵⁰ *cieta*: platera.

⁴⁵¹ *cuillera*: koilara.

⁴⁵² *yussa, yus*: zukua.

⁴⁵³ *iraciric*: irazirik.

⁴⁵⁴ *oren baten burian*: ordu baten buruan.

eta *salda* ardura eta marrusqua⁴⁵⁵ sabela esquerreco aldetic ikhussico duçu effetu handia eguiten.

Haurrendaco asqui da cuillera bat gutiago gorputz arauca

Sendakuntza baloratzea

Sabuka, *Sambucus nigra* L. Intsusa beltza da. (hostoa, fruta, lorea, azala) Potasio nitratoa, usain olioia, alkaloidea, glukosidoa, taninoa, muzilagoa, C bitamina, flabona eta antoziano pigmentuduna. Purgagarri eta izerdi eragilea da. Benetan, bigarren azala da, azpikoa onena purgatzeko, sendagailu bortitza goak, sendoagoak ezin jasanez dabilzanentzat, batez ere errezetak esnea daukalako.

4.3. *Ardien lupu beltza*⁴⁵⁶

Lupe belcharen erremedioa

Lehenic cines (?) *seigna* odol aphur bat⁴⁵⁷. Boutilabat *ardou beltç*⁴⁵⁸ gobelet bat binagre ascar ahuretibat *nefar gatz*⁴⁵⁹, ahur bat *barachouri* chehekaturic, ahur bat *cherment* hau⁴⁶⁰ eta ahur bat kherrade⁴⁶¹ egosiric. Iraskina⁴⁶² ahotic behera eman. *Lihachi* chakhuta bat egosiric minen gagen hers hancura agery bada.

Albaitaritzaren balorazioa

Gaitzaren azalpena.

Nahiz *lupe beltcha* izendatzen duen, agian ez da “ikatz”, ezen horrek erre-

⁴⁵⁵ *marruska*: masajea eman.

⁴⁵⁶ Barkoxeko idazlanean bakarrik dagoen errezeta zuberera zaharrea.

⁴⁵⁷ *seigna* odol aphur bat: zeina, atera odol apur bat.

⁴⁵⁸ *ardou beltç*: hala dio orain Hegoaldean bezala, oraingo zuberotarrek “ardu gorri” esango liokete tintoari.

⁴⁵⁹ *nefar gatz*: gatz larria da (Nafarroatik zetorren Zuberoan jaten zen gatz gehiena XVIII. menderaino).

⁴⁶⁰ *cherment hau*: aihen hauts (xerment, Barkoxe aldeko biarnes hitza).

⁴⁶¹ *kherrade*: kedarra.

⁴⁶² *iraskina*: irazkina.

mediorik ez baitzeukan, baina lupu mota asko dagoenez gero beharbada tuberkulosiarena zitekeen.

Leben sendagailua: barne-sendagailua.

Kasuaren zailtasuna ikusten da ezen garaiko “garbigarri” kimika gai eta landare guztiak nahasian datoz: *nefar gatza*, (nafar gatz larria) *baratxuria*, *gedarra* eta *aihen bautsa*.

Bigarren sendagailua. *Linoazi* xakutoa da.

Hertsatzen, bendatzen da minaren gainean⁴⁶³.

⁴⁶³ Guretzat duela berrogei urte ezagutu dugun kataplasma bera.

5.

ERREZETEN ONDOKOAK

Lau idazlanetan airea sanotzeko erabiltzen diren fumigazionei buruz idatzitakoak biltzen dira atal honetan. Jarraian, paratzaileak albaitaritzaz balorazioa egiten du.

5.I. Baigorrikoa⁴⁶⁴

Heyetan⁴⁶⁵ fumingaçonez edo urrindatcia eguiteco promes emaiten derauçuet⁴⁶⁶ liburu hunen hastian⁴⁶⁷ eracuxico nauzquitçuela cer façonez eguin behar ciren fumingacioneac (sic) eta hala norc ere sendi baituçue heya aire gaiztoz corrompitua dela.

Lehenbicoric garbituco duçue hango hasquerietaric⁴⁶⁸ eta guero hartuco duçue unza bat *insensu*, unza bat *soffre*, eta bi untza *arrachina*; guero hec elcarrequin nahassiric emanen ditucie choffeta bat brassarequin⁴⁶⁹ eta *khe* hartaz ingura çaçue barruquia guçia eta continua, guero erran den urrindatce hori droga finitu arteraino.

Fumigacione hori eguinen duçuen beçain sarri hartuco duçue *erramunia*⁴⁷⁰, *erramiac*⁴⁷¹, *mayoranac*⁴⁷² *camamilla* eta *pulegium*⁴⁷³, eta guero hec su emanic, ba-

PARATZAILEAREN OHARRAK (Txomin Peillen):

⁴⁶⁴ Zenbakirik eta izenbururik gabea.

⁴⁶⁵ *heyetan*: heietan, ukuiluetan, barrukietan, behitegietan.

⁴⁶⁶ *hunen hastian*: honen hastean, hasieran.

⁴⁶⁷ *emaiten derauçuet*: ematen dizuet. (Baigorriko eta Garaziko kopiatzaileek erabiltzen duten kopian denbora oker hori da, *promes eman derauzuet* promes eman dizuet iraganaldian behar luke).

⁴⁶⁸ *basquerietaric*: hemen, zikinkeria, simaurra.

⁴⁶⁹ *choffeta bat brassarequin*: (frantses zaharkitu baten kalkoa “une chauffette avec de la braise”) suontzi txingar edo ikatz gorriekin.

⁴⁷⁰ *erramunia*: erramulia behar luke. *Rosmarinus officinalis* (L.).

⁴⁷¹ *erramiac*: erramuak, ereinotzak, landarea.

⁴⁷² *mayoranac*: marjoranak, landarea. *Origanum marjorana* (L.) / *Origanum vulgare*. Orégano, Maiorana.

⁴⁷³ *pulegium*: *Menta pulegium* L.

rruquiaren erdian iduc arasten⁴⁷⁴ duçuela khe hura, dela cembait dembora; eta guero emaçue aire gutti bat norte phartetic edo ezperen levantetic eta bide hortaz içanen tutçue çuen establiac⁴⁷⁵ hanitx precocionatuac eta haciendac conserbatuac dela eritarçunetic orduan.

Halere orhoit çaiteste fumingacione hori orduyan on citaquyela cembait *berdura* emaitia barruquietan barna sugueric edo berce alimale liçunic⁴⁷⁶ han egon ez dadin; hartaracotz asqui içanen *cucusso belharrez*⁴⁷⁷ *bradura* (berdura) hura eguitea edo esperen *leiçar* hostoz ihaurquitcen⁴⁷⁸ baituçue ere ez derautçue probetchuric baicen eguinen⁴⁷⁹ eta guciz cembait *baratchuri* buru balsan⁴⁸⁰ dutenian.

5.2. Barkoxekoa^{481/482}

Borda edo theguy⁴⁸³: eta cabalen⁴⁸⁴ egon lekhien parfumatcia: ayre edo khoçu gaiztouden⁴⁸⁵ contre.

Noiz ere sendy beituçu cabaletan ayré gaizto edo theyutarçun hetaric⁴⁸⁶: hartuco duçu gaitz haren contre houn diren er(r)emedioac: çoin beitiradé ontçabat

⁴⁷⁴ *iduc arasten*: edukiarazten, eradukitzen (mantener).

⁴⁷⁵ *establiac*: heiak, ukuiluak.

⁴⁷⁶ *liçun*: hemen, kaltegarri, ez likits.

⁴⁷⁷ *cucusso belhar*: arkakuso belar (sasi-menta bat, meldoaren antzekoa).

⁴⁷⁸ *leiçar hostoz ihaurquitcen*: lizar hostoz inaurkintzen (azpiak egiten).

⁴⁷⁹ *baicen eguinen*: baizen eginen, baizik egingo.

⁴⁸⁰ *balsan*: nahasian.

⁴⁸¹ 39. zenbakia dakar.

⁴⁸² Laburragoa da, orrialde oso bat galdu delako bigarren errezeta ez da agertuko. Hizkuntzaz zuberera zaharrean eman arren, beste idazkien eduki bera du.

⁴⁸³ *theguy*: thegi / tegi (Z.), izen orokorra da zubereraz zeren gero euskalki horretan bereizten direlako, *abunztegi*, *arditegi*, *astotegi*, *behitegi*, *txakürtegi*, *zamaltegi* (hitz elkartuetan “h” galtzen du). Auzoko euskalkietan hitza janez *thegi* hitzak *tei/hei* eman du, hortik *arditei* (NB.)

⁴⁸⁴ *cabale*: kabale, lat. capitale(m), ardikente eta behikenteari esaten zaio, zeria eta ahuntza ez dira kabale.

⁴⁸⁵ *kbosu gaistouen*: kutsu gaiztoen, txarren.

⁴⁸⁶ *theyutarçun*: teiutarzün Zubereraz zikinkeria da kausa eta teiutasuna ondorioa, zikinkeriak utzi seinalea.

intxentçu eta beste ontçabat *soffre* eta by ontça *errecigna*⁴⁸⁷ eta hourac algarreky lahassy⁴⁸⁸ dutuçunian: eçar iceçu: chofeta batetan intkaz⁴⁸⁹ aphur bat suyareky eta *khé hartçaz* verritan borda: edo theguia ungura eta continia drogac akaba hartio (sic) parfumatcia⁴⁹⁰.

Eta houra eguin beçain sarry: har eçaçu ahur bat *erramolia*, eta *erramu*, *mayorana* eta *camamila*...

5.3. Garazikoa⁴⁹¹

Barrouquietan fumigacionea edo urrindatcea eguiteco

Promes emaiten darotçuet liburu huntan hastean eracutxiko narosquitcuela cer façoines eguin behar ciren fumigationeak eta hala norc ere senti baituçué barrouquia airé gaistos corrompitua dela.

Lehembicorik garbituco duçué hango ongarri guciac campora eta guero hartuco duçue unza bat *isenzu*, unza bat *soffré* lore eta unza *arrochina* guero hec elguarrequin (sic) nahastecaturic emanen tutçue chauffeta bat brassetan eta qué hartas ingura çaçué barrouqui goucia eta guero continua erran dugun urrindatce hori drogac fini arteraino.

Fumigatione hori eguin duçuen beçain sarri hartuco duçué *erramoniac maioranac*, *camamilac* eta *pulegium* eta guero heier su eman barrouquiaren erdian iducarasten tutçuela que hura barrouquian barna cembait demboraz eta guero emoçue aire guti bat norteco partetic edo esperen levantetic eta hala bidé hortaz içanen tutçue ciauñ establiac⁴⁹² precocionatuac eta halaber assindac⁴⁹³ conserva tuac eritasunic gabe.

Ordean hala ere orhoit çaitesté fumigationé hori eguin ondoan on litaquela cembait berdura emaita barrouqui hetan barna suguéric edo berce alimalé lissu nic han eguin(sic) estadin hartaracotz asqui duçué bellarez berdura hura eguitea

⁴⁸⁷ *errechigna*: erretxina.

⁴⁸⁸ *lahassy*: nahasi.

⁴⁸⁹ *intkaz*: ikatz. (orain inkatz da zubereraz, grafia ala dislexia, intkaz?).

⁴⁹⁰ *parfumatcia*: lurrindatzea Halere zubererak lanhestatzea hitza badu, usaina ezтики bota gabe (ürinhuntzez), kez (lanestatzez) egiten denean.

⁴⁹¹ Zenbaki gabea.

⁴⁹² *içanen tutçue ciauñ establiac*: izanen dituzue zeuen ukuiluak...

⁴⁹³ *assinda*: azienda, ardi eta behiak Garazin.

edo ezperen leiçar ostoac ihaurguiarequin batean ematen batutçué eré estarotçué probetchuric baicen eguinen eta gucis cembait baratchuri bouru (sic) balsan duteanean.⁴⁹⁴

5.4. Amikuzekoa⁴⁹⁵

Promes eman derauziet⁴⁹⁶ liburu hunen hastian erakutsiko nauziela zer fazoinez egin behar ziren fumigazioniak eta hala nork ere seindi baitüzie heia edo barrukia aire gaistoz korrumpitia dela.

Lehenbizikorik garbitüko düzie hango hazkerietarik eta gero hartüko düzie onza bat *intsentsu*, onza bat *sofre*, eta bi onza *erresina* hek nahastekatürik ezarriren tützie chauffeta bat brasian eta khe hartaz ingüra zazie heia guzia eta gero kontinüa urindatze hori drogak ahi arteraino⁴⁹⁷.

Hori egin düzien bezain sarri⁴⁹⁸ erramulia, erramiak, *majoranak*, *kamamilak* eta *pulegium* heer sü emamen establiaren erdian, atxikarazten düzielarik⁴⁹⁹ khe hura zenbait denboraz establian eta gero emozie aire güti bat norteko aldetik edo ekhia jalkiten⁵⁰⁰ den aldetik eta hala bide hortaz ükhanen tützie zien establiak anhitz prekozionatiak eta halaber haziendak kontserbatiak eritarzün gabe.

Ordian halaber orhit zitezte fumigaziariaren unduan hun lizatekeiela zombait berdüra emaita estable hartan sügerik edo berze animale lizünik han egon ezta-din. Hartakotz aski düzie *leizar ostoz*, *orrez*⁵⁰¹ eta *küküso belharrez* berdüra hura egitia eta zombait baratxuri bürü nahas emaita.

⁴⁹⁴ Azpian legezko frantsesez liburuaren bigarren bukaera. Ce livre appartient a M. Bertrand G.che, fin de la..

Hasieratik badirudi frantsesa pixka bat gaizki ikasi duela, liburu hitza ez zela femeninoa, "appartien" appartient, bi "p" rekin idazten zela, baina azkeneko "t" idazten ez du ikasi.

⁴⁹⁵ Zenbaki eta izenburu gabea.

⁴⁹⁶ *promes eman derauziet*: *promes eman dizuet* (kopiatazileak zuzendu?).

⁴⁹⁷ *abi arteraino*: ahitu arteraino, amaitu arteraino.

⁴⁹⁸ *bezain sarri*: bezain laster, bezain agudo.

⁴⁹⁹ *atxikarazten düzielarik*: eradukitzen duzuelarik.

⁵⁰⁰ *ekhia jalkiten*: zubereraz ekialde esangurarekin.

⁵⁰¹ *orrez*: ipuruz (orre: *Juniperus communis* (L.)).

Albaitaritzaren balorazioa

Aldez-aurretikoen bosgarren errezeta da eta "prekozionatze" edota aurreneurrien artean bereiz genitzake ia beti bi motatakoak

1. Ekileak. Garbitzea, keztatzea edo urrindatzea.
 2. Iraulea. Hori eginda, barazki eta sendabelar jaurkinak.
- Eskema berdina dago "Xarmadura" seigarren errezetan

– *Leben sendagailua. Ekilea*

Horretan dauden droga batzuk oraindik erabilia dira eta *sufrea* behintzat jende meningitis kasu batean, logela batean, besterik ezean, erabilia dut. *Erretxinak* erre gabe biriketako gaitzetan eragina badu, erreta kutsuan baino gehiago animalietan zerbait egin dezake. *Intsentsua* noski ez da gehiago erabiltzen non ez den etxeetan tabakoaren usaina galarazteko.

Aitortu behar dut motz gelditzen naizela –sufrearen bertute ziurrez kanpo– besteenak bakterizidio gisa ez ditudalako hainbeste ezagutzen.

Erran behar da droga horiek guziak, XVII. mendean, Dassantzaren saletxean Donibane Lohizunen erraz aurkitzen zirela.

– *Bigarren sendagailua. Ekilea*

Bigarren ekile horretan sartzen diren sendagaiek zerrenda aski luzea ematen digute, eta denek usain sendoa daukate eta batzuek bertuteak ere bai.

1. Erramulea (batzuetan *erramonia* Garazik, *erramunia* Baigorri, *erramulia* Barkoxek), Erromeroa da. *Rosmarinus officinalis* L.
Kanfor usain bortitza duena.
2. Erramua. Ereintza. *Laurus nobilis* (L.) albaitaritzan zomorro urruntzaile bezala oraindik erabilia. Erreta eraginik ote?
3. Maiorana. *Origanum vulgare* (L.) Belar usaindun, bizkarkin eta zomorro hiltzailea da. Erreta nola?
4. Kamamila *Matricaria recutita* (L.) *Matricaria Chamomila* (L.) hesteetako antiseptikoa da.
5. Pulegium *Mentha pulegium* (L.) (poleoa) menthol delakoaren bitartez biriketako antiseptikoa da.

– *Hirugarren sendabidea. Berdurak*

Belar freskoa da inaurkintan, abereen azpitan sartu behar dena baina ez edozein eta berriro agertzen zaigu euskaldunen *leizar ostoa* sakratua eta azti kutsua daukaten gauzek maiz ere bertuteak badituzte, lizar hostoa behintzat,

lehortuta, belarrik ez den urteetan, idi eta behien pentsu salbagarria da, aita zenak kontatu zigun legez. Gaur ere, eta Europa guztian fitoterapian erabilia da.

Kukuso belarraren bertuteez ez dakit ezer menthol botatzen dutela, baina animalia kaltegarrien eta sugeen urruntzeko haien eraginaz ere ez. Badirudi, ordea, Antzinetetik datorrela eta eskarmentu zaharrez erabilera hori.

Kutsu hitza (kozü) erabiltzen duen bakarra zuberotarra da, baina idazki guztietan eta beste errezetan ere kutsaduraren kutsaduraren ezagutza bada-go, nahiz XIX mendean galdu zen, jakintsu batzuek ukatzeraino. Barkoxeko idazkian izan ezik beste guztietan maiz euskaldun testu zaharretan irakurtzen den “korrupitu” aditza badago janariez, hesteez, birikez edo ingurumenaz mintzo.

Hemen ordea aireari bizkarreratzen zaio gaixotasunen hedatzea, kutsatzea, nahiz hain zuzen Pasteurrek airea ustelduta zela frogatzeko Frantziako Farmazia Akademiaren aurrean arazo handiak izan zituen, eta horretarako esperimentu franko asmatu.

6.

DROGA ETA BELARREN AZALPENA

Erremedioen izenak euskaraz (eta Peillenek latinez eta batuan) ematen dira atal honetan.

6.I. Baigorrikoa⁵⁰²

Liburu huntan diren droga eta belharren explicacionea erran derauquet ezplicitu-co narozquitçuela⁵⁰³ hemen diren icen barbaro iduriac eta hala banohaçue chehequiago⁵⁰⁴ bat bederari erraitera clarqui cer diren misterio suerte horic.

Hartacotz yaquin eçaçue; 1 *Lupin* deitcen den droga hura dela ilhar çabal bat franciaco phartetic probeditcen garena. 2. *Nerprun* duçu berriz oihan belcetan caussitcen⁵⁰⁵ den elhorri beltçaren(sic) frutua beçala, bacha-arana iduri duena. 3. *Vesse* da ilhar chume çabala franciatic ekharcen dena. 4. *Sabina* da belhar bat ossoqui *alciprea* iduri duena baratce curiosetan caussitcen dena; 5. *Lotteron* da belhar bat fresco baratcetaco murrailetan caussitcen dena, ceina piccatu eta esnia baitario; 6. *Issopa* da halaber belhar bat *berberina* iduri duena eta ordinariozqui baratcetan aurquitcen dena eta ussain handi batequin bide eta larrain gucietan frangoqui caussitcen dena 7. *Marrubium* duçu ossoqui *erremenda* iduri duena. 8. *Hellebore noir* duçu belhar bat mendietan caussitcen dena. 9. *çamari bustana* deitcen den belharra caussitcen da erriperetan. 10. *Mirra* da droga bat droguistec saltcen dutena. 11 *Sel harmonia(c)* duçu gatz bat droguistec saltcen dutena; 13. *Vitriola* façoïn berean droguistec saltcen dutena. 14 *Litarqui* orobat, *gurussa* guisa bera eta nihorc baldin penetan baçarete eçin içanez erran ditugun belhar eta droga horiec, guidatuco çarete gure etçera behar duçuenaren içaiteco eta hala promez emaiten derauquet probeditua içanen naiçela çuen cerbitçatceco erran tudan gauça guciez, hala nola asco aldiz erran dudan Constantinopolitana miragarrias.

PARATZAILEAREN OHARRAK (Txomin Peillen):

⁵⁰² Botanikako oharrak aitzinago emanen ditut.

⁵⁰³ *narosquitçuela*: nizkizuela.

⁵⁰⁴ *chebequiago*: xehekiago (xehetasun gehiagorekin).

⁵⁰⁵ *caussitcen*: kausitzen, atzematzen, idorotzen, aurkitzen.

Droga izenak baloratzea

Landaregaiak.

1. Lupin⁵⁰⁶: *Lupinus albus* L.
2. Nerprun: Hesilahar *Rhamnus cathartica* L.
3. Vesse: Zalke *Viscia lathyris* L.
4. Sabina (Sabina xuria) *Juniperus sabina* L.
5. Lotteron edo gluteron: *Xanthium strumarium* L.
6. Issopa: Isipu belar, *Hysopus officinalis* L.
7. Marrubium: Lekugi, *Marrubium vulgare* L.
8. Hellebore noir: Otsababa, *Helleborus niger* L.
9. Zamari buztan: Azeri buztana. *Equisetum* sp.
10. Mirra: Mirra *Cammiphora* sp./ *Balsamodendron mirrha* (Nees)

Kimika gaiak

11. Sel amoniak: amoniakoaren sulfato gatza.
12. Vitriola: zinkaren sulfato gatza.
13. Litarqui: litarga. PbO, berun oxido kristala da. Hemen aipatzen da baina errezetetan ez da agertzen. Denak kopiatu ez zirela froga.
14. Gurussa: zerusa.
15. Sufre
16. Gatz

⁵⁰⁶ *Lupin* hitza zerrenda guztietan agertzen da, nahiz Baigorriko "Ardien errezetan" baizik ez den erabiltzen. Horrek adierazten digu beste eskuizkribuek ez zutela errezeta hori begipean eta oinarritzko testuan bazegoelako froga da.

6.2. Garazikoa⁵⁰⁷

Liburu huntan diren drogac eta belharren explicacioneac

Erran darotçuet esplicatuco narosquitçuela hemen diren icen barbaro iduriac eta hala banohatçque chehequi bat bederari adiarastera clarqui cer diren misterio suerte horiec Hartaracotz yaquin çaçue *Lupin* deitcen den droga hura dela illar çabal bat frantciaco partetic providitcen dena. *Nerprun* duçu berris oyan beltçetan aurquitcen dena, elhorri beltçaren (sic) fruitua diduriac. *Vesse* da ilhar chume çabala frantciatic écarten darotçuéta.

Liburu huntan diren drogen eta belharren icenac yaquiteco çoin diren.

Gluteron... Lapatina	Ogui nostraya
Constantinopolitana	Armoizaren ura Artemisia
Melloin erruac	Amirun churia...empesa
Gatz larria	Hellebore noir.Ahountscorna
Mirra	beltza
Trigada	Alcipre....Alcipria
Orvietan fina	Ségouarequin (sic)..cihoua
Arruda.....arrota	potro baten behassunas
Turmentina	alcatrena
Genevra...Orria	Sel harmonia(c)
Nerprun bihia, elhorri beltça	Mairu arrosa
Plantagnac	Tutrias eta vitriolas
Camari bustana, prella pl	Idiaren behassun bat
Apioa	Calits
Sabina churia	Olio escorpionas
Morsus diabolus:	Cinarthodon
aramaizia errua	Aloes mastic (sic)
Hausina errua	Cerusa
Helleborren errua:	Clera
Ahounts corna	Lupin et (sic)
Urribelharra, Urzon belharra	Vesse
Millu marin, Mihoala	et (sic) pulegium etc..

⁵⁰⁷ Aspertu eta laburtu du kopia, inbentario batean.

Euskaraz eman ziren erremedioen izenak jaso dira eta paratzaileak latinez eta euskara batuan eman ditu.

Zerrenda guztietan maiz frantses botanika izen hutsa agertzen da Mongongo Dassanza botikari edo kimikari izaki sendabelarrak ere salgai zituzkeen eta nonbait frantsesa ikasia, frantses liburuak eskupean bere obra xumea atonduta.

Landareen izenak aldatu eta zaharkitu dira. Baigorrikoak du osoenik ematen, baina irakur huts askorekin, beraz ez inprimaki batetik.

6.3. Amikuzekoa⁵⁰⁸

Liburu huntan diren izen barbaroen explikazionia

Erran derauziet explikatuko nahozkitziela libürü huntan diren drogen eta belharrren izen barbaro güziak eta banohazie bat bederari adiarazteko klarki zer diren misterio horiek. Hartakotz jakin ezazie *lupin* deitzen den droga hura dela ilhar çabalbat Frantziako partetik proveditzen girenak. *Nerprun* düzü berriz oihan belztetan kausitzen den elhorri belza, haren fruitia baxa-arhana idüri diena. *Sabina* düzü belhar fresko bat baratzetako murailletan kausitzen dena zoina pikatu eta esnia baitario berheala⁵⁰⁹.(1) *Issopa* da halaber belhar bat *berberiña* idüri diena komuzki baratzetan kausitzen dire. *Kamamila* da berriz lili xuri bat erdian horia dena usain handi bateki bide eta larrain güzietan frangoki kausitzen dena. *Marrubium* düzü osoki *arhamenda* idüri diena eta ordenariozki murrail zaharren kontra kausitzen dena.

Helebore noir düzü belhar bat mendietan kausitzen dena. *Zamari büztana* deitzen den belharra aurkitzen da erripeira hurzietan. *Mirha*, *Intsentsü*, *sel ammoniac* eta *litarge* dira droga batzü drogistetan saltzen direnak.

FINIS CORONAT OPUS

⁵⁰⁸ Azken orrialdean dago.

⁵⁰⁹ Azalpen hau eta Baigorrikoa bezain osoa, gainera perpaus bat bidean galdu du eta Sabina landareari egozten dio beste biek Loteron edo Gluteron delakoari emanak.

7.

IDAZLANEN AURKIBIDEA

7.I. Baigorrikoa⁵¹⁰

Unhaduric primaderetan	I
Idiaren sabelminen khentceco	2
Idia charmadurez	3
Idiaren uchada edo sabeltasuna	4
Idiaren erorteco mina	5
Idiaren gatarra	6
Idiac odolez picha	7
Idiac picharic ecin eguinez	8
Idiac harria duenian	9
Idiac bere natura gogortua	10
Idiac mihi azpia hantua	11
Idiac errainetako mina	12
Idiac berce errainetaco mina	13
Idiaren oinhacen eta doloren	14
Idiac biriquetaco arrangurac	15
Idia herciac galtcen hassiac	16
Idia estulaz atacatua	17
Idiac haxa labur diela	18
Idiac almaquetan min duenian	19
Idiari lipia khentceco	20
Idiac golardo duenian	21

⁵¹⁰ Baigorrikoan errezeten zenbakiak ageri dira.

Idia hantua denean	22
Idiac cembait animale chume irexi duenean	23
Idiac handitchuac	24
Idiac çangoac hantuac	25
Idiaren aztaparren	26
Idiac berce façoinez aztaparra colpatua duenean	27
Idiac barabillac hantuac	28
Idiac adarra arraillatua	29
Idiac beguiac hantuac dituenian	30
Idiac beguian churia duella	31
Idi begui nigartiac	32
Idiari çaragarra khentceco	33
Idiaren ulcera edo larruduren	34
Suguearen aussiquien	35
Idiari azazcalla erorcen	36
Idiari leiçorren eta mandullien aussiquien contra	37
Idia leiçorrec, manduliec ez ulithec ez aussiquitceco ...	38
Leihotaric eta athetaric leiçorren cassatceco	39
Ardien çaragarra khentceco erremedioa	40

7.2. Garazikoa⁵¹¹

Liburu hontan diren gaucen edo eritasunen causitceco tabla.

Gaztanbide doctor medicuac laborarier abisua _____	p.6I
Idiaren sukharra sendatceco cer eguin behar den _____	p.I
Lantçar deicen den eritasuna _____	p.3
Idiaren bihotzerra k. _____	p.4
Idiaren colica k. _____	p.5
Idiaren sabelminen k. _____	p.7
Idia charmaduraz attacatua _____	p.8
Idiaren utchada k. _____	p.I2
Idiaren erorteco mina _____	p.I3
Idiaren gatarraren k. _____	p.I5

⁵¹¹ Garazikoan errezeten orrialdeak ageri dira.

Idiac odolaz picha eguiten _____	p.16
Idia ecin picharic eguinez dagoenian _____	p.17
Idiac harria duenian cer eguin behar den _____	p.18
Idiac bere natura gogortua s. _____	p.19
Idiac mihi azpia hantua duenian _____	p.19
Idiac errainetaco mina duenian cer _____	p.21
Idiaren berce errainetaco mina s. _____	p.23
Idiaren oinace eta doloren s. _____	p.24
Idia biriquetaric errencura denian s. _____	p.25
Idia eztulez attacatua denian s. _____	p.27
Idiac hertciac galcen hassiac dituenian s. _____	p.29
Idiac hatxa laburra duenian s. _____	p.30
Idiac almaquetan min duenian, s. _____	p.32
Idiaren golardoa sendatceco _____	p.33
Idia hantua denian sendatceco _____	p.35
Idiac cembait alimale chume iretxi duenian _____	p.36
Idiaren handitxuen sendatceco erremedioa _____	p.37
Idiac çangoa hantua duenian s. _____	p.38
Idiaren taloin eta aztaparretaco minen s. _____	p.39
Idiaren aztaparra bertce façoinez colpatua s _____	p.40
Idiac barrabilac hantuac dituenian s. _____	p.41
Idiaren adarra arrailatua sendatceco _____	p.42
Idiac beguiac hantuac dituenian s. _____	p.43
Idiac beguiac churia duenian s. _____	p.44
Idi begui nigartua sendatceco _____	p.45
Idiaren zaragarra edo hasteria s. _____	p.46
Idien beguietaco airen edo colpendaco s. _____	p.46
Mandouac çamarra beguiac duenian s. _____	p.47
(Libertateco cantuac)	
Idiaren larruduren sendatceco _____	p.53
Idia suguiac eta hor errabiatuac aussiquia denian cer eguin behar den _____	p.54
Leissorren eta mando ulien contra cer eguin _____	p.55
Leissorrec mando uliec eta uli chehec ez aussiquitceco erremedioa _____	p.55
Barruquietaric leissorren kassatceco erremedioa _____	p.56
Liburu huntan diren droguen eta belharren expl. _____	p.56

8.

ONDORIOAK

Ohitura da beti on uneak erakustea lehenik eta *in cauda uenenum* azkenik akatsak. Hemen alderantziz egingo dugu, gure hizkuntzaren logika “alderantzizkoari” omenaldi egiteko.

Liburuaren eta liburukien akatsak?

1. Maiz eritasunen, *gaixotasunen ezaugarririk* batere ez daukagu, beharbada egileak baserritarrek zertxobait zekitela gaitz horietaz Dassanzak uste zuelako. Eta askotan aski argiak dira motzak izan arren.

2. Maiz sendagaiaren *kopuru zehatzik ez* da ematen, bakarrik dakigu batzuetan? gauza erosientzat? zenbat ontza behar den baina etxeko, baratzetako eta oihaneko sendabelarrentzat ez zaigu esaten “guti bat” arriskutsua gerta daitekeenean. Egia da Dassanza landare drogista, kimikari drogista eta botikaria dela dionean: «gure etxera eroatera» gomitatzen ditu abeltzainak. Bakarrik likidoen neurketan zehatza da, ‘pinterdi bat’, ‘laurden bat’ eta abar. Urrunago ikusiko dugu sendabideen iraupenaz nola dabilen.

3. Maizegi aholkatzen da *odol ateratzea* baina modan zegoen orain antibiotikoak edo homeopatia legez; maiz larregi esaten da odola atera behar dela. Egia da denbora berean “*odol guti bat*” kendu behar dela idazten duela *beti* eta odol-zain nagusirik igarotzen ez den lekuetatik: ‘bekokitik’, ‘belarritik’, ‘mihi azpitik’, ‘isats edo buztanpetik’. Kasu horietan talka zainik ez delako eta kapi-lar batzuk baizik hunkitzen eta kaltetzen ez direlako: odolaren ateratzea ez da odol hustuketa bat. Garaiko sendakuntzan odol ateratzearen mugak ikuskizun zitezkeen: sarriegi eginaz odol ateratzeak gaixoaren heriotza baitzekarkien⁵¹².

⁵¹² Hala hil omen zen Luis XIV.a Frantziakoa.

4. Maizegi ere aipatzen zaigu *Constantinopolitana*, baina sendakuntzara hurbildu denak badaki, nahiz jendeen nahiz abereen faboretan egiten diren liburuak, publizitateak ordaintzen dituela eta ez direla denak jakintza liburuak, baina eurek ordaindu dutenez gero liburua, beren sendagaien eta salgaien aipamena egin ohi dutela.

Triaga teriaka ere XIX. mendean desagertu da, baina Europa guztian oso erabilia zen XVII. eta XVIII. mendeetan.

Gaitzen izenak beti euskaraz emanak baldin badira, bospasei landare beren *frantses izen* itzuli gabekoan agertzen dira. (Gluteron, hellebore, iris, lupin, nerprun, vesse)

5. Daranatzek aipatzen duen *sineskerietatik, bi baizik ez dugu aurkitu* “astoa-
ren arnas ongi egilea”, eta begizkoa, Constantinopolitana “xarma guziak sendatzen dituenak”. Gaur, oster, geuk ustekeria gehiago dugu osasun gauzetan hasirik horoskopoarekin eta jarraikiz ez dakit zer ilargi, zer haize, zer janari, zer edari erabili sendatzeko⁵¹³.

Abeltzainen munduan *liburu honetan aipatu ez dena* eta bizirik dagoena da arditegi batean aker baten edukitzeak kutsadurak mikrobioak urruntzen dituela (gu bezalako mikrobioak bai ziurrik).

Jakina, liburu hau ez da goi jakintzazkoa, baina halere ez da hain txarra nekazari eskola gutikoen eskuetan. Gainera, horko sendagailu eta sendabide asko oraindik erabiltzen dira nahiz azkarragorik, lasterragorik dakigun egiten.

Akatsak bai baditu, baina hemendik ehun urte gure gaurko adituek idatzi lanak irakurtzean ez ote dute berdin irribarretxo izango XXI. eta XXII. mendeetako irakurleek? Denborak ez du epaitzen, baztertzen baizik. Egungo egia, biharko okerra? Eta liburuxka honen zatiak birkonpontzen eta irakurtzen ari nintzela, gogoan edukitzen nuen nire inguruko baserri guztietan ez direla XVII. mendeko liburuxka horretan eskaini abeltzaintza baldintza sano batzuk orain ere betetzen.

Zerk egin dion liburuxka honen ospari kalte?

Guztien gainetik liburu hau abeltzainek hain erabilia izan arren eskolatuek deskubritu dutenean gaitzetsia izan da, alde batetik bere egiturarengatik. Bes-

⁵¹³ Whiskia bihotzarentzat, Coca-Cola disenteriarentzat, okelarik ez jatea, barazkirik edo egoskaririk ez jatea, bost berdura eta fruta egunean eta beste. Hurrengo gizaldiek izango dute non irri eta barre egin gurekin, baina batzuetan ere zer ikas.

tetik, idazki hau XX. gizaldi honen hasierako jakintza garailekeria begiz ikusi delako eta ez bere mendeko soarekin. Ondikotz, lehen aipatu gure eliteak ditu egiten lurrean aintzak eta zeruetan zebiltzalako gure eskolatuak, holako lan apalen irakurtzera eta aztertzeraz ez ziren jaitsizale.

Lehen akatsa izan da, kalitatea izan behar zukeena *berrikoa* izatea alegia, nekazariak erabili dutela eta erabili zutela; baina gure gizaldiraino kritikek ez dute galdera egin: ba ote zen —erdaraz ere— XIX. gizaldi azkeneraino liburu hoberik? Salgairik? Gero, ba ote zen laboraririk aski eskolaturik gehiagoren ulertzeko nekazaritzako eskolak geroago sortzen direnean bai (1890. urtetik goiti).

Bigarrenik, idazlanak baizik ez direlako aurkitu eta ez irarritakorik, horrek al dio gure *intelligencia* delakoari susmoa sortu? Badakigu tamalez zer izan den euskal idatziaren patua. Elizaz kanpo nor ote zuen euskal liburuaren axolarik eta Eliza ez zen nor albaitaritzaz liburuak idazteko eta argitaratzeko? Gure Biltzar tristeak izan ez bagenitu eta gero gure elite erdaltzaleak, euskaltzale larrrua ipintzen duenean ere, erdaraz idazle direnak, bai liburu gehiago eta apika hobeak egingo ziren?

Hirugarrenik, errezeta moduan emateak gure garaiko bitxi iruditzen zaie batzuei, baina “gutxi aditu” horiek goi mailako, goi jakintzazko baita hizkuntza jaso eta hermetikoz idatzitakoak ere miresten dituzte: nekazariarentzat holakoak hieroglifikoak. Oraino ere praktikatzaileek “errezeta liburu teknikoak” erosten dituzte beren akats guztiekin.

Laugarrenik, ezertan gai horietan trebatu edo ikasiak ez ziren jende batzuek liburu honi anatema bota egin diote.

Bosgarrenik, naski liburu egokitua, erdi itzulia da, baita batzuetan erremedio saltzeko egina, gaurko asko bezala. Gaurko sendakuntzazko aldizkariak ez al dira hala sendagailu egileek ordainduak eta haien aipamenez kutsatuak?

Dassanzaren liburuxkaren on uneak?

Liburuxkaren on uneak itzuli behar ditugu jatorrizko frantses iturriari baina konparatzen delarik XVII. mendean zenbat ustekeria eta astakeria korritzen den jende sendakuntzan, ikusten da abereek, orduan, zori hobea zeukatela.

Saiatu naiz, sendagailuen kimika gaiak aztertuz eta gaurko erabilerarekin hurbilduz erakusten zer zen errezeta horien balioa. Estatistika egiteko astirik ez badut izan ere, maiz esan dut *sendagailu onak* iraunkorrek edo arinak eta ez kaltegarriak eskaintzen zirela, hor.

Bigarrenik, sendabideen *denbora* eta *iraupenean* nahiko zehatzak dira hona bildu ditudan aipamen batzuk:

*hirur goizez
goiz eta arratsez zortzi egunez
bost edo sei egunez
bizpabiru aldiz egunean
zazpi-zortzi egunez*

Beraz, orokorki, liburuaren jakintza maila bere garaiko ona zen oraingo jakituriaz ertaina dela genioke. Oraingoarekin alderatuz sendagailu sendagoak lasterragoak eskaintzen ditugulako, baina orduko osagai asko sartzen dira gure oraingoetan. Neronek nekazari arloan edo medikuntza praktika txikian ikusi edo erabili izan ditut, hor agertzen diren erremedio zenbait. Gainera, iturriek eta Dassanzak eta kopiatazaileek dakite errezeta horiek ez direla mirarizkoak, aitortzen dutelako ez direla abereak beti sendatzen.

Garai haietan al baitari bakanak ez ziren erraz korritzen eta gutxitan deitzen ziren, beraz, nolabait abeltzainak atondu behar zuen eta Lapurdin, hamazazpigarren mendean izurritea izan zenean, jendea jakituriaz axolatu zen. Horko errezetak ezer baino hobeak ziren, *osagai gebienak* maiz abeltzainen *eskupean* zirelako. (Nire mendiko etxe inguruan ehun metrotan, baratzean, berrogei bat sendabelar eta senda-barazki aurkitu nituen, erabil litezkeenak eta batzuk erabili nituenak).

On uneen artean ez dugu aurkitzen *aztikeria* bat baizik: gaitzen iturri bezala aipatzea begizkoa, adur txarra edo holakorik, nahiz gaitz baten izenean “xar-madura” gelditu den, Amikuzekoak baztertzen duena.

Higienea da, agian, puntu “garbiena” bilduma guztian: ur beroarekin lekuen garbitzea, eta ukuiluetan sufre erretzea, minen garbitzea, minen gantzugailuez, gantzez, eta «olio jinebreaz» babestea, eulien urruntzea, belar zaharraz ez fidatzea eta beste.

Eritasunen zerrenda errezeta zenbakiekin

Almaketako mina (sarkutz mina)	: 22.
Hats labur (arnas hestu)	: 21
Aztapar kolpatu (apatx, atzapar)	: 30
Ausigi (suge, zakur haginkada)	: 38
Azazkal erortze	: 39
Aztal eta behatzetako min	: 29
Barrabil handitua	: 31
Begi hantura	: 33
Begi negartia	: 35
Bihoztarre	: 3
Biriketako arrengurak	: 18
Bizkarmin (errainetako min)	: 15
Erortzeko mina	: 8
Euli, liztorrrak	: 40, 41, 42
Ezin pixa	: 11
Eztula	: 20
Gatar (zañar, galtzar)	: 9
Giltzurin min (errainetako min)	: 16
Golarde (lepamin)	: 24
Handitsua	: 27
Harri	: 12
Hesteak galtzen	: 19
Irenste (aberexka, zomorro)	: 26
Kolika	: 4
Lankar (idi marteilu)	: 2
Larrudura (ultzera)	: 37
Lupu	: 23
Mihi azpi hantura (mingain min)	: 14
Odolez pixa (hematuria)	: 10
Oinaze eta nekadura	: 17
Pitxo gogortu (zakil gogortu)	: 13)
Sabel hantu	: 25
Sabel min	: 5
Sabeltasun (sabeldario, beherazko)	: 7
Sukar	: 1
Xarmadura	: 6
Zango handitu	: 28
Zaragar	: 43, 36

Sendabelarren zerrenda.

Sendagailuak oraingo hiztegi batekin ikertuta sendabelar gehienak oraindik erabiliak direla konturatu naiz, ez abereekin bakarrik, jendeekin ere. Hona botikari eta belar dendek saltzen dituzten eta oraindik baliagarri diren, erre-zeta horietan agertzen diren berrogeita hamar sendabelarrak.

- Allium cepa* L. Tipula.
Allium sativum (L.) Baratxuria (berakatz).
Allium porrum (L.) Porrúa.
Althaea officinalis (L.) Malba zuria.
Aloes ferox (Mill.) Aloea.
Anethum foeniculum (L.) Milura min? Mihola?
/ *Cbrithmum maritimum* (L.) Milu marin? (Itsas mihilua).
Anthemis nobilis (L.) Kamamila edatekoa.
edo *Matricaria camomilla* (L.) Kamamila.
Apium graveolens (L.) Apioa.
Artemisia vulgaris (L.) Artemisia.
Capsicum annuum (L.) Piperra.
Caryophyllus aromatica (L.) Iltze espezia.
(*Eugenia caryophyllata* (Thumb)).
Crocus sativus (L.) Azafraia.
Cucumis melo (L.) Meloia.
Commiphora sp. (L.)/ *Balsamodendron mirrha* Nees. Mirra.
Cupressus sempervirens (L.) Altzifrea. Zipresa.
Equisetum arvense (L.) Zamari buztana, Azeri buztana.
Ficus carica (L.) Pikondoa (piko pasarengatik).
Fraxinus excelsior (L.) Lizarra.
Helleborus niger (L.) Ahuntzkornoa, Otsobaba.
Hordeum vulgare (L.) Garagarra.
Hysopus officinalis (L.) Isopa, Isipua, Ihiztailua.
Iris florentina (L.) Iris. Lirioa, Atso lorea. San Jose lorea.
Juniperus sabina (L.) Sabina zuria (Intsensu sabina).
Juniperus communis (L.) Orrea.
Juniperus oxycedrus (L.) Hego ipurua (olio emailea).
Laurus nobilis (L.) Erramua, Ereinetza.
Linum angustifolium (Huds.) Lihoa, linazi emailea).
Lotus corniculatus (L.) Usobelarra, urribelarra.
Lupinus albus (L.) Lupina, Eskuzuria.

Malva silvestris (L.) Malba.
Marjorana origanum (L.) Maiorana, Oreganoa.
(Origanum vulgare (L.).
Marrubium vulgare (L.) Marrubium.
Matricaria recutita/ M. chamomila (L.) Kamamila.
Mentha piperita (L.) Mendafina.
Mentha pulegium (L.) Kukuso belarra, Menta poleoa.
Olea europaea (L.) Oliba.
Parietaria officinalis (L.) Andre Dena Maria lorea.
Pinus sp. Pinu eta leherrak (erretxinarengatik).
Plantago major (L.) Plantaina.
Quercus sp. (kalitx emalea) Haritza.
Rhamnus cathartica (L.) Hesilaharra.
Rosa canina (L.) Mairuarrosa, horarrosa, arkakaratsa.
Rosmarinus officinalis (L.) Erremulea, erromeroa.
Ruta graveolens (L.) Arruda.
Sambucus nigra (L.) Sabuka, intsusa beltza.
Succisa praemorsa (Gibb.).
(Scabiosa morsus diabolus (L.).
Urtica dioica (L.) Asuna.
Viscia lathyris (L.) Zalkea.
Vervena officinalis (L.) Berberina.
Vitis vinifera (L.) Mahatsa.
Xanthium strumarium (L.) Gloteron.

Sendabelar zerrendan denak ez dira belar, bada zuhamu (Ereinotza, Mahatsa) zuhaixka (Ipurua, Sabina, Hesilaharra) eta zuhaitza (Haritza, Lizarra, Olibondoa, Lerra/Pinua).

Geuk, behintzat, sendabelar onez kanpo, orain erabiltzen diren “hartzailleak” escipiente delakoak, aipatzen eta baliatzen ikusi ditugu: alkoholato (ardoak), hidrolato (urak), gantzugailu (gantz eta urinak) eta irinak (garagar irina, ogi mamia, ogi nostraia).

Bestalde ez dugu irakurri sendagailu bortitzegi eta sendoegiren eskaintzarik. Errespetatu dira barne-sendagailu eta kanpoko sendagailu bereizkuntzak, sendagaiak nahasi gabe.

Irakurketa zailtasun batzuek errezeta bakan baten baliagarritasuna kendu badute, gehienetan aski argi eta zehatz dira azalpenak. Beraz bere xumean eta bere xedeetan egoki ibiltzen jakin zuen Dassanzak.

Eta gure biarnes auzoek, zer?

Auzo herri ditugun Gaskoi eta Biarnok maiz zenbait ehun hitz haien okzitanieratik mailegatu ditugulakoan -uste dute eta idazten dute batzuek- euskaldunok basatiak ginela (foruak, hirigintza, etxegintza literatur dena haiei zor genukeela Gasteizen eta Pauen okzitanier unibertsitariei entzun diet).

Hain zuzen biarnesei Dassanzaren liburu hau aipatu nienean erantzun zidaten ziurrik beren “manuscrits Lacrique” delakoarekin zerikusia izango zuela. Baina haiena argitaratu zenez geroz *La Tradition médicale en Gascogne* izenburuarekin, *Reclams*-en babespean Pauen 1989. urtean erakutsiko dugu, ezetz.

Zoritzarrez, biarnesen eskuizkribuak XVIII. gizaldikoak dira, beraz, beranduagokoak. Bazitekeen, ordea, kopia zaharragorik, izan ere herri literaturan urte egun baten finkatzea oso zaila delako lekukotasun nagusirik gabe. Azkenean *Reclams* okzitanierazko aldizkariak, «biarnes liburu miragarria» argitaratu zuen eta hau harridura! Hau atzipea!

1. Eskuizkribua, *ez dago* herriko *okzitanieraz*, baina frantsesez eta sarri, frantsesaren jabe ez den baserritar batek egina eta hori, garai hartan, okzitaniera Biarnoko administrazioaren mintzaira zelarik.
2. Gaitzen ezaugarriak aski luzaro azalduak bazaizkigu ere sendagailuek ez dute ezer ikusteko gure euskal liburuan aurkitzen direnekin ez eta *Maison Rustique*-koekin eta oso motz, lauso, *ilun* gelditzen dira. Iruzkin egileek maiz zer gaitz mota den aipatua ezagutzen ez dutelarik.
3. Biarnes liburu honen ekarpenak dira.
 - Lehenik, hamarren bat gaitzentzat biarnes izen berezia eta jatorrizkoa ematen duela.
 - Bigarrenik, Antzinateko *ustekeria*, *sineskeria*, *sasi otoitz* bilduma delako, etnografiaren aldetik jakingarria da.
 - Hirugarrenik, batzuetan, albaitaritzza herrikoia eta sineskorra bildu delako.
 - Laugarrenik, lan honen iruzkin egileek benetako sendagailu eta argitaratzaileek diote sendabideak mende hartan albaitariak eta garai hartako frantses administraritzak argitaratu aholku bilduma kopiak direla. Harritzekoa!!!

Horretan amaitzen dira haren berezitasunak.

Gaskoi eskuizkribuak hogeitaz gaitz baizik ez ditu aipatzen (gureak 43) eta haien artean Dassanzak ere aipatzen dituen hamar bat soilik. *Manuscrits Lacrique* delako errezetak irakurri ondoren ez dut aurkitu bat euskal liburuarekin zerikusia duenik: beraz, egileak aitortu iturriak jadanik hasieran erakutsi eran

onartu behar ditugu. Biarnesek egin ikerketa lana talde lana da eta astia izan dute, baserritarrei galderak eginaz beren errezetak bizirik zirautela erakusteko, baita Dassanzarenak ere -erakutsi bainizkien- Euskal Herrian gureek irauten dutela ere eta haienak ez.

Dassanzaren liburuak jakintza liburu itxura dauka, nahiz oso apalki, he-dapenezko eta egunoroko jakituria eskaintzen digun, ezen egileak iturri onak hartu zituen eta ez gaineratu aztikeriazko edo fantasiako sendabiderik.

Euskaldun, abeltzainen ulermena eta ekarpena.

Euskal bildumaren kopiatzaileak abeltzain izanik jakingarria da zenbateraino ulertu egin zituzten XVI. mendeko idazki horiek. Uste dugu lau idazkietarik hiru nekazarien eskuetan egon direla (Amikuzekoa, Baigorrikoa, Zuberoakoa), eta laugarrena XIX. mendean Donibane Garaziko eskola batean euskaraz irakasteko erabili dela.

Kopia egile bakoitza aldatzaile izan da eta bere jakituriaren arabera errezeta bat kendu edo gaineratu edo aldatuxe du. Aldaketa horiek beren zio eta tasunak dituzte: batzuetan jatorrizko donibandar euskara bereizia ulertu ez zutelako, oker ulertu zutelako edo errezetarekin dudatuz beste zerbait ipini. Noski zuberera lapurteratik urrunena izanik horrek dituzke iluntasun gehienak.

Bestalde, badakigu duela hogeit bat urte arte bazirela albaitaritzan aholkulari eta sendalari ziren abeltzainak eta horien eskuetan, hizkuntza batean edo bestean, batzuetan, idazkiak zeudela. Zoritzarrez ez genuen Barkoxeko Castillon ospetsua ezagutu. Ikus ditzagun aldaera nagusi batzuk:

Lehen adibidea. Donibaneko euskaran bikeari, alkitranari, alkatrena zeritzon (gazteleratik hurbilena), Baigorrikoan alastrena irakurri da, Barkoxekoak aleatrena kopiatu, baina Garazikoak askotan lapurteratik hurbilena alcakerena

(«e» en ordez «c», «tr» en ordez, «k» irakurri luke?).

Bigarren adibidea. Garazikoak: heleboro, Amikuzekoak: helchorom (?)

Hirugarren adibidea. Garazikoak lapurterazko *safran* ematen du, baina barnealdean ez baitakite zer den beste hirurek, Amikuze, Baigorri eta Zuberoak: *sufre*.

Laurgarren adibidea. (Iturri desberdinez?)

Garazik eta Baigorrik: kataplasma

Amikuze eta Zuberoak: enplastü

Zuberotar idazkiaren aldaerak.

Barkoxe Peillenko idazkiak ez ditu gehienetan eritasunak, minak, gaitzak azaltzen haien izena aski balitz bezala; errezetak bakarrik biltzen. Gaizki ulertuez kanpo bere xehetasunak eta bere jakituriazko gehigarri jakingarriak ematen dizkigu. Prefosta, lapurteratik urrunena da eta lapurtera ez du beti ulertu.

Gehigarriak

6. errezeta: Besteek «gatz larri» idazten dutenean barkoxtarrak «neffar gatz larri» ematen digu.
9. errezeta: «idi gatarraz» besteek enplastua hauts beroz eta ardo ahetez egiten dutelarik, Barkoxekoak «linoazi» klasikoz.
10. errezeta: «idiak odolaz txis egiten duenean» «safran» aren ordeaz «so-frea».
11. errezeta: «ezin txiz egiteaz» Idiarentzat edariagatik «süian epeltürük amoderatüki» gaineratzen du.
15. errezeta: «idi eroria» «Gerrentzea ere josia date(ke)». Neronek, auzoan, 2002. urteko uztailean Santa Garazin bigai batean kasu hori ikusi dugu.
Errezeta berdinean, beste guztien gisa idazten du «zointan ezin heda baitizakete zangoa» eta gaineratzen du «edo hedatürük badütü ezin bil baitizatke»
14. errezeta: «mihiondoa hanturik» gehitzen du: «goizean orhe altxatutik idiari jatera eman behar zaiola».
23. errezeta: «idi hantua»
Besteek diote sabela haga batez igurtzi behar zaiola eta zuberotarrak zehazkiago gehitzen «barra batez bigek (bi jendeek) barraren bi bürüetarik lotürük sabela ontsa berek izozü.»
28. errezeta: «zango hantua edo ankako mina» Barkoxekoak xehetasun horiek gaineratzen ditu «Eta gero ezar ezazü oihal edo larrü batetan enplastü hori».
31. errezeta: «Barabilak hanturik».
Besteek zakur baten gibelmina erabili behar dela idatzi dute, Barkoxekoak praktikoago, zakur bat ez delako urtero hiltzen, txerriarena «urde baten gibelmina».
33. errezeta: «begi hantua» gehitzen du «begi üngürria urinez gantzütü behar dela».
35. errezeta: Begi negartua Bestek enplastua urez egiten badute zuberotarrak «ardo xuriz».
(XIX. mendeko eskuz, lupuaren beste errezeta bat ematen du Barkoxekoak, besteetan ez dena)

Kenketak

12. errezeta: «oinhaze» hitza ez du ulertzen eta aipamena kentzen.
 15. errezeta: «gernu» hitza ez du ulertzen eta kentzen du.
 20. errezeta: «armoise» artemisia landarearen izena ez du ulertzen, kentzen.

Gaizki ulertuak

13. errezeta: «zakil gogortua»
 Errezeta hasieran «bere natura» *beretidura* irakurri du baina ondotik bigarren agerpenean ongi «bere natura» hala erraten baita orain ere.
 14. errezeta: «mihi ondoa hanturik»
 Gatz «gay» zubererazko gau irakurtzen du eta «zombait gatz bihi jatera ordezt» zombait gayez (gauetz) bihi (ale) jatera».
 18. errezeta: “biriketako mina”
 Zubereraz ez da «birika» hitza ezaguna «gibel-errai» esaten zaio, erronkarieraz bezala. Ez ulertuz, behin «litiketa»(?), bigarrenik «dirisketa» idazten du, errezeta baliogabetuz.
 22. errezeta: «almaketako mina»
 Mina zer den ulertzen du, «oinacea «ez, «ornaua» irakurtzen du.
 27. errezeta: Gernu zer den ulertu al du «urina» (orina?) idazten duenean?

Baigorrikoa

Besteekin erkatuz berezko ekarpenik batere ez eta akats gehienik daukana. Inprimatu zenean zuzendu gabea lehen argitalpenean eta RIEVen oharririk gabe errepikatu ziren.

Gaizki irakurriak

5. errezeta: «idiaren sabelmina»
briga, triaga hitzaren ordezt
 6. errezeta: «dia xarmaduraz»errezeta
camarmilla camamilla ordezt
Pecaccius, Pedocinesen ordezt
 7. errezeta: «sabeltasuna»
 Singularean hasi eta pluralean bukatu: «uchada edo *sabeltasuna* sendatu behar *diren* (sic)».
planturik, plantainik-en ordezt

- lazter*, *laster-en* ordez
salboin, *sabina-ren* ordez
milla marin, *milura min-en* ordez
12. errezeta: «harria»
sasoin berean, *fazoin berean-en* ordez
15. errezeta: «errainetako mina»
ur clairian, frantsesezko «*claire*» galizismoa
20. errezeta: «*eztulaz*»
ogi nertroiarekin, *ogi nostraiarekin* ordez
urmaiza, *artemisiaren* ordez
amiron, *almidonaren* ordez
25. errezeta: «*Idi hantua*» *Naya* (?), *haga-ren* ordez
26. errezeta: «*Aberexkak*» *Zeinbat*, *zenbait-en* ordez
28. errezeta: «*zango handitua*»
osto sauca, *sauca osto-ren* ordez
30. errezeta: «*Atzapar kolpatua*»
kontinatu (?) *kontinua*, *aginteraren* ordez
31. errezeta: «*Barabil handitua*»
gantz gisaz, *gantz gezaz-ren* ordez
azki, *aski-ren* ordez
34. errezeta
balea gazna, *balea gantza-ren* ordez (nork biltzen ote zuen baleen esnea, gazta edo gasna egiteko?)
39. errezeta: «*Azazkala erortzen*».
aloes matic, *aloes martic-en* ordez
41. errezeta
azki, *aski-ren* ordez
guruza (?), *gerusa/kerusa-ren* ordez⁵¹⁴

⁵¹⁴ Ojala ez dadila nire argitalpenean horrenbeste akats sar!

Amikuzekoa

Honek du huts gutxienik eta hobekienik ematen latinezko eta frantsesezko izenak: Camomilla, Cinhorrodon, Gluteron, Marrubium, Morsus diabolus, Plantain, Pulegium eta beste.

- 7. errezeta: «idiaren sabeltasuna»
Ezürretan, isurietan behar luke beste hiruretan bezala
 - 20. errezeta: *arthamiña*, artemisiaren orde
 - 24. errezeta: *helchorom*, heleboro orde
- Idazki honi «begi nigartuen» errezeta falta zaio.

Garazikoak

Lapurteratik hurbilena dagoena eta akats zenbait dituen.

- 6. errezeta: «Idien xarmaduraz»
bagatzen, hargaltzen-en orde
Cedacicus, Pedocines-en orde.
- 10. errezeta
trigada, triaga-ren orde.
- 24. errezeta: «Idiaren golardoa»
Gaizki irakurri du *abcestilduma*, abces bilduma zena?
- 29. errezeta: Ez du «eskarifikatuko» ulertu eta «*sakrifikatuko*» idatzi.
- 34. errezeta: Balea gantza ez baitzen Donibanetik urrun ezaguna, *balea garrbaren* (?) irakurri du garaztarrak.
- 38. errezeta: *Cinarthodon*, cinnorhodon, hor arrosa landarearentzat.

Eta oraingo abeltzainek, zer?

Egia da gure garaiak ere hor gehiegikeriak ezagutu dituela txahalen, eta idien gizenarazteko leku aseptikoetan, antibiotikoz beterik edukitzea, Gero jendeek okela jaten zutenean, antibiotiko horien eraginkortasuna hautsia zen, mikrobio sendoak salbatu eta aukeratu ziren, argalak hil. Jakina gorputzak mikrobio erasoei bihurtzen, irauten jakin behar du eta horretarako kontaktua izan.

Denbora berean, mende honen azkenean gaixotasunak harrapatzen dira. Frantziako ospitaleetan higie ezaz. Eta abereekin, zer? Guk XVII. mendeko errezetez irri egin dugu eta jadanik, zorionez, gure mendeko akatsak ikusten hasi. Errezeta emaileak ez du agintzen sendatzea hori izaki banakoari loturik dago, izaki bakoitzak bere bizi nortasuna duelako.

Sendakuntzan maiz, izakia makina dela liburuetan irudikatzen den legean ibiltzen dena, eta behar lukeena uste izan da eta hori Descartes biologo ez zenaz geroztik eta haren idazkiengatik. Jendeez esan dena abereez esan daiteke, alegia ez dela gaixotasunik, eritasunik, gaixoak, eriak baizik. Lau patadun abereekin ordea gauzak zailago edo errazago dira mutuak direlako.

Horregatik, Dassanzaren liburuxka horretan –teoria baino lehen idatzian– praktika duda-mudak askotan agertzen dira. Eskaintza erdi sendo baten aurretik Dassanzak dio “batzuk egiten dute”, “besteek egiten dut” zalantzazkoak anitzetan iradokizun hutsak dira; kasu horietan ez du aditzik agintaldian erabiltzen.

Gaur zein abeltzain gai litzateke duela ehun urte egiten ziren etxe sendagailuen egiteko? Albaitari barik, marexal gabe? Galduak asko. Hau al da aurrerapena, aitzinapena abere sendakuntza nahaspilatu eta zailegian? Geroko mendeetan, agian, gauzen errazki egiten ikasiko dute eta berdin gutaz irriñoa ezpainetan oroituko.

Gaurko abeltzainek bizpahiru hazkuntza motaren eskaintzak dituzte, baina denek “Egin beharreko kartila” daukate, higie aldetik, janari eta bazka moten aldetik eta txertoen aldetik. Kalitatea bilatzen duenak “abere liburu” batean bere patadunak erregistroan matrikula ditzake eta orduan jakiten da abereak “nor” diren: orduan jarraitzen dira genealogiak baldin abereak aita eta ama hautatuak baditu.

Aldiz, Dassanzaren liburuxka inprimatu zenez ala ez, ez dakigu. Erabili zela, bai. Ezagutzen ditugun eskuizkribuen hutsek, beste eskuizkribuen irakurketa salatzen dute, ez liburu batena. Ardien gaitzez ari zen zatia abiatu zen, urrendu al zen?

Daranatzek dio beste liburu lodiagoa eta ez hobe (?!) ikusi duela, baina zer hizkuntzatan? Zergatik ez digu hura ere eman eta ez *Curiosités* edo kanpotarren jostailu hartuz, Dassanzarena bakarrik argitaratu? Bestalde, ba al da Iparraldean hainbeste jende gisa horretako liburu hobe euskaraz egin duenik? Ez anitz. Gainera badakigu oraingo abeltzainen bileretan, eskoletan euskarak ez duela leku handirik.

Egun batez agian beste norbaitek egin dudana bidea baldintza hobetan, onenetan emango du eta oxala liburuxka hortaz idatzi ditudanak hobetuko eta akatsak zuzenduko! Hala balitz.

BIBLIOGRAFIA LABURRA

- D'Assance, M. & Daranatz, 1908, << Un vétérinaire basque du XVIIe siècle >>, in *Curiosités du Pays Basque*, 2 ale, Baiona, 585-600.
- Douglas, W., 1974, A, *Basque ethno-veterinary practices in the Sacramento Valley*. Reno: University of Nevada Press.
- Douglas, W., 1979, A, *Beltran, Basque Sheepman of the American West*. Reno: University of Nevada Press.
- Duvoisin, J., 1978 (1858), *Laborantzako liburua*. Donostia: Hor Dago.
- Etxezarreta, Miren, 1977, *Euskal baserriaren oraina eta geroa*. Oñati: Jakin.
- Gachiteguy-Aguerre, P., 1963, *Laborantza, laborantzatik hobeki bizitzeko*. Iruñea: Ed. Ezkila.
- Leizaola, F., 1977, *Euskaldunak, Artzaingoa I eta II*. Donostia: Etor (36 orrialde ardiez).
- Lurgintza, 1977, *Esne eta haragi sortzearen azterketa Gipuzkoako baserrietan*. Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa.
- Mogel, J.A., 1990 (1956), *Peru Abarka*. Donostia: Euskal Editoreen Elkartea - Klasikoak.
- Oñatibia, M., 1957, *Baserria dirubidean* (San Francisco Asiseko saria). Donostia: Izarra.

- Ott-Riviere, S., 1984, *A Basque mountain community: Sainte-Engrâce*. Oxford: Clarindon Press.
- Peillen, J. eta Tx., 1957, <<Xuberoan Artzain>>, in *Anuario de Eusko-Folklore*, II.
- Peillen, J. eta Tx., 1965, <<L'élevage ovin en Pays de Soule>>, in *Bulletin du Musée Basque*, Baiona, 49-60.
- Peillen, J. (aita), 1967, <<Lehenagoko artzaiñen jakitatia>> in *Bulletin du Musée Basque*, 1967-4, 38. zk., 145-172.
- Peillen, Tx., 1972, <<Recueil de Recettes vétérinaires Jaureguierry>>, in *Bulletin du Musée Basque*, Baiona, 57. zk. 113-144.
- Taldea, 1989, *La tradition médicale en Gascogne*. Pau: Reclams argitaldaria (izenburuak ez du ematen abere sendakuntzaz dela).
- Videgain, X., 1989, *Le vocabulaire de l'élevage en Oztibarre*. Bordelen irakurritako tesia.
- Videgain, X., 1991, "Le vocabulaire de l'élevage en Oztibarre" (tesi laburpena) in *Bulletin du Musée Basque* 131. Baiona.
- Videgain, X., 1991, <<Umeak egiten ez duen kabalearen izendapenaz>> in *Iker* 7. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Zelaieta, A., 1978, *Peru Abarkaren berrirakurtzea*. Donostia: Luis Haranburu editorea.

